

I. LIBURUKIA

ARARTEKOAREN TXOSTENA
EUSKO LEGEBILTZARRARI
1991. URTEA

© ARARTEKO

Fotokonposaketa eta inprimaketa: Estudios Gráficos ZURE, S.A.
Papel erreziklatua.

I.S.B.N.: 84-87122-34-5. Liburu Osoa.

I.S.B.N.: 84-87122-35-3. I Liburua.

L.G.: BI-1192-92.

L.G.: BI-1193-92.



I LIBURUKIA

EUSKO LEGEBILTZARRARI
TXOSTENA
1991



AURKIBIDEA

I. ATALA. ARARTEKOAREN AURKEZPENA	13
II. ATALA. ARARTEKOAREN IHARDUERA NAGUSIAK	19
2.1. ERAKUNDEAREN EKINTZAK EGUNEZ EGUN ZERRENDATUAK	21
2.2. ARARTEKO ERAKUNDEA ETA KOMUNIKABIDEAK	32
2.3. ERAKUNDEAREN EKINTZA NAGUSIEN IRUZKINA	34
Herri-Defendatzaileen VI. Jardunaldiak	34
Adin gutxikoen nazioarteko urtea	35
Arartekoak Europako Ombudsmanek Florentzian eginiko bazarrean parte hartu zuen	36
Erakundeak Ombudsmanaren Latinamerikako Institutuaren III Nazioarteko Jardunaldietan parte hartu zuen	37
Partaidetza guneen bidez hiritarren eta Administrazio publikoaren arteko auzien aurrebideratzeari buruzko jardunaldiak 1991/92rako bi kolaborazio beka banatzeko deialdia	37 38
2.4. OFIZIOZKO JARDUERAK	39
III. ATALA. KEXEN LABURPENA SAILEN ARABERA	51
3.1. NEKAZARITZA, INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMOA	54
A) Sarrera	54
B) Kexen aukeraketa	55
3.2. KULTURA ETA ELEBITASUNA	59
A) Sarrera	59
B) Kexen aukeraketa	59
3.3. HEZKUNTZA	61
A) Sarrera	61
B) Kexen aukeraketa	62

3.4.	FUNTZIO PUBLIKOA ETA ADMINISTRAZIOAREN ANTO-LAKUNTZA	72
	A) Sarrera	72
	B) Kexen aukeraketa	74
3.5.	OGASUNA	88
	A) Sarrera	88
	B) Kexen aukeraketa	89
3.6.	HERRIZAINGOA	97
	A) Sarrera	97
	B) Kexen aukeraketa	98
3.7.	JUSTIZIA	102
	A) Sarrera	102
	B) Kexen aukeraketa	105
3.8.	INGURUGIROA	106
	A) Sarrera	106
	B) Kexen aukeraketa	107
3.9.	HERRI-LANAK ETA ZERBITZUAK	112
	A) Sarrera	112
	B) Kexen aukeraketa	113
3.10.	OSASUNA ETA GIZARTE ONGIZATEA	116
	A) Sarrera	116
	B) Kexen aukeraketa	117
3.11.	LANA ETA GIZARTE SEGURANTZA	127
	A) Sarrera	127
	B) Kexen aukeraketa	128
3.12.	HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA	129
	A) Sarrera	129
	B) Kexen aukeraketa	130
3.13.	ERA GUZTIETAKO GESTIOAK	141
	A) Sarrera	141
	B) Kexen aukeraketa	141
IV. ATALA. ESTADISTIKA	145	
4.1.	OHAR OROKORRAK	147
4.2.	ESTADISTIKA KONPARATUA	149
4.3.	JASOTAKO KEXAK ADMINISTRAZIOEN ARABERA	151
4.4.	SAILEN ARABERAKO ESTADISTIKA	155

4.5.	LURRALDEEN ARABERAKO SAILKAPENA	159
4.6.	PROZEDURARI BURUZKO ESTADISTIKA	161
4.7.	ESTADISTIKA SOZIOLOGIKOA	164
4.8.	HIRITARRARENTZAKO INFORMAZIO ZERBITZUAREN ESTADISTIKA	165
4.9.	DIAGRAMAK	172
V.	ATALA. ADMINISTRAZIOAREN SAIL BATZUEK JARRITAKO ERRESISTENTZIA ETA ERAGOZPENAK ARGITASUNAK EPEAREN BARRUAN EMATEKO BEHARRARI	209
	A) Eusko Jaurjaritza	211
	B) Foru Aldundiak	216
	C) Udalak	218
VI.	ATALA. ARARTEKOAK EGINDAKO EBAZPENAK BETETZEAZ	223
	A) Eusko Jaurjaritza	225
	B) Foru Aldundiak	229
	C) Udalak	230
	D) Euskal Herriko Autonomi Komunitateko Hauteskunde Batzarra	234
VII.	ATALA. GOMENDIO ETA IRADOKIZUNAK	235
7.1.	HIZKUNTZ EREDUA HALAKO IKASTEGI PUBLIKO BATEAN AUKERATZEKO ESKUBIDEA ETA BERDINTASUNERAKO ETA HEZKUNTZARAKO ESKUBIDE KONSTITUZIONALAK	237
7.2.	ZERGAK ORDAINERAZTEKO ORDUAN, ADMINISTRAZIOAK ONDASUN HIGIEZINAK EGIAZTATZEAN ZERGADUNAK DITUEN GARANTIAK	248
7.3.	FUNTZIO PUBLIKOA ANTOLATZEKO TRESNAK, ENPLEGU PUBLIKOAREN OINARRIZKO PRINTZIBIOEN BERME	253
7.4.	ADIN GUTXIKOAREN BABESA EUSKAL AUTONOMI KOMUNITATEAREN ESPARRUAN	256
7.5.	INFORMAZIOA JASOTZEKO ESKUBIDEA ETA ALOKERARI BURUZKO POLITIKA BABESTUTAKO ETXEBIZITZETAN	258
7.6.	ESTABLEZIMENDU PUBLIKOETAKO ZARATEN INGURUKO ARAZOARI BURUZKO HURBILKETA JURIDIKOA	262
VIII.	ATALA. AZKEN ONDORIOAK	293

I. ATALA

ARARTEKOAREN AURKEZPENA

Lurraldeak makala da hain herri azkarrentzat. Lekua tipi egiten zaio edukiari. Hara hor — nere uste apalean— gaurko euskaldunak aurrez aurre duen arazorik larriena.

Julio Caro Baroja

Ararteko kargualdiaren erdia burutzean, Erakundearen ekitaldiko hirugarren urte honetan, eginkizun honek eskaintzen didan ikuspegi berezi honetatik hiritarrek Administrazioarekiko dituzken kezkak eta somatzeko, atzera begiratu eta Erakundea sendotzeko poliki poliki egindako bidea ikusten dut.

IBILBIDE HONEN HASIERAN, eskuartearen genuena egitura eta antolakuntza berria eskatzen zuen asmo bat izanik, kontuz ibili beharra zegoen ekintza diferenteen harrapaladak Erakundearen behar bezalako egituratzea behaztopa ez zezan, nahikoa lagun eta baliabide izan arte behintzat. Horregatik, karguari lotuta dauden lanak betetzearekin batera, lan-talde egoki bat eratzea izan zen gure betebeharririk nagusia.

Lan-talde honen osatzeak, erabat gauzatu ez den asmoa bada ere, Ararteko Erakundearen ekintzapidea areagotzea ekarri du. Esan dezakegu kexa-kopurua joan den urtearekiko % 20 batean gehitu dela, eta, halaber, dexente gehiago dela amaitu diren espedienteen kopurua. Datu hauek irakurtzerakoan zenbaki arruntan aurrean gaudela dirudi, baina hori zehaztu beharra dago; batetik, kexa-kopurua gehitzeaz gain hauen tipologia aldatu egin delako, eta bestetik, kexen jatorriari begira, geografikoki hain urrun dauden herrietatik datozeelako, hala nola Getxo, Irun edo Santurtzi, hauexek direlarik biztanle kopuruaren arabera kexa-kopuru handiena lortu duten herriak, eta horrek adierazten du Euskal Herriko bazter guztietan badutela Erakundearen berri.

Hala eta guztiz ere, bide guztiek badute bere behaztopa, eta guk hasitakoa baldintzatzen duena oraingo egoitzaren behin behinekotasuna da, eta horrek dakarren gero eta estutasun handiagoa lan-taldea hazten den heinean.

Arartekoaren anagramak, ordea, argia ikusi du Nestor Basterretxeak berak egindako diseinuaren eskutik. Eusko Legebiltzarraren enbleman oinarrituz, anagramak Arartekoaren autonomia isladatu nahi du, baina berorren ordezkari parlamentariaren izaera ahaztu gabe.

Ikur hauen adierazpenak erakunde demokratikoek sistema autonomikoetan duten lekura garamatzate, elkar-ulerpide berriak eskaintzen duten al-

detik, horiek bait dira Leonardo Sciacia idazle handiak 1988. urtean argitaratu zuen *Ore di Spagna* liburuan eman zituen hitzak, eta hitz haiek sortu zuteneko egoerak baztertzeko bideak: "*Una delle piu gravi gaffes, conversando con un catalano o un basco o una valenciano, e quella di parlare di regione, di regionalismo, di autonomia regionali.*" (Zorigaitzori txarrenetako, katalan, euskaldun edo balentziar batekin mintzatzean, rejio, rejionalismo, rejio autonomiaz hitz egitean datza.)

Edungo ordezkari parlamentarien jatorria bilatzeko beren autonomi estatuetara jo behar bada ere, ezin zaigu ahaztu aintzinako tradizioaren iturrian edaten dutela, eta komeni da hori gogoan hartzea eta aintzinakoen alde onak hartzea.

Horri dagokionez, gogorarazi nahi dut Herri Defendatzaileen VI. Jardunaldietan Aragoiko Justicia Mayor zen Juan de Lanuzari eskaini zitzaion omenaldia hil zuteneko IV. mendeurrenaren ospakizunetan, bere eginkizuna betetzearren erakutsi zuen adorea eta kemenagatik, eskubideen defentsan azaldutako duintasuna adibidetzat har dezakegulakoan.

Gogora ekarri nahi dut orain ere gure etorkia, lehenengo *Eusko Legebiltzarrari Txostena 1989an* Sindiko Prokuradore edo Herriaren Prokuradorearen aipamena egitera eramanez, iraganera jo eta foru garaian Ombudsman baten antzera iharduten zuen pertsonaia aurkitzen bait dugu, eta horrek adierazten du Historiaren garai bakoitzean gizartea egoki eta duintasun osoz garatzeko behar dituen erakundeez osatzen dela.

Gaur, beste haren antzeko pertsonaia historikoa aipatuko dut, eremu zehatzago batean mugitzen bazen ere, XVI eta XVII. mendeetan itxasgizonen kofradiek susperturik gure portuetan funtzionatu zuena, Istruman ize nez ezagutzen zen gizon epailea, marinelen eskubideak aldeztu eta arartekari lanetan jarduten zuen itsas-kontsula. Historiak erakusten dizkigun aitzindari horiek dira Ararteko beraren ekintzapidearen ardatz.

Herri Defendatzaileek beraien eguneroko lanean hutsune handiak antzeman dituzte, araurik eza edo eguneratze premia duten arauak alde batetik, eta zenbait administrazio jokaera aldatzeko beharra bestetik, benetazko Gizarte eta Demokraziako Legeen arauerako Estatu batera hurbilduko bagara.

Horri dagokionez, Ararteko honek antolatu eta Eusko Legebiltzarrean burutu ziren Herri Defendatzaileen VI. Jardunaldietan, Legebiltzar Goikargudun guztiok bat gentozen Administrazio Prozeduraren Legearen berritze beharrean, konstituzio-erizpide berriei jarraiki moldatzeko beharrean, horretara, isiltasun administratiboaren erabilpenaren gehiegikeria eta era honetako gaiak, urtero aurkezten dugun txostenean derrigorrezko mintzagaiak izan ez daitezten. Horren harian, Espainiako Gorte Nagusietan aurkeztu berri den Administrazio Prozeduraren eta Administrazio Publikoen Legezko Eraentzaren Lege-Egitasmoak itxaropentsu agertarazten gaitu, administrazioen eskubideak hobeto aldeztuko dituen prozedura administratiboa lortuko delakoan.

Jakina, ez da hori Espainiako Herri Defendatzaileek izan duten kezka bakarra. Izan ere, adingutxidunen eskubideen eremua Ombudsmanok aztertu beharreko gaia zela ikusirik, Ararteko honek txosten bat prestatu zuen horretaz, jardunaldi haietako lan saioetan luze eta zabal eztabaidatu genuena. Horrezaz gain, adingutxidunen eskubideak oinarritzen diren hamarka-

daz osaturiko poster edo ormairudia plazaratu genuen, Autonomi Komunitateko ikastetxeetan banatu dena, garrantzizkoa bait deritzogu gure gizartearen geroa izango diren oraingo haurrak beren eskubideez jabetzeari; ezaguera hau lagun izango bait dute, zalantzarik gabe, biharko egunean hartu beharko dituzten erantzukizunen aurrean.

Estatuan kide ditugun erakundeekiko elkarkidetza azpimarratzearekin batera, Ararteko honi Finlandiako Ombudsman den Soderman jaunak egin zion bisita ere aipatu behar dugu; Eskandinaviako Ombudsman Erakundea gaurregun kide direnen aitzindari izanik, guztiz aberasgarri gertatu zaigu, bere ihardueraren berri emanez azaldu digun Erakundearen oinarri-erizpideen ikuspegia.

Erakundearteko harremanen alor honetaz ari garelarik, Florentziara egin genuen bisitaldia ere aipatu beharra dugu. Han bildu ginen Ombudsman europarrok, Europako Kontseiluak zabaldu zigun deialdiari erantzunez, eskuartean ditugun zeregin amankomuneko gaiez gain, berebiziko garrantzizkoak eritzi genien beste batzuez ere iharduteko asmotan, gaisoen eskubideak eta gizonezko eta emakumezkoen arteko berdintasuna kasu. Nazioarte mailako harremanen eremuari gagozkiola, Ombudsmanaren Institutu Latinamerikarrak antolaturik, Nazioarteko III. Hitzaldian parte hartu genuen Buenos Airesen, Hegoamerikako nazioen garapen demokratikorako beharrezkoak diren Ombudsman Erakunde kideak suspertzeko borondatean.

Ekitaldi honetan, Erakundearen ohizko jardueretatik aparte, zentru psikiatrikoen egoerari, eta orohar arreta psikiatrikoa eta gaisoen eskubideei buruzko txosten monografiko bat landu da, Euskal Autonomi Komunitateko zentru psikiatriko guztien ikerketa sakon batetik abiatuta. Lan horren ondorioz burutu den txostena osatzeko, OMIE (Osasun Mentalerako Ikerketa Erakundea) fundazioaren laguntza teknikoa jaso dugu. Txosten hori Eusko Legebiltzarrean dagokion batzordeari aurkeztuko zaio aurki.

Bizi garen gizarte konplexu honetan suertatzen diren hainbat auziren konponbiderako, beroiei aurrehartzean datzan oinarri-erizpidea aldeztu dugularik, Oñatiko Zuzenbide Soziologiaren Nazioarteko Erakundea eta Donostiako Lege-Soziologia Laborategiarekin lankidetzan, Interbentzio Gune Partehartzaileak deritzenei buruzko ihardunaldi teorikoa antolatu genuen estraineko aldiz. Gune hauek, hiritarrek osaturiko talde partehartzaileak izaki, Alemanian arrakastaz landu diren esperientzia baliagarriak izan dira. Gizarte-iharduera eredu hau oso egokia gertatu da hirigintza egitasmo batzuren aurrean, inguruarekiko erasoak ekar lezaketan egitasmo edota industri aldakuntzazko zenbaiten aurrean ere. Oinarrian, auzi batek zuzen zuzenean ukitzen dituen gizataldeei galde egitean datza, horretara, herri agintariak erabakia hartzerakoan, hiritarrek zer erizten dioten jakin dezaten, gerora arazorik gerta ez dadin.

Ararteko honen asmoetarik bat demokrazia partehartzailea gauzatu ahal den modu ezberdinen ikerketan sakontzea izanik, begi onez ikusten dugu aipatu berri dugun egitasmo horretan saiatzea eta berorrek emango dituen ondorioak neurtzea.

Berriz ere azpimarratu nahi dut, buru naizen Erakunde honek bere egitekoa betetzera hartu duen jarrera bi aldetakoa izan dela bederen, eta bi alde horiek batzen saiatu dela, hau da, hiritarrari zor zaion gizatasuna eta begirunea, batetik, haren eskubideak aldezteka baita Erakunde honen

izaera agertarazten duena, eta lege haustea edota gehiegikeriazko egoerak ematen direnean administrazioen aurrean azaldu beharreko jarrera tinkoa, bestetik. Beraz, legezkoatasunaren erizpideak erakusten du Arartekoaren bidea, eta indarrean dagoen legediaren betetzeak mugarrizten du bere esparrua.

Behin baino gehiagotan, hiritarren eskubideak hobeki aldeztzen zuten lege azalpenak egin dira, baita gomendioak ere, urteroko txostena dela medio, zenbait legezko hutsune bete daitezten. Horregatik, txostenetan azaltzen diren gomendio eta iradokizunak gogoetagai bihur daitezten nahi dugu, zeren, jakin ezazue, legegile jaun-andreok, zein trakets uztartzen diren, zenbaitetan, giza-bidezkoatasuna eta indarreango legedia.

Hori dela eta, Txostenean agertzen diren iradokizun eta gomendioak arretaz irakur ditzazuen eskatzen dizuegu, artean berri dugun sistema demokratiko hau indartzeko ahaleginetan lagunduko duelakoan.

Hauxe da hutsetik abiatu zen Ararteko honen desioa, A. Machado-ren esaera zahar eta kantuetako bertso haiek, ezagunak bezain kutunak diren haiek bereganatuz:

Caminante, son tus huellas
el camino, y nada más;
caminante, no hay camino,
se hace camino al andar.

(Bidaria, zure lorratzak dira
bide, eta ez besterik;
bidaria, ez da biderik,
ibiliaz egiten da bidea.)

ARARTEKOA

JUAN SAN MARTIN ORTIZ DE ZARATE

II. ATALA

**ARARTEKOAREN IHARDUERA
NAGUSIAK**

Atal honetan Ararteko Erakundeak bere kabuz egindako ekintza guztiak bilduko ditugu.

Ildo horretatik, denboraren arabera agertuko dira 1991ko urtealdian beste erakundeekin eginiko lanak eta komunikabideetan izandako agerraldiak.

Halaber, ohizko jardueretatik aparte Erakundeak urtean zehar izan dituen ekimenak ere emango dira laburbildurik.

Azkenik, ofizioz eginiko jarduerak nabarmenduko dira, Erakunde honi kexa idazkirik iritsi ez arren, babesik ezeko egoerekiko kezka ere bait du Arartekoak.

2.1. ERAKUNDEAREN EKINTZAK EGUNEZ EGUN ZERRENDATUAK

Txostenaren atal honetan Arartekoaren beste ekintza batzuk jaso nahi dira, bereziki erakunde mailan burututakoak, eta hori ez da ekintzen azaleko itxuraren arabera, zerrenda huts modura bakarrik egin nahi, baizik ekintza horiek komunikazio eta hurbiltasunerako daukaten garrantziaren arabera, eta hori agente sozialekin ezinbesteko harremani eta Autonomi Komunitateko erakundeekin beharrezko komunikazioari dagokionean da beharrezkoa.

Egia esan, Arartekoa bezalako erakunde baten ahaleginen barruan sartu behar dira planteatu daitezkeen elkarlanerako bide guztiak, erakunde honen gestio osoaren azken emaitza, neurri handi batean behintzat, gure gizartearen sare konplexua osatzen duten erakunde eta taldeekin lortutako elkarlan mailaren arabera izango delako.

Jarraian zerrendatzen ditugun ekintzak aipatzean, erakundeekin izandako harremanetan egin den lanaren gauzarik aipagarrienak jasotzen dira, eta horien artean, bitzta sozialeko gertaerei dagozkien ekintza ofizialak daude, gehienak urtez urte errepikatzen direnak. Azpimarratu behar da, ordea, horrekin batera, elkarlanerako bideak ireki direla, bai gure Administrazio publikoa osatzen duten sail ezberdinekin, eta baita ikerketa soziologiko eta juridiko mailan lan handia egiten duten beste erakunde batzuekin ere.

1991. urteko ekitaldian, Erakundeak beste era bateko ekintzetan parte hartzeko aukerak ere bultzatu ditu, hala nola Europa eta Ameriketako gure eginkizun beretsuko erakundeekin kongresu eta topaketetan parte hartzea, koordinazio eta esperientzia elkartrukatzeko dinamika interesgarri bat sortuz.

Erakunde honek gauzatu dituen beste inizatiba batzuk ere aipatu nahi ditugu, oso berriak bait dira, bata, giza eskubideekin eta/edo Ombudsmaren figurarekin erlazonatutako gaiak aztertu, ikertu eta sakontzeko bi kolaborazio beka sortzea; eta bestea, Barne Saileko SOS-Deiak erakundearekin elkarlanerako burutu den komenioa da, Erakundeak hiritarrei uneoro zerbitzua eskaintzeko ahaleginen barruan.

Dibulgazio mailan egin dugunari dagokionez, eskoletan banatzeko egindako "Gure eskubideak/Nuestros derechos" posterrak izan duen harre-ra ona atseginez gogoratzen dugu.

Azkenik, 1812ko Cadizko Konstituzioari buruz 1820ko data daraman euskal eskuizkribu bat argitaratu dugu faksimilez. Konstituzioaren eduki haiek irakaskuntzaren alorrean banatzeko interesa zeukan Gipuzkoako apaiz baten lana izan zen aipatutako eskuizkribua.

– **Urtarrilak 18.** Gasteiz. Eusko Legebiltzarraren egoitzan bildu ziren Arartekoa eta Ondokoa Euskal Herriko Unibertsitateko Kontseilu Sozialeko ordezkariekin.

– **Urtarrilak 28.** Madril. Estatuko eta autonomietako Herri Defendatzaileek 1991. urteari dagokion lehen koordinazio bilera egin zuten.

– **Urtarrilak 29.** Gasteiz. Eusko Legebiltzarreko presidente-baiteangoak, Jesus Egiuren jaunak, Erakundearen egoitza bisitatu zuen.

– **Urtarrilak 31.** Gasteiz. Joseba Leizaola jauna Eusko Legebiltzarreko presidente izendatzeko ekintzan parte hartu zuen Arartekoak.

– **Otsailak 2.** Berastegi. Arartekoak, Gipuzkoa-Nafarroa autobidearen lehen harria jartzeko ekintzan parte hartu zuen.

– **Otsailak 7.** Gasteiz. Ondokoa, Donostiako Lege-Soziologiako Laborategiko Zuzendaria den Francisco Caballero Harriet jaunarekin bildu zen Legebiltzarrean.

– **Otsailak 16.** Donostia. Arartekoak eta Ondokoak Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoa-Nafarroa autobidearen alde deitutako manifestazio instituzionalean parte hartu zuten.

– **Otsailak 21.** Irun. Bidasoako Eskualde Ospitalera bisita.

– **Martxoak 1.** Gasteiz. Kriminologiako Euskal Institutuko Zuzendaria den Antonio Beristain jaunarekin bilera.

– **Martxoak 7.** Gasteiz. Arartekoak, Drogomenpekotasunen Idazkari Nagusia, Jesus Antonio Perez Garcia-Arrospide jauna errezibitu zuen.

– **Martxoak 12.** Oñati. Ondokoak, Soziologia Juridikoko Nazioarteko Institutuak antolatutako “Ombudsmen and judicial complaints” gaiari buruzko mintegian parte hartu zuen.

– **Martxoak 13.** Gasteiz. Bizi artean Zambia Herriaren Defendatzailea den F.N. Mumba andereak, Oñatin egindako mintegiko beste partaide batzurekin batera Erakundearen egoitza bisitatu zuen. Ondoren, Joseba Leizaola jaunak errezibitu zituen Eusko Legebiltzarraren egoitzan.

– **Martxoak 15.** Oñati. Arartekoak, astean zehar “Ombudsmen and judicial complaints” gaiari buruz egindako lan-jardunaldien amaieraldia burutu zuen.

– **Martxoak 16.** Donostia. “Pío Baroja: el hombre entre la marginación y la redención. Reflexiones en un curso de criminología” izenburuarekin Kriminologiaren Euskal Institutuak eratutako jardunaldien amaiera ekitaldian, Arartekoak, Julio Caro Baroja jaunaren aurkezpena egin zuen.

– **Martxoak 20.** Gasteiz. Erakundeburua Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko arduradunekin bildu zen.

– **Apirilak 3.** Gasteiz. *Eusko Legebiltzarrari txostena 1990* aurkeztu zitzaion Joseba Leizaola presidente jaunari.

– **Apirilak 9.** Gasteiz. Arartekoak, José Antonio Aguiriano jaunak Gobernuaren Delegatua Euskal Herrian kargua hartzeko ekintzan parte hartu zuen.

– **Apirilak 11.** Gasteiz. Erakundearen ordezkariak, Lehendakaritza, Lege Araubide eta Autonomiaren Garapenerako Saileko kontseilari jaun Jose Zubiarekin bilera egin zuten.

– **Apirilak 12.** Gasteiz. Carmen Soto Peris anderea, Amnistia Internacional Erakundearen Espainiako Saileko Batzorde Exekutiboko Presidentea, erakunde horren beste lurralde arduradun batzurekin Arartekoaren egoitza bisitatu eta Erakundeburuarekin bildu zen.

– **Apirilak 15.** Gasteiz. José Antonio Aguiriano jaunak, Gobernuaren Euskal Herrirako Delegatuak, Erakundearen egoitzara bisita egin zuen.

– **Apirilak 17.** Getxo. Alkatea eta udal agintariekin bilera.

– **Apirilak 19.** Ararteko Erakundearen eta Barne Saileko SOS-Deiak zerbitzuaren arteko elkarlanari buruzko akordioaren onespena.

– **Apirilaren 21etik 24ra.** Gasteiz. Herri-Defendatzaileen VI. Jardunaldiak. Herri Defendatzailearen erakundeek urtero eta txandaka antolatzen di-

tuzten topaketa hauek zita garrantzitsua izaten dira gure lan eta ekintzen egutegian; 1991ko ekitaldian Arartekoaren Erakundeari tokatu zitzaion gertaera garrantzitsu horretako ekintza guztien antolaketa eta koordinazioa.

Lau egunetan zehar, Defendatzaileek eta beren laguntzaileek lan eta ekintza egutegi estu bat bete zuten, eta espero dugu, erakunde hauen artean jadanik dauden elkarlanerako bideak estutzeko balioko zutela.

Laburbilduz bederen, jarraian aipatzen dira VI. jardunaldi hauetako ekintzarik garrantzitsuenak:

– **Apirilak 21.** Defendatzaileei eta beren kideei ongietorria.

– **Apirilak 22.** Lan saioak Eusko Legebiltzarrean egiten dira, tartean Euskal Herriko eta Arabako Lurralde Historikoko organu exekutibo eta legislatiboetako agintari gorenaren aurkezpenekin.

– **Apirilak 23.** Egun honetako bilerak, Gernikako Alegria Jauregian, herriko museo historikoa dagoen lekuan egiten dira. Juntetxea bisitatzen da, eta bertan Juan de Lanuza Aragoiko Justicia Mayor-i omenaldia eskaintzen zaio hil zuteneko IV. mendeurrenean. Hori dela eta, Agustin Ibarrolak egindako grabatu xilografiko bat eskaintzen zaie agintariei. Ekintza honetan, Batzar Nagusietako Presidente jaunak eta Bizkaiko Foru Aldundiko Presidente jaunak ere parte hartzen dute, Arabako eta Gipuzkoako Batzar Nagusietako ordezkari gorenak ere bertan aurkitzen direlarik.

– **Apirilak 24.** Defendatzaileak Donostiara doaz probintzia horretan SOS-Deiak duen koordinazio zentrua bisitatzera. Ondoren, Gipuzkoako Batzar Nagusietako Presidente jaunak errezibituko ditu.

– **Apirilak 25.** Gasteiz. *Eusko Legebiltzarrari Txostena 1990* aurkezten, da Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordearen aurrean.

Arratsaldean, Nazio Batuen Errefuxiatuentzako Ordezkari Gorenak Espainian daukan Ordezkariak, Guilherme L. de Cunha jaunak Erakundearen egoitza bisitatu zuen.

– **Apirilak 28.** Gasteiz. Arartekoak, Arabako Diputatu Nagusia den Fernando Buesa jaunak San Prudentzio eguna dela eta eskaintzen duen errezepzioan parte hartu zuen.

– **Apirilak 29.** Tenerife. Kanarietako Diputado del Común deritzon karguan izendatu berria den Arcadio Diaz Tejera jaunaren jabego-hartze ekitaldian parte hartzen du Arartekoak.

– **Maiatzak 6.** Gasteiz. Erakundearen egoitzan, Donostiako Soziologia Juridikoko Laborategiko Francisco Caballero Harriet jaunaren bisita hartzen da.

— **Maiatzak 7.** Gasteiz. Ondokoak bilera bat egiten du Legebiltzarren egoitzan Estatuak Euskal Herrian duen Ikuskaritza Gorenaren Buruzagia den (Hezkuntza eta Zientzia Ministraritza), Angel Urquiza jaunarekin.

— **Maiatzak 8.** Gasteiz. Castilla eta Leongo Juntako Erakundeekin Harremanetarako Idazkaritzako Zuzendari Nagusia den Atilano Soto jaunaren bisita.

— **Maiatzak 10.** Andorra. Piriniotako Familiaren I. Kongresua, Pirinioetako Lan Batzordeak antolatuta. Jardunaldietan, Frantziako eta Espainiako hainbat eskualdetako hizlariak parte hartu zuten Europako Kontseiluko Arazo Juridikoetarako Zuzendari Nagusiaren, M. Killerby jaunaren zuzendaritzapean. Juan San Martín jaunak “Pirineoa, gure hizkuntzaren jatorriaren ardatza” izenburua daraman komunikazioa aurkeztu zuen.

— **Maiatzak 13.** Oñati. Arartekoak eta Washingongo Unibertsitateko Emilio Viano jaunak “Haurrekiko tratu txar fisiko eta sexualak: Abokatutza, legezko erreforma eta politika soziala” gaiari buruzko jardunaldiak aurkezten dituzte, aste horretan zehar Gipuzkoako herri horretako Antzinako Unibertsitatean egingo direnak. Jardunaldien barruan Ondokoak, Jesús M.^a Arateagak “Giza eskubideak eta tratu txarrak (gazte marginatuak)” izenpeko ponentzia aurkeztu zuen.

— **Maiatzak 14.** Donostia. Gipuzkoako Foru Aldundiko areto nagusian, Arartekoa presidente dela, *El escultor Juan de Anchieta* obrairen bigarren argitalpenaren aurkezpena egiten da. Jose Camón Aznar irakasle jaunak idatzi eta Aldundiko Kultura Sailak argitaratutako liburu honen hitzaurrea Juan San Martín jaunak idatzia da.

— **Maiatzak 15.** Gasteiz. José Antonio Ardantza lehendakaria buru dela inauguratzen den Euskal Abokatugintzaren II. Kongresuko inaugurazio ekitaldian parte hartzen du Arartekoak. Beste agintari batzuren artean, Andaluziako Herri Defendatzailea den Manuel Conde-Pumpido jaunak ere parte hartzen du.

— **Maiatzak 16.** Gasteiz. Iñaki Azkuna Osasun Sailburu jaunarekin elkarrizketa.

— **Maiatzak 17.** Oñati. Soziologia Juridikoko Nazioarteko Institutoak “Haurrekiko tratu txar fisiko eta sexualak” gaiari buruz antolatutako jardunaldien amaiera ekitaldian parte hartzen du Arartekoak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Eli Galdos Diputatu Nagusiarekin eta Emilio Viano Washingongo Unibertsitateko irakasle jaunarekin.

— **Maiatzaren 27tik 29ra.** Bartzelona. Europako Parlamentuko Eskariaren Batzordea Kataluniako Parlamentuan biltzen da. Hiru egunetan burutu ziren lan saioetan, berrogei ponentziaz gora aurkeztu eta gai hauek azter-

tu ziren: zirkulazio librea, aduanak, titulu akademikoen homologazioa, Europako Komunitateko beste hizkuntza batzuk —eta hemen katalanaren ofizialtasuna proposatu zen—, eta Komunitatearen etorkizuneko osakerari buruzko beste batzuk.

— **Maiatzak 30.** Oñati. Lege-Soziologiako Nazioarteko Erakundeko Zuzendari Arnaud doktorearekin elkarrizketa.

— **Ekainak 3.** Bartzelona. Ondokoak Vic-en gertatutako atentatuaren kontra protestatzeko Kataluniako erakundeek antolatutako manifestazioan parte hartzen du.

— **Ekainak 4.** Joseba Leizaola Eusko Legebiltzarreko presidente jaunak Arartekoaren egoitza bisitatzen du.

— **Ekainak 7.** Gasteiz. Arartekoak Eusko Legebiltzarrean aurkezten du *Eusko Legebiltzarrari Txostena 1990*.

— **Ekainak 13.** Madril. Arartekoak hitzaldi bat ematen du Euskal Etxean “Euskal Herriko lehen ombudsmanaren bi urteko esperientzia” izenburuaz.

Egun eta ordu berean, Arartekoaren Ondokoa, Alvaro Gil Robles Defensor del Pueblo jaunak Siglo XXI Klubean ematen duen hitzaldira doa. Hitzaldi horretan, erakunde horrek egin eta Gorteetan aurkeztutako urteko txostenaren azalpena eskaintzen du.

— **Ekainak 26.** Gasteiz. Eusko Legebiltzarraren egoitzan EUDELEko (Euskadiko Udalen Elkarte) Presidentearekin eta Zuzendariarekin, José M. Zorrilla eta Victor Menchacatorre jaunekin biltzen da Arartekoak.

— **Ekainak 28.** Donostia. Kriminologiako Euskal Institutuak Euskadiko kriminologoaren laugarren promozioakoei diplomak banatzeko Miramar jauregian burutzen duen ekitaldian parte hartzen du Arartekoak.

— **Uztailak 4.** Donostia. Arartekoaren hitzaldia Kutxaren kultur aretoan, Euskal Herriko lehen ombudsmanaren lehen bi urteetako esperientziaz hitzegiteko.

— **Uztailaren 8tik 13ra.** Finlandiako Ombudsmanaren, Jacob Söderman jaunaren bisita. Euskal Herrian igaro zituen egunetan, Arartekoa lagun zuela, Lurraldeko agintari gorenek errezibitu zuten, eta Erakundeburuarekin batera hitzaldi bat eman zuen Bilbon. Bertan, Ombudsmanaren historia azaldu eta Finlandian Ombudsman erakundeak daukan jardun eremua azaldu zuen.

– **Uztailak 17.** Donostia. Euskal Herriko Unibertsitateko udako ikastaroen barruan, Arartekoak beste agintari batzurekin, Miramar jauregian Gabriel Celaya poetari egindako omenaldian parte hartzen du.

– **Uztailak 30.** Donostia. Juan Carlos I Espainiako Erregeak Loiola 91 urteurreneko ekintzetan parte hartzeko Euskal Herrira egindako bisitaren barruan Miramar jauregian eskaintzen duen harrera ekitaldian parte hartzen du Arartekoak.

– **Abuztuak 30.** Donostia. Jose Antonio Ardantza lehendakariak urtero Donostiako Miramar jauregian eskaintzen duen harrera ekitaldian parte hartzen du Arartekoak.

– **Irailak 5.** Atun. Arartekoak berak eskuratzen dio Jose Migel Barandiarani 1990. urteari dagokion Erakundearen txostena.

– **Irailak 9.** Bilbo. Erakundearen ordezkariak bilera bat egiten dute psikiatriaren ikerketaren alorrean aritzen den OMIE Fundazioko (Osasun Mentalerako Ikerketa Erakundea) Zuzendaritzarekin.

– **Irailak 11.** Agurain. Arartekoa inguru horretako abeltzain talde batekin biltzen da, sail honek bailara horretan bizi duen egoera aztertzeko.

– **Irailak 12.** Gasteiz. Bilera Legegiltzarraren egoitzan, Lehendakaritza Araubide eta Autonomiaren Garapenerako Sailburua den Joseba Zubia jaunarekin eta Gobernu Idazkaritza eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaria den Enrique Lucas jaunarekin.

– **Irailak 19.** Bilbo. Basurtoko Ospitaleko psikiatria saileko Buruzagia den Jose Guimón jaunarekin elkarrizketa.

– **Irailak 20.** Donostia. Arartekoa eta Ondokoa Odon Elorza, Donostiako Alkate jaunarekin biltzen dira.

– **Irailak 20.** Andoain. Arartekoak, beste agintari batzurekin, “Obras del Padre Larramendi” bildumako IV. liburukiaren aurkezpen ekitaldian parte hartzen du. Liburukiaren izenburua *Escritos Breves* da; Salamancako Eliz Unibertsitateko katedraduna den José Ignacio Tellechea Idigorasek prestatu du eta hitzaurrea Julio Caro Barojarena da.

– **Irailak 23.** Donostia. Jordi Sole Tura Kultura Ministrariak Donostiako Zinemaldiko ekintza ofizialen programaren barruan eskaintako harrera ekitaldian parte hartzen du Arartekoak.

– **Urriak 1.** Oion. Arartekoa Udal Gorporazioko Alkate-Presidentearekin elkarrizketatzen da.

— **Urriak 2.** Bilbo. Erakundeburuak, Lehendakariaren zuzendaritzapean ospatzen den Deustuko Unibertsitateko ikasturtearen hasiera-ekitaldian parte hartzen du.

— **Urriak 3.** Tenerife uhartea, Guimar herria. Jesús M. Arteaga jaunak Pedro Guerra Cabrera Diputado del Común jaun Ondokoaren hiletetara doa.

— **Urriak 11.** Gasteiz. Arartekoa, Iñaki Azkuna Osasun Sailburuarekin biltzen da.

— **Urriak 15.** Gasteiz. Eusko Legebiltzarraren egoitzan egiten dira giza eskubideen eta/edo Ombudsmanari buruzko ikerketa eta formaziorako lanbekerarako hautaketa probak. Erakundeak lehen aldiz antolatzen du horrelako ekintza, eta 1991ko irailaren 19an Arartekoak ebatzi eta irailaren 25eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariko 194. zenbakian argitaratuaren arabera burutu ziren.

— **Urriak 16.** Madril. Arartekoak, gainontzeko komunitateetako defendatzaileek eta Defensor del Pueblo-k lan saio bat burutzen dute egungo eta amankomuneko gaiet buruz; erakunde hauek koordinatzeko egiten dituzten ohizko bileren barruan kokatzen da hau.

— **Urriak 22.** Gasteiz. Eusko Legebiltzarraren egoitzan, Arartekoa Erakundearekin kolaboratzeko beken deialdiari dagokion bigarren eta azken proba multzoa egiten da.

— **Urriak 23 eta 24.** Donostia. Oñatiko Unibertsitatean hilaren 24ean “Hiritarren eta Administrazioaren arteko arazoei aurre nola egin” gaiaz egingo den azterketari eskainiko zaion egunaren berri ematen zaie komunikabideei. Ekintza honetan, Arartekoaz gain, Donostiako Soziologia Juridiko Laborategiko Zuzendariak, Francisco Caballero jaunak eta Wuppertal-eko (Alemania) Unibertsitateko Peter Diemel irakasleak parte hartzen dute. Azken honek, *Die lanungszelle. Eine alternative zur establishment-demokratie* izeneko lan teoriko-praktikoa azaldu zuen Oñatin, gure herrian jarri nahi dena hain zuzen ere.

Gasteiz. Aragoiko Justicia, Emilio Gastón jauna eta Galiziako Vicevaledor do Pobo, José Carlos Rodríguez jauna Euskal Herrian aurkitzen dira Oñatiko jardunaldian parte hartzeko, eta Legebiltzarraren egoitzan errezibitzen ditu bertako Presidentea den Joseba Leizaola jaunak.

— **Urriak 28.** Bermeo. Arartekoak, Iñaki Azkuna Osasun Sailburuarekin eta OMIE Fundazioko zuzendariarekin Bermeoko Ospitale Psikiatrikoa bisitatzen du.

— **Azaroak 4.** Bilbo. Erakundeko ordezkariak Basurtoko Ospitaleko psikiatria saila bisitatzen dute.

— **Azaroaren 6tik 9ra.** Florentzia (Italia). Arartekoak Europako Ombudsman-en III. Mahai Inguruan parte hartzen du. Europako Kontseiluko Idazkari Nagusiak antolatu zuen, Toscana eskualdeko “Defensore Civico”-aren, Toscanako Kontseilu Erregionalaren eta Europako Institutu Unibertsitariaren laguntzarekin.

Horrelako batzarretan, Europako ombudsmanak, parlamentariak edo antzeko lanak burutzen dituzten agintariak biltzen dira eskuartean dauzkaten zeregin amankomunak aztertzeko. Hirugarren ekitaldi honetan gai hauek aztertu ziren: gaisoaren eskubideak, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna, eta estatu kideetako ombudsmanen arteko eta horien eta Europako Kontseiluaren arteko lankidetzarako proposamenak.

— **Azaroak 8.** Ombudsmanaren Europako Institutuko karguak berritzeko eta bere estatutu proiektua aurkezteko saioan parte hartzen du Arartekoak. Gogoan izango duzuen bezala, erakunde hau, interes orokorra duen elkarte zientifiko bat da, egoitza Austrian duena eta giza eskubideen defentsarekin erlazionatutako gaietan sakontzeko, eta era berean, Europako Ombudsmanen erakundeak koordinatzeko helburuarekin sortua.

— **Azaroak 12.** Gasteiz. Arartekoak Lurraldea Koordinadoraren ordezkari talde bat errezibitzen du.

— **Azaroak 13.** Gasteiz. AVAIM elkarteak (Tratu Txarrak Jasaten Ditutzen Haurrentzako Euskal Elkarteak) antolatuta Gasteizen tratu txarrak jasaten dituzten haurrei buruz egindako kongresuaren amaiera ekitaldira gonbidatzen dute Arartekoak. Ekitaldiaren presidentzia Giza Gaietarako Ministraria den Matilde Fernandez anderearen esku dago.

— **Azaroak 14.** Zaldibar. Arartekoak Zaldibarko Ospitale Psikiatrikoa bisitatzen du.

— **Azaroak 15.** Gasteiz. Legebiltzarraren egoitzan gure lurraldeko hiru lurralde entzutebietako presidenteeekin bilera.

— **Azaroaren 18tik 23ra.** Buenos Aires (Argentina). Ondokoak Ombudsmanaren Latinamerikako Institutuaren III. Nazioarteko Jardunaldietan parte hartzen du. Ameriketako eta Europako Ombudsman erakundeen ordezkariak, agintariak eta adituak elkartzen dira.

— **Azaroak 18.** Bilbo. Eduardo Chillida eskultorearen obrari buruzko erakusketa monografikoaren inaugurazioa.

— **Azaroak 20.** Zamudio. Arartekoaren bisita herri horretako ospitale psikiatrikora.

– **Azaroak 20.** Gasteiz. Erakundeko ordezkariak bilera bat egiten dute Eusko Legebiltzarraren egoitzan Juan José Goiriena Euskal Herriko Unibertsitateko Errektore jaunarekin.

– **Azaroak 26.** Arartekoaren bisita Galdakaoko Ospitale Psikiatrikora.

– **Azaroak 27.** Gasteiz. Arartekoa, Jesus Maria Larrea Gasteizko gozai jaunarekin elkarrizketatzen da.

– **Azaroak 27.** Zarautz. Iñaki Eizmendi “Basarri” bertsolariari Eusko Jaurlaritzak eman dion Letren Sari Nazionala eskuratzeko ekintza dela eta, eskaintzen zaion omenaldian parte hartzen du Arartekoak.

– **Azaroak 28.** Donostia. Ondokoak Gipuzkoako Ospitaleko psikiatria saila bisitatzen du.

– **Azaroak 28.** Gasteiz. Arartekoak, Euskal Herriko Unibertsitateko ikasturtearen hasiera ekitaldian parte hartzen du.

– **Abenduak 2.** Gasteiz. Arartekoak, “Gure Eskubideak/Nuestros Derechos” lemapean Adin gutxikoen Eskubideei buruzko Aitorpeneko oinarri-hamarkada jasotzen duen posterra aurkezten du. Legebiltzarrean burutu zen ekintzan, Joseba Leizaola, Legebiltzarreko Presidente jaunak, eta Eusko Jaurlaritzako Lehendakariorde eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketarako Sailburua den Fernando Buesa jaunak ere parte hartu zuten.

Arartekoa Erakundeak, Adin gutxikoen Nazioarteko Urtea delako burutzen duen inizatiba honen helburua adin txikikoen eskubideak ezagutaraztea da. Eskubide horiek, 1924ko Ginebrako Aitorpenean jaso eta Giza Eskubideen Aitorpen Unibertsalean onartzen dira, eta adin txikikoen ongizateaz arduratzen diren erakunde espezialdu eta nazioarteko erakundeek ere jasotzen dituzte eskubide horiek.

– **Abenduak 3.** Gasteiz. Legebiltzarraren egoitzan lurralde honetako hiru probintzia lurraldeetako fiskalburuekin bilera.

– **Abenduak 4.** Arrasate. Arartekoak Santa Agedako bi ospitale psikiatrikoak bisitatzen ditu.

– **Abenduak 5.** Gasteiz. Euskal Herrirako Gobernu Delegatua den José Antonio Aguiriano jaunak Espainiako Konstituzioaren X. urteurrena dela eta eskaintzen duen harrera ekitaldian parte hartzen du Arartekoak.

– **Abenduak 9.** Gasteiz. Erakundearen 1992rako aurrekontuen aurre-proiektua aurkezten zaio Eusko Legebiltzarreko Presidenteari.

– **Abenduak 10.** Gasteiz. Santiago Ospitaleko psikiatria sailera bisita, eta baita Las Nieves Ospitale Psikiatrikora ere.

– **Abenduak 10.** Xabier M. Munibe, Peñafloredako Kondearen *Gabon Sariak* eta *El borracho burlado* obrak faksimilean argitaratzen direla eta, Eusko Legebiltzarrak eraturako aurkezpen ekitaldira gonbidatzen du Arartekoa. Ekitaldia, Gasteizko “Jesús Guridi” Musika Eskolan burutzen da.

– **Abenduak 11.** Gasteiz. “Gasteizko Alde Zaharra” auzo elkarteko ordezkariekin bilera.

– **Abenduak 16.** Gasteiz. OMIE Fundazioko Zuzendaria den José Guimón jaunarekin elkarrizketa.

– **Abenduak 17.** Donostia. Gipuzkoako Foru Aldundiko areto nagusian, Arartekoa buru dela, Donostiako Lege-Soziologia Laborategiaren urteko txostenaren aurkezpena egiten da.

– **Abenduak 18.** Gasteiz. José Ramón Recalde Justizia Sailburu jaunak Erakundearen egoitza bisitatzen du.

– **Abenduak 20.** Gasteiz. 1992rako Erakundearen aurrekontuen aurreproiektua aurkezten da Eusko Legebiltzarreko Presazko Legegintza Batzordean.

– **Abenduak 20.** Zaragoza. Arartekoa eta Ondokoa Zaragozara doaz Aragoiko Justiciak gonbidatuta, erakunde horrek Aragoiko Justicia Mayor izandako Juan de Lanuza hil zuteneko IV. mendeurrenean eskaintzen dion omenaldian parte hartzeko.

– **Abenduak 22.** Bilbo. Arartekoak, Eusko Legebiltzarrak gonbidatuta, Gabonetako Haur Parkean erakunde horrek antolatutako “Legebiltzar Txikia” deritzana bisitatzen du.

– **Abenduak 22.** Ataun. Jose Migel Barandiaranen hileta-elizkizunetan parte hartzen dute Arartekoak eta Ondokoak.

– **Abenduak 27.** Donostia. Real Sociedad Bascongada de Amigos del País-Euskalerrriaren Lagunen Elkarteak 1991ko laugarren lauhilabetean antolatutako ekintzen barruan, Arartekoak Jon Bagesen *La música en la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País* obraren aurkezpenean eta horri buruzko hitzaldian parte hartzen du Donostiako Udaletxeko areto nagusian. Jarraian eskaintzen den kontzertuan eta kide berriei dominak eta diplomak eskuratzeko ekintzan ere parte hartzen du. Aipatu behar da, Juan San Martín jauna, Euskal Herriko beste pertsonai batzurekin batera, elkarte horretako osoko kidea izendatu dutela.

– **Abenduak 30.** Ataun. Arartekoak, zendu berria den Jose Migel Barandiaranen iloba Pilar Barandiaran andereari Erakunde honek faksimilean

argitaratu duen Cadizko Konstituzioari buruzko XIX. mendeko eskuizkribu baten ale mugatuen lehena eskuratzen dio.

2.2. ARARTEKO ERAKUNDEA ETA KOMUNIKABIDEAK

Arartekoaren iharduera nagusiei dagokien atal honen hasieran esaten genuenez, Erakundea saiatu da posible izan dituen kooperazio bide guztiak mantentzen eta areagotzen, ez bakarrik gure Administrazioa osatzen duten erakunde diferenteekin, baizik eta baita esparru ezberdinetatik gure gizarteak kezkatzen duten arazoetatik hurbil dabilzan entitate eta taldeekin ere.

Ildo horretatik, beharrezkoa iruditzen zaigu atal hau osatzea gizarte komunikabideek betetzen duten ezinbesteko paperaren garrantzia aipatuz, gurea bezalako gizarte plural eta demokratiko batetan komunikabideak gaurregun erizpideak zabaltzeko ez ezik sortarazteko ere oinarrizko tresna bait dira.

Partizipazioaren printzipio juridikoa, hiritarrek administrazio iharduera kontrolatzeko duten bidetzat hartuz, oso era diferenteetan gauzatu daiteke, eta horietatik informazioarena garrantzitsuenetakoa da, eritzi publikoaren eraginez aktibatzen den kontrol politikoaren oinarria bait da.

Horregatik, komunikabideek beren eguneroko beharra betetzeko ahalgintetan, gizarteak kezkatzen duten arazo egoerak somatzen eta plazaratzen dituzte, egiazko tajuan nahiz eta askotan kritika kutsua egon, eta alde horretatik Arartekoaren antzeko erakundeek ezin dute entzungor egin.

Bestalde, Erakunde honek aurrera eraman dituen ekintzen ezagutarazte eta kaleratzeari dagokionez, Eusko Legebiltzarrean urtero aurkezten den txostena iharduera horiek plazaratzeko ohizkoa ez ezik ezinbesteko bidea bada ere, ezin da ukatu "mass media" izeneko funtzio informatzailearen berehalakotasunak eskaintzen duen bide osagarri eta zuzena, Erakunde honek positibotzat jotzen duena.

Hori dela eta, egoerak hala eskatu duenean, hiritarrek harreman zuzenago bat bilatu nahi izan da, eta ondorioz, ahalegindu gara gizarte komunikabideen bidez era guztietako informazioa ematen, hala erakundeen arteko iharduerei zegokiena, nola Ararteko honek aztertu dituen arazoei emandako ebazpenei zegokioena.

Jarraian ematen diren erreferentziek, Arartekoak komunikabideekin izandako elkarlaguntzarik garrantzitsuenen berri azaltzen dute.

— **Urtarrilak 22.** Euskadi Irratiak, "Iturri onetik" programarako egindako elkarrizketa ematen du.

— **Martxoak 6.** Juan San Martinek Euskal Telebistako "Babel" programan parte hartzen du.

— **Martxoak 8.** Arartekoaren kargua hartu zuela bi urte betetzean hainbat elkarrizketa komunikabideetan.

— **Martxoak 10.** Euskal Telebistak Juan San Martin jaunari buruzko programa monografiko bat eskaintzen du “Ispiluan” sailean.

— **Apirilak 3.** *Eusko Legebiltzarrari Txostena 1990*-aren aurkezpena dela eta, elkarrizketa eta erreferentzia ugari komunikabideetan.

— **Apirilak 10.** Elkarrizketa Euskal Telebistako “Nere etxe baitan” programan.

— **Apirilak 20.** Jesús María Arteaga Erakundeko Ondokoaren “Ararteko y opinión pública” artikulua argitaratzen da *El Diario Vasco* egunkarian.

— **Apirilaren 21etik 24ra.** Herri Defendatzaileen VI. Jardunaldiak Euskal Herrian egiten direla eta, Lurraldeko komunikabideek egunez egun jarraitzen dituzte gorabehera guztiak.

— **Ekainak 7.** Legebiltzarreko Osoko Bilkuran *Eusko Legebiltzarrari Txostena 1990* aurkeztu ondoren, elkarrizketa eta erreferentzia ugari komunikabideetan.

— **Uztailak 4.** Arartekoak Euskal Herriko lehen ombudsmanaren lehen bi urteak direla eta Donostian emandako hitzaldiaren ondotik hainbat elkarrizketa.

— **Uztailak 12.** Finlandiako Ombudsmanak Euskal Herrira egiten duen bisitaren berri ematen da komunikabideetan, Arartekoak bisitaria agintari gorenei aurkezten dielarik.

— **Uztailak 5.** ABC-n Arartekoari egindako elkarrizketa bat argitaratzen da.

— **Urriak 1.** Arartekoak, ETBko “Por lo visto” eztabaida-saioan parte hartzen du.

— **Urriaren 18tik 21era.** Madrilen defendatzaile guztien arteko lan bilerak bat burutu ondoren autonomi komunitate honetako hainbat komunikabideetan azaltzen da Arartekoa.

— **Urriak 23.** Prentsaurrekoa Donostian “Hiritarren eta Administrazio publikoaren arteko auziei aurre egiteaz” gaiaren inguruko lan saioaren aurkezpena, Oñatin urriaren 24ean ospatuko dena.

— **Azaroak 3.** *El Correo Español-El Pueblo Vasco* egunkarian Arartekoaren “Conflictos y participación ciudadana” artikulua argitaratzen da.

— **Abenduak 2.** Eusko Legebiltzarreko prentsa aretoan aurkeztzen zaie komunikabideei “Gure eskubideak/Nuestros derechos” posterra, Arartekoak argitaratu eta Autonomi Komunitateko ikastetxeetan banatua.

— **Abenduak 19.** *El Diario Vasco* egunkarian Juan San Martin jaunaren “Justo Garate, un humanista” artikulua azaltzen da, non Arartekoak, 1939 geroztik Argentinan bizi den Justo Garate lagun handi eta humanistaren pertsonaz hitzegiten bait du, Erregeak Isabel Katolikaren Ordenako “Cruz de Caballero” izeneko saria eman diola eta.

— **Abenduak 31.** Arartekoak 1991. urteari buruzko balantze orokorra egiten du Cope irrati katean.

2.3. ERAKUNDEAREN EKINTZA NAGUSIEN IRUZKINA

2.3.1. Herri-Defendatzaileen VI. Jardunaldiak

Apirilaren 22an eta 23an, hiritarren eskubide eta askatasunekin erlazioatutako gaiak eztabaidatzeko antolatutako Herri-Defendatzaileen VI. Jardunaldien barruan, gai interesgarriak aztertu ziren, bereziki administrazioen eskubideen babesaz.

Administrazio Prozedura eta Derrigorrezko Desjabetzapenari buruz egun indarrean dauden legeak aldatzeko aukera aztertu zen.

Administrazio prozeduraren arauketa, administratuak Administrazioarekin dituen harremanetan dituen eskubideen bermatzaile nagusia da.

Hiritar askok Herri-Defendatzaile ezberdinei bidali dizkieten kexetan, Administrazio publikoak prozedurazko arauak ez dituela betetzen salatzen dute, eta horrela, administratuak babesik gabe geratzen dira.

Administrazioak, isiltasun administratibo negatiboa gehiegikeriaz erabiltzen dutelako kexa ugariren helburu izan dira, eta horiek parlamentuek izendatutako ordezkariak bidali zaizkie, Administrazio publikoari aurkeztutako idatziei erantzun ez zaielako edo berandu erantzun zaielako.

Isiltasun administratiboaren kasuak arautzeko legeen aldaketak eztabaida bizia piztu zuen, eta isiltasun administratibo positiboaren kasuak zabalteko aukera planteatu zen.

Administrazioaren errekurtsoak eta aurretiazko erreklamazioak aukerakoak izateko posibilitatea eta Administrazioaren ardura izan ziren aztertutako prozedurazko beste gai batzuk.

Adin gutxikoen azterketa izan zen dudarik gabe Herri-Defendatzaileen VI. Jardunaldietako gai nagusia, 1991ko urtarrilaren 5ean Umearen Eskubideei buruzko Ituna (Nazio Batuen Batzar Nagusiak 1989ko azaroaren 2an erabakia) Espainian indarrean sartu zelako.

Arartekoak diziplinarteko ikuspegia eskaintzen zuen ponentzia bat aurkeztu zuen, eta bertan adin gutxikoen eskubideak babesteko marko juridikoak hitzegiten zuen, nazio eta nazioarte mailako tresna juridikoak aintzat hartuz, eta baita umeen eskubideen egiazko egoeraz ere.

Adin gutxikoen eskubideei buruzko eritzi trukaketa baten ondoren, Herri-Defendatzaileak ondorio hauetara iritsi ziren:

“1. Egungo arauen markoa ez da nahikoa, eta behar-beharrezkoa da Gorteen adin gutxikoen tutelari buruzko legeria alda dezaten, Konstituzio Epaitegiak 1991ko otsailaren 14an emandako epaiaren arabera, eta Nazio Batuek Umearen Eskubideei buruz 19989ko azaroaren 20an eginiko Konbentzioaren arabera, Espainiak berretsi bait zuen.

2. Umearen Eskubide Penal eta Prozesalari buruzko planteamendua atzera ezina da.

3. Pertsona helduak epai bidean jartzeko dauden berme konstituzional guztiak berehala aitortu eta indarrean sartu behar dira.

4. Adin penala aldatzea komeni da.

5. Askatasunik gabe utzitakoarentzat ordezkoko beste neurri batzuk ere garatu behar dira, eta neurrien ezarpenean malgutasunez jokatu behar da.

6. Adopzio eta familian hartzeko modu ezberdinak aitortzea.

7. Zailtasun sozialak dituzten umeen babeserako sistema eraginkor bat garatzea, barnetegiari ihes eginaz, horrek kasu larrientzat baino ez duelako balio.

8. Familian ume horiek hartzen dituztenei aginte publikoek laguntzea.

9. Adopzioarako eta familiaren harrera prezeptiborako eta familiara itzultzeko modu berriak martxan jartzea.

10. Nazioarteko adopzioarako araudia aztertu eta armonizatzea, eta hori burutzeko seguritatea bermatzea.

11. Adopzioan, sekretua eta isilpekotasuna bermatzea.

12. Adin gutxikoaren garapen osorako beharrezkoak diren baldintza materialak bermatzea eta harrerarako eta babes eta erreformarako zentruetan edo familia adoptatzaileetan umearen oinarritzko eskubideak osoki betetzea.

13. Adin gutxikoek beren kezak Herri-Defendatzaileari aurkezteko daukaten eskubidearen berri zabaltzea”.

2.3.2. Adin gutxikoen nazioarteko urtea

1991ko urtarrilaren 5ean sartu zen Espainian indarrean Haurren Eskubideei buruzko Ituna (Nazio Batuen Batzar Nagusiak 1990eko azaroaren 20ean onartua), eta aukera ona izan da, gutxien babestuta dauden taldeen eskubideen defentsaz sentsibilizatu eta konprometituri zeregin horretaz arduratzen diren erakundeek hainbat ekintza burutzeko.

Horrela, Ararteko Erakundeak ahalegin bat egin du zeregin horretan ere sartzeko, eta eskatu zaizkion zeregin eta lanen alorretik, bereziki bi ekin-tza mota burutu ditu zentzu honetan, gure ustez aipagarriak direnak.

Alde batetik, adin gutxikoen eskubideak babesteko marko juridikoaren azterketan sakondu du, eta horrela osatu zen erakunde honek, iazko apirilean Euskal Herrian ospatu ziren Defendatzaileen VI. Jardunaldietan aurkeztu zuen ponentzia. Bestalde, dibulgazio mailan, Erakundearen ekintzak zerrendatzean adierazi den bezala, poster bat argitaratu da, eta bertan "Gure eskubideak/Nuestros derechos" lemapean Adin gutxikoen Eskubideen Aitorpena osatzen duen oinarri-hamarkada jasotzen da.

Iniziatiba hau, adin gutxikoentzat beren eskubideak ezagutzeak daukan garrantzia kontuan hartuta burutu da. Eta Ararteko Erakundeak maila horretan zeukan interesa aipatutako posterra gauzatzean islatuta geratu da. Argitalpenean, bai poster tamainan, bai txikiagoan, patrikan eramateko egutegi moduan, adin gutxikoaren bizitza estuki inguratzen duten gauzekin erlazonatutako elementu ikonografikoak erabili dira, eta era berean hizkuntza ere erraza erabili da, garbia eta ez sexista, bereziki eskoletan banatzeko pentsatua. Lehen argitalpena berehala agortu zen, eta 1992an bigarren bat egingo da.

2.3.3. Arartekoak Europako Ombudsmanek Florentzian eginiko batzurrean parte hartu zuen

Arartekoak parte hartu zuen Europako Kontseiluak antolatutako Europako Ombudsmanen III. Mahainguruan, non gaisoaren eskubideak, gizon-emakumeen berdintasuna, estatu kideek ombudsmanekin duten elkarlana eta hauek Europako Kontseiluarekin dutena jorratu bait ziren.

Hitzaldi horiek Florentzian egin ziren azaroaren 7, 8 eta 9an, eta haietan, Arartekoaz, Estatuko Herri-Defendatzaileez eta autonomietako komisio-natuez gainera, Europako hamazazpi estatutako ombudsmanek hartu zuten parte.

Jardunaldi horien jatorrian, Europako Kontseiluko Ministrarien Batzordeak estatu kideetako ombudsmanen arteko eta haien eta Europako Kontseiluaren arteko elkarlanaz 1985ean hartu zuen erabakia dago. Haren arabera, ombudsmanek halako bilera batzuk egin behar dituzte giza eskubideen babesari buruzko esperientzien berri elkarri ezagutarazteko.

Europako ombudsmanekin izandako aurreko mahainguruak Madrilen 1985eko ekainean eta Strasburgen 1988an izan ziren.

Hitzaldi hauetan, Europako ombudsmanek, Europako Giza Eskubideen Gorteko epaileek, Europako Giza Eskubideen Batzordeko kideek eta Giza Eskubideetarako Zuzendaritza Batzordekoek funtsezko eskubideen babes eta bultzapenaren inguruan guztientzat interesgarriak ziren gaiak buruz hitz egin zuten.

Lehen jardunaldian, Triesteko Giza Eskubideei buruzko Ikerketarako Nazioarteko Institutuko Lehendakariak, Guido Gerin jaunak, gaisoaren eskubideei buruzko mintzaldi bat eman zuen, eta haren ondoren gainerako ombudsman partehartzaileek beren txostenak irakurri zituzten.

Osasunerako eskubidearen inguruko hainbat gai jorratu ziren, beti ere eskubideen babesaren aldeko lanaren ikuspegitik; haien artean, organo-

transplantea, gaisoak tratamendu medikua onartu beharra, akats medikuen inguruko erantzunkizuna, etab.

Beste era bateko ekintzen artean, aldiz, Arartekoak eta Europako Ombudsmanaren Institutuko gainontzeko kideek erakunde honen biltzar orokorrean hartu zuten parte, Florentzian ere, azaroaren 8an, haren estatutuak aldatu eta zuzendaritza batzarreko kideak hautatzeko.

Europako Ombudsmanaren Institutuak Innsbrucken du bere egoitza, eta bere eginkizuna giza eskubideen, babes zibilaren, eta ombudsmanen inguruko gaiak, nazio mailan, Europa mailan zein nazioarteko mailan era zientifiko batez aztertzea da.

2.3.4. Erakundeak Ombudsmanaren Latinamerikako Institutuaren III. Nazioarteko Jardunaldietan parte hartu zuen

Ombudsmanaren Latinamerikako Nazioarteko Institutuak antolaturik, 1991ko azaroaren 19tik 21era bitartean, Buenos Airesen, erakunde horren III. Nazioarteko Jardunaldiak egin ziren, haietan Ameriketako eta Europako Herri-Defendatzaileak bildu zirelarik, haien artean Estatuko Herri-Defendatzailea, Gil Robles jauna. Euskal Herriaren aldetik, Arartekoaren Ondokoa den Arteaga jaunak hartu zuen parte.

Honako hauek izan ziren haietan jorratu ziren gaiak: "Ombudsmanak Latinamerikan izan duen bilakaera", "Herri-Defendatzailea konstituzionalismo modernoan", "Ombudsmana instituzionalizatzeko aukerak", etab.

Lan saioetan zehar, dauden esperientziak aztertu ondoren, partaideek lan taldeka banaturik, erakunde hauek sistema demokratikoa sendotzeko bidean eta Latinamerikan giza eskubideak errespetarazteko ahaleginean egiten duten lana eztabaidatu zuten. Argentinako Presidentea den Menem jaunak klausuratu zituen jardunaldiak, ondoren partehartzaileak errezibitu zituelarik.

Ondokoak, Buenos Airesen egon zen denboran, Euskal Ikerketetarako Ameriketako Institutua eta "Laurak Bat" elkarteak bisitatu zituen, azkeneko hau herrialde horretan dagoen euskal koloniaren kultur ekintza garrantzitsuenak bideratzen dituen delarik.

2.3.5. Partaidetza guneen bidez hiritarren eta Administrazio publikoaren arteko auzien aurrebideratzeari buruzko jardunaldiak

Erakunde honen ekintzak aipatzerakoan esan den bezala, urriaren 24ean Oñatiko Unibertsitatean lan egun bat burutu zen Arartekoak antolaturik. Lege-Soziologiako Nazioarteko Erakundea, Donostiako Soziologia Juridikoko Laborategiaren eta Euskadiko Udalen Elkartearen laguntza ere izan zuen.

Ekintzei, Gipuzkoako Foru Aldundiko Presidentea den Eli Galdos jaunaren agur-hitz batzurekin eman zitzaien hasiera. Jarraian Arartekoak aurkeztu zituen hizlariak, eta azkenik EUDELko Presidenteak, José María González Zorrilla jaunak eskerrak eman zizkien Euskal Herriko Autonomi

Komunitatetik hara joandako alkate, idazkari, zinegotzi eta udal teknikari ugariei.

Hasierako ekitaldiaren ondoren, Donostiako Soziologia Juridikoko Laborategiko Zuzendariak, Francisco Caballero Harriet jaunak aurkeztu zuen lehen ponentzia, "Auziak konpontzeko kultura berri baten bidean. Auzietatik negoziatziora: justiziaren bideetatik kanpoko justizia" izenburua zuena. Atsedean baten ondoren, Arartekoak hitzegin zuen "Ararteko Erakundearen zeregina Legebiltzarreko Goikargudun bezala" gaiaz.

Azkeneko ponentzia Wuppertaleko Unibertsitateko (Alemania) Peter Dienel irakasle jaunak eskaini zuen, eta aztertu zuen gaia, "Partizipazio gu-
neak (NIP/IGP). Hiritarren administrazio mailako erabakietako partaidetza eredu bat" izan zen. Eredu hau gure gizartean ezartzeko aukeraz zabaldu zen ikusmina zela eta, partaidetza eredu horri, bereziki Alemanian esperimendu den eta aipatutako jardunaldian parte hartu zuten euskal udallerrietako ordezkariari azaldu zitzaienari tartetxo bat eskaini nahi diogu.

NIP/IGP deituak hiritarren taldez osatuta daude, eta partaidetza demokratikoan oinarritzen den giza kontestu batean, hirigintza planifikazioa, ingurugiroa, teknologia, etabarretan bitartekaritza eta kontsulta lanak egiten dituzte, giza taldearen elkarbizitza bakezkoan eragina izan dezaketen neurrian, horrela ondorio eta arazoei aurre eginaz. Alemanian esperimendu den lan hau *Die Planungszelle. Eine alternative zur establishmen-demokratie* izeneko proposamenean dago oinarrituta.

Eredu honekin beraz, ez dira gure gizartean dauden bitarteko funtzionalak, hala nola, alderdi politikoak, parlamentuak edo Administrazioa ordezkatzeko, guztiz alderantziz, bitarteko horiek osatu egiten dira asesoramendu politiko zabal eta demokratiko bat gauzatzeko modua den neurrian, ohizko bitarteko funtzionalei beren zereginetan lagunduz.

Metodo hau gauzatzeko egin behar den guztia: kideak aukeratu, lan taldeak osatu, talde dinamika erabili funtzionamendu mailan, elementu moderatzaile eta adituen laguntza, etab., zehatz-mehatz azaltzen hasi gabe, burututako esperientziak kontuan izanik, talde antolatzailean ez du inolaz ere interes propiorik garatzen, osatzen dutenei dagokionez ez dagoelako karguz igotzeko edo berriz hautatua izateko aukerarik, eta aldiz, hiritarrak bai identifikatzen dira beren kontsultore neutral izaerarekin.

2.3.6. 1991/92rako bi kolaborazio beka banatzeko deialdia

Ararteko Erakundeak lehenengo aldiz antolatu du 1991/92 urterako giza eskubideen eta/edo Ombudsmanaren figuraren alorretan ikertzeko edo prestatzeko bi beka banatzeko deialdia.

Ekimen honen bitartez, hiritarraren eskubideen alorreko ikerlana suspertu nahi da diziplinarteko ikuspegi batetik; horrela, bultzatu nahi diren lanak, euskal gizartean oinarrituz, giza eskubideen babesari buruzko azalpen bat izango dira, Euskal Autonomi Komunitatearen gaur egungo arazoak zorrotz aztertuko dituztenak.

Bi beka horiek postgraduatuentzat deitu ziren, Arartekoaren ebazpenez, 1991ko irailaren 19an, eta hil bereko 25ean argitaratuta azaldu ziren

Euskal Herriko Administrazioaren Aldizkarian. Haien adjudikazioa Arartekoak 1991ko urriaren 28ko ebazpenez burutu zen.

Aukeratutako bi bekadunei ezarri zaizkien ikerlanak honako hauek izan dira:

- Ingurugirorako eskubidearen babesak.
- Etxebizitza publikoaren alorreko erregimen juridikoa eta ekintzak.

Gure eritziz, hasitako bi ikerlan hauek aztertzen dituzten arazoak hiritarrak gehien kezkatzen dituztenetarikoa dira, eta horregatik pertsona partikularren eskubideen garantien ikuspegitik aztertuko dira maila praktikoa, nahiz eta planteamentu teorikorik ere ez den faltako.

2.4. OFIZIOZKO JARDUERAK

Jakina den bezala, Ararteko Erakundea sortzen eta arautzen duen 3/85 Legearen 17. artikulua hau dio: “Arartekoak, bere bitartekoen bidez egoera irregular bat dagoela jakiten badu, ofiziozko ikerketa bat hasi ahal du”.

Arartekoaren zeregin nagusia euskal hiritarrek aurkezten dizkioten keak konpontzea den arren, horrek ez du esan nahi alderdi batetik datozkion eskarietara bakarrik mugatu behar denik, aitzitik, ofiziozko ekintza asko ere burutu ditzake.

Ahal den neurrian beraz, ofiziozko jarduerak ere burutu nahi dira alderdi batek egindako eskariekin batera.

Iazko txostenean esan zen bezala, Ararteko Erakundeak, urtean ikerketa sakon bat gutxienez burutu nahi du euskal gizartean gutxien babesuta dauden kolektiboen egoerari zuzendua, eta ikerketa hori, Eusko Legebiltzarren aurrean izaera bereziarekin aurkeztuko den txosten monografikoan azalduko da.

Iaz, Ertzantzaren eta Udal atxiloteta egoitzen egoerari ikerketa sakon bat eskaini zitzaion bai ikuspegi faktikotik eta baita arau mailakotik ere, eta horrela, Eusko Legebiltzarrari gai horri buruzko txosten berezi bat aurkeztu zitzaion.

Aurten, Euskal Autonomi Komunitateko zentru psikiatrikoetan dauden pertsonen egoerari, eta orohar arreata psikiatrikoari buruzko txosten berezi bat landu da, 1992. urteko lehen sei hilabeteen barruan Eusko Legebiltzarrari aurkeztuko zaiona.

Txosten hori osatzeko, OMIE psikiatriaren euskal fundazioaren eta beste profesional batzuren laguntza jaso dugu, diziplina ezberdinak bildu eta psikiatriaren antolaketa eta ospitale psikiatrikoetako gaisoen eskubideen egoeraren maila guztiak ikertzeko.

Txostena osatzen hasi aurretik, Arartekoak berak jakinarazi zizkion lan asmoak Osasun Sailburu jaunari, eta honek bere laguntza eta bere sailarena eskaini zuen behar zen gutzirako.

Urriaren 28an egin zuen Arartekoak lehen ikuskapen bisita, Bermeoko Ospitale Psikiatrikora hain zuzen, eta Iñaki Azkuna Osasun Sailburu jauna-

rekin egin ere. Jarraian, Euskal Autonomi Komunitateko ospitale orokorre-tako beste ospitale psikiatriko eta unitate psikiatriko publiko eta baita Osa-kidetzarekin oheak kontzertatuta dauzkatenetara ere joan zen, eta egun hauetan egin ziren bisitak:

Bermeoko O.P.	Urria	28
Basurtoko O.O.	Azaroa	4
Zaldibarko O.P.	Azaroa	14
Zamudioko O.P.	Azaroa	20
Galdakaoko O.O.	Azaroa	26
Gipuzkoako O.O.	Azaroa	28
Usurbilgo O.P.	Azaroa	28
Arrasateko O.P. (gizonak)	Abendua	4
Arrasateko O.P. (emakumeak)	Abendua	4
Santiago O.O.	Abendua	10
Las Nieves O.P.	Abendua	10

Gaiso psikiatrikoek gaua pasatzen zuten beste zentru batzuk ere bisitu ziren. Bizkaian Osakidetzak oheak dauzkan zentru hauetako batera egindako bisitaren ondoren, Arartekoak Sailburu jaunari eta Bizkaiko Osa-sun alorreko arduradunei salatu egin zien hogeit bat gaiso psikiatrikok zen-tru horretan jasan behar zituzten baldintza txarrak. Ondorioz, Osakidetzak zentru horrekin sinatuta zeukan kontzertua ez zen berritu, eta gaisoak Osa-kidetzaren sareko beste zentru batzutura eraman ziren.

Ararteko hau biziki kezkatuta geratu zen eta oraindik dago, Basurtoko Ospitaleko Jado pabilioiko "penitenciaría" deituan ikusi zituen gaisotasun psikiatrikoak zeuzkaten preso prebentibo batzuren egoerarekin. Pabilioi ho-rretako alde batean, pasiloan ate baten bidez beste zatitik banandutako zona bat dago, bertan lau gela daude ate blindatu eta leihoetan barrotee-kin, eta polizia zaintzen ditu. Presoek ospitalean zaindu beharreko gaiso-tasunen bat daukatenean, leku horretan zaintzen dituzte.

Arartekoak bisita egin zuenean, gaisotasun psikiatrikoak zeuzkaten bi preso prebentibo aurkitu zituen; hilabeteak zeramatzaten gelda-zelda horie-tan sartuta, kanpora ezertarako irten ezinda, astean bi aldiz senitartekoen bisita besterik jaso gabe. Zeuzkaten baldintza medikuak berriz, erabat kal-tegarriak ziren talde tratamendua behar duen gaisotasun mental bat dau-kan edonorentzat, kasu horietan gaisoak elkarrekin erlazionatu behar dute, eta ezin dira inolaz ere isolatuta eduki.

Arartekoak berehala jakinarazi zien hau justizia arduradunei, eta kasu horietakoren bati epaiketa bizkortu bazioten ere, antzeko kasu gehiago ger-ta daitezke, preso prebentiboak epaituak izateko zain dauden arte psikiatri-koki tratatzeko zentru egokirik ez dagoelako.

Euskal Autonomi Komunitateko psikiatrikoen egoerari eta gaiso psiki-koen eskubideen errespetoari buruzko txostena osatzeko egindako ahalegi-nez gain, Arartekoak ofiziozko jarduera zehatza goak burutu ditu.

Horrela, lurralde historikoetako aldizkari ofizial eta Autonomi Komuni-tateko aldizkarietan argitaratutako iragarkietatik abiatuz lehiaketa eta kon-

kurtso deialdien kontrola egin du, legeak dioena betetzen den ikusteko, hainbat pertsonarengan eragiten dutelako.

Deialdi aginduak aztertu ondoren ikusi da, asko eta askotan ez direla legezkoak, eta horregatik erabaki du Arartekoak ofizioz jardutea. Hautaketa probetan parte hartzeko eskatzen diren baldintzen artean, sarritan, "soldaduska egin beharrik ez edukitzea edo eginda egotea" eskatzen da.

Baldintza hori, Espainiako Konstituzioko 23.2 artikuluan jasotako funtzio eta kargu publiko bat betetzeko berdintasun printzipioaren kontra joan daiteke.

Zentzu berean azaldu da Konstituzio Epaitegia ere, hau aitortu bait du: "Konstituzioak bermatzen du, erakunde publikoetan karguak betetzeko, maila orokor eta abstraktoan ezarri behar direla baldintzak eta esijentziak, hau da, *arauek ezarritako* baldintzak baino ezin direla ezarri".

Egiaz, ez dago inolako arau-iragarpenik baldintza hori bete araziko dela ezartzen duenik. Oraindik indarrean dagoen 1964ko Estatuko Funtzionarien Legearen 30. artikulua ez du esaten Administrazio publikoan sartzeko egiten diren hautaketa probetan aurkeztu ahal izateko soldaduska eginda eduki behar denik.

Are gehiago, Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/89 Legeak berak 62. k) artikuluan, soldaduska edo ordezko zerbitzua betetzen ari diren funtzionarienzat zerbitzu bereziak aitortzea iragartzen du.

Ikusten da beraz, legearen arabera funtzionari publiko izateko probetara aurkezteko ez dela soldaduska edo ordezko zerbitzua eginda eduki behar, eta are gehiago, funtzionariak izanik betekizun legal hori bete behar dutenentzat plaza erreserbatzeko egoera administratibo berezia kontutan hartzen duela.

Arartekoak, "soldaduska egin beharrik ez izatea edo eginda edukitzea" baldintza hautaketa probetako deialdietan ikusi duen kasuetan, deialdiko baldintzak berehala aztertzeko eta puntu hori kentzeko gomendioa eman du, eta era berean diskriminazio egoera hori konpontzen ez den arte tramitazio espedientea bertan behera uzteko.

Erakunde honek, *Astigarraga eta Orioko Udalen* jarrera positiboaren berri eman nahi du, Arartekoaren gomendioa entzun eta baldintza arantza-tsu hori jasotzen zuen deialdiko puntua bertan behera utzi zutelako.

Legazpiko Udalak ez du onartu hautaketa probak bertan behera uztea eskatuz Arartekoak egindako gomendioa, behin-behineko zerrendatik kanpo geratutako bi pertsonak ez direlako kanpoan geratu Arartekoak inpugnatutako baldintzagatik. Nolanahi dio, baldintza hori etorkizuneko deialdietan ez dela sartuko.

Urretxuko Udalak, Arartekoak egindako eskaeraren aurrean dio, prozedura bertan behera uzteagatik arazo larriak sortzen badira ere, "oposizioan parte hartzeko ez duela aintzat hartuko aipatutako baldintza, eta baldintza hori betetzen ez duten hautagai guztiak onartuko direla. Aurrerantzean egingo diren deialdietan, zure gomendioa gogoan izanik, ez da oinarrietan baldintza hori sartuko".

Azkoitia eta Zegamako Udalek, erantzun bat emateko errekerimendua jaso zuten arren, ez diote erantzun Arartekoak deialdietan baldintza hori ez sartzeko eskatuz egindako gomendioari.

Administrazio publikoen hautaketa proben deialdien jarraipena egin du beraz Arartekoak, eta diskriminatorioak diren edo indarrean dagoen legea hausten duten beste irregulartasun batzuk ere aurkitu ditu.

Horrela, *Hernaniko Udalak* hiru klinika-laguntzaile plazatarako deia egin, eta "deialdia argitaratu baino gutxienez sei hilabete aurretik Hernaniko erroldan egotea" eskatu zuen.

Ararteko honen eritziz, baldintza horrek, Espainiako Konstituzioko 23.2 artikulua jasotzen duen funtzio eta kargu publikoetara iristeko berdintasun printzipioa hausten zuen, eta hori jakinarazi zitzaion Udalari.

Hernaniko Udalak Arartekoaren gomendioa onartu eta, baldintza diskriminatorio hori kendu egin zuen.

Azkoitiako Udalak, aldiz, ez zuen onartu Ararteko honek luzatutako gomendioa, hau da, lehiaketa-oposizio batean parte hartzeko baldintza bezala "1989ko abenduaren 31 baino lehenagotik Azkoitian bizitzea" kentzea alegia.

Ikusi da baita, oposizio deialdi batzutan, oposizioak deitzen dituen Administrazioaren zerbitzuan antzeko lanpostuetan administrazio esperientzia edukitzea baloratzen dela.

Esperientzia horren balorazioa meritu bezala sartzeko, oinarri objetibo bat behar da, bestela subjektibitate eta inseguritate juridiko nabaria gertatuko litzateke, eta azken finean funtzio publikoan sartzeko berdintasun printzipioa hautsi egingo litzateke.

Ordiziako Udalak egindako deialdi batzutan esperientziaren balorazioa meritu baloragarri bezala sartzen zen.

Ararteko honek, esperientziaren balorazioa meritu bezala sartzea legezkoa ote zen ikusi arte deialdiak bertan behera uzteko gomendatu zuen.

Udalak egindako txostenaren arabera, ez zen hausten berdintasun printzipioa, baina etorkizunean egin zitezkeen deialdietan esperientzia meritu bezala baloratzeak berdintasun printzipioa hautsi zezakeela kontuan edukitzea eskatu zion Arartekoak.

Arrigorriagako Udalaren jarrera, berriz, oso negatiboa izan da.

1991ko uztailaren 18ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean hiru lanpostutarako deialdiak argitaratu ziren: Kultur Etxeko zuzendari gerente plaza bat, Administrazio bereziko B taldekoa, eta 2 plaza kulturako monitore bibliotekariotarako, Administrazio bereziko C taldekoak, eta Arrigorriagako Udaltxean funtzio berdinetan edo antzekoetan lana egin izana meritu bezala baloratzen zen, lehenengo lanposturako 12,5 puntutatik, 4,5 punturaino 0,40tik abiatuz; eta bibliotekario lanpostuetarako, 8,9 puntutatik 4,5 punturaino 0,40tik abiatuz.

Balorazio hori, nabarmenki gainera, neurritz kanpokoa zen, eta beraz diskriminatorioa, eta postu publikoetan sartzeko berdintasuna bermatzen duen Espainiako Konstituzioko 23.2 artikulua argi eta garbi hausten zuen.

Arartekoak deialdi horiek bertan behera berehala uzteko eskatu zuen, baina Arrigorriagako Udalak ez dio eskariari jaramonik egin.

Erakundeak egin duen jarraipen lanean ikusi da baita, udal batzuren deialdi agindu batzutan, plazak bete behar zituen sailerako iragarri daitezkeen arauekin ados ez dauden hautaketa sistemak iragartzen zirela (oposizioak edo lehiaketa-oposizioak).

Zentzu honetan, *Gernikako Udaletxearen* baldintza batzuek, Administrazio orokorrerako teknikari lanpostu baterako lehiaketa-oposizio prozedura ezartzen zuten, eta hori 781/86 Erret Dekretu Legearen 169-2.a) artikularen (Erregimen Lokaleko Oinarrizko Legearen Testu Bateratua) aurka doa, Administrazio orokorreko mailako azpimaila teknikoan sartzeko oposizio libreak egingo direla esaten duelako.

Gernikako Udalak huts egin zuela aitortu zuen, eta izatez Administrazio bereziko plaza bat zela, eta ez Administrazio orokorrerako, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean zegokion iragarkia sartu eta argitaratuz zuzendu zuen hutsegitea.

Administrazioek hautaketa probekin egindako hutsegiteen aurka burututako ofiziozko jardueren azalpenekin amaitzeko, *Donostiako Udalak* egindako plaza deialdi batzuei buruz erakunde honek izandako jarrera azalduko dugu.

Ararteko hau, *Donostiako Udalak* deialdi horietan egindako hutsegiteengatik kezkatuta dago, eta hori bi arrazoiengatik: alde batetik, ondorioak bizilagun askorengana iristen direlako, eta bestetik, Gipuzkoako beste gorporazio batzuk mimetismo hutsez *Donostiako* eredia jaso eta lege hausketa berberetan erori daitezkeelako.

Kezka hori zela eta, *Arartekoak* bilera batzuk egin zituen Udal ordezkariekin eta baita *Udaletxe* horretako sindikatuen ordezkariekin ere, eta ondoren txosten bat osatu eta Udalari igorri zion, hain zuzen ere hitzez-hitzen hemen eskaintzen dena:

“DONOSTIAKO UDALETXEKO KARRERADUN FUNTZIONARI PLAZETARAKO DEIALDIAK”

Donostiako Udal Plenoak, urte honetako maiatzaren 9an karreradun funtzionari plazak betetzeko deialdi batzuk onartu ditu eta Gipuzkoako Aldizkariko ondorengo data eta zenbakietan argitaratu dira: ekainak 28 (122. zkia.), uztailak 1 (123. zkia.), uztailak 8 (128. zkia.), uztailak 16 (134. zkia.), abuztuak 5 (146. zkia.), abuztuak 7 (148. zkia.) eta abuztuak 8 (149. zkia.), eta ondorengo plazei dagozkie:

- 3 arkitekto plaza, Administrazio berezia, A taldea.
- 3 errepide ingeneri plaza, Administrazio berezia, A taldea.
- 2 soziologo plaza, Administrazio berezia, A taldea.
- 6 aparejadore plaza, Administrazio berezia, B taldea.
- 3 ingeneri tekniko industrial plaza, Administrazio berezia, B taldea.
- 5 herri lanetarako ingeneri tekniko plaza, Administrazio berezia, B taldea.
- 1 nekazaritzako ingeneri teknikoa, Administrazio berezia, B taldea.
- 2 euskarazko itzultzaile interpretari plaza, Administrazio berezia, B taldea.

- 3 goi teknikari plaza, Administrazio berezia-aholkulari juridikoak, A taldea.
- 5 ikuskari laguntzaile plaza, Administrazio berezia, D taldea.
- 12 zerga berriemaile plaza, Administrazio berezia, E taldea.
- 5 Komunikazio operadore plaza, Administrazio berezia, D taldea.
- 2 zerga bilketarako goi teknikari plaza, Administrazio berezia, A taldea.
- 4 goi teknikari plaza, Administrazio berezia, Ekonomia Saila, A taldea.
- 5 erdi mailako teknikari plaza, Ekonomia Saila, Administrazio berezia, B taldea.
- 46 administrari laguntzaile plaza, Administrazio orokorra, D taldea; hauetako 3 barne promoziorako txanda murriztuan, beste 29 lan kontratudunentzat txanda murriztuan, eta beste 14ak txanda librean.

Gorporazioak plaza guztiak betetzeko aukeratu zuen hautaketa sistema lehiaketa-oposizioa izan zen.

Deialdi guztietan baloratzen den meritu bakarra (aholkulari juridikoenetan salbu), Donostiako Udaletxerako deialdian sartzen diren plazetan lana egin izana da, plazen arabera 9,75 puntutatik 23ra bitartean baloratuz meritu hori.

Programetako gaien kopurua hau da: 25 gai gehi eraskin bat A taldekoetan, eta beste deialdietan ez dago gairik.

Oposizioaldian, deialdi gehienetan, ariketa ezberdinen bitartez ez da inor baztertzeko, aitzitik azterketa gainditzeko, ariketa guztien artean lortu beharreko puntuaketa osoaren % 45 gutxienez lortzea aski da, eta salbuespen bakarrak aholkulari juridiko eta komunikazioetarako operadorearenak dira.

Txosten hau sinatzen duenaren belarrietara heldu da, deitutako plaza ia denak behin-behinekoz daudela beteta pertsonal interino bidez.

AZTERTUTAKO ARAUDIA

- Espainiako Konstituzioa, 23. eta 103. artikulua.
- Abuztuaren 2ko 30/84 Legea, Funtzio Publikoaren Erreformatarako Neurri Larriei buruzkoa.
- Otsailaren 7ko 315/64 D., Estatuko Funtzionari Zibilen Legearen testu artikulatua.
- Abenduaren 19ko 2.223/84 E.D., Pertsonala Estatuko Administrazioaren zerbitzuan sartzeko araudi orokorra.
- Apirilaren 2ko 7/85 Legea, Udal Erregimeneko Oinarriei buruzkoa (91, 92, 97 eta 100. artikulua).

– Apirilaren 18ko 781/86 E.D.L., Udal erregimenerako gaietan indarrean dauden xedapen legalen testu bateratua (129, 133, 134, 135 eta 171. artikulua).

– Ekainaren 7ko 896/91 E.D., zeinaren arabera finkatzen bait dira Herri Administrazioarako funtzionariak hautatzeko prozedurak bete beharreko oinarrizko arauak eta gutxieneko programak.

– Uztailaren 6ko 6/89 Legea, Euskal Funtzio Publikoarena (27, 28 eta 91. artikulua eta Aldi baterako 6. Xedapena).

– Konstituzio Epaitegiaren eta Epaitegi Gorenaren jurisprudentzia.

ZUZENBIDE MAILAKO OHARPENAK

I. Lehiaketa aldian, Donostiako Udaletxerako antzeko plazetan administrazio esperientzia baloratzeaz

Epaitegi Gorenak, antzeko deialdietan hautaketa probak deitzen dituen gorpazioan bertan lana eginda egotea bereziki edo bakar-bakarrik baloratu izan denean, bere aurkako eritzia azaldu izan du.

Horrela, 1989ko azaroaren 30eko 4. Salaren epaiak (6.506. Ar.) hau dio: “ez da ulertzen nola izan daitekeen meritu zehatza, hainbeste punturekin baloratzekoa, kargu teknikoa eskualde barruan eta ez hortik kanpo eduki izana, jakin nahi dena izendatu beharreko funtzionariaren gaitasuna edo egokitasuna bada, eta beraz, aipatutako arau inpugnatua ez da zuzena bere zehazgabetasun eta erabilgarritasun ezagatik, subjektibitate eta segurtasun juridiko falta nabaria inplikatzeko duelako”.

1990eko martxoaren 27ko 3. Salako 9. Sailaren epaiak (2.514. Ar.) antzeko zerbait dio: “lehiaketan ezarri beharreko merituen baremoak berdintasun printzipioa ez du betetzen, alde batetik oso era ezberdinean baloratzen direlako lehiaketa deia egiten duen gorpazioan egindako lanak eta beste edozein gorpazio edo administrazioan egindakoak (...)”

Gaiarekin jarraituz, Konstituzio Epaitegiak 2. Salaren apirilaren 18ko 67/89 epaian, bere 2. oinarri juridikoan dotrina hau finkatzen du: “meritu orok dakar a priori meritu horren jabe direnak nortzuk diren jakiteko aukera (arriku are handiagoa meritu zehatz hau denean), baina horrek ez du esan nahi meritu hori aintzat hartzea pertsona zehatzen mesedetan egin denik. Hori, dagokion merituen oinarri objektiborik ez daukanean bakarrik gertatuko da, eta kasu honetan hori gertatzen da (...)”, (deialdian Extremadurako Batzarreentzat egindako lan urteak baloratzen dira).

Orain arteko kasuetatik derrigorrez eratoritzen denez, eta Donostiako Udalak bestelakorik frogatzen ez duen arte, bere baldintzak ez dauka erizpide objektiborik, subjektibitate eta segurtasun juridiko falta nabaria sortzen duelarik, eta azken finean, Konstitu-

zioaren 23. artikulua bermatutako funtzio publikoan sartzeko berdintasun printzipioa hausten du.

II. Lege aholkulari plazetarako lan esperientzia osagarriaren baldintza betetzeaz

Kasu honetan ezarri daitekeen araudia, 1964ko Estatuko Funtzionari Zibilen legeko 30. artikuluan dago jasota, zeina Erreformako 30/84 Legeak eta Erregimen Lokaleko Testu Bateratuko 135. artikulua ez bait dute bertan behera utzi, eta zehatz-mehatz finkatzen du zein diren lekuko funtzio publikoan sartzeko probetan onartuak izateko bete beharreko gaitasun baldintzak, eta ez du esaten baldintza bezala aipatutako lehenengo arauan jasotzen diren estatik kanpokorik sar daitekeenik.

Hirugarren oinarriko f) atalean, hautaketa probetan onartua izateko derrigorrezko baldintza bezala bi hauek aipatzen dira Donostiako Udalak egindako deialdian:

“1. Abokatuen Kolegioan, lanean ari den profesional bezala matrikulatuta egotea, eta eskaria aurkezteko epea amaitzen den data baino aurretik 10 urteko etengabeko esperientzia edukitzea.

2. Administrazio publikoan ordezkartza eta defentsa juridiko lanetan lau urte baino gehiagoko frogatutako esperientzia edukitzea”.

Beraz, lehen ikusitako lege mailako arauak direla medio, Administrazio publikoetan lana egiteko pertsonala hautatzeko unean kontuan eduki beharreko berdintasunaren printzipio konstituzionala ez da betetzen, are gutxiago uztailaren Ieko Aginte Judizialaren 6/1985 Lege Organikoko 447. artikulua herri erakundeetako zerbitzu juridikoetako legegizonek, kolegiatuta egoteko premiarik gabe gorporazioa ordezkatzeko eta defenditzeko aukera ematen duelako, eta gauza bera adierazten da herri gorporazioen antolaketa, funtzionamendu eta erregimen juridikorako Araudiko 221-2. artikuluan ere.

Donostiako Udalak bereziki nahi badu probak gaintzen dituzten hautagaiek baldintza horiek betetzea, lehiaketan meritu bezala sartzeko aukera ematen zaio.

Zentzu honetan mintzatu da Epaitegi Gorena, 3. Sala 9. Saila, 1990eko abenduaren 4ko (10127. Ar.) epai bidez, bere laugarren oinarri juridikoan: “1986ko apirilaren 18ko Erregimen Lokaleko Testu Bateratuko 135. artikuluan jasotzen diren baldintzak, hautagaiek egin beharko duten lanera egokitzen diren berezitasunekin osatu beharko lirakeela esaten denean, herri funtzio publikoan sartzeko gaitasun baldintzak ez dira nahastu behar deialdiko plazei dagokien lana egiteko gaitasunekin, eta hautaketa probak azken puntua frogatzera bideratu beharko lirakeke..”

Gainera esan behar da, lehiaketaren bigarren atalaren balorazioa zehatza ez izateak inseguritate juridikoa sortzen duela, ez delako esaten lana egindako urte bakoitzagatik zenbat puntu emango diren, eta antzeko postuetan lortutako esperientzia profesionala, formazio ikastaroak, argitalpenak, titulazio osagarriak, etabar bezalako meritu ezberdin eta konparagaitzak nahasten direlako.

III. Oposizio aldiaz: programako gaien kopurua eta ariketen baztertzeko gaitasuna

Ekainaren 7ko 896/91 Erret Dekretuak, zeinaren arabera finkatzen bait da Administrazio publikoko funtzionarien hautaketa prozedura zein oinarriko arau eta gutxienerako programetara egokitu behar den, 8. artikuluan finkatzen ditu hautaketa programen gutxienezko edukiak, eta eduki horiek garatu beharreko gai kopurua agintzen du, eta hemen aztertzen ari garenerako hauek dira:

- A taldea: 70 gai.
- B taldea: 60 gai.
- D taldea: 20 gai.
- E taldea: 10 gai.

Donostiako Udalak egindako deialdien programak, ordea, gai kopuru horretatik askotxo urruntzen dira jarraian ikus daitekeen bezala:

— A taldeko lanpostuak: 25 gai gehi eraskin bat bi gairekin kasu batzutan, 26 gai beste batzutan, eta lege aholkularien plazetarako gairik ez.

— B taldeko lanpostuak: 19 gai, gehi eraskin bat bi gairekin.

— B taldeko lanpostuak: 9 eta 10 gai deialdien arabera, eta komunikazio operadoreetako plazetan gairik ez.

— E taldeko lanpostuak: 11 gai, honekin talde honetako lanpostuen deialdietan bakarrik errespetatzen da gai kopuru minimoa.

896/91 Erret Dekretua ekainaren 15ean sartu zen indarrean, hau da, deialdien oinarriak onartu zituen plenoaren ondoren, eta oinarri horiek argitaratu baino lehen. 896/91 Erret Dekretua, bere aldi baterako xedapen bakarraren arabera, indarrean sartu ondoren argitaratutako deialdiei bakarrik ezarri lekieke, hau da, 1991ko ekainaren 15aren ondoren argitaratutakoei, eta Donostiakoak kasu honetan leudeke. Halere, arau hauek atzerako eraginik ez izateko eskubidearen printzipioaren arabera, xedapen horren zuzentasuna zalantzazkoa da.

Deialdi oinarrietan jasotako gai zerrenda murrizta izateaz gain, deialdi ezberdinen iragarpenetan, lege aholkulari eta komunikazio operadoreenetan salbu, hauek gairik ez daukatelako, oposizio

ariketa guztiak eta bakoitza ez dira baztertzailerak, baizik osotasunean dira baztertzailerak, hautagaiak gainera "lortu daitekeen puntuazio osotik gutxienez % 45a" gainditu behar delarik.

Horrela, oposizio aldia nabarmenki gainditu daiteke, funtzio publikoan sartzeko oposizio deialdietan behin eta berriz jarraitzen den bidea hausten da eta 896/91 Erret Dekretuko 4. artikulua c) hausten da, oposizioetako ariketak baztertzailerak direla esaten bait du, garbiki probei buruz ari delarik eta ez oposizio aldi osoaz.

IV. Administrazio orokorrerako laguntzaile plazetarako hautaketa lehiaketa-oposizio bidez egiteko sistemaz.

781/86 Erret Dekretuko 169-2.c artikulua Administrazio orokorreko mailako azpimailetan sartzeko sistema arautzerakoan hau dio: "laguntzaileen azpimailan sartzeko oposizio libreen prozedura jarraituko da".

Baldintza hori ez zaie beste deialdiei, Administrazio bereziko mailako plazei ezartzen, eta bai ordea Administrazio orokorreko mailan sartzekoei, abuztuaren 9ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako 46 laguntzaile plazen deialdian gertatzen den bezala, eta beraz, Konstituzioaren 23. artikuluan aitortzen den funtzio publikoan sartzeko berdintasun printzipioa hautsi egiten da.

Orain arte eman diren arrazoien derrigorrezko laburpena egiaz, ondorengo ondoriora iristen gara.

ONDORIOA:

Deialdien oinarrietan eskatutako baldintzak, oposizio eta lehiaketa aldien ezaugarriak, eta Donostiako Udalaren deialdiek hautagaien merituek eta gaitasuna baloratzeko daukaten modua kontuan izanik, eta jakinik plazak jadanik funtzionari interino eta pertsonal laboralaz beteta daudela, ezargarria da Konstituzio Epaitegiaren doktrina, 30/86, 42/86, 137/86 eta 148/86 epaietan jasotzen dena. Zehaztasun osoz ezarri nahi izan gabe, doktrina hori laburtu daiteke esanaz, diskriminazioa dagoela eskatutako merituek egiazko erreferentzia indibidualizatu eta zehatz bat osatzen dutenean, ekintza eta negozio juridikoak beren funtsaren eta edukiaren arabera kalifikatu behar direlako, eta ez ematen zaien deituraren arabera.

Deialdietan erabilitako hautaketa sistema ez naturalaren aurrean, hau da Arartekoaren asmoa:

— Donostiako Udalari, barne txosten honetan zalantzan jarri diren deialdiei buruzko gaiak argituko dituen txosten bat eskatzea, horretarako epe motz bat emanaz, eta aldi berean, deialdia momentuz bertan behera uztea, eskatutako txosten hori jaso arte, ho-

rrela, deitutako plazetarako hautagaien aldeko eskubideen jaiotza posibleari aurre hartzeko.

Donostiako Udalak, Erakunde honek bidali zion txostena aztertu ondoren, beste bilera bat egin zuen Arartekoarekin, eta Udalak erabili zituen argudioak ez ziren zehazki legera biltzen, eta batez ere erosotasunari edo onurari erantzuten zieten.

Gainera, Arartekoaren txostenari, jarraian transkribatzen den idatzia bidali zion Donostiako Udalak:

“Deialdiak arautzen dituzten baldintzak Euskal Funtzio Publikoaren Legeko 26. artikulua eta aldi baterako xedapenen arabera finkatu dira, funtzionarien plantila osatzearen, eta horretarako pertsonal premia erreala finkatu nahi da, lanpostuen zerrenda egin eta bakoitzari hizkuntz eskakizunetan dagokion maila ezarri nahi zaio.

Hain zuzen, plantila egiazko premietara egokitzen ez zelako eta hizkuntz eskakizunak finkatzen ez zirelako egon da Udal hau urteetan jabetun plazetarako deialdirik egin gabe, eta aldiz, behin-behineko kontratuak egiteko eta funtzionari interinoak izendatzeko deialdi publikoak bai egin izan dira.

Guzti horregatik, gaur egun behin-behineko kontratudun eta funtzionari interino asko dira Gorporazio honetan urte batzuk lanean daramatzatenak, bere garaian deialdi publikoen ondoren ezarritako probak gaudituta sartu zirenak. Herri Administrazioan nagusitu behar diren eraginkortasun eta ekonomia printzipioen ondorioz, hautaketa prozesuetan udal Administrazioan bertan lortutako ezagutzak gogoan eduki nahi izan dira, dudarik gabe langile horien esperientziak Administrazio honen funtzionamendu hobea eragingo duelakoan”.

Ararteko honek, Donostiako Udalak martxan zeuden probekin aurrera jarraitzeko azaldu zuen jokaerarekin inolaz ere ados egon ez arren, Udalarekin egindako bileran hemengo arduradunei eskatu zien, Erakundeak bidalitako txostenean aipatzen ziren erizpideak aintzat har zitzatela datozen deialdietarako, eta udal ordezkariak onartu zuten proposamen hori.

Hautaketa probekin zerikusia zeukaten ofiziozko jardueraz gain, Arartekoak burutu ditu alderdi baten eskariz hasi gabeko eta beste gai batzuren erlaxionatutako ekintzak.

Horrela, Lurralde Autonomoan adin gutxikoen eskubideen babesarekin kezkatu azaldu da, eta Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailarekin harremanak izan ditu lurralde honetan adin gutxikoentzat zentru bat eratzekeo premiaz hitzegiteko, jakinarren zentru horren eraketak aipatutako Sailaren ahalmen legalak gaintzen dituela, Foru Aldundien, Eusko Jaurlaritzako beste sailen eta Estatuko Administrazioaren baitan ere badagoelako horren eraketa, eta arazoari tratamendu orokorra eman behar zaiolako.

Beste maila batean, Euskal Herriko Aldizkari Ofizialaren jarraipen bat egin ondoren, Arartekoak ikusi du, HAEEdak funtzionari entzat antolatutako

ikastaro askoren berri, ikastaroa amaitu ondoren ematen zela aldizkarian, eta beste askotan, matrikula epea amaitu ondoren.

Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritza Sailak erantzun hau eman zuen: "HAEEK, antolatzen dituen ekintzen berri oso zabalki ematen du, nahiz informazio orrien bidez, nahiz komunikabideetako iragarkien bidez. Horrela, urte bakoitzaren hasieran liburuska bat argitaratu eta banatzen da urtean zehar egingo diren ikastaroen berri emanaz, horien edukia, iraupena, arduradunak, matrikula kostuak, non egingo diren, etabar, adieraziz. Aurrerago, egunkarietan hiruhilabeteko egutegiaren berri ematen da, eta azkenik, ikastaro bakoitzari buruzko iragarkiak egunkarietan argitaratzen dira. Beraz, Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean atzerapenik gerta ez dadin mekanismoak finkatzea falta da".

Idatzia, ondorengo baieztatuz amaitzen da: "gertatu diren desorekek justifikaziorik ez daukatenez, baieztatu dezaket ez dela atzerapen gehiagorik gertatuko, eta behar diren neurriak hartuko direla HAEEren ikastaro eta mintegien planifikazioan, Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean beraien berri garaiaz azaldu dadin, behar diren denbora epeak har daitezten. Aurrekoa gogoan izango da baita Euskal Herriko Aldizkari Ofizialaren jarduera programatzerakoan".

Erakunde honek, emandako laguntza eskertuz, eta arazoa konponbidean jarri zelakoan, bere lana amaitutzat jo zuen.

Azkenik, Donostiako Arantzazuko Ama Ospitalera egindako bisita batean ikusitako irregulartasun bat aipatu beharrean gaude. Jakin zenez, ustez gaisotasun kutsagarri bat zeukan preso bat aurkitzen zen bertan, gero baieztatu zen gaisotasuna ez zela kutsagarria, eta mugitu ezinda oheari lotuta eduki zuten bost egunez, poliziaren zaintzapean.

Ararteko honek, atxilotuaren eskubideak errespetatzen ez zirelako, gertatzen zenaren berri Donostiako Lurralde Entzutegiko Fiskal-Nagusari jakinarazi zion. Fiskalgoaren txostenak dio, presoari alta eman eta berriro Martuteneko kartzelara eraman zutela.

Donostiako Arantzazuko Ama Ospitalearekin berriro harremanetan jarri ondoren jakin zen, presoentzako diren geletan barroteak jarri direla beraien inork tratatu txarrik eman ez diezaien.

Presoen duintasunarekiko errespetoa bermatu dadin behin betirako soluzio bat aurkitzeko, ordea, eta segurtasunaren galerarik gabe, Arartekoaren aholkuepean Jardun protokolo bat egiteko aukera aztertu da Donostiako Arantzazuko Ama Ospitalean presoak ospitalizatzeari buruz. Protokolo hori, Gobernu Zibilak, Fiskalgoak eta Ospitaleko Zuzendaritzak sinatuko luke, eta giza eskubideak errespetatzeko bidean beste pauso bat izango litzateke.

III. ATALA

**KEXEN LABURPENA
SAILEN ARABERA**

Txostenaren atal honek, oraingoan ere, Ararteko Erakundeari aurkeztu zaizkion kezarik adierazgarrienak, euskal hiritarrak gehien kezkatu dituzten arazoak eta guzti hauen inguruan zabaldu diren espedienteen emaitzak erakutsi nahi ditu.

Horregatik, lehenagoko urteetan bezala, amaituta dauden espedienteak bakarrik ekarriko dira hona, nahiz eta, salbuespen gisa, txosten hau egiten ari den unean oraindik tramitazioan dauden kexa batzuk azal daitezkeen, bereziki interesgarriak izateagatik.

Dena dela, aurtengo txosten honek badu berritasun nabarmen bat aurreko bien aldean, kexaak sailen arabera sailkatzeko erizpidea eta izendapenak aldatu direlako.

Izan ere, orain arte erabili dugun metodoa erizpide materialean baino areago oinarritzen zen erizpide organiko batean. Horrela, kexaen sailkapena Eusko Jaurlaritzaren sail desberdinen izendapen organikoaren arabera egiten zen, haietan sarturik gainerako euskal administrazioei buruzko kexaak ere.

Erizpide hori hartzean uste genuen argigarriagoa izango zela jadanik finkatuta zeuden izendapen administratiboak erabiltzea, baina funtsean ez da oso erizpide operatiboa izan.

Lehen-lehenik, metodo horren bitartez, administrazio publikoen kontra jasotako kexaak administrazio horietako baten, edo zehazkiago esanda, Eusko Jaurlaritzaren sailen egitura organiko estuaren arabera sartu behar ziren txostenean.

Horren eraginez, emaitza ez zen oso argia, zeren eta askotan zaila bait zen udal edo foru administrazioei buruzko kexa batzuk aurkitzea, edo, are okerrago, sailen arabera egindako laburpena edota datu estatistikoak azkarregi irakurriz gero, gerta bait zitekeen sail bati buruzko datuak Eusko Jaurlaritzaren sailletako bati zegozkioneekin nahastea.

Beste alde batetik, gure Autonomi Komunitate errealtate politikoa aldakorra izanik, aldaketak gertatu dira elkarren jarraian osatu diren gobernuen artean, eta beste horrenbeste gertatu da, horren ondorioz, egitura organikoari buruzko dekretuekin.

Aldaketa horiek, batzuetan, botere politikoa banatzeko erizpideetan oinarritu dira, erizpide guztiz materialetan barik, eta haien medioz halako administrazio unitate batzuk —halako arlo material batzuk gestionatzen dituztenak— sail batean edo bestean sartu dira, antolakuntzari erabat ez dagozkion unean-uneko erizpideen arabera.

Hausnarketa hauek guztiak egin eta gero, sailkapen modu berri bat bilatu behar izan dugu erizpide erabat materialak erabiliz.

Jakina, erizpide berri honek ez du goitik-behera aldatuko lehengo sistema, zeren eta horrelako banaketa material bat, funtsean, aurretiaz dagoen banaketarekin bat bait dator.

Sailen araberako egitura berrian, kexaak eragin dituzten arloak bereiztu dira, eta sailkapen hau, argigarriagoa izateaz gain, iraunkorra ere izango da, edo asmo hori du behintzat; horrela, gonbaraziozko ikerlanak egin ahal-ko dira urte ezberdinetako datuekin.

Berregituratze hau, esan gabe doa, estatistikari eskainitako atalean ere islatuta azalduko da.

Hortaz, sailak era honetan banatu ditugu aurtengo txosten honetan:

1. Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa
2. Kultura eta Elebitasuna
3. Hezkuntza
4. Funtzio Publikoa eta Administrazioaren Antolakuntza
5. Ogasuna
6. Herrizaingoa
7. Justizia
8. Ingurugiroa
9. Herri-Lanak eta Zerbitzuak
10. Osasuna eta Gizarte Ongizatea
11. Lana eta Gizarte Segurantzza
12. Hirigintza eta Etxebizitza
13. Beste gestio batzuk

Aipatzekoa da aurreko bi urteetan kexarik gehien biltzen zituen saila, hau da, Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiroa, bitan banatu dela aurtengo txostenean: Hirigintza eta Etxebizitza, batetik, eta, bestetik, Ingurugiroa.

Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuen Arautegia ez betetzeagatik jaso diren kexaak dexente ugaritu dira, eta hori arrazoi nahikoa da arlo hori bakarka sailkatzeko.

Beste alde batetik, esan beharrik ez dago funtzio publikoa eta Administrazioaren Antolakuntza sail berrian funtzio publikoaren inguruko gaiekin erlacionatutako kexaak bilduko direla. Horrek esan nahi du hemendik aurrera osasun, irakaskuntz eta polizi alorreko langileek azaltzen dituzten kexuak Osasuna, Hezkuntza eta Barne Sailean agertu ordez, Funtzio Publikoaren sailean agertuko direla, amankomuneko arlo horren azpisailak bait dira.

3.1. NEKAZARITZA, INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMOA

A) Sarrera

Atal honetan 25 kexa sartzen dira, aurkeztutako guztien % 5,4a. Udalak gai hauetan eskudunak ez direnez, hau da beste administrazioen arabeko banaketa:

— Eusko Jaurlaritza	8
— Aldundiak	17

Lehendabiziko, bigarren eta hirugarren sektoreetako ekintza propioak sail bakar batean sartu diren arren, alor honetan ez dira arazo gehiegi sortzen, gaiak ez bait du aukera gehiegirik ematen administratuen eta erakunde publikoen artean auziak sortzeko.

Nekazaritzako kexen artean, lurzati kontzentrazioen orube edo lurren mugak dira arazo gehien sortzen dituztenak, lurzatiak adjudikatzean pizten direnak hain zuzen.

Abelzaintzari dagokionez, larrerako zonak banatzean sortutako arazoengatik aurkeztutako kexak daude.

Azkenik, legez kanpo ehizean egiteagatik aurkeztu diren kexak daude.

Industriaren alorrean aurkeztu diren kexak berriz, ibilgailuen derrigorrezko ikuskapen teknikoaren ondorioz maila zehatzei dagozkienak dira, eta arazo horiek, Administrazioak dagoen premiari erantzuteko daukan bitarteko faltaren ondorioak dira.

Era berean, partikularren etxebizitzetako berogailu instalazioetan ustez gertatzen diren irregulartasunekin zerikusia dutenak ere aipatzekoak dira; arazoak, Industria Sailaren beharrezko baimenik ez dutelako edo instalaziorako ezarritako neurri zuzentzaileak betetzen ez direlako sortzen dira.

B) Kexen aukeraketa

Bastidore zenbakiaren faksimila IIT-koarekin bat ez etortzeagatik, Lambretta motor bat zigilatzeaz (283/90)

Gasteiztar batek motor bat erosi zion beste hiritar bati, baina ibilgailuaren dokumentazioan arazoak zeudela eta, zigilatu egin zioten. Horren inguruan, kexa bat aurkeztu zuen, zigilatze horrek kalteak eragin zizkiolako bere lanean.

Kexadunak bere idazkian zioenez, motorra erabat berria zela erosi zuen, baina haren dokumentazioa ez zuen inoiz eskuratu. Urte batzuk beranduago, dokumentazio eskari bat egin zuenean, Ibilgailuen Ikuskaritza Teknikora (IIT) bidali zuten, txartel teknikoaren bikoiztua egiteko. Orduantxe ikusi zen ibilgailuaren bastidore zenbakiaren faksimila ez zettorrela bat IIT-ek bere artxibategian zeukanarekin.

Arazoa konpontzeko hilaibeteko epea eman zioten, eta bukatzean, parte eman zitzaion Bidezaingoari; horren ondorioz, Udaltzaingoak zigilatu egin zion ibilgailua. Pertsona honek gertatuaren berri eman zion Ertzaintzari.

Kexadunak azaltzen zuen arazo bera zeukaten motor batzuk ba omen zeudela, berari esan ziotenaren arabera, fabrikaren arazo baten erruz; hala ere, Arartekoak Ertzaintzaren Zuzendariarengana jo zuenean, honek jakinerazi zion, beharrezko ikerketak egin eta gero, beren Lambretta markako motorren artean ez zegoela horrelako alderik hango artxiboan bildutako ibilgailuen faksimilen eta ziurtagirien artean.

Arartekoak era honetan frogatu zuen Administrazioaren aldetik legearen kontrako ekintzarik edo jokabide okerrik ez zela gertatu, eta horregatik artxibatu egin zuen espedienteak; horrekin batera, kexadunari aditzera eman zion bazitekeela akats edo maltzurkeriaren bat egotea motorraren salmentan, erosleak beti ere on beharrez jokatu zuela onartu behar bazen ere.

Tximistorratz arradiaktiboak direla eta (284/90)

Basauriko ikastegi publiko bateko eskola kontseiluak kexa idazki bat bidali zion Arartekoari, udalerrri horretxetako hainbat eraikuntza publikotan tximistorratz arradiaktiboak zeudela salatzen; horrekin batera, tximistorratz horiek berehala kentzeko eta haien ordez osasunerako eta ingurugirorako kalterik gabeko beste batzuk jartzea eskatzen zen.

Arartekoak arreta handiz aztertu zuen arazo hau, eta horren inguruko historia labur bat egin zuen.

Tximistorratz mota batean buru arradiaktiboak zeudela eta, Segurtasun Nuklearrerako Kontseiluak ikerlan bat egin zuen era horretako tximistorratzek ohizkoen aldean zeuzkaten on-gaitzei buruz. Ikerlan horren emaitzen arabera, arriskua ez zen kontutan hartzekoa, baldintza egokietan funtzionatuz gero, baina bai ordea, arradioisotopoei eusten dien sistema hondatzen denean, berauek tximistorratzaren buruan aurkitzen direlako, hain zuzen ere. Horregatik, Kontseilu horrek proposatu zuen ebazpen bat egin zedila tximistorratz horiek araupetzeko.

Horrela, 1.428/86 Erret Dekretua, ekainaren 13koa, onartu zen, tximistorratz arradiaktibo gehiago instalatzea debekatu eta urtebeteko epea ematen zuena, beraiek edukitzeko baimena eskatzeko, edota, bestela, buru horiek kentzeko. Epe hori beste urtebetez luzatu zen, uztailearen 10eko 903/87 Erret Dekretuaren bitartez.

Segurtasun Nuklearrerako Kontseiluak ENRESA (Empresa Nacional de Residuos Radioactivos) delakoari bakarrik eman zion buru horiek manipulatzea, eta, hortaz, kentzeko baimena; era berean, jatorrizko gastuak Administrazio zentralaren kontura joango zirela ebatzi zuen.

ENRESAren asmoa Estatu osoan hiru biltegi edo almatzen edukitzea zen, haietako bakoitza 8.000 tximistorratz biltzeko egokia, enpresaren beraren gestiopean.

Handik bi urtera, Industria Ministraritzaren Energia Zuzendaritza Nagusiak txosten batean aditzera eman zuen biltzeko gaitasun nahikoa zeukan leku bat eduki bezain laster hasi zitekeela ENRESA tximistorratz horiek kentzen. Bertan adierazitako datan ez zegoen inon inolako biltegi berezirik, eta egoera txarrean edo erortzeko zorian zeuden tximistorratzak beren lekutik kentzen hasiak ziren.

Horiek horrela izanik, Industria Ministraritzak 1988ko abenduaren 30ean agindu bidez ezartzen zituen halako dirulaguntza batzuk produktu arradiaktiboetarako biltegia instalatzea onartzen zuten udalentsat. Era horretara, nolabaiteko ordaina eman nahi zen, udal horientzat beren udalerrien barruan era horretako biltegiak instalatzeak ekar zitzakeen eragoz-

penen truke. Neurri horrek, ordea, ez zuen nahi bezalako ondoriorik eduki, eta egoera bere hartan geratu zen.

Goian esandako kexaa jaso ondoren, erakunde honek hainbat gestio egin eta ikusi ahal izan zuen euskal Administrazio autonomoa aspalditik arduratzen ari zela gai horretaz. Nolanahi ere, baziren bi arazo: batetik, gai hori Estatuaren eskumenekoa zen; eta, bestetik, ENRESAk ez zeukan buru arradioaktiboak biltzeko lekurik, gorago esan bezala, horretarako udal bakoitzaren baimena behar zuelako. Gaur arte, udalerrri bakar batek ere ez du onartu horrelakorik, eta horregatik ezinezkoa gertatu zaio entrepresa horri tximistorratz horien buruak kentzen hastea.

Kexaak aipatzen zuen gaia Estatuaren Administrazioaren eskumenekoa izaki, eta jakinik Defensor del Pueblo delakoak era honetxetako arazo batean parte hartu zuela, Arartekoa harremanetan jarri zen Estatuaren Herri-Defendatzailearekin. Erakunde horrek lehenago azaldu duguna adierazi zuen, alegia, konponbidea bilatu ahal izateko, lehen-lehenik biltegi bat non jarri aurkitu beharra zegoela, eta horretarako udalen baimena behar zela. Herri-Defendatzaileak, 1988ko bere txostenean, elkartasuna eskatu zien administrazio zentraleko, elkarte autonomoetako eta udaletako agintareei, arazo honi irtenbidea bilatu ahal izateko; gainera, Industria Ministraritzari eta ENRESAri gomendatu zien behar ziren neurriak hartzea tximistorratz horiek ahalbait lasterren kendu eta horrela beren arriskugarritasuna ezeztatzeke. Hala eta guztiz ere, gauzak ez dira ezertan ere aldatu.

Esan dugun guztiaren arabera, Ararteko honek erantzuna bidali zien kexadunei, esanez epe laburrerako konponbiderik ez zela igartzen, eta, aldi berean, ez zela jokabide okerrik antzematen euskal administrazioaren alde-
tik, honek, buruz belarri egin ordez arazo honi, beharrezko laguntza eman bait zuen ahalmena zeukan sailak tximistorratzak kentzen hasi ahal izateko.

IIT-Ibilgailuen Ikuskaritza Teknikoa zerbitzuaren akatsez (176/91)

IIT-Ibilgailuen ikuskaritza tekniko zerbitzuari buruzko erreklamazio bat jaso genuen Erakunde honetan, bilbotar batek bidalia. Kexadunak bere idazkian jakitera eman zuenez, bere ibilgailuaren ikuskaritza egiteko ezarritako epea hurbil edukita, hainbat ahalegin egin zituen telefono bidez zerbitzu horrekin harremanetan jartzeko Arrigorriaga herrian, ikuskaritzarako egun-orduak finkatzeko, baina alferrik.

Kexadunak zioen Industriako Lurralde Ordezkaritzara jo zuela bi aldiz bere kasua azaltzeko, eta han aditzera eman ziotela bazekitela arazoak zeudela telefono linearekin, baina horiek konpontzeko modurik ez zutela.

Arartekoak argitasunak eskatu zizkion gai honi buruz Bizkaiko Industria Ordezkaritzari, eta han jakin zuen egia zela arazoak zeudela telefono linearekin, urte hartan 60.000 ibilgailu berrik pasa behar zutelako ikuskaritza, aurreko beste urteetan egiten ari zirenak kontutan hartu gabe.

Industri Ordezkaritzaren arabera, egoera oker hori konpontzeko aha-
leginak egiten ari ziren, eta horretarako ibilgailuen ikuskaritza teknikorako beste zerbitzu bat eraiki nahi zen Trapagaran udalerrian, Ibaizabaleko ez-

kerraldean, lanean ahalik eta azkarren hasi ahal izateko. Arrigorriagako zentruak jasotzen zituen dei ugariak gutxitzea espero zen neurri horrekin.

Arazoa konpontzeko berehala hartu beharreko neurriei dagokienez, Industria Ordezkaritzak bere idazkian honako hauek aipatu zituen besteak beste: pertsona bat kontratatzea lanaldi partzialez telefono deiak jasotzeko zerbitzua indartzearen; eta egun bakoitzean egin beharreko ikuskaritza kopurua zabaltzea; horretarako, beste bi tailerri baimena emango zitzaien laguntzaile moduan ikuskaritza egiteko. Tailer horiek Asua-Erandioko Lejarza, S.A., eta Zamudioko Mintegui, Industrias del Camión izango ziren.

Nolanahi ere, erakunde honek gomendio bat egin zion Bizkaiko Industria Ordezkaritzari, arazoa konpontzeko neurri eraginkorrakoak har zitzan, Trapagarango zentru berria lanean hasten ez zen bitarterako. Hona hemen gomendioa:

“Dena dela, kontutan harturik Trapagarango ikuskaritza-leku berria lanean hasi arte IIT delakoa eskatu eta egin beharko duten ibilgailuak oso ugariak direla, eta orain arte hartutako neurriak hartuta ere zail samarra izango dela Administrazioarentzat eskari horiei erantzutea, Ararteko honek (...) gomendatzen dizu, errespetu osoz, lurralde ordezkaritza horrek neurri eraginkorrakoak har ditzala hemen aipagai dugun arazoari aurre egiteko. Iradokizun moduan, hona hemen neurri batzuk: telefono linea gehiago jarri Arrigorriagako ikuskaritza-lekuan -eta horretarako behar den pertsonala hartu-, baimendutako tailerretan egunean ikuskatu beharreko ibilgailu kopurua zabaltzea edota tailer gehiagori baimena eman, pertsonal tekniko gehiago kontratatu, edo, bestela esanda, helburu horretarako egokitzat jotzen duzun beste edozein neurri ere.

Ez da ahaztu behar IIT delakoa eskatzen duten hiritarrek indarrean dagoen arautegiak behartuta egiten dutela, eta arauak ez betetzea zigortuta dagoela. Hori dela bide, Administrazioa behartuta dago hiritarrari eskatzen dizkionak bete ahal izateko behar diren bideak jartzera”.

Lursailen kontzentrazio espediente batean onibar bati onartutako emaitza-azalera (488/91)

Kexa aurkeztu zuenak zioen Zuian, Markina herrian, lursail baten jabe zela, eta Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Departamentua egiten ari zen lursailen kontzentrazio espedientean, bere onibarrari ehun metro karra gutxiago jartzen zitzaizkiola eskritura publikoen arabera egiaz zituen baino.

Arartekoak kontzentrazio espedientea aztertu, eta kexadunari azaldu zitzaion Foru Aldundiaren teknikariek lursailen kontzentrazioan sartu beharreko gainazalaren planu bat egin zutela, eta planu horren arabera, bere onibarrak egiatan ehun metro gutxiago zituela Jabetzaren Erregistroan eta notariaren eskrituran baino. Hori ulertzekoa da, kontutan hartzen badugu eskritura publikoek halako ondasun edo eskubide baten jabea zein den ja-

soetzen edo frogatzen dutela, baina ez dutela frogatzen zeintzuk diren onibarraren ezaugarriak, azalera barne.

3.2. KULTURA ETA ELEBITASUNA

A) Sarrera

Alor honi buruz 30 kexa jaso dira guztira, hau da, aurkeztu diren guztietatik % 6a.

Kexagai izan diren administrazioei bagazozkie, honelaxe banatu dira kexa horiek:

– Eusko Jaurlaritza	12
– Aldundiak	3
– Udalak	15

Sail honetan biltzen dira lehenagoko Kultura, Turismo eta Kirolak zertanari buruzko kexak, turismo alorrekoak kendurik eta elebitasunari buruzkoak erantsita, azken hauek sail guztien artean barreiatuta bait zeuden lehenago.

Kexen edukiari dagokionez, erdi bana azaltzen dira kultura eta elebitasuna alorren artean bereizturik, haietako bakoitzean 15 kexa bildu bait dira.

Kulturari, kexak eragin dituzten arazoak askotarikoak izan dira, baina, besteak beste, kirol gorabeherak, gazteria zerbitzua, ondare historiko-artistikoa, musika eskolak eta abar dira aipagarrienak.

Eta Elebitasunaren inguruan jaso diren kexak ikusten baditugu, gehienak Estatuaren Administrazioak era guztietako espediente administratiboetan erabiltzen dituen inprimakiak bi hizkuntzetan azaltzeari buruzkoak dira.

B) Kexen aukeraketa

Bizkaiko Foru Aldundiak antolatutako familientzako opor egitarau batean sartzeko famili-liburua eskatzeaz (301/90)

Erakunde honetan kexa bat jaso zen Bizkaiko Foru Aldundiak 1990eko udarako “Familiarentzako Oporrak” izenez antolatutako egitarauan sartzeko famili-liburua eskatu, eta baldintza hori ez betetzean eskariari uko egin zitzaioela salatzeke.

Auzia aztertu eta gero, ikusi zen lege-oinarririk ez zuela famili-liburua eskatzeak baldin eta familia horrek frogatzen bazuen elkarrekin bizi zela eta umeak zituela, halakorik edukiz gero. Hori zela eta, erakunde honek Bizkaiko Aldundiko Kultur Diputatuarengana jo zuen kexadunaren eskariari uko egiteko motibuari buruzko argitasunak eskatzeko.

Kultur Diputatuak bidalitako erantzuna honako hau izan zen, hitzez hitz:

“Erreklamantearen eskabideari uko egiteko arrazoia Gazteria Zerbitzuaren gaizki ulertze bat izan zen, ez bait zituen balio berekotzat jo elkarbizitze-ziurtagiria eta famili-liburuaren fotokopia «Familiak» edo «Familiarentzako Oporrak» izeneko kanpaina batean. (...) Nolanahi ere, kanpaina horretatik aurrera, oker gehiago gerta ez dadin, behar bezala arautu eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eman-go da argitara”.

Erantzunaren berri kexadunari eman, eta kexa eragin zuen arazoa etorkizunera begira konpondua zelakoan, espedientea bukatu egin zen.

Gasteizko Udalak antolaturiko opor egitarauan parte hartzen duten umeak hautatzeko ustez erabilitako hizkuntz erizpideez (307/90)

Vitoria-Gasteizko ama talde batek idatzizko kexa bat azaldu zion Erakunde honi, Udalaren Gizarte-Ongizateko Erakundeko Gazteen Arloak 1990eko udarako antolaturiko opor egitarau batean eskolaurreko A ereduko umeak kanporatzeko udal horrek erabili zuen erizpidea salatzen.

Kexa eragin zuen arazoa aztertzearen, Erakunde honek argitasunak eskatu zizkion Vitoria-Gasteizko Udalari. Zehazkiago esanda, galde egin zitzaion zernolako erizpideak erabili ziren esandako egitarau horretako ekitaldietan parte hartzen zuten neska-mutikoak hautatzeko, eta erizpide horiek hizkuntzazkoak izan ote ziren.

Udal horrek bidalitako erantzunean, bazen txosten bat, Gazteen Arloko koordinatzaileak paratua, ulertzera ematen zuena egiten ziren ekitaldi guztiak euskaraz bezala erdaraz ere egiten zirela, alde batera utzirik “Jolaserako Txokoak” izenekoak, eskolaurreko 1. eta 2. mailako umeentzat izanik, euskaraz soilik egiten bait ziren.

Udalean aditzera eman zutenaren arabera, hori hala zen ekintza hori 1986tik aurrera sortu zelako, hiriko B eta D ereduko zenbait ikastegik euskararen erabilera oporraldian suspertzeko egin zuten eskariari erantzunez. Zehazki, Euskara Zerbitzuak proposatu eta burutu zuen, Gazteen Alorrarekin batera, lehen ekitaldi hura, eta ondoko urteotan ere burutu izan da, egokia dela erakutsi bait du.

Azkenik, aditzera ematen zen Gizarte-Ongizatearen Udal Erakundearen azken Aginte-Batzarrean, ekainaren 11an, opor ekitaldietarako hautapen prozesua aztertu eta 1991rako A ereduko umeentzako jolaserako txokoak antolatzea erabaki zela, ama batzuek eginiko erreklamazioari erantzuteko.

Ararteko honek beste txosten bat eskatu zion Udalari aurreko akordioa batetzen ote zen jakiteko, bai eta 1991ko udarako egitarauan ezarritako adin talde eta hizkuntz ereduen kopia bat ere.

1991ko apirilaren bukaera aldean, Gizarte-Ongizatearen Udal Erakundearen Aginte-Batzarrak martxoaren 4ean onartutako opor-egitaraua jaso zen Erakunde honetan; horrela egiaztatu ahal izan zen beste udaleku bat antolatu zela, hamabostaldiko bi txandatan, gaztelaniazko hizkuntz ereduko eskolaurreko umeentzat, ezaugarri hauetako adin talde honekiko eskariari erantzuteko.

Euskal Autonomi komunitateko biztanleek Estatuaren Administrazioak luzaturik erabili behar dituzten inprimakiak euskaraz ere agertzeko eskubideaz (338/91)

Gipuzkoako emakume batek Arartekoarengana jo eta aditzera eman zion Gipuzkoako Sendagileen Bazkun Ofizialak gidariei azterketa medikua egiteko dauzkan zentruen zuzendariek luzatzen dituzten ziurtagiriak gaztelania hutsez idatzita agertzen direla, eta derrigorrez erabili beharrekoak direnez gero, euskara, hizkuntza ofiziala izanik, Administrazioarekin erabiltzeko zeukan eskubidea kalteturik sentitzen zuela.

Arartekoak bere lege aholkularitzari txostena eskatu zion, eta jarraian zuzenean berak azaldu zion kexa hau Gobernuak Euskal Herrian duen Ordezkariori.

Handik gutxira, Gobernu Ordezkaritzaren erantzuna iritsi zen, eta hartan esaten zenaren arabera, Euskararen Erabilera Normaltzeko 10/82 Oinarrizko Legea beteaz, zegozkion aginduak eman ziren, ahalik eta lasterren euskaraz eta gaztelaniaz idatzita ager zitezen ibilgailu-gidarien gaitasun psikofisikoari buruzko inprimaki berriak.

3.3. HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA

A) Sarrera

Atal honetan aurkeztu diren kexak Eusko Jaurlaritzaren sail horren aurkakoak izan dira denak, 41 guztira, hau da, guztien artetik % 8,7a.

Ezer baino lehen azpimarratu behar da txosten honetako atalak berregituratu ondoren, irakaskuntzaren alorreko funtzio publikoari buruzko kexak hemendik aurrera Funtzio Publikoa eta Administrazioaren Antolakuntza atal berrian azalduko direla, kexa horiek Hezkuntza Sailaren aurka eginak izan arren.

Kexarik gehienak unibertsitate mailaz kanpoko irakaskuntzei buruzkoak izan dira. Horrela, ikastegia (publikoa zein hitzartutakoa) askatasunez aukeratzeko eskubideari dagokionez, ikaslea onartzearen inguruan eta ikaslea aurretiaz matrikulatuta zegoen zentruan jarraitzeko aukeraren inguruan egin dira kexak. Ikastegia aukeratzeko puntu honetan, ikusi da halako jokatibide batzuk egon direla, zuzengabeak izan gabe, plangintza-erizpideak behar ez bezala hartzearen ondorio izan direnak.

Heziketa jasotzeko eskubidea eta baliabideen aldetik dauden jakineko mugak ere kexagai izan dira, aukeratzen diren ikastegi publikoan eta hizkuntzan ikasteko eskubidea, batik bat.

Beste alde batetik, unibertsitate mailako irakaskuntzari bagagozkio, dauden azpiegitura arazoak aipatu behar dira, modu berezian azaldu bait dira Gizarte Graduatu ikasketetan ikasturtea hasteko ezintasunari buruzko kexetan.

Pertsonal mailako hutsuneen ondorioz sortutako arazoak ere kexagai izan dira; oraingoan ere, esaterako, halako titulazio batzuetako irakasle gehiago eskatu dira. Honekin batera dago, halaber, irakasle asoziatu deituta-

koen eta EHUko zuzendaritza organuen arteko eztabaidak unibertsitatearen bizitzan izan duen eragina.

B) Kexen aukeraketa

Txelo azterketa bateko kalifikazioa berrikusteko eskeaz (352/90)

Azterketa bat berrikusteko eskatu eta Gasteizko Jesus Guridi Musika Eskolako Zuzendaritzak erantzuten ez zuela eta, kexa idazki bat jaso zen Erakunde honetan.

Kexadunak erdi mailako txelo azterketa egin zuen 1989ko irailaren deialdian, horretarako izendatutako epaimahaiaren aurrean. Gainditu gabe izan zen jaso zuen kalifikazioa, baina epaimahaia osatzen zuten soka alorreko titulaziodun hiru irakasleetatik bat notarekin ados egon ez, eta akta izenpetzera ukatu zen. Jasotako kalifikazioa ikusirik, kexadunak konforme ez zegoela adierazi eta azterketa berrikustea eskatu zuen. Eskea onartu eta azterketa berriz egiteko aukera eskaini zitzaion ikasleari, era honetako proben ezaugarriengatik berrikusteko ohizko erak ezinezkoak direlako. Ikasleak, aldez, ez zuen onartu, “hatzak gertu ez zituelako”, bere esanetan.

Musika Eskolako zuzendariak, orduan, azterketan emandako kalifikazioari buruzko txosten bana eskatu zien epaimahaikide bakoitzari. Txosten horietan, irakasle guztiek lehendabiziko eritzia agertu zuten berriro.

Horiek horrela, ikastegiko zuzendariak Hezkuntza Ordezkaritzako Ikusatzaitzara bidali zuen kasua. Sail honek egin zuen txostenak ontzat eman zituen bai hartutako prozedura bai epaimahaiaren erabakia ere, eta beste azterketa bat egiteko proposatzen zuen, bai eta bidez grabatzeko ere. Ikasleak berriz uko egin zion eskaintzari, lehenago adierazitako arrazoi berberengatik.

Kasua aztertu ondoren, Erakunde honek ondorioz atera zuen lehen azterketa ikusentzutezko bidez grabatu ez zenez gero berrikusterik ez zegoela, eta, beraz, aukera bakarra beste azterketa bat egitea zela, baina aukera hori ikasleari bi aldiz eskaini eta honek beste horrenbeste aldiz uko egin ziola. Gauzak horrela, hartutako prozedura zuzena izan zela kontutan harturik, azterketaren akta guttiz baliozkoa zen, zalantzarik gabe.

Epaimahaiaren egokitasun profesionalari eta ebaluatzeke moduari dagokienez, dendena legeak ezarritakoaren arabera zela.

Guzti horrengatik, Ararteko honek ez zuen ikusi arrazoi objektibo ez juridikorik kalifikazioa aldatzeko.

Nolanahi ere, Ikastegi Zuzendaritzak Musika Eskolei 1988-89 ikasturtean bidalitako Zirkularreko 3.6 idazatian ikusentzutezko edo gutxienez entzutezko grabatzeko tresnak edukitzeko aholkua ematen zaie ikastegiei, haietan eginiko azterketak berrikusteko aukera egon dadin, haietako gehienak ikusentzutezkoak bait dira.

Horri jarraituz, idazati hori betetzea gomendatu zitzaion idazki baten bidez Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari —ikasleak espreski uko egiten dionean izan ezik— espediente hau eragin zuena bezalako egoerarik gerta ez dadin, ahal den neurrian.

Unibertsitate mailaz kanpoko ikasketak egiteko beka ukatzeaz (353/90)

Emakume batek bere kexu batean aditzera eman zuen bere alabak unibertsitate mailaz kanpoko ikasketak egiteko dirulaguntza eskatu zuela, Hezkuntza Sailaren 1989ko uztailaren 27ko aginduan oinarriturik, eta ukatu egin ziotela, deialdian ezarritako errenta-muga babesgarrien gainetik zegoelako.

Alabaina, erakunde honetara iritsitako argitasun ekonomikoak azterturik, argi zegoen eskatzailearen famili-errenta, familiaren negozio txiki batek emandako dirusarrerak alegia, arazorik bat ere gabe sartzan zela hiru kide kontagarridun familientzat jarritako mugen barruan.

Hezkuntza Sailari honi buruzko argitasunak eskatu ondoren, argitu egin zitzaigun Aholku Batzordearen erabakiz lanbidearteko gutxienezko soldatari dagokion kopurua gehitu zitzaiola langile autonomoek eskuratutako errentari, beka-deialdian horrelakorik azalduta egon ez arren; izan ere, eskatzaileari horrexegatik ukatu zitzaion laguntza, ezarritako mugatik 11.634 pezeta gorago geratzeagatik.

Gauzak horrela izanik, Sailaren arduradunei jakinerazi zitzaien guztiz bidegabekoa zela jokabide hori, are gehiago gutxienezko soldata kontutan hartua zelako jardueraren etekin garbia zenbatzean, titularra Estimazio Objektibo Singularreko Erregimenaren pean sartuta egonik.

Hezkuntza Sailak gure gomendioa onartu eta beharrezko aginduak eman zituen ikasle horren ikasketari zegokion laguntza ordaintzeko.

Ezkontzaren eta izatezko elkartzeen baliokidetasunaz (384/90)

Donostiako Filosofia eta Hezkuntza Zientziak Fakultateko ikasle batek bere kexu idazkian aditzera ematen zuen 1986/87 ikasturteko matrikula dohainik egitea eskatu zuela, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle kontratatu baten bizilaguna zelako, baina ezezko erantzuna jaso zuela.

Kexadunaren eritziz, erabaki hori atzerakoia eta garaiz kanpoko zen, izatezko elkartzeak gaur egun halako eskubide batzuei begira aintzat hartzen direlako, Gizarte Segurantzaren osasun laguntzari dagokionez esaterako, baldin eta elkarbizitza frogatzen bada. Horretaz gainera zioen, hori horrela izanik, legezko lotura ezin zitekeela erabili eskariari uko egiteko, eta izatezko elkartzeei ere aitortu behar zitzaizkiela herri-langileen ezkontideentzat ezarrita dauden onurak, kasu honetan, matrikula dohainik egitekoa.

Arazoa aztertzen jarrita, ikusi zen azalduko auziarengatik argitu behar zela benetan baliokidetzat har daitezkeen ala ez ezkontza eta izatezko elkartzea. Honi dagokionez, Konstituzio Auzitegiaren doktrinak behin baino gehiagotan agertu du bi egoera horiek ez direla baliokideak. Arazoa gertatu da, batez ere, izatezko elkartzea osatzen duten kideetako bat hil, eta besteak Gizarte Segurantzaren pentsioa jasotzeko eskubidea duen ala ez erabaki beharra izan denean. Ildo honetatik, eta uztailaren 7ko 30/1981 Legearen 10.2 ebazpen gehigarrian ezarrita dagoenaren argitan, Konstituzio Auzitegiak adierazi du ezkontzaz kanpoko elkartze guztiak ez direla gertzen legearen indar-esparruaren barruan; aitzitik, ezkon loturarik ezartzerik

ez duten elkartze iraunkorrak baino ezin dira sartu. Hortik ulertu behar da legegileak arau honen bitartez babesten duen kasua beren harremana arautzeko legezko oztoporik daukaten elkartzeena dela.

Adibide gisa, Konstituzio Auzitegiak otsailaren 11an emandako 156/1987 Epaia honako hau zioen:

“(…) ezkontza eta ezkontzaz kanpoko elkarbizitza ez dira egoera baliokideak, eta, beraz, guztiz gerta daitekeen gauza da legegileak, erabakitzeko duen askatasun zabal-zabalaren barruan, ondorioak ateratzea, arrazoi osoz atera ere, abiapuntu desberdina daukaten egoeretatik; esate baterako, alargun sariei dagokienez; izan ere, nazioarteko hitzarmenek finkatzen dutenez, Gizarte Segurantzaren pentsioak soil-soilik ezkontidearen «alargunei» dagozkie (...). Hortaz, ez da hemen bilatu behar Konstituzioaren 14. artikuluko bigarren eranskinean aipatzen den «zertzelada soziala» delakoa, ezen hori kontutan hartuz gero, baieztuko litzateke arau horren arabera ezkonduetako zein ezkondugabeko bikote guztien eskubide eta betebeharrak parekatzekoak direla puntu guztiei dagokienez; baina horrelako ondorioz ezin atera daiteke Konstituzioko testutik...”.

Eritzi bereko azaldu zen Konstituzio Auzitegia azaroaren 15eko 184/1990 Epaian, hartan honako hau adierazi bait zuen:

“(…) berdintasun abiaburuak ustez jasaten duen kalteari dagokionez, aditzera ematen da Espainiako Konstituzioan ezkontza eta ezkontzaz kanpoko elkarbizitza ez direla egoera baliokideak. Ezkontza Konstituzioaren bermea duen egoera sozial bat da, eta gizon-emakumeek eskubide konstituzionala dute horrelako lotura ezartzeko elkarren artean (32.1 art.). Horrelakorik ezer ez da gertatzen, aldiz, izatezko elkartzeetan. Ezkon loturak «ope legis» sortarazten du senar-emazteentzat halako eskubide eta betebeharrak multzo bat, ezkon oinarririk gabe elkarrekin bizi diren gizon-emakumeen kasuan ez bezala. Konstituzioaren arabera alde horiek zilegi den bezala har ditzake kontutan legegileak bizitzeko pentsioak arautzerakoan...”.

Hau guztiaren arabera, Konstituzio Auzitegiaren eritzi hauek atzerakoiak direla pentsa badaiteke ere, egia da Administrazioaren jardunari oinarri bat ematen diotela hemen dagokigun arazoan, eta beraz, arauak berak jaso beharko du argi eta garbi bi egoera hauen baliokidetasuna.

Beste alde batetik, maiatzaren 31ko 3/90 Legeak, Euskal Autonomi Komunitateko Administrazioaren Neurri eta Salneurriak Arautzen dituenak aditzera ematen du bere 77. artikuluan bigarren mailako familia ugariko ki-deek eta ikasle bekadunek bakarrik dutela ikas-matrikulak dohainik edukitzeo eskubideaz baliatzerik.

Zehaztasun hauek guztiak kexadunari jakinerazi eta gero, espedientea artxibatu egin zen.

Informatikako 2. mailako ikasle batek kexa bat bidali zuen, 1989-1990 ikasturtean onartu zioten bekako dirukopuruarekin ados ez zegoela esanez.

Kexadunaren arabera, berak guztiz betetzen zituen ordainezko laguntza -233.000 pezetatakoa- lortzeko Eusko Jaurlaritzak programaturiko beka eta laguntzetan eskatzen diren baldintzak, bere familiaren dirusarrerak ez bait ziren bertan adierazitako gutxienezkoa baino handiagoak. Hala eta guztiz ere, jaso zuen bekaren zenbatekoa 33.000 pezetatakoa zen, haietatik 20.000 ikas materialetarako, eta gainontzeko 13.000 horiek 5-10 km bitarteko bidea egiteagatik. Ikasleak erreklamazioa egin zion Euskal Herriko Unibertsitateko Beka Hautapenerako Epaimahaiari, ordainezko laguntza eskatzeko, baina ez zioten onartu erreklamazioa. Gerora, gorajotzea aurkeztu zion Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari, baina hura ere ukatu egin zioten.

Erakunde honek argitasunak eskatu zizkion kasu honi buruz Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari. Honek bidalitako txostenaren arabera, 1989/90 ikasturtean unibertsitate mailako ikasketak egiteko beka eta laguntz deialdi orokorreko baldintzei jarraituz (1989ko uztailaren 27ko agindua, abuztuaren 14ko EHAA), bekak ikas zikloen arabera ematen dira. Hau da, orohar, eta ikas zikloaren barruan, ikasturte batean beka duen ikasle bati automatikoki ematen zaio bekaren dirukopurua aurreko ikasturteko deialdian azaldutako datuen arabera.

Familiaren egoera funtsean aldatu den kasuetarako, deialdi horretako 33. baldintzaren 3. zatiak finkatzen du Epaimahai Hautatzaileak aintzat hartu behar duela gertatu berri den egoera, eskatu den beka eman ala ez erabakitzean. Egoera ekonomiko berria kontutan hartuko bada, haren nondik norakoak azaldu behar dira, bai eta agiri bidez frogatu ere hura eragin duten gertakariak.

Kasu honetan, ikasleak azaldutako agirien arabera, eskatzaileari 31.000 pezetatako beka bat eman zitzaion 1988/89 ikasturtean Informatikako 1. maila egiteko (20.000 pezeta ikas materialetarako eta 11.000 pezeta 5-10 km bitarteko bidea egiteagatik); era berean, ikas zerbitzuen salneurri publikoetatik salbuetsita ere geratu zen. Ikasleak ez zuen inolako erreklamaziorik aurkeztu erabaki horren kontra.

Ondoko 1989/90 ikasturterako, Epaimahai Hautatzaileak proposaturik, ikas ziklo berean beka berritzeko eskea izanik, aurreko urteko beka berbera eman zitzaion, dirukopuruak egunera jarririk.

Ikasleak erreklamazioa aurkeztu zuen, zenbatekoa alda zedin, baina azaldutako agirien bitartez familiaren egoera aldatua zenik frogatzen ez zela eta, ez zitzaion aintzakotzat hartu. Kexadunak gorajotzea egin zion orduan Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari, baina hura ere ez zitzaion aintzakotzat hartu agiri frogagarririk ez eransteagatik.

Ararteko honen eritziz, ikasleak aukera izan zuen aurreko ikasturteko (1988/1989) Epaimahai Hautatzailearen erabakiaren kontra erreklamatzeko, ikas zikloa hastera bait zihoan, lehen maila hain zuzen ere. Horrelako erreklamaziorik egin ez zuenez gero, emandako bekak edo laguntzak ikas ziklo osoan zehar jarraitu behar du, non eta aldaketa funtsezkorik ez den

gertatzen familiaren egoera ekonomikoan; baina horrelakorik ez zen gertatu, azaldutako agirien arabera.

Ondorioz, Ararteko honek kexadunari jakinerazi zion Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren ekintza zuzena zela, eta Informatikako 4. maila hastean aukera zuela bekaren zenbatekoa aldatzeko, orduantxe hasten bait da bigarren ikas zikloa.

Irakasle asoziatu eta Euskal Herriko Unibertsitateko Errektoretzaren artean sortutako arazoaz (23-24-55-456-475/91 eta beste batzuk)

1990eko abenduan, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle asoziatu talde batek bidalitako kexa idatzi bat jaso zen Erakundearen, eta bertan, Arartekoaren bitartekotza eskatzen zuten beraien eta Unibertsitateko Errektoretzaren artean zegoen auzian irteera negoziatu bat lortzeko.

Arazoa honela laburtzen zen: Errektoretzak eta irakasle asoziatuen taldeak erizpide ezberdina zeukaten azken horiek Unibertsitatearekin zeuzkaten kontratuen izaeraz. Errektoretzak, kontratuak administratiboak zirela defenditzen zuten bitartean, irakasleek, ordea, laboralak eta amaigabeak zirela zioten.

1990. urteko abuztuan, eta kontratuak amaitzen zirelako, Unibertsitateko Errektoretzak irakasle asoziatuei hiru urteko iraupena izango zuten beste kontratu administratibo bat sinatzeko aukera eman zien. Eskainitako kontratuei Unibertsitateak ematen zien kalifikazio administratiboaz at, bazegoen baldintza bat, sinatzaileek Euskal Herriko Unibertsitatearekin zeukaten hurremana laborala eta amaigabea izatetik erator zitezkeen eskubideak espreski babesten zirela zioena. Baldintza horri esker, irakasle batzuk sinatu egin zuten kontratua.

Urte bereko urriaren 3an, Euskal Herriko Unibertsitateak kontratua sinatu ez zutenei zesaratuta zeudela jakinarazi zien, jarrera hori Unibertsitatearen lanean ez jarraitzeko asmo bezala uler zitekeelako. Une horretan, eta Justizi Epaitegi Gorenaren Gizarte alorreko Salaren aurrean errekurtsioa jarri zuten aldi berean, eragindako irakasleen taldeak Arartekoarengana jo zuten auzian bere bitartekotza eskatzera.

Zentzu honetan, eta arazoaren epaibidean zegoenez gero, bere azpian zegoen auzi juridikoa aztertzen hastea ezinezkoa zen arren, Erakundeak hainbat gestio egin zituen irakaskuntzaren normaltasuna bermatuko zuten behin-behineko soluzio bat lortzearren.

Hala eta guztiz ere, eta negoziaketekin batera, huelgak egin eta Unibertsitateko instalazioak okupatu egin ziren, irakaskuntzaren normaltasuna galeraziz.

Horrela, irakasleek aurkeztutako kexari, ikasleena eta guraso batzuren gaineratu behar zitzaizkion, irakasleen eta unibertsitatearen artean sortutako arazoaren ondorioz ikasleen interesak larriki kaltetzen zirela salatzen zuten hainbat batzordek jo bait zuten Arartekoarengana.

Egoera hau are larriagoa zen Leioako Informazio eta Gizarte Zientzien Fakultatean, irakasle batzuk ekaineko azterketak egitera, eta beste batzuk,

azterketak egin eta notak jarri arren aktak sinatzeari uko egin ziotelako Unibertsitateak beren eskariei erantzuten ez zien bitartean.

Horri zegokionez, eta kontuan izanik kasu askotan lortutako emaitzen ziurtagiri ofizialik ez edukitzearen ondorioz ikasleek beka, traslado eta antzeko eskariei zegozkien eskubideak gal zitzaizketela, Arartekoak Unibertsitateko Errektoretzari eskatu zion ikasleen eskubideak eta bizitza akademikoa-ren normaltasuna bermatuko zituzten neurriak har zitzaela.

Horregatik, Euskal Herriko Unibertsitateko Errektoretzak ekaineko deialdi publikoa egin zuen, azterketak egitera ukatu ziren irakasleei zegozkien ikasgaietarako.

Irakasleek, beren aldetik, ikasleei azterketak ez egiteko gomendatu zieten, irailean bi deialdi egingo zituztela ziurtatuz.

Errektoretzak deitutako azterketak 1991ko uztailaren 26 eta 29an egin ziren, nahiz eta irakasle batzuek gogor jo zuten horien kontra, eta aurrerago, departamenduek aktak sinatu zituzten.

Informazio eta Gizarte Zientzien Fakultateko sei irakaslek, irailerako proposatutako bi deialdiak egin zituzten beraien hasierako planteamenduekin, adieraziz uztailan Unibertsitateko Errektoretzak egindakoa ez zutela onartzen, ikasleentzat kaltegarria zelako.

1991ko azaroan, sei irakasle horiek ukatu egin ziren irailean egindako azterketen aktak ere ematera, eta 1992ko urtarrilean, oraindik aktak sinatu gabe zeudela, Unibertsitatearen zerbitzu publikoari eta hirugarrenen legezko interesei larriki eragiten zitzaizkelako, irakasle horien departamenduetako zuzendariei eskatu zitzaizkien, beren eginbehar legalak aintzat hartuz aktak sinatzeko beharrezko neurriak berehala har zitzaizkela, eta horrela egin zen.

1992ko otsailean, Euskal Herriko Justizi Epaitegi Gorenaren Gizarte alorreko Salak epaia eman du, eta horren arabera irakasle horien kontratuak amaitutzat jotzen dira denbora-epea gainditu dutelako, eta jarduera hasteko egindako eskaria ez da onartzen, eta aldiz, Unibertsitateak auziak iraun duen denboran izan duen tesia baiesten da.

Zentzu honetan, praktika horiek desegokiak direla azpimarratu behar da, jarduera publiko baten garapen normala galerazten dutelako; izan ere, lan horretan dihardutenek beren interes pertsonalen gainetik jarri behar dituzte interes publikoa eta zerbitzu hori jasotzen dutenen interes partikularra.

Era berean, adierazi behar da jarrera horietatik galera handiak eta askotan konpondu ezinezkoak erator daitezkeela.

Irakaskuntz alorreko gestio sailatarako kideen hautaketaz (132/91)

Unibertsitateko ikasleen elkarte batek Arartekoarengana jo zuen, Unibertsitateko pertsona bakarreko gobernu sail batzutarako izendapena, sail kolegiatuetako berezko kide bezala egitean, hautaketa bidetik kanpo egiten zela uste zutelako.

Euskal Herriko Unibertsitateko Estatutuen arabera, erakunde horretako gobernu sailak, dagozkion sail ezberdin partaidetza eta ordezkaritza prin-

tzipioei jarraituz osatzen dira. Sail horien partaidetza iragarri ondoren, ordezkariak hautaketa bidez aukeratzen dira.

Pertsona bakarreko gobernu sailetan sartzen diren arren, dagozkien organo kolegiatuak aukeratuak izan gabe, kontuan izan behar da, beren partaidetza ez dela Unibertsitateko zenbait sailek daukaten ordezkarietatik eratortzen dena, beren gobernu sailetatik datorkiena baizik. Hain zuzen gobernu sailak direnez, era berean arrazoizkoa dirudi gobernu sail kolegiatuetan ere parte hartzea. Horrela, Unibertsitatearen Erreformatarako Lege Organikoak berak beren gutxienezko partaidetza organo kolegiatu batzurekiko finkatzen du.

Arartekoaren eritziz, gaia ez zen bozketa prozeduratik kanpo egiten zen ordezkarien ustezko hautaketa, eta zentzu honetan zuzendu zitzaion kexa aurkeztutako elkarteari.

Donostiako kanpusean erizaintzako eskola autonomo bat sortzeko eskariak (236/91)

Irakasle talde batek erakunde honetara jo zuen, egungo Donostiako Erizaintza Eskolaren irakaskuntz unitatea unibertsitate eskola autonomo bihurtzeko egokitasuna planteatzeko.

Arartekoak, informazio eske, Errektorearen eta EHU-ko Kontseilu Sozialarengana jo zuen, eta Unibertsitateko gobernu sailerako ordezkari eta asesoreekin hitz egin zuen.

Donostiako Irakaskuntz Unitateko ordezkariak EHU-ko Erizaintza Eskolako Batzordearen aurrean gai hau aurkeztu izan zutenetan, zentru autonomo berri bat sortzearen aurkako akordioak hartu izan zituen batzordeak.

Azkenik esan zitzaient, planteatzen zuten gaiak Unibertsitatearen inguruko politika eta antolakuntzari buruzko erizpideekin erlazionatutako irakaskuntza eta antolakuntza mailako arazoak planteatzen zituela, eta horiei dagokionez EHU-k autonomia eta ahalmena duenez gero, Ararteko Erakunde honek ezin du hor eskuhartu. Era berean azpimarratzen zen, lurralde deszentralizatorako unibertsitate sistemak, ahal den neurrian, ikasleak Unibertsitateko zuzendaritza zentru eta gestioarekin erlazionatutako tramite, gestio eta harreman guztiak bere unibertsitate kanpusetik mugitu gabe egin ahal izateko aukera eman beharko lukeela.

Ikastegi batean ikasle bat onartzeaz (383/91)

Neskatila baten aitak Erakunde honetara jo zuen, ikastegia aukeratzeko askatasun eskubidearen kontraktatzat jotzen zuen ekintza bat zuzentzen ahaleginak egin zitzala eskatzera.

Gizon honek, izan ere, gorajotze bat egin zuen bere alaba ez zutelako onartu matrikula egiteko aukeratu zuen ikastegian. Gorajotzeak ezezkoa jaso zuen, plangintzaren erizpideen arabera neska horri ez zegokion ikastegia eskatu zutelako.

Salaketan adierazten zen matrikula egiteko aukeratutako ikastegian postu nahikorik bazela.

Ikastegietan ikasleak onartzeko jarraibidea arautzen duen 1991ko martxoaren 4ko Aginduak ezartzen duenez, postu nahikorik dagoenean onartu egin behar da eskaria egiten duen ikaslea, eta hori kontutan hartuz, Erakunde honek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari adierazi zion ikastegia aukeratzeko askatasun eskubidea ez zuela errespetatu.

Arartekoaren gomendioa onarturik, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ebatzi zuen eskatzailea onar zedila aukeratutako ikastegian, eta, horren ondoren, espedientea artxibatu egin zen.

Gasteizko Luis Elejalde ikastegian OHOk 1. mailan A hizkuntz ereduak kendu dela salatzen dute (421/91)

Vitoria-Gasteizko Luis Elejalde ikastegi publikoan 1991-92 ikasturterako OHOk 1. mailan A hizkuntz ereduak kendu dutela salatzen zuen kexa bat jaso zen Erakunde honetan.

Eredu hori kentzeak kalteturik, kexa aurkeztu zuten gurasoek salatzen zuten inolako informaziorik ez zutela eskuratu, ez ikastegiko Zuzendaritzaren aldetik, ez eta Hezkuntz Ordezkaritzaren aldetik ere.

Haien eritziz, ikasturte horretan aurreinskrripapen gutxi jaso ziren ikastegiko zuzendaritzak berak izandako jokabide maltzuraren ondorioz, eta, beraz, Ordezkaritzak OHOk 1. mailako A ereduak bertan behera uzteko erabilitako aitzakia horrek ez zuen balio.

Eredu hori kentzearen ondorioz gerta zitezkeen arazoaren aurrean —OHOk ikasketekin aukeratutako ereduaren eta ikastegian jarraitu ahal izatea—, matrikulaturiko umeekin A ereduari eusteko eskatzen zuten, hau da, "azken urteotan eskotan B eta D ereduarekin hizkuntz lerroa zaintzeko erabili diren erizpide berberekin" jokatzeko, hain zuzen ere.

Arazoa behar bezala ulertzeko, Arartekoaren honen eritziz, hezkuntz administratitzak funtsezko eskubiderik kaltetu ote zuen ala ez, eta, zehazkiago esanda, berdintasunerako eta heziketarako eskubideak ukatu ote ziren ala ez aztertzea zen bidezkoena.

Honi dagokionez, Arartekoaren berdintasunaren inguruan dagoen jurisprudentzia konstituzional ugarian oinarritu zuen bere eritzia; honen arabera, berdintasunaren printzipioak debekatu arren herri-aginteek legea betetzean arrazoirik gabeko erizpide batez edota motibu arrazoituezin edo zuzengabe batengatik tratatu desberdina ematea, egia da ezin daitekeela erizpide aldaketatzat jo Administrazioak egoera desberdinetan erizpide desberdinak erabiltzea. Kasu honetan ez da gertatzen araua ezartzean erizpidea aldatu dela, baizik eta erabaki administratibo bat burura eraman dela.

Heziketa jasotzeko eskubidea kaltetzen ote zen ala ez aztertzean, Ararteko honek ebatzi zuen heziketarako eskubidea ez dela eskubide absolutua, eta hura burura eramateko baliabide ekonomiko mugatu batzuen arabera osatzen dela; esan nahi du, orobat, heziketarako eskubide horren bitartez, neurri administratiboak edo Administrazioaren izatezko gelditasuna bera jarri litezkeela kontrolpean.

Ondoren aztertu behar zen heziketa inolako bazterkeriarik gabe jasotzeko eskubideari dagokionez, E.K.ko 27. artikulua arabera gurasoek eskubidea ote duten ala ez beren seme-alabek jasoko duten heziketa gurasoek berek nahi duten hizkuntzan eta aukeratzen duten ikastegian jasotzeko.

Zalantzarik bat ere ez dago hezkuntz administrazioa behartuta dagoela Autonomi Komunitateko ikastegietan bertako bi hizkuntza ofizialen irakaskuntza ziurtatzera. Dena dela, horrek ez du esan nahi inork eskubidea duenik nahi duen hizkuntzan eta nahi duen ikastegian irakaskuntza jasotzeko, Konstituzio Auzitegiak hainbat epaitan adierazi duen bezala.

Erakunde honek, beraz, funtsezko eskubideek kalterik ez zutela jaso ebatzi zuen; ondorengo pausua hezkuntz administrazioak ohizko legeria bete ote zuen ala ez aztertzea zen, hau da, kasu honetan erabilitako prozedura egokia ote zen ala ez, eta, zehazkiago, prozedura hori Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuaren 1991ko martxoaren 4ko Aginduaren araberrakoa ote zen; izan ere, agindu horren bitartez, Euskal Autonomi Komunitateko Unibertsitatez besteko ikastetxe herri-diruz hornituetan ikasleak 1991/92 ikasturtean onartzeko prozedura araupetzen zen, Aurrekola eta OHOk 1991/92 ikasturtearen hasierari buruz Ikastegietako Zuzendariaren Oharrari zegokionez.

Hezkuntz administrazioaren jokabidea azterturik, Arartekoaren eritziz zuzena zen erabilitako prozedura hori, eta, era berean, bigarren aukera moduan gurasoek azaldutako nahia errespetatu zen; horrekin batera, argi zegoen irakaskuntzarako hizkuntz ereduaren inguruan eginiko aukera ere errespetatu zela, guraso hauen auzoan hezkuntz eskaintza nahikoa bait zen.

Guraso taldeek aurkeztu zuten kexu-idazkian, ordura arte aurreinskrribapena egindako umeekin A ereduko lerroari eusteko eskatzen zen, bai eta "azken urteotan askotan B eta D ereduekin hizkuntz lerroa zaintzeko erabili diren erizpide berberekin jokatzeko" ere.

Hortaz, Ikastegietako Zuzendariak bere oharrean hamabost ikasle gutxienez eskatzen bazituen ere, hori baino ikasle gutxiagorekin ikasgela bat eskaintzen jarraitzea eskatzen zen. Gainera, horrekin batera adierazten zen aukeratutako hizkuntzagatik ustez bazterkeria gertatzen zela, A ereduaren kalterako, hain zuzen ere.

Gauzak horrela, 15 ikasle baino gutxiagoko ikasgelak zer nola zeuden eta arau orokorretik salbuetsita geratzeko arrazoiak zeintzuk ziren aztertu zen.

Luis Elejalde ikastegi publikoko gurasoek azaldutako kasua, Arartekoaren eritziz, ez zen sartzen salbuespen kasu horien artean, eta, horregatik, hezkuntz alorreko Administrazioak azaldutako jarrera ezin zen okertzat hartu.

Eraikuntza berberean kokatutako OHOk ikastetxe batean eta batxilergo institutu batean ikasleak onartzeaz (563/91)

Miguel de Unamuno Batxilergo Institutua eta izen bereko OHOk ikastegi publikoa, OHOk goi zikloko irakaskuntza ematen duena, eraikuntza berberean kokaturik daude gaur egun.

Kokapenaren gorabehera honegatik, esandako ikastegi publiko horretako ikasle batzuen gurasoek pentsatu zuten bidegabeki kanpo utzi zituztela beren umeak, eraikuntza berebean dagoen batxilergo institutuan ez zituztelako onartu.

Arartekoak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari eskatu zizkion argitasunen arabera, ez zegoen inolako arrazoi berezirik 1991ko martxoaren 4ko Aginduan jasotako ikasleak onartzeko arauetan salbuespenik egiteko.

Ikasleak onartzeko arauak behar bezala bete ziren, eta ezin zitekeen aintzakotzat hartu kexadunek azaldutako arrazoia. Bi zentruak, OHOkoa eta batxilergokoa, elkarrengandik apartekoak dira, eta OHOkoa ikasketak eraikuntza berebean egin izana ez zen kontutan hartzeko moduko arrazoia arauak betetzeko orduan.

Bestalde, esatekoa da, eta halaxe esan zitzaizen kexadunei, beren argudioa onartu izan balitz, beste ikasle batzuk geratuko ziratekeela onartu gabe, eta, beraz, hirugarrenen eskubideak ere jokoan zeudenez gero ezin zitekeela beren eskaria onartu.

Ondorioz, hezkuntz administrazioak zuzengabeki edota legearen kontra ez zuela jokatu ikusirik, espedientea artxibatu egin zen.

Ikasketak zentrua libreki aukeratzeko eskubideaz (612/91)

Ikastetxe pribatu batean ikasten zuen ikasle baten amak Erakunde honetara jo zuen, bere ustez bertan heziketa eskubidea ez zela errespetatzen salatzen.

Kexan esaten zen ikastetxe pribatuak ikaslearen gurasoei gutun bat bidali ziela, hurrengo ikasturtean beste ikastetxe batean matrikulatu behar zutela esanaz. Ustez, beraz, ikaslea ikastetxetik bota egiten zuten, eta erabaki behar zen botatze hori arrazoizkoa izan zen ala ez, eta edonola, ikasleen eskubide eta betebeharrei buruzko urriaren 28ko 1.543/88 Erret Dekretuak kasu horietarako iragartzen duen prozedurara egokitua ote zen.

Erakundeak kasu honi buruzko informazioa eskatu zion Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari, eta honek jakinarazi zuen salatutako kasuan lehen aipatutako erret dekretua ez zela bete, beraz ikaslea ikastetxean berriro ez hartzeko arrazoiak oinarririk gabeak zirela.

Guzti horregatik, eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak berak adierazi bezala, kalera botatako ikaslea berriro ikastetxean hartzea zen legezkoa. Erakundeak kexadunarekin harremanetan jarri eta aditzera eman zion bere semea berriz ikastetxe berean matrikulatu nahi bazuen, bere eskubidea bermatuko zuela.

Gizarte Graduatuen Eskolaren egoeraz (632/91 eta beste batzuk)

Euskal Herriko Unibertsitateari atxekitako Gizarte Graduatuen Eskolan ikasturtearen hasiera atzeratzen ari zela eta, kexa idazki batzuk jaso ziren Erakunde honetan.

Arartekoak ikasturtearen hasiera zergatik atzeratzen ari zen galdetzeko jo zuen Gizarte Graduatuen Eskolako zuzendariarengana. Jaso genuen txosten zabalaren arabera, Gizarte Graduatuen Eskola Euskal Herriko Unibertsitatearen mende geratu zenez geroztik nahiko egoera eskasean aurkitzen zen, bai irakasteko pertsonalaren bai materialen aldetik, eta, gainera, egoera hori askoz okerragoa zen ikasle asko zeudelako matrikulatuta.

Ararteko hau, mila ikasle baino gehiagok eta beren familiek ere jasan behar zuten egoera larri honetaz jabeturik, harremanetan jarri zen Unibertsitateko gobernu organuekin eta Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin, arazo larri horri konponbide onargarriren bat aurkitzeko.

Hainbat harreman eduki eta dokumentazio ugari bildu ondoren, halako bilera bat egin zen Ararteko Erakundearen, Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren ordezkarien artean. Bilera horretan erabaki zenez, eskolan hasi gabe zeuden taldeek 1991ko abenduaren 2an hasiko zuten beren ikasturtea.

Eskolak material eta pertsonal aldetik zeukan egoera eskasari dagokionez, Ararteko honek argi ikusten zuen eskolak ez zirela emango lekurik egokienetan, eta, tamalez, ikasle gehiegi egongo zirela ikasgela bakoitzean. Hori hala izanik ere, premiazkoena eskolak ematen hastea zela eritzi zen, baldintza egokienetan ez baziren ere, gerotik gerora jarraituz gero ikasturtea bera arriskuan gerta zitekeelako.

Ikuspegi horretatik, hala ere, beharrezkoa zen ondoko urteetan gauzak bere hartan ez geratzeko zerbait egitea. Horregatik, Arartekoak hurrengo ikasturteak planifikatzeko beharra azaldu zien Unibertsitatearen eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren ordezkariari.

Zentzu horretan, halako bilera batzuk egiten hasi ziren Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Hezkuntza Sailaren artean, etorkizunerako konponbideren bat bilatzeko; horretarako, beharrezkoa zen kontutan hartzea aurrekontuen aldetik gaur egun dauden mugak, bai eta Gizarte Graduatuen Eskolan gero eta matrikulazio gehiago gertatzen ari direla, eta seguru aski gertatuko direla ere.

Hori guztiagatik, Ararteko honek, aurkitzen diren irtenbideak zertan gauzatzen diren aztertzen jarraituko baden ere, behinik-behin amaitutzat eman zuen kexu honek eragin zuen espedientea.

3.4. FUNTZIO PUBLIKOA ETA ADMINISTRAZIOAREN ANTOLAKUNTZA

A) Sarrera

Atal honetan 66 kexa aurkeztu dira orotara, guztietatik % 14,1a beraz. Kexagai izan diren administrazioen artean, honelaxe banatzen dira:

— Eusko Jaurlaritzara	45
— Aldundiak	6
— Udalak	15

Funtzio Publikoari buruz jaso ditugun kexak beste era honetara banatu dira gaien arabera:

— Lehiaketa eta norgehiagoketak	28
— Disziplina erregimena	1
— Ordainketa erregimena	12
— Beste zerbait	20

Funtzio Publikoaren atalean sartu dira administrazio publiko desberdinetan lanean ari diren langileek aurkeztutakoak, alde batera utzirik zerbitzu horiek zer nolako loturaren bidez ematen diren. Orobat, eta berritasunik handiena hementxe datza, esatekoa da atal honetan biltzen direla irakas-kuntza, osasuna eta ertzaintza esparruei buruzko kexak, Hezkuntza, Osasun eta Barne Saila ataletatik bereiztuta, beraz. Hori hala da, Administrazioaren zerbitzuan dauden langile guztiei ezartzen zaizkien funtsezko printzipio berberak aplikatzekoak bait dira haietan, langile horien berezitasunak albo batera utzirik.

Lanpostuen zerrendak egitean izandako atzerapena eta hautaketa proben inguruko zenbait irregularitasun dira, oro har, administrazio desberdinei buruz planteatu diren auzietako batzuk.

Osasun alorrean, kexa batzuk aurkeztu ziren Osakidetzak deitutako proben inguruan sortutako irregularitasunengatik, nahiz eta Osakidetzak berak hasiak zituen kexa horiek eragin zituzten gertakariei aurre egiteko hartu beharreko neurriak.

Irakaskuntzaren alorrean, lanpostuen zerrendak espezialitate berrien arabera zehaztean traslado lehiaketak atzeratu behar izan dira, eta horrek zenbait kexa eragin ditu.

Ertzaintzari dagokionez, ordea, espero izatekoa da, legea onartzen denean, kolektibo honetako kide batzuk Arartekoarengana jotzera eraman dituzten egoerak argituko direla.

Beste alde batetik, administrazioaren antolakuntzari gagozkiolarik, ez dira gutxi izan Administrazioak bere jardunean berandu ibiltzeagatik eta, berriro ere, isiltasun administratiboa deritzan figuraren gehiegizko erabile-ragatik jaso diren kexak. Hari honetatik, zerbitzu iraunkorrak zein aldi baterakoak emango dituen pertsonala aukeratzeko espedienteak, eta lanpostuak betetzekoak erabakitzeko ere izandako atzerapenak, eta, bestalde, ebazpena espreski emateko obligazioa ez betetzea azpimarratu behar dira atal honetan, espediente horietan inolako zuzengabekeriarik antzeman ez arren auziaren funtsean.

Aipagarriak dira, halaber, Arabako Administrazio Batzarren ekintzen-gatik aurkeztu diren kexak; izan ere, batzar horiek bertako ohitura eta usadioen arabera jokatzeko dute, eta hainbat arrazoiengatik, esaterako, batzarrak osatzen dutenak elkarrengandik hurbil bizi direlako, halako gorabehera batzuk gertatzen dira, batzar horien jardunari edo izaera juridikoari buruzko puntu batzuk idatziz agertzea aholkatzen dutenak.

B) Kexen aukeraketa

Proporzionaltasun indizea aldatzean soldataren hirurtekoetan izandako aldeak ordaintzeaz (113/90)

OHOk irakasle talde batek kexu idazki batean azaldu zuen Lehen Mailako Irakaskuntzarako Irakaslegoa OHOk Irakaslego bihurtzean, beren proporzionaltasun indizea 2,9tik 3,6ra igo zela, eta, ondorioz, beren soldatetan gertatzen ziren aldeengatik pilatutako dirukopurua ordaintzeko eskatu zutela.

Haien arabera, erreklamazio bat aurkeztu zioten Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Pertsonal Zuzendari Nagusiari, hainbat epaitan oinarriturik eta, bereziki, Valenciako Lurralde Entzutegiak 1985eko azaroaren 6an emandako epaian oinarriturik. Izan ere, epai honek adierazten zuen, bai eta 1986ko azaroaren 14an Auzitegi Gorenak onetsi ere, lehenago esandako bi irakaslegoak bat bakarra zirela.

Erakunde honek kexagaiaren alderdi juridikoa aztertzeari ekin zion, eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari galde egin zion zer nolako erizpidea erabiltzen zuen sail horrek proporzionaltasun indizearen aldaketaren ondorioz soldataren hirurtekoetan izandako aldeak ordaintzeko.

Erakundeak horri buruzko adierazpen zabal bat jaso zuen, eta hona hemen hitzez-hitz:

“Zure 113/90 zenbakiko ofizioan argitasunak eskatzen dizkiguzu proporzionaltasun indizearen aldaketagatik soldataren hirurtekoetan izandako aldean ordainketari buruz; horren inguruan, sail honek honako hau adierazi nahi dizu:

1. AURREKARIAK

Urriaren 19ko 2.952/72 Dekretuaren bidez 6. indizeko (Goi Batxilergoko) irakaslego nazional zaharra desagertu zen, eta kategoria horretako maisu-maistrak 8. indizeko OHOk irakaslego berrian sartu ziren (erdi mailako titulazioaz).

Hori hala izanik ere, lehengo 6. indizeko maisu-maistrek ordu arte izandako hirurteko sariak indize horretan arabera baloratzen jarraitu zen, hirurteko berriak, aldiz, 8. indizearen arabera ordaintzen hasi baziren ere.

Guzti honen ondorioz, auzi luze bat hasi zen lehenagoko maisu-maistrek, OHOk irakaslegoan “erabat” sartzea eta beren hirurteko guztiak 8. indizearen arabera baloratzea ere eskatu bait zuten.

Errekurtsoa egin zutenek lehenengoz erretiratutako funtzionarioen pentsioak 8. indizeraino igotzea lortu zuten (273/83 eta 672/86 Erret Dekretuak), Auzitegi Gorenaren epaietan oinarriturik beti ere.

Geroago, Valenciako Lurralde Entzutegiak 85-XI-6ko epai batean aitortu zion errekurtsogileei beren hirurteko guztiak 8. propor-

tzionaltasun indizearen arabera kobratzeko eta, ondorioz, aurreko bost urteetan haien alde ateratzen zen diferentzia ere jasotzeko eskubidea.

Justizi Auzitegi Gorenaren 5. Aretoak (86-XI-14ko epaia) auzi horri aplikatu beharreko doktrina behin betirako finkatu zuen, Valenciako Lurralde Entzutegiak emandako epaia berrestean.

2. Azken epai honen ondorioz, Hezkuntz eta Zientzia Ministeriaritzak eta Eusko Jaurlaritzak, bakoitzak bere ahalmenen esparruan, dekretu bana atera zuten, esandako doktrina hori arazo honetan sartutako guztiekin erabiltzeko, erreklamazioa egin zein ez; hau da, epaia argitaratzen zen egunetik, hots, 1981eko abenduaren 1etik aurrera, azken bost urteen likidazioaren ondorioz gertatzen ziren aldeak ordaintzeko.

3. Horren ondoren, Sailean ordainketa egin beharra ezartzen duten beste epai batzuk jaso dira, Sailak haien berri eduki ahala ordaindu dituenak; haien arabera, esandako dekretuetan ezarritakoa alde batera utzirik, ondorio ekonomikoak kexadunek erreklamazioa aurkeztu aurreko bost urteetara arte atzeratu behar ziren; era honetan, osagarriko likidazioak egin behar izan ziren, erreklamazioak 1986ko abenduaren 1.a baino lehen aurkeztuak baziren.

Argi utzi behar da epai guzti hauetan Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila ez dela kondenatua gertatu, Hezkuntz eta Zientzia edota Hazienda Ministeriaritzak baizik, erreklamazioak zuzen-zuzenean administrazio zentralari egin zitzaizkiolako. Honen eraginez, administrazio honek zeharka bakarrik jakiten du epai horien berri, hau da, Hezkuntz eta Zientzia Ministeriaritzak konprobatzen duenean funtzionarioen batek Elkarte honetan duela destinoa.

4. Hortaz, Sailak honelako jokaera erakutsi du, 1972 baino lehenagoko hirurteko hobetuekin gertatutako dirukopuru aldeak ordaintzeko eskaria egin zaionean:

4.1. 1981eko abenduaren 1etik hasita, alde hori guztiei ordaintzea, azaroaren 17ko 355/87 Dekretua (EHAA, 87-XI-26) beteaz.

4.2. 1981eko abenduaren 1.a baino lehenagoko denbora-tartean kasuetan, banaka eta epaiak beteaz ordaintzea (argigarri moduan, esan dezagun denboran aurrera eginez urrutien iritsi den epaia 1980ko martxora arte iritsi dela).

5. Bere eranskineko zerrendan agertzen diren irakasleak ez daude sartuta Sail honek ezagutzen dituen epaietan (alde batera utzirik Sebastiana Irutza Lizarraga andrea, 88-V-14ko 30.216 zenbakiko epaian sartua, eta bere garaian egin beharreko likidazioa jaso zuena); horiek horrela, egin diren erreklamazio berrien datak direla bitarte, idazki honetako 4.1. puntuan adierazitako likidazioa baino ez dute jaso”.

Ararteko honek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren txostena aztertu ondoren, Administrazioak zuzen jokatu zuela eta kexadunen es-

kubideek kalterik ez zutela izan ebatzi zuen. Izan ere, segurtasun juridikoaren printzipioa errespetatuz, iraungipenaren legezko figurak eragozten zuen erreklamazioa egin aurreko bost urteak baino lehenagora atzeratzea eskubideen aitortpena, Euskal Herriko Ogasun Nagusia Antolatzeko Printzipioen Legearen 47.1 artikuluan ezarritakoaren arabera (1/88 legegintz Dekretua, maiatzaren 17koa); edota, bestela, 1981eko abenduaren 1.a baino lehenagora, 1987ko azaroaren 17ko 355/87 Dekretuaren arabera (EHAA, 87-XI-27).

Iraungipena eta isiltasun administratiboa hirurtekoak aitortzeko eskaritan (272/90)

Sendagile batzuek, 70/78 Legea onartu ondoren, eta hartan ezartzen diren baldintzen arabera, eskaria egin zuten, ordura arte eginiko zerbitzuak aitor zekizkien, haien soldatetako hirurtekoei begira.

Administrazioak, ordea, ez zien inolako erantzunik eman egin zitzaizkion eskariei. Administrazioaren jokaera horren aurrean, eskatzaileetako batzuek epaitegietara jo zuten, eta beste batzuk, aldiz, Administrazioak espreski erabakitzeko duen beharra noiz beteko zuen zain geratu ziren.

Eman ziren epaiak sendagileen asmoen aldekoak izan ziren, eta epai horiek bete eraztean, epaitegietara jo zuten sendagileek lortu zuten Administrazioak zor zizkien dirukopuruak kobratzea.

Aurretiazko zerbitzuak aitortzeko eskaria egin bai, baina epaitegietara jo ez zuten beste sendagileek, ordea, Administrazioak epaietan azaldutako zentzuan erabakia noiz hartuko zuen zain geratu behar izan zuten.

Horregatik, kexatzaileak Arartekoarengana zuzendu ziren, epaitegietara jo zutenen eskubide berbera zutelakoan.

Osakidetzak argudiatu zuen, kexa aurkeztu zutenek 1982an egin zutela eskaria, eta zegokion epea amaituta zegoenez gero, ulertu behar zela eskaria ez zela onartzen, isiltasun administratibo negatiboaren bidez. Beste alde batetik, erakunde horrek eranstean zuen bezala, Langileen Estatutuko 59.1 artikuluan iragarritako ekintzak iraungitzeko urtebeteko epea igaro zenez, ezin zezakeen onartu sendagileen eskaria.

Arartekoak, aldiz, Osakidetzaren erizpidearekin bat ez zetorrela adierazi zuen, hori geldikeria litzatekeelako Administrazioaren aldetik, eta horrela jokatzeko, berau egoera egokiagoan jartzea izango zela, espreski erabaki behar izatea baino.

Horri dagokionez, Administrazio Prozeduraren Legea begiratzen badugu, ikusiko dugu hartan ustezko ukapena deritzana agertzen dela jasota, eta herritarrari bere eskariari ezetz erantzun zaiola ulertzeko modua ematen zaiola, baina horrek ez du esan nahi eskaria erabaki denik, eta ez dio Administrazioari erabakia espreski hartzeko obligazioa kentzen (94.1 eta 3 art.).

Osakidetzak bere argudioan aipatutako iraungipenari dagokionez ordea, amaitzeko modu hori onargarria balitz ere, Administrazioak bere obligazio legalak ez betetzeagatik gertatuko litzateke; era horretara, Administrazioak bere beharrak beteko zituelakoan eskaria aurkeztu zutenen fede

onaren printzipioa hautsiko litzateke, eta eskaria egin zuten sendagileek nahi zutena ez onartzea zuzengabekeria litzateke, berdintasun printzipioa hautsi, eta Administrazioa bidegabeki aberastuko lukeena.

Arartekoaren eritziz, hala ere, iraungipen hori ez zen onartzekoa, askotan justiziaren printzipioaren kontra doalako, haren erabilera segurtasun juridikoaren printzipioan oinarritzen bada ere; horregatik, beraz, oso modu murritzean erabili behar da.

Ekainaren 22ko 12/83 Legeak bere 54. artikuluan dio iraungipena lege-antolakuntzaren arauen arabera etengo dela. Orobat, Aurrekontuei buruzko Lege Orokorraren 46. artikulua dioenez, lege bereziak espreski alde batera utzirik, iraungipena Kode Zibilaren aginduen arabera etengo da, eta honek argi dioenez, auzibidez kanpoko erreklamazioak eten egiten du ekintzen iraungipena.

Guzti hori ikusirik, Arartekoak ondorioz ateratzen zuen eskatzaileek eskubidea zutela Administrazioak espreski bere erabakia hartuko zuela espero izateko, eta Administrazioa behartuta zegoela hartzera, eskatzaileen eskubidea ez delako amaitu.

Berandu hartzen diren zenbait erabakirekin gerta daitekeen arazoari dagokionez bestalde, kasu horietan hirugarrenen aldetik eskubiderik ez egotean, ez zegoen inolako oztoporik Administrazio Prozeduraren Legearen 94.3 artikulua ematen duen agindua betetzeko.

Orain arte azaldutako guztia dela bitarte, Arartekoak gomendatu egin zuen kexa aurkeztu zuten sendagileek eskatzen zituzten eskubideak onar zitezela. Osakidetza ez zegoen ados Arartekoak bere gomendioa egiteko erabili zituen argudioekin, eta jakinerazi zuen ez zuela aldatuko bere erizpidea. Arartekoak berriz jo zuen Osakidetza, Administrazioak jarrera hori hartzeke zeuzkan arrazoiak aski ez zirelako, bere eritziz, egin zitzaion gomendioa ez onartzeko.

Osakidetzak amore ematen ez zuenez gero, espedientearen ixtea erabaki zen, eta Arartekoak eginiko ekintzen berri eman zitzaion kexadunei, ez ordea Osakidetzari erakutsi gabe erabat gaizki ikusten zuela erakunde horrek hartutako azken erabakia.

Lehiaketa-norgehiagoketa bateko baldintzak ulertzeko erizpide desberdinez (428/90)

Errenteriako udalaren Musika Kontserbatorioan administrari lanpostu bat betetzeko deialdia zela eta, lehiatzaile batek Erakunde honetara jo zuen berak egindako zerbitzuei epaimahaiak eman zien balioa salatzeke.

Pertsona horrek berak eta Udalaren Musika Patronatuak bidalitako argibideen arabera, honako hau zen arazoaren gakoa: lehiaketa aldia baloratzean, epaimahaiak, eskabideak aurkezteko epea (1989ko irailak 13) amaitzean bertan zeuden zertzeladak bakar-bakarrik aintzakotzat hartu ordez, emandako zerbitzuen artean onartu zuen probak hasi arte iragandako denbora ere (1990eko urriak 3). Horren ondorioz, lehiaketa aldia horrela puntuatzean, pertsona hori beste lehiatzaile baten atzetik geratu zen lehiaketa-norgehiagoketa osoaren puntuazioan. Izan ere, beste lehiatzaile honek ge-

hienezko puntuak eskuratu zituen era horretara, baina ez zituzkeen eskuratu eskabideak aurkeztu arteko meritua bakarrik hartu izan balira kontutan. Aldiz, eskabide-orriak aurkeztu arteko denbora bakarrik erabili izan balitz puntuak erabakitzeke, kexaduna izango zatekeen gehienezko puntuazioa lortuko zuena.

Deialdiko baldintzetan, hirugarren atalak honako hau zioen: "Lehiatzaileek frogatu beharko dute 2. baldintzan eskatzen diren betebeharrak guzti-guztiak betetzen dituztela, beti ere eskabide-orriak aurkezteko epea amaitzen den egunera arte, eta, orobat, behar bezala egiaztaturik azaldu beharko dituzte lehiaketa-aldian baloratuko diren merituei buruzko argitasunak. Ez dira baloratuko bertan zehaztuta azaltzen ez direnak".

Ararteko honen erantzunak, eskabide-orriak aurkezteko epea amaitu ondoren gertatzen diren zertzeladak kontutan hartuz gero, egiaztatu gabeko gertaerak dira neurtzen direnak. Lehiatzaileak eskabide-orriari erantsitako agiri-frogak ez diren beste bide desberdinetatik jakiten eta baloratzen baditu epaimahaiak halako zertzelada batzuk, orduan bidegabekeria gertatzen da; izan ere, beste lehiatzaileen kasuan ere egon zitezkeen horrelako beste zertzelada batzuk eskabide-orriak aurkezteko epea amaitu ondoren, baina pertsona horiek aukerarik ez eduki egiaztatzeke. Horregatik, Ararteko honek gomendio bat egin zion Errenteriako udalari, alegia, baldintzak beren edukien arabera ulertuz, eskabide-orriak aurkezteko epeko egunera arte egiaztaturiko zerbitzuak bakarrik har zitezela kontutan.

Gomendioa jaso ondoren, hala ere, eta Arartekoaren ekintzak epeen igarotzea bertan behera uzten ez duenez gero, kexadunak administrazio-azibidezko errekursoa jarri zuen epearen barruan; horiek horrela, Udalak jakinerazi zion Erakunde honi Justizi Epaitegi Gorenak epaia eman arte ez zuela auzi honi buruz inolako erabakirik hartuko. Horregatik, Arartekoak bertan behera utzi zituen bere ekinbideak, auzia ohizko epaitegien esku baitzegoen.

Lanpostu-lekua trukatzeko eskeaz eta horri ezarri beharreko arautegiaz (460/90)

Batxilergo irakasle lagun batek kexa idazki batean adierazi zuen Hezikuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak lanpostu-lekua trukatzeko eskaerak ukatu ziola, indarrean dagoen arautegiak aipatzen ez duen baldintza bategatik.

Esandako irakasle horrek lanpostu finkoa lortu zuen Hondarribiako institutu batean 1990-1991 ikasturteetik aurrera, eta beste irakasle baten lanpostu-lekuaren ordez aldatzea eskatu zuen; beste irakasle honek ere Gaztelania eta Espainiako Literatura irakasten zuen, eta lanpostu finkoa zeukan Eibarko institutu batean.

Trukea egiteko arazorik ez zela zirudienean, horren alde azaldu baitziren ahoz bai Ordezkaritza, bai ikastegi bakoitzeko zuzendariak ere, kexadunari jakinerazi zitzaion bere eskea ez zitzaiola onartzen, berak lanpostu finkoa zeukan ikastegian gutxienez bi urtez geratzeko baldintza ez betetzeagatik.

Kasu honi ezarri beharreko arauak azterturik, ikusi zen lanpostu trukea ukatzeko erabilitako baldintza ez zela benetakoa, izan ere. Ararteko erakundeak argitasunak eskatu zizkion Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari horrelako trukeak onartu edo ukatzeko erabiltzen diren erizpideei buruz.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak bidali zuen txosten luze batean aditzera ematen zuen zergatik eskatu behar zen, bere ustez, lanpostu finkoaren ikastegian gutxienez bi urtez geratzeko baldintza hori.

Hasteko, esan behar da inolako arau berezirik ez dagoela honi dago-kionez Irakaskuntza Ertainetan. OHO mailarako, aldiz, badago horrelakorik, eta hartan espreski jasotzen da goian azaldutako baldintza. Bestalde, lanpostuak betetzeko lehiaketetan parte hartzeko arautegi guztietan finkatzen da funtzionarioek gutxienez bi urtez egon beharko dutela lanpostu bakoitzean aukera horretaz baliatu ahal izateko.

Erizpide horiek kontutan hartuz, eta analogiaz kasu honetara zabalduz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eskatzeko modukotzat jotzen zuen baldintza hori, hau da, ikastegian gutxienez bi urtez geratzea. Hala ere, Sailak onartu zuen irakasle eskatzaileei informazioa falta izan zitzaie-la behar bada, ulertzeko erizpide hori ordura arte zabaldu eta jakinerazi ez zela-ko, eta, hartara, eskaturiko trukea onartzea erabaki zuen azkenik.

Isiltasun administratiboagatik jarritako errekurso bati ustez uko emateaz (665/90)

Kexadunak, Deba Garaiko Eskualdeko Ospitaleko sendagile espezialista izanik mugagabeko lan kontratu batez, gora-jotze bat egin zuen Osakidetza Zuzendari Nagusiaren 703/90 Ebazpenaren kontra; ebazpen honen bidez arlo berezietarako sendagileentzako 239 lanpostu betetzeko deia zabalzen zen. Hiru hilabete igaro ondoren, errekursoari buruzko inolako erabakirik hartzen ez zela eta, Erakunde honetara jo zuen pertsona horrek. Osakidetza Zuzendaritza Nagusiari Administrazio Prozeduraren Legeko 94.3 artikulua dioena gogorarazi zitzaion, alegia Administrazioa behartuta dagoela argi eta garbi adierazitako ebazpenak ematera; eta erakunde burujabe horretako zuzendari nagusiaren erantzuna honako hau izan zen:

“... jakinerazi behar dizut Zuzendaritza honek Administrazio Kontseilura bidali, eta honek adierazigabeko ebazpena eman gabe errekursoa ezestea erabaki zuela (...). Horregatik, ulertu behar da kasu honetan isiltasun administratiboa erreklamazioaren funtsari uko ematekoa izan dela...”.

Behin baino gehiagotan aditzera eman du Erakunde honek, Legebiltzarri aurkezten zaion urteko txosteneko hainbat ataletan eman ere, isiltasun administratiboa ez dela prozedura amaitzeko modua, baizik eta Administrazioak bere betebeharren bat betetzen ez duenean, hiritarrak bere buruaren alde egiteko duen bermea. Argi eta garbi adieraztendu hori Administrazio

Prozeduraren Legeak bere 94.3. artikuluan: "... ustezko ukapenak ez dio kentzen Administrazioari adierazitako ebazpena emateko beharra".

Epaitegi Gorenak, 1990eko apirilaren 17ko epaian, ondoko hau adierazten du zazpigarren zuzenbide-oinarrian, udal administrazioak berraztertze-eskea ez ebazteari dagokionez:

"Badirudi, beraz, esan nahi dela legeak onartzen duelako ez zaiola erantzunik eman berraztertze-eskeari; hori bada esaten dena —eta transkribitutako idazatian ez da ikusten bestela ulertzeko modurik—, hori isiltasun administratiboa deritzanak esan nahi duena ez jakitea da".

Azkenik, Osakidetzako Administrazio Kontseiluak 1991ko azaroaren 15eko bileran errekurtsua ebaztea erabaki zuen, bai eta haren berri jakinerazi ere egileari.

Gozamen-eskubideak aitortzeko eskatzen direnak frogatzeko zailtasunaz (669-996/90)

Euskal Herriko Administrazio Autonomoari zerbitzuak eman dizkieten langileen lanbide eta gozamen-eskubideen aitortpena maiatzaren 13ko 1/1986 Legegintza-Dekretuaren bidez araututa dago (EHAA, 101. zkia., maiatzaren 24koa). Dekretu horretako 5. artikulua honako hau dio, hitzez hitz:

"1936.eko urriaren 7tik Eusko Kontseilu Nagusia jarri zeneko 1978.eko urtarrilaren 6rarteko aldiari Euskal Administrazioaren nahiz Euskadiko Jaurlaritzak aginduta eta bidalita beste administrazio edo ihardute-erakundeetan herrilari, administraziozko nahiz lan-akurapenezko lanari gisa urtebetean gutxienez zerbitzu egin izana egiaztatu dezatenek izango dute legegintza-dekretu honetan oharretematen diren onurabideetarako eskubidea.

Berarizkotasunez, Administrazioari, herri nahiz lan-alorreko zerbitzu egiteari guduak edo iareitasungabetzeak sortutako ezinagatik utzi behar izan zitzaizkion egiaztagarri izan dadinean, emandako zerbitzuen aldia 8 hilabetetara jexkiko da."

Ondorioz, agiri bidez frogatu behar da gozamen-eskubideen aitortpena eskatzen duenak emandako zerbitzuen eta euskal Administrazioaren arteko lotura, baina hori ez da batere lan erraza izaten, denbora-tarte luzea igaro dela kontutan hartuz.

Guzti honi gagozkiolarik, bi kexa idazki jaso ziren, eskubide pasiboak aitortzeko eskabideari buruz erabakitzean Eusko Jaurlaritza berandutzen ari zela ziotenak.

Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritza, Zuzentza eta Autonomi-Garapenerako Sailari argitasunak eskatu ondoren, ikusi zen eskatzaileek azaldutako agiriak ez zutelako fedea emateko indarrez frogatzen beraiek emandako zer-

bitzuen eta euskal Administrazioaren arteko loturarik. Horregatik, esandako sailak gestioak egiten jarraitzen zuen maiatzaren 13ko 1/1986 Legegintza Dekretuak, Euskal Herriko Administrazio Autonomoari zerbitzua emandako langileen lanbide eta gozamen-eskubideei dagokienez, eskaturiko baldintzak betetzen zirela frogatzeko.

Administrazioak oker jokatu ez zuenez gero, erabilitako bideak estu-estuan betetzen bait zuen indarrean dagoen lege-arautegia, Arartekoaren ebazpenaren berri kexadunei eman eta artxibatu egin zen espedientea.

Administrazioak ebazpena espreski emateko duen obligazioaz (94/91)

Tecnihotel, S.A. enpresak kexa bat aurkeztu zion Erakunde honi Osakidetza hornitzeko kontratu batez eginiko erabakiaren kontra.

Azaldutako dokumentazioaren arabera, 1987ko abenduaren 28an, Tecnihotel, S.A. enpresari Zamudioko Ospitale Psikiatrikorako kanpai es-traktore bat hornitzea esleitu zitzaion lehiaketa publikoan. Hala ere, Osakidetza kontratazio sailak, 1989ko maiatzaren 2an, esandako hornidura egiteko kontratua amaitutzat eman, eta Tecnihotel, S.A. enpresari eskatu zion instalatutako materiala atzera ken zezala, ordaindutako dirua itzuli behar zuela eta eragindako kalteengatik depositaturiko bermeari eutsiko ziotela.

Ebazpen horren kontra, Tecnihotel, S.A. enpresak gora jo zuen 1989ko maiatzaren 10ean, baina Arartekoari kexa aurkeztu zion egunean inolako erantzunik jaso gabe jarraitzen zuen.

Erakunde honek arreta handiz aztertu zuen azaldutako kasu hau, eta paratu zuen txostenean hauxe esaten zen lehen-lehenik: Osakidetza Gesti Ekonomikorako eta Administrazioarako Zuzendaria 1989ko apirilaren 3an erabakirik hautsi zen kontratua amaitutzat ematearen instrukzio al-dian, Tecnihotel, S.A. enpresa merkantilak zegozkion alegazioak egin zituela, eta hauek ez zizkiotela onartu Osakidetza Zerbitzu Nagusietako Instalakun-tza eta Mantenu Arduradunak eginiko txosten teknikoan azaldutakoan oi-narriz.

Erabaki horren kontra, lehenago esan dugun bezala, enpresak gora jo zuen, baina Osakidetza Zuzendaritza Nagusiak ez zuen ebazpenik hartu bere unean, Arartekoak eskatuta egin zuen txostenean azaldu zuen bezala, lan handia zeukalako atzeratuta eta instrukzio al-dian azaldutako alegazioak errepikatzen zirelako.

Horrela, Osakidetza Zuzendaritza Nagusiaren eritziz, gorajotzea aur-keztu zenetik hiru hilabete igaro zirenean inolako erabakirik adierazi gabe, gorajotzea ukatuta zegoela ulertu behar zen, Prozedura Administrazioaren Legearen 125. artikulua dioenaren arabera, eta handik aurrera urtebeteko epea zegoela administrazio-auzibidezko errekurtsioa ezartzeko.

Beraz, gorajotzea aurkeztu zenetik bi urte igaro ondoren administrazio-auzibidezko jurisdikziora jo gabe, Osakidetza erabakia eman zezala nahi izatea, Prozedura Administrazioaren Legearen (PAL) 94.3 artikuluan ira-garritakoaren arabera, guztiz alferrekoa izango zen, askotan eman den ju-risprudentziak balioa ukatzen bait die hirugarrenen eskubideak kaltetzen di-

tuzten beranduko erabakiei, hau da, ustezko isiltasun administratiboaren bidez egiten den ukapena inpugnatzeko urtebeteko epea igaro ondoren ematen diren erabakiei.

Hori hala izanik ere, Arartekoak Osakidetzaren Zuzendari Nagusiari gogoratu zion zeintzuk ziren bere betebeharrak; izan ere, PALaren 94.3 eta Jurisprudentzia Legearen 38. artikuluen arabera, Administrazioa behartuta dago administratuek azaltzen dizkioten gai guztiei buruzko erabakia espreski ematera, eta, beraz, isiltasun administratiboaren figura ezin da auzia amaitzeko modutzat erabili, horrela jokatzuz gero babesik eza gertatuko litzatekeelako, oraingo honetan gertatu bezala.

Aurretiazko zerbitzuak aitortzearen ondorioez (206/91)

Erandioko Elizateko udal langile batek aurretiazko zerbitzuak aitortzeko eskaria egin zuen, horretarako eskubidea ematen zion lan egoeran gertatu eta gero, baina Erakunde honetara jo zuen, bere ustez esandako udal horrek oker ulertu zuelako aitorten horrek eduki behar zituen ondorioak.

Erakunde honek dagokion txostena eskatu zion udalari, eta hartan adierazten zitzaigun zerbitzuen aitortenak 1990eko azaroaren 19tik aurrera zuela indarra, egun horretan egin bait zuen eskaria esandako langileak.

Kexadunaren eritziz, ordea, aurretiazko zerbitzuak aitortzearen ondorioz, zorpideak 1985eko irailaren 1etik aurrerakoa izan behar zuen, egun horretan bihurtu bait zen lan-hitzarmenpeko langile finko. Horretaz gainera, bere esanetan, bere nahia ezin uka zitekeen aurretiazko zerbitzuak aitortzeko eskea aldeztatik ez aurkezteagatik, pentsatu beharko bait zen udalak bazekiela horien berri; izan ere, lanpostua eskuratzeko pasa behar izan zituen probetara meritu modura azaldu zituen hirurteko osoak aitortzeko eskubidea ematen duten zerbitzuak.

Kexaren gaia aztertu ondoren, Ararteko honek egiaztatu zuen aurretiazko zerbitzuak aitortzeko eskubidea abenduaren 26ko 70/78 legean oinarritzen dela; beraz, eskaturiko eskubidearen jatorria lege bat izanik, ondorioz ezin atera zitekeen eskubidearen hasiera eskabidean dagoenik, eskari hori beharrezkoa izateagatik. Eskabide-orria beharrezkoa zatekeen Administrazioak berak ofizioz aitortpena egiteko oztopoak edukiz gero bakarrik.

Arartekoaren eritziz, ordea, eskatzaileak jaso beharreko kopurua langile finko bihurtu zenez geroztik jaso nahi bazuen ere, hor dago iraungipen deritzana, eta epea, kasu honetan lan-hitzarmenpeko langilea izanik, urtebetekoa zen Langileen Estatutuko 59.1 artikulua arabera.

Erakundeak eginiko gomendioari jarraituz, udalak erabaki zuen hirurtekoengatik gertatutako aldeak aitorten eskearen eguna (1990eko abenduak 19) baino urtebete lehenagotik jasotzeko eskubidea onartzea. Hori horrela izanik, espedientea artxibatu egin zen.

OHoko irakasle ordezkoen zerrendetatik kanpo bidegabeki uzteaz (243/91)

OHoko irakasle ordezko batek zerrendetan berriz onartua izateko eskatu zuen, Bizkaiko Hezkuntz Ordezkaritzaren esanetan 1989/1990 ikasurtean zehar hainbat deiri ez erantzuteagatik haietatik kanpo geratu eta gero.

Kexaduna irailean azaldu zen Bizkaiko Hezkuntz Ordezkaritzan zerrendetan nola zegoen ikusteko, ordezkapenak egiteko deirik jaso ez zuela urtebete igaro eta gero, eta orduan ikusi zuen haietatik kanpo zegoela.

Ordezkaritzan aditzera eman zioten 1990. urtean zehar telegrama bidez saiatu zirela berarekin harremanetan jartzen ordezkapenak egitea eskaintzeko, baina Posta eta Telegrafo Zerbitzuak bera aurkitu ezinik, mezuak atzera itzuli zituela. Hortaz, Ordezkaritzak erabaki zuen irakaslea ezin aurkitzeak eskaintzari uko egitea esan nahi zuela, eta zerrendetatik kanpo utzi zuen. Orobat, aditzera eman zioten horri buruzko erreklamazioa ekainean egin behar zuela, une hartako zerrenden baremu berria egiteko eske-orriak aurkezteko epea hasi zenean.

Kexadunak zerrendetan berriz onartua izateko eskea egin zion Bizkaiko Hezkuntz Ordezkaritzari; izan ere, bere esanetan, Posta eta Telegrafo Zerbitzuak telegramak itzultzen zituen bere helbideari buruzko datuak osatu gabe zeudelako, datu horiek osatu eta zuzen eman bazituen ere 1986an zerrendetan sartzeko egin zuen eske-orrian. Beste alde batetik, irakasle honek adierazi zuen azaltzeko meriturik ez zuelako ez zuela eske-orriak aurkeztu une hartako zerrenden baremua berritzeko, eta, ondorioz, behin-behineko eta behin-betiko zerrenden aurkako erreklamaziorik ere ez zuela egin, haietatik kanpo egon arren.

Kasua eta kexaren oinarri ziren gertaerak aztertu ondoren, Ararteko honen eritziz arrazoa zuen kexadunak. Izan ere, Ordezkaritzak bidalitako telegrama hautagaiak jaso ez eta ezintasun horren berri emateko harekin harremanetan jartzerik ez dagoen bitartean, zerrendako hurrengoetara jotzen bada ere, horrek ez dakar bertatik kanpo geratzerik, hautagaiak inoiz ere ez bait du adierazi eskaintzari uko egiteko asmorik ez eta ordezkapena onartu edo ez onartzeko aukerarik eduki ere, eta horixe litzateke zerrendetatik kanpo geratzeko arrazoa zurituko lukeen kasu bakarra.

Horiek horrela izanik, idazki bat bidali zitzaion Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari kexadunaren kasua berrikus zedin eskatzeko. Sailak, erantzun moduan, berriz onartu zuen kexaduna zerrendetan, eta aurrerantzean erizpide hori erabiltzea erabaki zuen hautagaia aurkitzerik ez dagoenean.

Norbere espedientea ikusteko eskubideaz (273/91)

Lehiaketa batera aurkeztutako pertsona batek Erakunde honetara jo zuen Eusko Jaurlaritzak 1990eko urtarrilaren 17ko Aginduz deitutako lehiaketa-norgehiagoketako epaimahaiari bere azterketaren espedientea ikusteko eskatu ondoren.

Izan ere, lehiatzaileak bere azterketa berrikustea eskatu zuen, bai eta galderaren bat ezeztu ote zen jakinerazteko ere, eta, hala izanez gero, horietako zein galdera geratu ziren puntuatu gabe. Epaimahaiak aditzera eman zion bere azterketa berrikusi ondoren 0,50 puntu gehiago eman zizkiotela, baina adierazi gabe zein galdera gelditu ziren ezeztuta.

Horri buruzko argitasunak Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeari eskatu ondoren, Erakunde honek ikusi zuen eskatzaileari ez zitzaiola eman bere espedientea ikusteko aukerarik, berak eskatu arren, eta, beraz, zuzenketaren kontraesanezko analisi bat egiteko aukera murriztuta geratu zitzaiola.

Ondorioz, Ararteko honek gomendio bat egin zuen, bai eta epaimahaiak bete ere, azterketariari eskuratu bait zitzaizkion proba teorikoko erantzunak, bai eta proba horretan ezeztu ziren galderak berak ere.

Oporretako soldatak ordaintzeaz (284/91)

SVS-Osakidetzan lan egiten duten zenbait espezialista eta laguntzailek Erakunde honetara jo zuten oporretako soldatetan jartzen ari zitzaizkien ordainketen inguruko arazo bat azaltzeko.

Aditzera ematen zuten, bakoitzak lanpostu bat baino gehiago betetzen zituzten. Lanpostu pilatuei zegozkien ordainketak hileroko jasotzen zirenen, opor hilabetearen izan ezik, pilaturiko kontzeptuak ez bait ziren kontutan hartzen orduan.

Argitasunak eskatu zitzaizkionez gero, SVS-Osakidetzak adierazi zuen INSALUDen menpeko langilegoari ordaindu beharreko buruzko 1986ko abuztuaren 8ko Aginduaren arabera, pilaturiko lanpostuen ordainak oporretako soldatetatik kanpo geratzen zirela.

Erakunde honek auzi hau aztertu, eta ondorioztat eman zuen 1986ko abuztuaren 8ko Agindu horretan finkaturiko salbuespena urteko oporren bidez bilatzen den helburuaren aurkakoa zela, haietan ez bait zaio kendu behar langileari bere soldataren zati bat.

Horregatik, Ararteko honek SVS-Osakidetzara jo zuen, eta erabiltzen ari zen arautegia moldatzeko gomendioa egin; izan ere, Erakunde honen ustez, urteko oporretako ordainketetan kontutan hartu behar da dagokion bataz besteko soldata.

Jasotako gomendioari jaramon eginez, SVS-Osakidetzak Erakunde honi jakinerazi zion oporretako ordainketetan pilaturiko lanpostuei zegozkien ordaintzera zihoala, eta horretarako behar zen arautegia prestatuko zuela, ordainketa hori 1991ko urtarrilaren 1etik aurrerako indarrez egiteko. Guzti horregatik, espedientea artxibatu egin zen.

Osasun erakundeetan zuzendaritza postuak izendatzeaz (342/91)

Osakidetzako ospitaleetako zuzendaritza postu jakin batzuren izendapena, deialdi publikorik gabe egin ohi zen orain arte.

Aipatutako erakunde publikoak jakinarazi zuenez, jarraitzen zen prozedurarekin 120/85 Dekretuko 5.3 artikulua zehatz-mehatz betetzen zen, zeinaren arabera "sailtako zuzendaritza karguak, erakundearen zuzendari nagusiak berak izendatzen dituenekin beteko dira, eta pertsona horiek 4. artikuluan finkatutako baldintzak betetzeaz gain Osakidetzari atxekiak izan behar dira. Baldintza horretan deialdi publikoa iragartzen ez denez, erabilzen zen bidea zuzentzat jotzen zen.

Planteatutako arazoa aztertu eta ikusi zen, ospitaleetako zuzendari gerente postuetarako iragarrita ez bezala, horientzat lan lotura berezi bat iragartzen bait da, sailtako zuzendaritza karguetarako Osakidetzakoa izatea beharrezkoa dela (130/85 Dekretuko 5.3 artikulua). Exijentzia hau dela eta, bere bidez sailtako zuzendaritza postuak plantilakoentzat erreserbatuta bezala planteatzen bait dira, Arartekoak erabaki zuen behar-beharrezkoa zela aldez aurretik deialdi publikoa egitea, administrazio publikoetako lanpostuetarako bete behar den publizitate printzipioaren arabera, eta zentzu honetan gomendio bat luzatu zitzaion Osakidetzari.

Geroago, osasun erakundeetako zuzendaritza postuetarako publizitatearen printzipiora egokitzeko erabakia hartu zuen erakunde autonomo horrek.

Gaisotasun psikiatriko bategatik bajan egon bitartean, Ertzaintzatik borondatezko baja hartzeko eskeaz (402/91)

Erakunde honetan jaso zen kexu idazki batean, kexadunak azaltzen zuen babesik eza gertatu zitzaiola Ertzaintzatik baja hartzeko tramitea egitean.

Kexadunak zioenez, gaisotasun psikiatriko bategatik bajan zegoelarik, Zamudioko ospitalean sarturik zehazkiago, Ertzaintzatik borondatezko baja hartzeko eskatu zuela, eta eskari hori onartzea ebatzi zuela Barne Sailak.

Horretaz gain zera zioen, jaso zuen tratamendu medikua bere fruituak ematen hasi zen bezain laster, jasaten zuen gaisotasuna atzera egiten eta sendatzeko bidean jartzten hasi eta azkenik erabat sendatu zela, eta bere gaitasun osoa berreskuratu zuela. Une horretan, errekurtsio bat egin zuen Ertzaintzatik borondatezko baja egiteko eskaria onartzen zion ebazpena baliogabetzeko; baina Arartekoari bere kexua aurkeztu zionean, artean ez zioten inolako erantzunik eman errekurtsio horri.

Kasu honetako berezitasunak kontutan harturik, Arartekoa gai honetaz arduratu eta Barne Sailburuarekin halako harreman batzuk hasi zituen. Azkenik, Barne Sailak, 1991ko urriaren 11ko Aginduz, honako hau ebatzi zuen:

"1990eko ekainaren 14an Barne Sailburuak ... jauna Ertzaintzatik borondatezko bajan deklaratzeko emandako Agindua indarrik gabe utzi, baliogabetu eta gertatu gabekotzat jotzea, eta, ondorioz, jaso beharreko eskubide guztiak itzultzea ertzain horri".

Behin-behineko pertsonalaren izendapena atzeratzeaz (449/91)

Autonomi Komunitate honetako Administrazio Nagusian lanpostu bat behinik-behin betetzeko prozedurari buruzko kexu idazki bat jaso zen.

Herri Ardurularitzaren Euskal Erakundeak (HAEE) lanpostu bat behinik-behin betetzeko eskaintza egin zion telefonoz kexadunari. Egun hartatik lanpostura sartu zen arte (azaroak 9) hilabete eta bederatzi egun igaro ziren.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, 1990eko azaroaren 20an, Euskal Herriko Autonomi Komunitatearen Administrazioan eta bere erakunde autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko pertsonalaren zerrendak osatzeko deialdia egin zen. Deialdi horretan, zerrendetan agertzeko baldintzetako bat 1990eko urtarrilaren 1etik urriaren 30era bitartean zerbitzuak ematen egon izana zen. Kexaduna haietatik kanpo geratu zen, azaroaren 9an izendatu zutelako.

Langileak behinik-behin kontratatzeko espedienteetan jarraitu beharreko bidean, HAEEk izendapena jaso behar duen pertsona hautatzeko lanetan parte hartzen du. Zerbitzuak emateko hasiera, ordea, dagokion sailak ondoko izendapena egin arte atzeratzen da, eta, hortaz, ulertu behar da lanpostua betetzeko dagokion sailaren antolakuntza pean gertatzen dela. Horregatik, Arartekoaren eritziz, lanpostuan lanean hastean izandako atzerapenak ez ziren inolako kalterik ekarri kexadunaren eskubideei.

Esanak esan, Arartekoaren ustez komenigarria da HAEEk lehiatzaileekin dituen harremanetan ondorioak noiztik aurrerakoak diren ohartaraztea, batez ere batzuetan gerta daitekeelako azkenik izendapenik ez egitea; eta horixe gomendatu zion HAEEri.

Seguritate juridikoaren printzipioaz (452/91)

Maistra batek kexa bat aurkeztu zuen OHO-ko traslado lehiaketan ezarri zitzaion balorazioarekin ados ez zegoelako.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak igorritako txostenaren arabera, kexadunaren baremazioa sailak berak egin zuen, traslado lehiaketan Lurralde Autonomo honetarako plazarik atera ez zen arren. Era berean, sailak zioen kexadunak ez zuela aurkez zezakeen erreklamaziorik egin, eta beraz, bere espedienteak, barematu ondoren, Hezkuntza eta Zientzia Ministeriari igorri zitzaiola.

Erreklamazio eta errekurtsio administratiboetarako epeak pasatzen utzi izan arren, Arartekoak planteatzen zaizkion auzien muinera iritsi nahi izaten du. Halere, lehiaketaren behin-betiko erabakiaren arabera hirugarrenekiko eskubideak sortzen direnez, eta kexadunak erreklamazio eta errekurtsioak egiteko zeukan eskubidea erabili ez duenez, Erakunde honek erabaki zuen ez zeukala zertan esku harturik, bestela segurtasun juridikoaren printzipioa kaltetuta gertatuko bait zen.

Lehen mailako arreta ekipoetan integratzeaz (486/91)

Lehen mailako arreta ekipoetan osasun alorreko pertsonala zuzenean sartzeko eskaintza dela eta, kupoko erizain batek Erakundearengana jo zuen ustez eskuratuta zituen eskubideak errespetatu ez zitzaizkielakoan.

Bi auzi nagusi planteatzen ziren: alde batetik, kexadunak zioen lehen mailako arretarako lanpostua lortua zuela, baina halere kupoko pertsonalaren funtzio berberak agintzen zitzaizkiola; eta bestetik, Osakidetzak kupoko plazak lehen mailako arretarako plaza bihurtu nahi zituela salatzen zuen.

Osakidetzak igorritako informazioan esaten zen, interesatuak kupoko erizain bezala egiten zuela lana, pertsonal fakultatiboari laguntza ematean oinarritzen diren zereginetan, eta egia zela lehen mailako arretarako lanpostua atzera zuela. Era berean esaten zen, interesatua gaiso kronikoekin lan egiten hasia zela, eta etxean atenditzeko zereginetara zegoenez, horietan berandu hasi zela lehen mailako arretarako ekipoetako plantilak egokitu gabe zeudelako, eta egokitze arazo horiek kexa aurkeztu zenean baldin bazeuden ere, jadanik konponduta zeudela.

Lehen mailako arreta ekipo batean sartzeak ez du esan nahi erizain batek, kupokoa izateagatik izendatuta dauzkan funtzioak alde batera utzi behar dituenik; aldiz, beste lan batzuri ere erantzun behar die, hala nola gaiso kronikoen beharrei, etxeko asistentziari, e.a. Kexa aurkeztu eta gero, azken zeregin hori interesatuari izendatu zitzaionez, ez zen ikusi Administrazioaren aldetik ihardun irregularrik.

Kupoko kontsultak desagertzeko Administrazioak azaldu dituen asmoei dagokionez, Arartekoaren eritzia izan zen osasun administrazioak osasun eredu berri bat eratzeko ahalmena duela, eta baita, ondorioz, kupoko pertsonala lehen mailako arreta ekipoetan sartzeko pausoak emateko ere. Bestalde, ez zen ikusi eskuratutzat jo daitezkeen eskubideak kaltetzen zirenik, eta beraz, borondatezko integrazio bat egon dela kontuan izanik, Osakidetzaren prozedurari ezin zitzaion eragozpenik ezarri.

Euskara meritu bezala baloratzeaz (633/91)

Bizkaiko Batzar Nagusietako subalterno plaza batera aurkezten zen pertsona batek Erakunde honetara jo zuen euskararen balorazioa desegokia izan zela argudiatuz.

Euskara jakitea ez zen derrigorrezkoa, meritu bezala baizik ez zen baloratzen. Deialdiko oinarrien arabera, euskara, meritu bezala, hautaketa prozesuan atera zitekeen puntuazio osoaren % 16 baloratzeraino iritsi zitekeen.

Egindako azterketaren ondorioz ikusi zen deialdiko oinarrietan iragarritako balorazioa, euskara jakitea derrigorrezkoa ez den lanpostuentzat (erabateko puntuazioaren % 5 eta % 20 artean), Euskal Funtzio Publikoa arautzen duen 6/89 Legean iragartzen dena egokitzen zela, eta era berean, oraintsuko jurisprudentziarekin ere bat zetorrela, prozesuaren puntuazio osoaren % 17ko balorazioa arrazoizkotzat jotzen bait da.

Batzar Nagusia ez den beste alor batean, adibidez Lurralde Autonomo honetako Administrazio Orokorrean, subalternoei, normalean, gehie-

nez euskarazko 2. maila eskatzen zaie. Horren arabera, eta Euskal Funtzio Publikoaren 6/89 Legea garatzen duen urriaren 17ko 224/89 Dekretuaren arabera, 2. mailako lanpostu baterako euskararen gehienezko balorazioa erabateko puntuazioaren % 10 litzateke. Dekretu honek, ordea, ez ditu Bazar Nagusiak bere ezarpen eremuan hartzen.

Salbuespen honegatik ezin ziren deialdiaren oinarriak zuzengabe edo oinarrigabetzat jo, zuzenean ezargarria zitzaion 6/89 Legearen xedeetara eta baita oraintsuko jurisprudentziara ere egokitzen zelako.

Halere, Arartekoaren ustez, Bazar Nagusiak 224/89 Dekretuaren eremutik at geratzen badira ere, etorkizunean egin daitezkeen deialdietan arau hori erreferentzia modura hartzea komeni da, dekretu horren arabera antzekoak izan daitezkeen lanpostuetarako ezartzen diren hizkuntza eskakizunak aintzat hartuz. Zentzu honetan gomendioa eman, eta ondoren, espediente itxi egin zen.

3.5. OGASUNA

A) Sarrera

Ogasun alorraren inguruan jaso diren kexak 48 izan dira, aurkeztu diren guztietatik % 10,3a beraz, eta horrek iaz jasotakoan aldean % 20ko igoera gertatu dela esan nahi du. Kexa hauek honela banatu dira administrazioen artean:

—Eusko Jaurlaritza	0
—Aldundiak	34
—Udalak	14*

* Estatistikari begira, Getxoko Udalaren ondasun higiezin zergari buruz jasotako 58 kexak bat bezala hartu ditugu kontutan.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga da oraingoan ere foru aldundiek gestionatu eta bildu behar dituzten zergen artetik kexa gehien eragiten dituen. Haietan azaltzen diren gaiak, nagusiki, zergaren kopurutik egiten diren kenketak, halako dirusarrera batzuk errenta zergagarri edo zergagabe izatea, eta foru ogasunek eutsitako soberakina itzultzeko epea izaten dira.

Udal zergei dagokienez, ondasun higiezin zerga eta lurren balioaren gehikuntzaren zerga izan dira kexa gehien eragin dituztenak, biak zergapean jarritako ondasunen balorazioari buruzko gorabeherengatik.

Aipatzekoa da ia kexarik ez dela jaso balio erantsiaren zergari eta elkarteen zergari buruz, seguru aski zergadunek tributu alorreko adituen laguntza sarriago izaten dutelako.

B) **Kexen aukeraketa**

Enplegua arautzeko espedientearen ondorioz aurretiaz erretiratzearen osagarriak. PFGZ ordaindu beharraz (519/89)

General Eléctrica España, S.A. (gaur egun CONELEC, S.A.) enpresako zuzendaritzaren eta langile batzordeen artean enplegua arautzeko izenpe-tutako akordioaren bitartez, kexaduna aurretiaz erretiratu zen 1983ko otsai-laren 1ean.

Akordio horretan finkatzen zenez, langileak 460.726 pta. jasoko zituen urtero bere bizitza guztian, lan harremana haustearen ordainetan; diru hori Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorrak emandako erretiro-sariaren osagarri moduan kobratu behar zuen.

Gauzak horrela, dirukopuru hori PFGZren Arautegiko 10. artikulua bere mende hartu gabeko kopuru aitortuen artean ez zegoela eritzita, lan-gile honek oinarri zergagarrian ez sartzea erabaki zuen 1983tik 1986ra bi-tarteko bere errenta-aitorpenetan (bi urteak barne).

Bizkaiko Foru Ogasunak behin-behineko likidazioa egin ondoren, ke-xadunak berraztertze eskea aurkeztu zuen, baina ezetsi zioten bere zati guz-tian.

Apirilaren 1eko 35/85 Foru Dekretuko 10.1 artikulua pertsona fisi-koen errenta-zergaren arautegia onartu zuen; haren arabera:

“Ez dira errentatzat hartuko, lehengo 8. artikuluko d) letrak ai-patzen dituen kalteordaintzat baizik, ondoko hauek:

a) Zergaduna lanlekutik aldatu, egotzi edota lana uzteagatik eratortzen direnak, indarrean dagoen legeriak derrigorrezkotzat jo-tzen duen gehieneko mugara arte (...)”.

Ikuspegi horretatik, eta kontutan harturik aurretiazko erretiroa enple-gua arautzeko espedientearen barruan gertatu zela, eta horrek, jurispruden-tzia ugari baten arabera, langilearen erabakiaren borondatezkotasuna bal-dintzatzen duela, Ararteko honen eritziz eztabaidagai zen kalteordaina ez zen zergagarria; horregatik, gomendio bat egin zitzaion Bizkaiko Foru Oga-sunari, alegia, eginiko likidazioak ezeztatu zitezela.

Hala eta guztiz ere, zergalaritza-administrazioaren arabera, bereiztu be-har ziren, batetik, langileak lana uzteagatik jaso behar zuen kalteordaina eta, bestetik, erretiroaren osagarriak. Izan ere, lehendabizikoengatik ez da zer-garik ordaindu behar; bigarrenak, ordea, “ex ante” gisan zenbatzeko modu-koak ez direnez gero, eta langilea bizirik dagoen bitartean ordaintzen dire-nez gero, ezin zitezkeen kalteordaintzat hartu.

Gure eritziz, kalteordainak nola ordaintzen diren garrantzirik batere ga-beko kontua da zergagarriak ote diren ala ez zehazteko, eskubideak gal-tzearen ondorengo ordaina izanik, ezin bait dira errentatzat jo. Bestela, Konstituzioaren bitartez babesten den berdintasun printzipioaren kontrako egoerak gerta litezke.

Beste alde batetik, legegileak, ulerkera honen baliotasuna nolabait bere-eginik, haren kontra jo nahi izan du, eta, horrela, PFGZ berriari buruzko

18/1991 Legearen 9. artikuluko d) zatiaren arabera, espreski zergagai diren artetik kanpo uzten du Langileen Estatutuan, bere garapenari buruzko arautegian edota, bestela, epaiak exekutatzeko arautegi erregulatzailan derrigorrezkotzat emandako kopurua gainditzen duen eta komenio kolektiboan ezarritakoa den kalteordaina.

Azaldutakoa gorabehera, Bizkaiko Foru Ogasunak ez zuen kontutan hartu eginiko gomendioa.

Lurren balioaren gehikuntzari buruzko —plusbalia— udal zergarengatik likidazioa 20/90

Interesatuak 1986an, salerosketako eskritura publikoaren bidez, soro erabilerarako hiru lur zati erosi zituen, ordurarte aitarenak izandakoak.

1989ko apirilaren 3ko datarekin, Hondarribiako udalak plusbaliaren lehen likidazioa egin zion, 617.446 pezetakoa. Kexaduna metro karratuari ezarritako balioarekin ados ez zegoenez, birjarpen errekurtsioa ezarri zuen egindako likidazioaren aurka; gobernu batzordeak kuota % 20 jeistea erabaki zuen erregimen lokaleko gaietan indarrean dauden xedapenen testu bateratuko 353.3 artikulua diona ezarriz.

Eskuratu zitzaigun txostenak aztertu ondoren, baieztatu zitekeen karga ezarri zitzaien lurra transmisioa formalizatu zen unean lantzen ziren nekazal lurra zirela, transmisio egileak jubilazio pentsioa Aseguru Sozialeko Nekazal Erregimenetik jasotzen zuelako.

Plusbalia zergari zegokionez, lurrei balorazio altua ezarri zitzaien, egite zergagarria egin zen unean eman zitzaien hirigintza kalifikazioarengatik, lur horietan eraikitzeko aukera egon zitekeela kontuan izanik.

Interesatuak ez zituen sekula aurrera eraman aipaturiko hirigintza planteamenduak, eta aldi berean Hondarribiako Hiri Antolamendurako Plan berriak lurra nekazal lur bezala birkalifikatu zituen.

Beraz, zergapekoarentzat gehiegizko karga ezartzen zen, likidazioa esistitzen ez ziren plusbalia batzuri lotua zegoelako.

Erakunde honek gomendatu zion Udalari operazioa salbuetsita utz zezala, lurren nekazal izaera kontuan izanik eta apirilaren 18ko 781/86 E.D.-ko (testu bateratua) 350.2 artikulua arabera, eta horrela erabaki zen 1991ko martxoaren 5eko gobernu batzordearen bileran.

Udalari eskerrak emanaz bere laguntzagatik, espedientea itxi egin zen.

Gipuzkoako hondartzetan aparkatzeko prezio publikoak (285/90)

Gipuzkoako bi hondartzen aldameneko bide publikoetan ibilgailuak aparkatzeko kobrantzari buruzko kexa batzuk jaso ziren Erakunde honetan.

Kexadunek ziotenez, kexetan aipatzen ziren udalek Aldundiaren diru-laguntzak jasotzen zituzten beren udalerrietako hondartzen azpiegitura, garbitasun, zainketa eta sorospidetza gastuei aurre egiteko. Haien eritziz, hango biztanleek bezala eskubidea zuten hondartzez eta osagarritzko zerbitzuez gozatzeko, zergengatik inolako ordainketa gehigarririk egin gabe.

Honi dagokionez, Gipuzkoako Lurralde Historikoko tokian-tokiko ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren 1. ebazpen gehigarriak baimena ematen die Gipuzkoako udalei bultzapen mekanikoko ibilgailuak zehazten diren inguruetan eta ezartzen diren mugapenekin aparkatzeko prezio publikoak ipintzeko. Ebazpen hori garatuz, udal bakoitzaren ordenantza arautzaileek hondartza ondoetako kale-bideetan aparkatzeko prezio publikoak zehazten dituzte.

Foru Aldundiak udal batzuei dirulaguntzak eman arren azpiegitura, garbitasun, zainketa eta sorospidetzak gastuei aurre egiteko, hauek beren esku dute ondasun publiko baten erabilera pribatu edo berezarako prezio publikoak eta zergak ipintzea. Gauza bera gertatzen da udalerraren esku-menekoak diren zerbitzu edo ekintza administratiboekin ere.

Esan gabe doa, udal horiek beren zerbitzu eta instalakuntzak zabaldu behar izaten dute uda parteko bisitarien emanari aurre egiteko, eta horrek, Tokian Tokiko Ogasunen Legeak honi dagokionez aitortzen duen dirubiltzeko autonomiarekin batera, aukera ematen die udalei horrelako prezio publikoak ezartzeko. Ildo honetatik, foru arau horretxetako 47. artikulua arabera, prezio publikoen kopuruak emandako zerbitzuaren edo eginiko ekintzaren balioa adinakoa izan behar du gutxienez.

Horiek horrela, indarrean dagoen legeria inola ere hausten ez zela erizita, espedientea artxibatu egin zen.

Zerga kitapenari buruz arauzko jakinerazpenik egin ez izanaz (432/90)

Kexadunak adierazi zuen behartze-bidea ezarri eta horren berri jakinerazi zitzaiola 1987 eta 1988 urtealdiei dagokien etxebizitzetako apainketa gastuen Zergagatik. Berraztertze eskea egin zuen haren kontra, bere esanetan, zor hori ez zitzaiolako borondatezko ordainketa egiteko epearen barruan jakinerazi, eta, horrela, behartze-bidearen gainordaina eta prozeduraren kostuak ordaintzera ukatu zen. Getxoko Udalak ezetsi egin zuen berraztertze eskea, argudiatuz ezen, eroldaren arabera aldi-aldian kobratzen den zerga izanik, Zergabidearen Lege Orokorrak onartzen duela aginduak probintziako aldizkari ofizialean argitaratuz jakineraztea.

Eritzi horren kontra, bada jurisprudentzia etengabe bat, Epaitegi Gorenak 1988ko irailaren 26an emandako epaian laburbiltzen dena; honen arabera, "agindu bidez egiten diren jakinerazpenak ezin daitezke bide arrunt bilakatu aldi-aldi kobratu beharreko zergetan; aldiz, erabil daitezke soil-soilik urtealdi batetik besterako ordainak berdina edo txikiagoak direnean, baina ez, ordea, beraiek nabarmenki gehitzen direnean, zeren eta agindu bidezko aldaketa horrek babesik eza eragiten bait du, argi eta garbi, kasu horietan".

Era honetara, kitapena jakinerazitzat eman dadin, zergadunari berari zuzenean bidali behar zaio jakinerazpena, bai eta bertan adierazi ere kitapenaren kontra zer nolako errekursoak ezar daitezkeen, eta zein sailetara eta zein epetan aurkeztu behar diren, Administrazio Prozeduraren 79. artikulua finkatzen duen bezala.

Erakunde honek eginiko gomendioari jaramon eginez, Getxoko Udalak erabaki zuen behartze-bidea bertan behera uztea, eta gain-ordainarengatik eta bertan behera utzitako premiabideari zegozkion gastuengatik udal diruzaintzan sartutako diru kopurua itzultzea.

Trakzio mekanikoa duten ibilgailuen gaineko zergako sujetu pasiboaz (468/90)

Kexadunak, gasteiztarra bera, 1990. urtean ibilgailu bat erosi zuen enkante publiko batean. Zegokion epaitegitik ofizio bat bidali zen Arabako Garraioko Probintzi Jefaturara, ibilgailuaren titularitatea interesatuaren ize-nean jar zezan.

Tramite hori burutzeko, trakzio mekanikoa duten ibilgailuen gaineko zergaren, hots, antzinako Zirkulazio Zergaren azken agiria eskatzen zitzaioenez, zegokion udal bulegoetako sailean ordaintzen ahalegindu zen, baina 1986tik 1989. urtera artekoak ere ordaintzea eskatzen zioten, ibilgailuaren aurreko jabeak ordaindu gabe zeuzkalako.

Gasteizko Ogasun Sailari idatzi bat aurkeztu zion, ibilgailua enkante publikoan erosi aurretiko erreziboak ordaintzera behartu ez zezaten eskatzeko, baina alkateordearen ebazpenez ezetsia izan zen. Ebazpena, zergaren ordenantzako 2. artikuluan oinarritzen zen, zeinen arabera "Zerga ordaintzera behartuta egongo bait dira, dagokion erregistro publikoan ibilgailuaren jabe bezala agertzen diren pertsona natural edo juridikoak, nazionalak edo atzerritarrak", eta ordaintzeke dauden erreziboak ez dira baliogabetuko, aldatuko edo zuzenduko, zegokion erregistro publikoan azaltzen zen jabeari igorri bazitzaizkion.

1968. urteko azaroaren 14ko Zerga Bilketarako Araudi Nagusiko 49. artikulua bestalde, urtean bertan ordaindu beharreko zorrak derrigorrezko epean ordaintzea galerazten du, sujetu pasibo berari bidali eta aurrez mugaguna gaudituta dauden kasuan.

Zentzu honetan, Trakzio Mekanikoa duten Ibilgailuen gaineko Zergaren Foru Arauko 3. artikulua hau xedatzen du:

"Zirkulazio agirian ibilgailuaren jabe bezala agertzen diren pertsona fisiko eta juridikoak dira zerga honen sujetu pasiboak".

Horrela, erakunde honen eritziz, ibilgailua eskuz aldatzen ez zen arte, interesatua ez zen azalduko zirkulazio agirian, eta beraz ez zukeen edukikoz zergaren sujetu pasibo izaerarik.

Bestalde, ondasun higiezinaren gaineko zergarekin gertatzen ez den bezala, trakzio mekanikoa duten ibilgailuen gaineko zergak ez du iragartzen ondasunak zergapeko zorraren azpian geratzen direnik, eta beraz, ondasun hori eskuz aldatzen denean ardura subsidiarioa ezin zaio jabe berriari gaineratu, eta horrela erosi aurretik ondasunari ezarritako zorrak ordaintzera behartu.

Hitz batean esateko, ez gaude ustezko zorren jarraipen egoera baten aurrean, zor horien arduradun bakarra aurreko jabea bait da.

Azaldutakoarengatik, Gasteizko Udalarari gomendatu zitzaion, onar diezaiotela interesatuari 1990. urteari zegokion zerga zatia bakarrik ordaintzea, ibilgailuaren titularitate aldaketa egin ahal zezan.

Aldi berean, interesatuak erreklamazio ekonomiko-administratiboa egin zuen Arabako Erakunde Juridiko-Administratiboaren aurrean, eta horrela trasferentzia prozesua burutu ahal izan zuen 1991. urteari zegokion kuota, ordainketarako borondatezko epearen barruan ordainduta zeukalako, behartze-bide motako prozeduran dauden zorrak garbitu beharrik ez bait dago une administratibo horretan.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan elbarritasunari dagokion kenketaz (10/91)

Bilbotar batek bere kexu idazkian aditzera ematen zuen 1987ko persona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitortpenean elbarritasunari dagokion kenketa egin gabe utzi zuela.

Kexadunak zioenez, berraztertze eskea aurkeztu zuen, bai eta administrazio-auzibidezko errekurtsua ere, kenketa hori onar diezaiotela eskatzeko, baina bere eskariari uko egin ziotela; ebazpenak erabiltzen zuen argudioa zen bere kasua ez zela aurkitzen elbarritasunari dagokion kenketa egiteko eskubidea ematen dutenen artean, ekainaren 2ko 58/87 Foru Dekretuaren arabera.

Errekurtsio horiek egitean, kexadunak Gizarte Segurantzaren Erakunde Nazionalak luzatutako ziurtagiri baten bitartez frogatu zuen bere elbarritasuna.

Erakunde honek kasua aztertu ondoren ikusi zuen bezala, kenketa egiteko eskubidea ematen duen elbarritasun maila zehazten duen 58/1987 Foru Dekretuaren arabera, erabateko elbarritasun iraunkorra jasan behar da, edota, bestela, Lan eta Gizarte Segurantza Ministraritzaren 1984ko martxoaren 8ko Aginduari jarraituz, % 33ko edo gehiagokoa; gainera, frogatzeko onartzen zirenak "(...) erakunde mediku ezagunek luzatutako ziurtagiriak, edo dagokion arloan aditu diren sendagile batek baino gehiagok luzatutako ziurtagiriak izango dira, eta espezializazioak agerian egon behar du ziurtagirian".

Ildo honetatik, ziurtagiri gehiago eskatu zitzaizkion kexadunari, zeren eta bere alegazioan aurkeztu zuen hartan, Lan eta Gizarte Segurantza Ministraritzaren 1979ko Aginduaren arabera erabateko ezgaitasun iraunkorra jasaten zuela zehazten bait zen.

Kexadunak alor horretako bi sendagile adituren ziurtagiriak bidali zituen, haietan argi eta garbi azaltzen zelarik bere ezgaitasuna % 50etik goragokoa zela.

Gure eritziz 58/1987 Foru Dekretuak eskatzen zuen baldintza behar bezala betetzen eta frogatzen zenez gero, Bizkaiko Ogasun eta Finantzeta-ko Foru Diputatuari igorri zitzaizkion ziurtagiri horiek.

Erakunde honek eginiko eskariari buruz Ogasun eta Finantza Sailak osatu zuen txostena kexadunaren alde ateratzen zen, elbarritasuna frogatu bait zegoen indarrean dagoen legeriaren arabera; horregatik, likidazio

berri bat egingo zitzaion 1987ko pertsona fisikoen gaineko errentaren zergan, elbarritasunari zegokion kenketa onartu ondoren.

Birjarpen errekurtsua garaiz kanpo egiteagatik ukatzeaz (40/91)

Interesatuak, 1987, 88 eta 89ko ekitaldiei zegozkien Pertsona Fisikoen Gaineko Zergaren (PFGZ) aitorpenetan, elbarritasunagatik jasotzen zuen pentsio osagarria sartu zuen ezagutza ezagatik. Errekurtso ekonomiko-administratiboaren aurreko birjarpen errekurtsua ezarri ondoren, Gipuzkoako Foru Ogasunak 87ko ekitaldiari zegokion eskaria ezetsi zuen garaiz kanpo egiteagatik, Gipuzkoako Zergei dagokien Foru Arau Orokorreko 156. artikuluan xedatzen denaren arabera.

Arartekoaren ustez, ordea, foru arau bereko 64.d artikuluan finkatutakoaren arabera, ordainketa okerrak berreskuratzeko eskubideaz baliatu ahal izateko epea bost urtekoa da, dirua ordaintzen den egunetik kontatuz. Horrela zioen beste batzuen artean La Coruña-ko Lurralde Entzutegiaren 1988ko abenduaren 31ko epaiak:

“(…) garaiz kanpo ibiltzeagatik ordainketa okerrak itzultzearen aurka zerga-administrazioak emandako ebaspena ez da zuzena, ordainketa okerrak itzultzeko eskubide epea bost urtekoa delako, dirua sartu zen egunetik kontatzen hasita, Zergen Lege Orokorreko 64.d artikulua arabera. 155. artikulua, itzultze eskubidea, prozedurari dagokionez, arau erreglamentarioen arabera egiteko dioena, ez dago interpretazio horren aurka, hori prozedurari bait dagokio, eta ez legeak aipatutako 64. artikuluan ezarritako epeen finkatzeari, eta ezin da esan artikulua hori indargabetuta dagoenik arauen jerarkiaren printzipioaren arabera, araubidezko xedapen bategatik, RPREAko 121. artikulua den bezala (…)”

Arartekoak zentzu honetan gomendio bat eman zuen, eta ondorioz Zuzeneko Zergen Gestiorako Zerbitzuak 1987. urteari zegokion behin-behineko likidazio berri bat egin zuen, non ez bait zen kontatzen irabazi bezala elbarritasunagatik kobratutako pentsio osagarria.

PFGZren aitorpenetik ateratako kuota itzultzeko atzerapenaz (239/91)

Kexadunak 1990eko maiatzaren 31an 1989ko ekitaldiari zegokion Pertsona Fisikoen Gaineko Zergaren autolikidazioa aurkeztu zuen, eta jasotzeko 74.313 pezetako kuota atera zitzaion.

Aipatutako autolikidazioan, ezkontidearen aldetik lau seniderekin kotitularitatean zeukan nekazal esplotazio baten errendimendu garbia aitortzen zen.

PFGZren Foru Arauko 40. artikulua zerga-administrazioari itzultzeko ematen dion zortzi hilabeteko epea pasa ondoren, eta dirua jasotzen ez

zuenez, interesatua Foru Ogasunaren egoitzara joan zen bere espedienteaz galde egitera.

Eman zitzaizkion hitzeko azalpenetan esan zitzaion kotitularretako batek ez zuela Ogasunak eskatutako dokumentazioren bat aurkeztu, eta horregatik gainontzeko titularren aitorenak geratuta zeudela.

Zentzu honetan, Arabako Lurralde Historikoko PFGZren Foru Arauko aipatutako 40. artikulua hau xedatzen du:

“Aitorpenak aurkezteko epea amaitzetik kontatuta sei hilabeteren barruan behin-behineko likidaziorik egingo ez balitz, Administrazioak ofiziozko itzulketa ondorengo bi hilabeteen barruan egingo du, aitorpenetik eratoritzen den kuotaren gainetik sartutako soberakina, ikuskariak egin ditzakeen frogen kalterik gabe”.

Azken adierazpen hori ulertu behar da, alegia, dirua edozein kasutan itzuli behar dela, zerga-administrazioak legeak ikuskapen lanetarako ematen dion epearen barruan jarrai ditzakeen ikerketen kalterik gabe.

Erizpide hau onartuz, Zergaren Gestiorako Bulegoak zergapekoei beren aitorenei zegokien dirua itzuli zien, eta kobraketan izandako atzerape-na konpentsatzeko, atzerapenaren interesengatik likidazioa egin zen, itzulketa gauzatu behar zen dataren eta egiaz itzultzen zenaren arteko epearen arabera.

PFGZren aitorenean elikagaiengatik ordaindutako kantitateak desgrabatzeko ukatzeaz (340/91)

Kexadunak eta bere ezkontideak, separazio judizialaren aitorenean babestuz, ezkontzako akordioak eman zituzten eskritura publikoan, zeinen arabera aurkeztuen separazioa erabakitzen bait zen, eta seme-alabak amaren kargu geratzen ziren, eta ezkontzako zama ekonomikoen ordainketa kontzeptu bezala ehun mila pezetan finkatzen zen, aitik hilero ordaindu behar zituenak.

Aldi berean, emazteak zeuzkan zor ugariei aurre egiteko, kexadunak ordurarte senar-emazteen etxebizitza izandakoa saldu zuen.

Horrela, 1989ko ekitaldiko PFGZren aitorenean, bere irabazi gordinetatik lehen aipatutako pentsioaren kantitatea kitatu zuen, baina ondarezko irabazien atalean ohizko etxebizitzagatik jasotakoa aipatu gabe.

Arabako Foru Ogasunak behin-behineko likidazioa egin ondoren, 933.954 pezeta ordaintzea atera zitzaion, Zergaren Foru Arauko 6.4 artikulua arabera elikagaiengatik urteko sarien desgrabazioak juezaren aginduz egin behar direlako. Era berean, etxebizitza saltzearen ondorioz izandako irabaziak zergapean zeudela ulertu behar zen, beste etxebizitza bat erosten inbertitzeko asmoa ziurtatu ez zuelako.

Halere, kasuaren baldintza bereziak zirela medio, eta geroago dibortzio epaia eman zela jakinik, non baieztatzen bait zen jadanik ordaintzen zen pentsio kantitatea, Erakunde honek planteatu zion Foru Ogasunari, ea kan-

titate horiek ezin ote ziren gastu bezala kontatu eta sortarazitako irabaziarren egozpena atzeratu.

1991ko abenduaren 11ko Foru Diputatuaren idatzi batean jakinarazi zitzaigun ezkontide eta seme-alabentzat ordaintzen zen pentsioa gastu bezala hartzen zela, eta beraz 210.292 pezeta ordaindu behar zituela eta ez hasieran eskatu zaitzaizkion 933.954 pezetak. Sortarazitako ondare gehikuntzari zegokionez, etxebizitza saltzetik ateratako diruarekin ordaindutako zorrak aztertzea egokiagoztat jotzen zen, ordainketa horiek ondarearen murziketa bezala jotzeko.

Kexaren arazoa konpondutzat jo ondoren, Foru Diputatuari bere laguntza eta hartutako erabakiaren zentzua eskertu zitzaizkion.

Ondare transmisioen zerga: aurretiazko balorazioak derrigorrez bete beharrekoak izateaz (555/91)

Bilboko emakume batek Erakunde honetara jo zuen ondare transmisioen zergan egin zitzaion likidazioa zela bide.

Kexadunak alde zuzenetik Bizkaiko Foru Ogasunaren Balorazio Zerbitzuari galde egin zion zein zen erosi nahi zuen inmueblearen balioa.

Salmenta agiria bere likidaziorako aurkeztu zenean, hala ere, Bizkaiko Foru Aldundiak salmenta agirian azaltzen zen baino oinarri zergagarri handiago baten arabera egin zuen likidazioa; handiagoa zen, baita ere, emakume honen galderari erantzutearren Foru Ogasunak berak egin zuena baino. Kexadunak errekurtsio administratiboa aurkeztu zuen, baina garaiz kanpo egiteagatik ez zioten onartu.

Gorabehera honi buruzko argitasunak eskatu genizkion orduan Bizkaiko Foru Ogasunari, eta honek kexadunaren esana berretsi zuen, bai eta bere jokabidea honela azaldu ere:

“a) Aldez aurretik galde egiten zaionean Balorazio Zerbitzuak egiten duen balorazioak likidaziorako aurkezten den dokumentuari erantsita agertu behar du, derrigorrez bete beharrekoa izateko.

b) Eginiko likidazioaren berri jakinerazi zenetik berraztertze eskea aurkeztu zen arte, horretarako ezarrita dagoen epea amaitua zen”.

Auzi hau aztertzen hasita, Arartekoaren eritziz, arazoaren gakoa bi balorazio desberdin egotean zen, alde batetik, zergadunak galdetu ondoren egindakoa, eta bestetik salmenta kontratua aurkeztu ondoren egindakoa.

Bi balorazioak maiatzaren 8ko 995/89 Foru Agindua aurretiazko balorazio-eskeentzat lotura-indarrezkotzat emandako epearen barruan eginak ziren. Balorazio bikoitz honi dagokionez, Arartekoak uste zuen gehiegizkoa zela likidatu beharreko agiriaren ondoan aurretiazko balorazioa ez aurkezteari Foru Ogasunak egozten zion karga; izan ere, 995/89 Foru Agindua izpiritua, dirudienez, zergadunei informazio egokia eskuratzea da, aurretiaz gauzen berri jakiteko bidea ipiniz. Likidazioa gauzatu zen moduan, alde

batera uzten zen Administrazioa loturik dagoela bere ekintzei, lotura-indarrezko epean bi balorazio desberdin egin bait ziren, biek bat etorri beharko bazuten ere.

Errekurtsoa garaiz kanpo aurkeztu zela eta ez zela, argudio horixe erabili bait zuen Administrazioak auziaren funtsa aztertzen ez hasteko, Arartekoak azpimarratu zuen aplikatu beharreko foru arauaren arabera, likidatzeko agiria aurkezten duena eta zergaduna pertsona berberak direla, eta horrela, errekurtsio administratiboak aurkezteko epeak azkar amaitzeaz gainera, gerta liteke zergadunak zuzenean ez jakitea eginiko likidazioaren berri.

Dena dela, segurtasun juridikoaren printzipioa dela tarteko, Administrazioak epe batzuk bete behar izateak ekar lezakeen lotura-indarra kontutan harturik, Arartekoaren eritziz, arazoa konpontzeko biderik onena auzia lotura-indarrezkotzat emandako denbora tarte batean egindako bi balorazio desberdinen arteko desadostasuna zuzentzea balitz bezala hartzea zen.

Arartekoak galdetuta, Bizkaiko Foru Ogasunak aditzera eman zuen ez zetorrela bat gomendio horrekin, eta errekurtsioa garaiz kanpo aurkeztu zenez gero ezinezkoa zela arazoaren funtsa aztertzen hastea.

3.6. HERRIZAINGOA

A) Sarrera

Jaso diren kexak 42 izan dira, guztietatik % 9a, eta era honetan sailkatuak:

— Eusko Jaurlaritzaren	14
— Aldundiak	0
— Udalak	28

Aztertu ditugun kexetatik % 80 inguru zirkulazioaren ingurukoak dira. Haien artetik aipagarriak dira, beren oihartzunagatik, hiriko kale-bideetan ibilgailuak gelditu eta aparkatzeko erregimena arautzen duten udal ordenantzen aplikazioari buruzkoak. Honi dagokionez, udal zenbaiti gogoratu behar izan zaie ibilgailua erretiratu eta geldieraztea Zirkulazioa eta Kale-Segurtasunaren Legearen testuko 70. eta 71. artikulua aipatutako baldintzeekin bakarrik egin daitekeela, eta 38.4 artikuluan adierazten denak ez duela baimenik ematen udal ordenantzen bitartez baldintza gehiago sortzeko edota daudenak zabaltzeko.

Beste alde batetik, zirkulazio arauak hausteagatik ezartzen diren zigorraren dirukopuruaren igoera nabarmen azaldu da gai honi buruz jaso diren kexetan. Azaldutako kexagaiak, gehienbat, salatutako ekintzen frogak eta araua hautsi duenaren nortasuna izan dira. Salaketa orrien atzekaldean idatzita badago ere, ibilgailu jabe batek baino gehiagok jaso du zigorra, uste-kabea jaso ere, araua hautsi duen gidaria zein den adierazteko obligazioa ez betetzeagatik, esandako testu horretako 72.3 artikuluan aipatzen denaren arabera.

Azkenik, bideratu diren beste kexa batzuk zigorren iraungipena edo baliogabetasunari buruzkoak izan dira, legehauste eta zigorren alorrean indarrean dagoen lege-erreserbaren printzipioaren arabera.

B) **Kexen aukeraketa**

Ibilgailu baten desegitean, administrazio prozeduraren irregulartasunez (100/90)

Getxoko biztanle batek salatu zuenez, bere furgoneta debekurik gabeko leku batean aparkatuta zegoen, eta Udaltzaingoak erretiratu egin zuen ibilgailua abandonatuta zegoela esanaz.

Kexaduna Bizkaitik kanpo zegoen denboraldi baterako, beraz ezin zen ibilgailuaren bila joan, eta telefonoz esan zioten biltegian utz zezakeela, baina halere furgoneta erretiratzera joaten zenean ezarri zitzaion isuna baino kantitate handiagoa ordaindu beharko zuela.

Lau hilabete geroago biltegiara joan zen furgoneta erretiratzera eta esan zioten desegin zutela.

Udaletxean esan zioten desegitera bidali aurretik ohar bat baino gehiago bidali ziotela, ibilgailua erretiratzen ez bazuen desegiteari ekingo ziotela esanaz. Erreklamatzailerak ohar horiek jasoak izan zirelako agiriak erakusteko eskatu zuen, baina horiek ez ziren espedientean ageri.

Egoera honetan, eta erantzun positiborik ematen ez zitzaionez, Erakunde honengana jo zuen.

Arartekoak, gestio batzuk egin ondoren, jakin zuen ibilgailua kaletik indarrean zeuden arauak beteaz erretiratu zutela; eta hori, Udaltzaingoak egindako txostenean frogatu zitekeen.

Desegiteko jarraitu zen prozeduraz ordea, ezin zen gauza bera esan. Erakunde honetako lege aholkularitzak egin zuen azterketarekin frogatu zen furgonetaren jabeari ez zitzaiola behar bezala adierazi desegitera zihoazetik, APL-ko 80. artikuluan xedatzen den eran, Getxoko Udalak interesatuari bidali omen zizkion gutunak jaso zituenik frogatzerik ez zegoelako.

Bestalde, ez zen frogatu interesatuari audientzia eman zitzaionik, Konstituzioaren 105 c) artikulua eta APL-ko 91.1 artikuluek eskatzen duten eran.

Era berean, ikusi zen gorporazio horrek ez zuela eskatu Industria Delegazioaren txostena, 1974ko otsailaren 14ko Aginduaren 7. artikuluan iragartzen den eran, horrek erregulatzen bait du abandonatutako ibilgailuen erretiratzea eta biltegiari jasotzea ibilgailua deusezteari ekiten hasteko aukre baldintza bezala.

Guzti horregatik, Ararteko honek gomendio bat luzatu zion Getxoko Udalari, ibilgailua deusezteko administrazio prozeduran egin ziren irregulartasun nabariak kontutan hartuta; hau da, ekintza administratiboa indargabetu zezala eta furgonetaren jabea indemnitzatu eragin zizkieten kalteengatik; ebaluaketa egiteko, ibilgailua erretiratu zen datan zeukan balioa tasatzeko peritaje bat egin zitekeen.

Gomendio hau osorik onartu zuen Getxoko Udalak, eta hori jakinarazi zitzaion kexadunari, espedientea amaitutzat emanaz.

Irungo Udalak TAO aparkamendu zerbitzua behar baino lehenago ezartzeaz (502/90)

Hiritar batek bere kexu idazkian salatzen zuen Irungo Udalak zuzengabeki ezarri zuela aparkamenduak arautzeko TAO sistema, zirkulazioa eta aparkamenduari buruzko udal agindua onartuta ez zegoelako.

Kexuaren gaia aztertzeko, bilera batzuk egin ziren kexadunarekin berekin eta Udalaren zirkulazio arduradunekin.

TAO zerbitzua ezartzeko espedienteaz aztertu ondoren, Arartekoak ikusi zuen ezarpen hori administratiboki gaizki egina zegoela; horregatik, honako gomendio hauek egin zizkion Irungo Udalari:

“TAO zerbitzua bertan behera uztea berau araupetzen duen udal ordenantza behin-betiko onartu eta Boletinean argitaratu arte.

TAO zerbitzuko arauak hausteagatik hasitako zigor-espediente guztiak indargabetu, eta ordaindutako isunen dirukopurua itzuli hiritar salatuei.

Udal ordenantza proiektuaren 19-1. artikulua aldatu behar da, zirkulazio arautegian jasotzen ez diren kasu batzuetan ibilgailuak erretiratzeko baimena ematen duelako.

Zerbitzu hori zeharka gestionatzen denez gero, TAO zerbitzuari atxekitako pertsonalak egiten dituen salaketak borondatezko salaketatzat joko dira, eta, hortaz, ez dute fede emateko indarririk izango. Horregatik, salaketak Udaltzaingoak jakinerazi beharko ditu, zuzenean lege-haustea frogatu ondoren; bestela, zigortzeko baliagarritzat har daitekeen beste edozein frogabide erabili beharko dute”.

Arartekoaren izkribua jaso ondoren, eta Udal Bozeramaleen Batzarrak proposaturik, Irungo Alkateak erabaki zuen ibilgailuen zainpeko aparkamendu mugatuaren zerbitzua (TAO) bertan behera uztea zerbitzu hori araupetzen duen ordenantza behin-betiko onartu arte, berau, une horietan, tramite bideetan zegoen eta.

Hirigunean ibilgailu astunak aparkatzeak dakartzan gogaipenez (35/91)

Getxoko biztanle batek Arartekoarengana jo eta azaldu zion bere etxe azpian, hirigunean bertan, ibilgailu astunak aparkatu ohi zirela, eta haren atsedena eteten zutela goizean goizik motoreak piztu eta berotzen zituzte-nean.

Horretaz gainera zioen Getxoko udalerrriaren sarreran bazirela bide-seinale batzuk, argi eta garbi kamioiak hirigunean aparkatzea debekatzen zutenak.

Arartekoak argitasunak eskatu zizkion Getxoko Alkateari, eta honek bere erantzunean jakinerazi zuen ohartzen zirela arazoaz eta, irtenbide moduan, hirigunetik kanpo ibilgailu astunak aparkatzeko lurak atontzeko aukera aztertzen ari zirela, eta lurak erosteko gestioak hasita zeudela. Txosten horretan gaineratzen zuenaren arabera, bitarte horretan Udaltzaingoari aginduak eman zitzaizkion udalerriko kaleetan aparkatutako ibilgailu astunen lege-hausteekin eskuzabal jokatzeko.

Arartekoaren eritiz Udalaren jokabidea arrazoizkoa zen, baina, hala ere, gorporazioak bere esku zeukan guztia egiten saiatu behar zuen kamioi eta autobusentzako ordezkoko beste aparkaleku bat bilatzeko ahalik eta lasterren, kasu bakoitzean herritarrek aurkezten zituzten salaketak Udaltzaingoaren bidez aztertzearen kalterik gabe.

Joku araudia hausteagatik zigorra ezartzeaz (47/91)

1984ko ekainaren 15eko datarekin, Barne Sailburu jaunak zigor espedientea ireki zuen taberna baten jabearen aurka, non "C" motako joku makina bat bait zegoen instalatua eta martxan, joku araudiak eskatzen dituen baldintzak bete gabe.

1984ko urriaren 8ko Barne Sailburuordearen ebazpen bidez bostehun mila (500.000) pezetako isuna jarri zitzaion kexadunari; honek birjarpen errekurtsua ezarri zuen erakunde zigortzailearen aurrean, eta errekurtsua atzera boteta izan zen 1985eko urtarrilaren 23ko ebazpenez.

Bilboko Lurralde Entzutegiko zegokion salaren aurrean administrazio-auzibidezko errekurtsua ezarri zuen, eta epaiak inpugnatutako ekintzak zuzentzera egokituak izan zirela aitortu zuen.

Kasu honetan, 1984ko urriaren 8ko Barne Sailburuordearen Ebazpena araudi izaerako arau batean oinarritzen zen, hain zuzen jolasmakinen araudian, 1.794/1981 Erret Dekretuz onartu eta uztailearen 6ko 1.895/1983 Erret Dekretuz aldatuan. Honi dagokionez, Epaitegi Gorenaren jurisprudenzia zabala dago: batzuk aipatzekotan, 1988ko apirilaren 21ekoa, 1988ko maiatzaren 9koa eta 1990eko uztailearen 29 eta 10ekoa aipatu daitezke, 1987ko apirilaren 7ko Epaitegi Konstituzionalaren epaian oinarritzen direnak. Hauen arabera, aipaturiko araudian babestuz, zigor ebazpen horiek baliogabeak dira, 1987ko Espainiako Konstituzioaren 25.1 artikulua kon-sagratzen duen lege-hauste penal eta administratiboaren legalitatearen printzipioa hausteagatik:

“(…) garbi dago berau (Konstituzioa) indarrean sartu zenetik, lege-hauste berriak definitzeko edo zigor berriak sartzeko araudia-
ren ahalmenera bidaltze orok ez daukala eginkortasunik eta eragin-
kortasunik, azken finean, 25.1 artikulua lege-hauste administrati-
boak eta dagozkien zigorrak bere kabuz arautzera behartzen bait
du legegilea, ahal den neurrian legea betetzeko”.

Horrela ikustarazi nahi izan zitzaion Eusko Jaurlaritzako Barne Sailari, zeinak, azaldutako arrazoietan eta Administrazio Prozeduraren Legeko 109. artikuluan aitortuta bezala, Administrazioak bere ekintza propioak errebo-katzeko daukan ahalmenean oinarrituz, aipaturiko ebazpena erabat indar-gabetu zuen, eta ondorioz baita ezarritako zigorra kobratzeko bide exekuti-boaren ekintzak ere, eta horrela ager zedin erabaki hau Bizkaiko Foru Ogasuneko organo biltzaileari helerazi zitzaion.

Barakaldoko Udalak ibilgailu bat erretiratu eta zerga ordainerazi zuela eta, jasotako kexu espedienteaz (365/91)

Kexadunak aspaldi jo zuen Barakaldoko Udalera garabi zerbitzuak zuzengabeki jokatu zuela eta ibilgailua erretiratzearen zerga behar ez bezala kobratu ziotela salatzeri, baina ez omen zuen inolako erantzunik jaso.

Arazo horren berri jakitean, Erakunde honek egin beharreko gestioak egin eta kexadunak nahi bezala konpondu ahal izan zen kexu hau. Izan ere, Barakaldoko Alkatetzak onartu egin zuen azkenik hiritarrak bidalitako idazkia, bai eta ebatzi ere ez zegoela zigorra ezartzerik ez eta garabi zerbitzua ordainerazterik, garabiak ibilgailua erretiratu zuen lekuan aparkatzeko debekurik ez zegoelako.

Ibilgailua bide publikoan geldierazi eta tasak bidegabeki kobratzeagatik eginiko erreklamazioaz (492/91)

Erakunde honetan kexu idazki bat jaso zen Udaltzaingoaren ekintza bat salatzen zuena ibilgailu bat zepoa deritzan sistemaren bidez geldierazi eta ekintza horren ondoriozko tasak kobratzeagatik.

Neurri hori harrerazi zuen ustezko lege-haustea, salaketan adierazten zen bezala, "zirkulazioa eragotziz, galtzada erdian aparkatzea" zen.

Honi dagokionez, Zirkulazio eta Bide-Segurantzaren Legearen 70. artikulua arabera, bidezaintzaz arduratuta dauden aginte-agenteei ibilgailu bat geldierazi ahalko dute "berau erabiltzean zirkulaziorako, pertsonentzako edo ondasunetarako arrisku larria gerta daitekeenean".

Begien bistan dago kasu honetan balizko arrisku hori ibilgailua ez erabiltzeagatik zetorrela, hain zuzen ere, zirkulazioa edo zerbitzu publikoren bat eragozten zuen neurrian; horregatik, bidezkoa zena, gehienez ere, bide publikotik atera eta aginte ahaldunak adierazitako lekuan gordetzea zen (71. art.).

Gomendio hori esandako udalari egin eta gero, honek erabaki zuen ibilgailua geldierazteko badaezpadako neurria baliorik gabe utzi, eta ordaindutako tasaren kopurua itzultzea.

3.7. JUSTIZIA

A) Sarrera

Lehenik eta behin, Justizia arloaren edukiaz eta Ararteko Erakundeak arlo horri dagokionez daukan zereginaz zehaztasun batzuk eman behar dira.

Ombudsmanaren izaera juridikoa definitzerakoan, argi eta garbi esan da inolaz ere ez dela erakunde jurisdikzionala, baizik betidaniko kontrolerako organoen erakunde osagarria dela, eta ez beraz horiek ordezkatzeko di-tuen zerbait.

Horrek esan nahi du, Arartekoak mugak aurkitzen dituela bere leanean funtzio jurisdikzionalan bertan, 3/85 Legearen 13. artikulua iragartzen duen eran: "Arartekoak ez ditu banan-banan aztertuko epaituta dauden edo epai bidean dauden kexak. Arartekoaren jardura hasi ondoren pertsona interesaturen batek errekurtsorik ezarriko balu ohizko epaitegien edo Konstituzio Epaitegiaren aurrean, eten egingo luke hasitako jardura".

Beraz, zentzu zabalean Justiziaren Administrazioa deitu dezakeguna aztertzeko, lehen "funtzio jurisdikzionala" deitu duguna eta Justizia Administrazioaren zerbitzu publikoaren izaera bereiztu behar ditugu, hau da, jakin behar da Justiziaren Administrazioa administrazio egitura bezala zer den.

Espainiako Konstituzioaren 117. artikulua funtzio jurisdikzionalari buruzko erreferentzia garbia eskaintzen du, lehen atalean aginte judizialaren independentzia printzipioa aitortzen bait du zehatz-mehatz, eta hirugarren atalean esaten da epaitzea eta epaitutakoa epaieraztea "bakar-bakarrik Epaitegi eta Auzitegiei dagokiela".

Konstituzioan iragarritako agindu horrek, beraz, erakunde ez judizialei funtzio jurisdikzionala betetzeko ahalmena kentzen die.

Konstituzioak ematen duen beste agindu bat 122. artikuluan jasotzen da, Justiziak eragindako kalteen aurrean Estatuak daukan arduraz diharduena, eta honela dioena: "hutsegite judizialaren ondorioz eragindako kalteengatik, eta Justizia Administrazioaren funtzionamendu okerraren ondorioz sortutakoengatik Estatuak Legearekin adostasunean kalteordainak eman beharko ditu", eta gerta daitezkeen kalteen arrazoiei badagokie ere, bereiztu egiten ditu funtzio jurisdikzionalaren ondorioz sortutakoak (hutsegite judizialaren ondorioz eragindakoak) eta Justizia Administrazioaren administrazio egituraren ondorioz sortutakoak (bere funtzionamendu okerragatik).

Agindu hori, Aginte Judizialaren Lege Organikoko 292. artikulua eta ondorengoek garatzen dute, eta bi kasuak bereizten ditu Konstituzioaren iragarpen hori gauzatu dadin jarraitu beharreko prozedurak erregulatzerakoan.

Bi zeregin horiek bereiztu ondoren, Ararteko Erakundeak beroien aurrean burutu duen zeregina aztertu behar da.

Lehenik eta aurrekari bezala, Herri-Defendatzailea arautzen duen apirilaren 6ko 3/81 Lege Organikoko 13. artikulua gai horri buruz dioena gogoratu behar da, Andaluziako Defensor del Pueblo-ren Legeak 15. arti-

kuluan eta Kanarietako Diputado del Común erakundearen 1/85 Legeak 13. artikuluan ia hitzez-hitz jasotzen dutena.

Aipatutako aginduak honela dio:

“Herri-Defendatzaileak Justizia Administrazioaren funtzionamenduari buruzko kekak jasotzen dituzenean, Ministraritza Fiskalari bidali behar dizkio, honek egia ikertu eta Legearen arabera neurriak har ditzan, edo bestela Aginte Judizialaren Kontseilu Nagusiarri igorri diezaizkion erreklamazioen izaeraren arabera; guzti hori Gorte Nagusiei aurkeztuko dien txosten orokorrean gaiaz egin ditzakeen aipamenen kalterik gabe”.

Ikus daitekeenez, aurreko aginduak ez ditu bi kasuak bereizten eta bitartekari lan garrantzitsua Ministrari Fiskalari uzten dio Herri-Defendatzaileak Justizia Administrazioaren funtzionamenduari erlazioatuta dauden kekak jasotzen dituzenean.

Egungo idazkerak, aginte judizialaren independentziarekiko errespetoa gaizki ulertzearen ondorio bezala, Herri Defendatzaileak kontrol zuzena ezartzeko aukerak asko mugatzen ditu.

Beraz, zein da Arartekoaren eskumena Justiziaren Administrazioari dagokionean?

Galdera horri erantzuteko, lehenik 9.1 artikulua a) zatia ikusi behar da, eta Arartekoaren ikerketa ahalmenak Autonomi Komunitateko Administrazio orokorrera hedatzen direla dio.

Horregatik, Arartekoak, Administrazio autonomikoak Justizia gaietan burutzen dituen jarduerak ikertu ahaliko ditu, bereziki Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailaren jardueretan gauzatuak bere funtzioen betekizunean, eta horiek Justizia Sailaren egitura organikoari dagokion martxoaren 20ko 201/1991 Dekretuan jasotzen dira.

Autonomi Komunitateak Justiziaren Administrazioan dauzkan eskumenak Euskal Herriko Autonomi Estatutuaren 13.1 artikuluan biltzen dira.

Era berean, Euskal Herriko Autonomi Estatutuak II. Idazpuruko III. Atalaren 34, 35 eta 36. artikuluetan arautzen du Justiziaren Administrazioa Euskal Herrian.

Lehen aipatu dugun 13.1 artikulua hau dio: “Justizia Administrazioari dagokionez, jurisdikzio militarra salbu, Euskal Herriko Autonomi Komunitateak burutuko ditu bere lurraldean Aginte Judizialaren Lege Organikoak eta Aginte Judizialaren Kontseilu Nagusiak Gobernuari aitortzen, erreserbatzen edo izendatzen dizkieten ahalmenak”.

Guzti horregatik, Euskal Herriko Autonomi Estatutuaren aipaturiko aginduak Aginte Judizialaren Lege Organikoarekin konparatuz, Justizia Administrazioaren alorrean Autonomi Komunitateari dagozkion eskumenen zerrenda bat egingo dugu, osoa ez bada ere:

– Justizia Administrazioaren zerbitzuan arituko diren langileak (Euskal Herriko Autonomi Estatutuko 35.3 artikulua Aginte Judizialaren Lege Organikoko VI. Liburuari dagokionez. Estatutuko klausula hau, ordea, mar-

txoaren 29ko 56/90 Epaia 10 eta 11. Oinarri Juridikoetatik abiatuz interpretatu behar da).

— Justizia Administrazioak funtzionatzeko beharrezkoak diren bitarteko material eta ekonomikoen zuzkidura (Euskal Herriko Autonomi Estatutuaren 35.3 artikulua Aginte Judizialaren Lege Organikoaren 37.3 artikuluari dagokionez).

— Magistratu, epaile eta idazkari lanpostu hutsak Euskal Herrian betetzeko lehiaketa eta oposizio deialdiak egiteko (Euskal Herriko Autonomi Estatutuaren 35.2 artikulua Aginte Judizialaren Lege Organikoari dagokionez).

— Espainiako Konstituzioaren 152. artikuluekin adostasunean, probintzia baino txikiagoak diren esparru juridikoak zehaztea eta horien hiriburuak aurkitzea, beti ere mugak zein diren garbi utziz (Euskal Herriko Autonomi Estatutuaren 34.1 artikulua in fine Aginte Judizialaren Lege Organikoaren 35.2 artikuluari dagokionez).

— Ertzantza, Polizia Judizial bezala jarduten duen neurrian, Justizia Administrazioaren zerbitzutan eta pean egongo da lege prozesalek finkatuko duten eran (Euskal Herriko Autonomi Estatutuaren 36. artikulua Aginte Judizialaren Lege Organikoaren 443. artikuluari dagokionez).

Administrazio Autonomikoak Justizia gaietan burutu ditzakeen jarduerak, beraz, Ararteko Erakundearen kontrolpean jarri daitezke, eta Justizia alor hau hartuko lukete.

Jarduera horiek ez dute seguraski Ararteko Erakundearen aurrean kexa askorik sortaraziko, eta 1991ko ekitaldian hain zuzen horiekin zerikusia daukan kexa bat bakarrik jaso da.

Aldiz, baieztatu daiteke, Ararteko Erakundeari bidali zaizkion eta Justizia Administrazioari dagozkion kexa gehienek oinarrian prozedura judizialen gehiegizko luzapenaren salaketa dagoela. Beste kasu batzutan, erreklamatazaileek, ebazpen judizialen edukiekin, kartzelan daudenentzako onurekin, edo epaiak emateko atzerapenekin beren desadostasuna azaldu dute.

Lehenago esan den bezala, funtzio jurisdikzionalari berez dagokion funtzioari buruzko kexak ez dira onartzen Ararteko Erakundearen sorrera eta arauketa jasotzen duen 3/85 Legearen 13. artikulua arabera.

Beste kexa motari dagokionez, 3/85 Legeak bere 9.2 artikulua hau dio: "Arartekoak, Justizia Administrazioaren funtzionamenduari buruzko kexak jasotzen dituenean, horiek ikertzeko edo konpontzeko gaitasuna daukan erakundeei igorriko dizkio".

Badirudi agindu honek Justizia Administrazioari buruzko erreferentzia ukaezina daukala Justizia Administrazioaren zerbitzu publikoa den zentzuan. Aipatu den aginduak ez dio Arartekoari kexa horiek baztertzeko aukerarik ematen; aitzitik, "ikertzeko edo konpontzeko gaitasuna daukan erakundeari igorri behar dizkio".

Erakunde hori, apirilaren 6ko 3/81 Lege Organikoaren 13. artikulua arabera Ministraritzak Fiskala bakarrik izan daiteke, edo hala badagokio, Aginte Judizialaren Kontseilu Nagusia.

Arartekoak, aipatutako kexei buruzko ikerketa zuzenik egin ez badezake ere, horrek ez du esan nahi kexa Ministrari Fiskalari igortzera mugatu

behar denik, horrek egindako ikerketari buruzko txosten bat bidali beharko bait dio Arartekoari, honek kexadunari eta, beraz, baita Eusko Legebiltzarri ere helarazi diezaien.

Arartekoak, beraz, kexa bat onartu eta lehen ikusian Justizia Administrazioaren funtzionamenduko okerren batetaz ohartzen bada, kexa Ministrari Fiskalari bidaliko dio, edo hala badagokio, Aginte Judizialaren Kontseilu Nagusiari, erakunde hauek ikertu dezaten kexaren iturburua eta Arartekoari, planteatutako arazoei eta hauei ezarri lekiekeen neurriei buruzko berriak eman diezaizkieten.

Informazio hori jaso ondoren, Arartekoaren ustez emandako erantzuna aski bada, jarduerak amaitutzat emango lituzke erreklamatzaileri jakinaraziz.

1991. urtean zehar, 3/85 Legearen 13. artikulua onduz onartu ez diren 39 kexa aurkeztu dira, zehatz-mehatz funtzio jurisdikzionalei zegozkielako.

Justizia Arloari dagozkion kexak bi azpialorretan banatzen dira: lehenengoa, Administrazio Autonomikoak Justizia gaietan burutu dituen jardueri dagozkie; bigarrenak, Justizia Administrazioaren administrazio zerbitzuen funtzionamenduaren aurkakoak biltzen ditu.

Alor honetan 22 kexa jaso dira, aurkeztutako kexen % 2,8a.

Aipatutako kexak honela mailakatzen dira:

Administrazio Autonomikoak Justizia gaietan burutu dituen jardueri dagozkien kexak	1
Justizia Administrazioaren administrazio zerbitzuei dagozkien kexak	21

B) Kexen Aukeraketa

Auzi penal baten tramitazioaren atzerapenaz (30/91)

Erakunde honetan 1991ko urtarrilean jasotako kexa idazki batek salatzaren zuek gehiegi atzeratzen ari zela 1983ko abuztuaren izandako zirkulazio istripu bategatik Tolosako 1. Instrukzio Epaitegiak zeraman auzi baten tramitazioa. Kexa onartzeko, legeak jartzen dituen baldintza formalak betetzen zirela ikusirik, Donostiako Probintzi Entzutegiko Fiskal Nagusiari igorri zitzaion, atzerapen hori zergatik gertatzen ari zen iker zezan.

Fiskalgoak konprobazioak egin eta gero, aditzera eman zion Arartekoari prozedura behinik-behin kalifikatu zuela Fiskalak 1990eko apirilaren 4ean, eta une hartan akusatzaile partikularren eskura pasa behar zela, halakorik egonez gero.

Alabaina, 1991ko ekainaz geroztik auzia defentsaren esku zegoela ikusi zen, eta egoera hori guztiz onartezina izanik, Fiskalgoak idazki bat bidali zion epaitegi horri, berehala, eta beharrezkoa izanez gero oharterazpenez, auzi kalifikatua defentsari eskatu eta ahozko epaiketa egin zedin.

Horrela, Arartekoak bere eskumenean zegoen neurrian egin zitzaizkion amaitu eta gero, espedientea artxibatu egin zen.

Gernikako epaitegi batean hitzezko falta-epaiketa bat egin zen, 1989ko apirilean izandako zirkulazio istripu batean eragindako kalteei buruz. Epaia idaztean, epaileak oker nabarmen bat izan zuen, istripuan inplikaturako gidariak nahastu zituelako; horregatik, zuzenketarako Autoa diktatu zen 1991ko ekainaren 19an.

Urte horretako urrian, zuzenketa atzeratzen ari zela eta, alderdietako batek Ararteko honengana jo zuen, tramite hori azkar zedila eskatzera.

Erakunde hau harremanetan jarri zen epaitegi horrekin, eta honek adierazi zuen zenbait funtzionari lekuz aldatzearen ondorioz eta funtzionari berriak lanpostu horietan hasi bitartean, ezinezkoa izan zela zuzenketa hori egitea. Hala eta guztiz ere, epaitegiak hitza eman zion Arartekoari zuzenketa hori ahalik eta lasterren burutuko zuela.

3.8. INGURUGIROA

A) Sarrera

Txosten honetako beste atal batean jadanik aipatu den bezala, ingurugiro gaia Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiroa atalean sarturik agertzen zen 1989 eta 1990eko aurreko txostenetan, eta esatekoa da, bestalde, euskal hiritarrek aurkezturiko kezarik gehien bildu zituen alorra izan zela.

Aurtengo eta hurrengo urteetako txostenetan, aldiz, alor berezia izango da ingurugiroko hau, eta ez bakarrik honen inguruko kezak 1990. urtekoen aldean gehiago direlako aurrean, hiru aldiz gehiago izan ere, baizik eta, batik bat, gizartean gero eta sentiberatasun handiagoa dagoelako gure ingurugiroak jasaten dituen kalteei buruz; esan behar da Ararteko hau bat datorrela sentiberatasun horrekin, eta horregatik beharrezkoa iruditzen zaigu atal berezi berri hau sortzea.

Jaso diren kezak 41 izan dira, hau da, Erakunde honetara bidali diren guztien artetik % 8,7a, eta era honetara banatu dira Administrazioen arabera:

— Eusko Jaurlaritza	1
— Aldundiak	1
— Udalak	39

Erakunde honetara iristen diren alor honi buruzko kezak, gure ingurugiroak, hirikoak zein herrikoak, gero eta gehiago eta zigorrik gabe jasaten dituen erasoez kezkatuta dauden talde edo auzo-elkartek aurkezten dituzte normalean.

Ingurugiroaren kontrako erasoak Konstituzioaren II Tituluan jasotako eskubideen kontrako atentatuak dira, hiritar guztiek pertsonaren hazkunderako ingurugiro egokiaz gozatzeko daukaten eskubidea eta ingurugiroa bere hartan edukitzeko eskubidea —EK, 45. artik.— kaltetzen dutelako. Guztiona den eta Konstituzioaren babesa duen eskubide horren defentsa dela bide,

Ararteko honek bere esku dauka zilegitasuna zentzu zabalean ulertzea, eta hartara era guztietako elkarte eta taldeek aurkezturiko kexak onartzea.

Bidezkoa iruditu zaigu bi azpialor bereiztea, ingurugiro mailako arazoak orokorki islatzen bait dituzte:

- Sailkatutako hiri-ekintzak 37
- Ingurugiroak jasaten dituen beste eraso batzuk 4

Sailkatutako hiri-ekintzak direla bide jaso diren kexei dagokienez, argi utzi behar dugu haietatik gehienak tankera beretsukoak direla; hau da, etxebizitzetan, taberna, pub, kafetegi, diskoteka eta antzekoen eraginez jasaten diren zaratak salatzen dira. Auzokideek zarata horiek jasan beharraz gogaituta eta udal agintarietara neke horiek eragozteko inolako zigorrik edo neuririk hartzen ez dutelako aspertuta daudenean batez ere jotzen dute Erakunde honetara. Udalen jarrera horixe izaten da, baita Arartekoak errekerimendua egiten dienean ere, honelako kexen tramitazioan eragin gehien duena, zeren eta laguntzarik ez emateko jokabide hori dela medio, beharrik gabe luzatzen bait dira konponbidea bilatzeko lanak.

Ingurugiroak jasaten dituen beste eraso batzuei buruzko kexak aztertuz gero, ordea, aipagarriak dira harrobietan egiten den lanak eraginda gertatzen den soinuak kutsaduragatik edo harrotzen den hautsagatik jasotzen diren kexak, horiek paisaia itsusitu ez ezik, inguruko herrietako biztanleek ere zuzenean kalteak jasaten dituztelako; izan ere, etxebizitzetan, kaleetan, espazio publikoetan eta, inoiz, osasunean ere eta, azken batean, bitzta kalitatean kalteak eragiten dituzte ingurugiroaren kontrako eraso hauek.

B) Kexen aukeraketa

Establezimendu publikoan oihal estalgarria jartzeko udal baimena ukatzeaz (176/90)

Donostiako croissant-denda baten jabeak kexu idazki bat bidali zuen Erakunde honetara Donostiako Udalak denda horretan oihal estalgarri bat jartzeko baimena ukatu ziola salatzeko.

Orobat, kexadunak adierazten zuen zigor espediente ireki eta 18.000 pezetako isuna ezarri ziotela beharrezko udal baimenik gabe oihal estalgarria jartzeagatik.

Bide administratiboa agortuta zegoela, eta esandako toki-erakunde horrek hartutako erabakiarekin ados ez zegoenez gero, kexadunak Erakunde honetara jo zuen arazoa azter zezala eskatzeko.

Beharrezko argitasunak lortu eta kexa eragin zuen auzia aztertu eta gero, jakin zen baimen eskeari uko egin zitzaiola oihal estalgarria jartzeak Eraikuntzari buruzko Ordenantzak betetzen ez zituelako, 93. artikuluari zegokionez, 3 metrotik gorako hegala zuelako eta, halaber, oin batzuekin jarri behar zenez gero, leku publikoa betetzen zuelako, etxeko hormari zuzenean itsatsita egon ordez.

Ararteko honen eritziz, Donostiako Udalak hartutako erabakia zuzena izan zen beti ere, eta horrela, erantzun hori kexadunari jakinerazi eta gero amaitutzat eman zen espedientea.

Iharduera lizentzian eskatutako baldintzak ez betetzeaz (207/90)

Oiartzungo biztanle batek kexa idatzi bat bidali zuen, non salatzen bait zituen ustezko irregulartasunak bere etxe azpian kokatutako txokolateritarako lokal batean.

Kexadunak zioenez, aipatutako lokalak ez zituen betetzen Gipuzkoako Foru Diputazioak ihardun lizentzian ezarritako neurri zuzentzaileak, makinan lotuneetan dardaren kontrako elementuak ezarri gabe zeudelako, lokala insonorizatu gabe zegoelako, alkoholdun edariak saltzen zituelako, dendan ordutegia errespetatzen ez zelako, eta musika aparailuen debekua, irrati, telebista eta musikarena barne, betetzen ez zuelako.

Era berean, kexadunak esaten zuen erreklamazio bat baino gehiago aurkeztu zituela Oiartzungo Udaletxean, baina ez zuela erantzun egokirik jaso.

Erakundeak eskatu zion Oiartzungo Udalarari esan zezala ea konprobatu zuen lokal horrek ihardun lizentzian exijitutako neurri zuzentzaileak betetzen zituen.

Aipatutako udal gorporazioak zazpi hilabete behar izan zituen ihardun lizentziaren espediente kopia batzuk igortzeko, eta gainera kontuan izanik, Erakunde honetatik zenbait errekerimendu bidali zitzaizkiola.

Udalak bidalitako txostenak, kexadunak salatutako arazoak baiesten zituen. Bertan esaten zen, lizentzian finkatutako baldintzak betetzen ez zirenez, Udalak lokalaren jabea zigortzea eta ezarritako baldintzak betetzen ez ziren arte, lokala itxi eraztea erabaki zuela.

Alabaina, Udalak ez zuen lokala itxi, eta horregatik gomendio hau egin zion Arartekoak Oiartzungo Alkateari:

“... txokolate dendaren iharduna klandestinitzat jotzea, ez daukalako lizentziarik burutzen ari den ihardunerako, hots alkoholdun edariak saltzeko, musika aparailuak funtzionamenduan dituela egozteagatik, labe eta sukaldea erabiltzeagatik, eta nebera izozgailuetan dardararen kontrako elementuak ezarri gabe egoteagatik.

Interesatuari jakinarazi ondoren, lokala ixtea, bere jabeak neurri zuzentzaileak jarri eta baimendu gabeko aparailuak erretiratzen dituen eta udal teknikoek hori frogatzen duten arte, edo bestela, iharduna espediente berri baten bidez legeztatzen den arte; eta horrela balitz, Ihardun Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuen Araudiaren arabera tramitatu beharko litzateke”.

Udalak ez zion gomendio honi jaramonik egin, eta alkatetza-dekretu bidez neurri zuzentzaile batzuen aldaketa, lokaleko ke eta gasen kanporaketa eta musika aparailu batzuren erabilera baimentzen zirela jakinarazi zuen.

Gauza hauen egia frogatzeko, Arartekoak bere bi lankide bidali zituen aipaturako lokalera, eta ikusi zuten baietz, lokalean eta normalki alkoholodun edariak saltzen zirela, eta barran garagardoa presioan zerbitzeko aparailu bat ere bazeukatela.

Udalak adierazi zuen, plenoan, txokolate denda astebetetz ixtea erabaki zela, irekitze lizentzia ematerakoan bere garaian ezarri zitzaion baldintza, hau da, alkoholodun edariak ez saltzekoa, behin eta berriz betetzen ez zuelako; eta jabeari jakinarazi zitzaion behin eta berriz hutsegiten bazuen, neurriak gogorragoak izango zirela.

Arartekoaren eritziz, Udalaren ebazpena bide egokia zen, eta akordio horretan bertan lokalaren jabeari egiten zitzaion oharpena kontuan izanik, espedientea itxi egin zen.

Taberna batek sortutako zaratak salatzen ditu (313/90)

Erakunde honetan kezu idazki bat jaso zen, Bilboko biztanle batek bidalia, hiri horretako Ganekogorta kaleko taberna batek sortutako zaratak salatzen zituena.

Kexadunak adierazten zuen Bilboko Udalak establezimendu hori ixtea agindu zuela, lokala soinuagabetzeko neurriak hartzen ez ziren arte, hain zuzen ere, eta hori jardueraren baimenean ezarritako neurri zuzentzaileak behin ere ez betetzeagatik. Hala eta guztiz ere, taberna ez zen itxi, eta oraindik ere sortzen zizkien nekeak bizilagunei.

Bilboko Udalarekin harremanetan jarri eta gero, honek aditzera eman zuen Alkatetzaren dekretu bidez tabernaren jarduna gaueko 10etatik aurrera debekatzea erabaki zuela, lekua behar bezala soinuagabetuta ez egoteagatik; horrekin batera, agindua bete ezik, 15.000 pezetako isuna jarriko zio- la ere jakinerazi zion.

Erakunde honek ikerketak egin ondoren, frogatu egin zen Alkatetzaren dekretua behin ere ez zela bete, eta egunean zehar eta, batez ere, arratsaldeko lehen orduetan, zarata mailak ekainaren 11ko 171/85 Dekretuak —alegia, hiri barruko lurretan kokaturik dauden jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuak araupetzen dituenak— ezarritakoa gainditzen zuela.

Ararteko honek Bilboko Udalari jakinerazi zion erakunde horri zego- kiola kasu berezi honetaz arduratzea indarrean dagoen legeria bete eraziz, era horretara, ostalaritza jarduera aldameneko etxebizitzan bakean bizi ahal izatearen kaltez gerta ez dadin.

Udalbatzar horrek erantzun zuen, baimenean ezarritako neurri zuzentzaileak behin ere betetzen ez zirenez gero, Bilboko Udalak jarduera bertan behera utzi eta ixtea agindu zuela, ohartutako akatsak zuzentzen zirela egiaztatu arte, hain zuzen ere, eta Udaltzaingoari lokala zigitupearan ixtea es- кату zitzaiola.

Kantu lirikoa irakasteko zentrua instalatzeko arauak ez betetzeaz (45/91)

Kantu lirikoaren eta musika tresnen irakaskuntzan aritzen den zentru bati buruzko kexa idazki bat jaso zen Erakunde honetan.

Salatzailearen esanetan, ikastegi hori beharrezko udal baimena eduki ez arren ari zen lanean.

Beste alde batetik, aditzera ematen zuen hamar ikaslelik gora joaten zirela ikastegi horretara, eta, beraz, indarrean dauden arauak bete behar zirela, zehazkiago esanda, Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolaketa eta Garrantzizko Sailaren ekainaren 11ko 171/1985 Dekretuko 3.3.1 artikulua; izan ere, honek esaten duenez, "... Egunero 50 ikasle baino gehiago duten jarduerak etxebizitzarako solairuetatik aparte jarri beharko dira, horien azpian, kaletik sarbide zuzena dutela eta ataria etxeko bizilagunek erabilitako ataririk bereiztuta, ez horrekin ez eskailetako kajarekin komunikaziorik izango ez duelarik. Egunero 10-50 ikasle bitartean dauzkaten jarduerak etxebizitzarako solairuaren azpian kokatu beharko dira, nahiz eta ez duten aparteko sarbiderik eduki beharrik".

Horretaz gainera, jakinerazten zuen oso zarata maila handia eragiten zuela, indarrean dagoen ingurugiroa babesteko ordenantzak onartzen duen gehienezko mailatik gora.

Esandako arrazoiak direla eta, kexadunak salaketa aurkeztu zuen Bilboko Udalean, baina, berak zioenez, toki-erakunde horrek ez zuen inolako neurririk hartu, nahiz eta zarata neurtzera joan eta gero Ingurugiroa Babesteko Udal Ordenantzak onartutako gehienezko maila gainditzen zela, eta, orobat, jarduera horrek Udalaren beharrezko baimenik ez zuela ziurtatu.

Bilboko Udalak jakinerazi zigunez, aldiz, kexadunak eginiko adierazpenak egiazkoak izanda ere, zegokion espediente administratiboa ireki, eta Alkatetzaren dekretu bidez ikastegia itxi eta haren jarduera etetea agindu zen Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuei buruzko Arautegiko 29. artikulua eta hurrengoek, bai eta 1963ko martxoaren 15eko Aginduko 3. eta 10. artikuluek ere ezartzen duten udal baimenik gabe ari-tzeagatik. Aldi berean, zentru horretako titularrari aditzera ematen zitzaion jarduera instalatzeko baimena eskatu eta horretarako baldintza teknikoak betetzen zituela egiaztatu arte egongo zela itxirik.

Udalaren erantzunaren berri kexadunari bidali ondoren, espedientea amaitutzat eman eta artxibatu egin zen.

Bere etxeko beheko solairuan aroztegi bat jarri dutela salatzen du (248/91)

Santurtziko biztanle batek kexu idazki batean adierazi zuen bere etxeko beheko solairuan aroztegi bat jarri behar zutela, bizilagunak ados egon ez arren eta udalerrian industri poligonoa egon arren.

Kexuaren gaia aztertzearen, Ararteko honek establezimendu horren jarduera-baimenaren espedientea eta hirialde hartan aplikatu beharreko erabilerei buruzko hirigintz arauen kopia eskatu zizkion Santurtziko Udalarari.

Jarduera-baimena emateko espedientea eta aplikatu beharreko hiri-gintz arautegia aztertu ondoren, Ararteko honek konprobatu zuen baimena emateko prozedura administratiboan erabat bete zirela Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuen Arautegiak eskatzen dituen baldintza guztiak.

Aroztegi bat etxe bateko beheko solairuan kokatzeari dagokionez, jarduera hori Santurtziko Hiri Antolakuntzarako Plangintza Orokorraren arabera industri alorreko 2. kategoriakoen artean sailkatzen zen, eta horrela etxebizitza erabilerarekin bateragarri gertatzen zen, baldin eta instalakuntza aurkeztutako proiektuaren arabera egiten bazen eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Ingurugiro Sailak jarduera sailkatzeko eginiko txosteneko neurri zuzentzaileak —jardueraren ondorioz gerta litezkeen arriskuak ekiditeko helburuz— hartzen baziren.

Ararteko honek eginiko ikerlanaren ondorioak jakinerazi zizkion kexadunari, eta horrela adierazi zion, jarduera-baimenaren espedienteen tramitazioan instalatu nahi den jarduerak kaltetzen dituela uste dutenentzat, alegazioak egiteko epea ezartzen bada ere, ohar horiek kontutan hartzen dituela Administrazioak, baina ez direla derrigorrez bete beharrekoak.

Santurtziko Udalak bere ekintzan inolako zuzengabekeriarik ez zuela erakutsi eritzita, espedientea amaitutzat eman zen.

Jostundegi batek eragindako eragozpenak salatzen ditu (321/91)

Galdakaoko bizilagun bat kexu zen jostundegi batek eragiten zituen zaratak gogaikarriak zirelako. Kexadunak zioenez, Galdakaoko Udalak irekitzeko baimena eman zion jarduera horri, Bizkaiko Foru Aldundiak jardueraren sailkapenean ezarritako neurri zuzentzaileak hartu gabe.

Erakunde honek Galdakaoko Udalera jo zuen eta, zehazkiago esanda, argitasunak eskatu zituen jakiteko Bizkaiko Foru Aldundiak jardueraren sailkapenean ezarritako neurri zuzentzaileak betetzen zirela ziurtatzeko ikuskapenik egin ote zen ala ez, esandako zentrua irekitzeko baimena eman aurretik.

Udalak erantzun zuen Bizkaiko Foru Aldundiak ezarritako neurri orokorren artean, hirugarrena zela hurbileneko etxebizitzetan 40 eta 30 db (a) baino gehiago ez eragitea goizeko 8etatik eta gaueko 10etatik aurrera, hurrenez hurren. Baldintza hori betetzen ote zen egiaztatzeko halako neurketa tekniko bat egin beharra zegoen, eta, hartara, bi alditan ahaleginak egin ziren neurketa hori egiteko. Horretarako, zarata neurketak egiteko Aldundiko teknikaria eta Udaleko aparejadorea bertaratu ziren, aldez aurretik abisua eman ondoren hainbat salaketa egin zituen goiko etxebizitzako bizilagunari.

Lehendabizikoan, etxearen jabeak egun berean adierazi zuen etxetik kanpo egon behar zuela eta ezinezkoa izango zela neurketa egitea.

Bigarrenean, aldiz, neurketa egiteko asmoa astebete lehenagotik jakinerazi eta gero, Udalean izkribu bat jaso zen, etxebizitza horretako bizilagunek proba hori egitea etxetik alde eginez oztopatuko zutela zioena. Izan ere, zarata neurtzerik ez zen izan azkenik, eta, horrela, Aldundiak ezarritako neurrietako 3. puntua egiaztatzeko lanei traba jartzen ari zitzaenez, Udalak

irekitzeko baimena eman zion zentruari, Zerbitzu Teknikoen bidez gainerako baldintza guztiak betetzen zituela egiaztatu ondoren.

Orobat, Udalak adierazi zuen, baimena onartzeko dekretuaren arabera, jarduera horrek egiaztapenak igaro beharko zituela etorkizunean, argi utzirik horrela Udalak ahal zuenean bere egitekoa betetzeko asmoa.

Hortaz, zaratak eragiten zirela eta Aldundiaren txostenean eskaturiko neurri zuzentzaileak betetzen ez zirela egiaztatzen ez zen bitartean, Galda-kaoko Udalak ezin har zezakeen inolako neurririk, neurketa hori egiterik ez bait zegoen, teknikariei zaratak ustez jasaten zituen etxebizitzara sartzen uzten ez zitzaenez gero.

Ararteko honen eritziz, jardueraren baimenari buruzko espedientea bideratzeko prozedurari dagokionez, Udalak zuzen jokatu zuen une orotan, 1961eko Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuei buruzko Arautegiak eskatzen zituen eginbeharreko guztiak egin bait zituen.

Espedientea itxi egin zen, bai eta kexadunari jakinerazi ere bere jokarearekin, koherentziaz azaldu ordez, kexaren arazoa konpontzeko egin beharreko ikerketak oztopatu besterik ez zuela egin.

3.9. HERRI-LANAK ETA ZERBITZUAK

A) Sarrera

Sail honi buruz jaso diren kexak 29 izan dira, aurkeztu diren guztietatik % 6a, beraz.

Sail hau sortu berria da, eta berau osatzen duten gai gehienak lehenago Garraioak eta Herri-lanak alorretik ekarriak dira, baina badira beste batzuk ere, zerbitzu publikoen ezarpenari eta lanari buruzkoak.

Kexa hauek era honetara sailkatzen dira, ikututako administrazioen arabera:

– Eusko Jaurlaritza	7
– Aldundiak	5
– Udalak	17

Kexek aipatzen dituzten arazoei dagokienez, honela banatzen dira:

– Herri-lanak	12
– Garraioak	6
– Udal zerbitzuak	10
– Beste zenbait	1

Nahiko ugari dira, ikusten denez, herri-lanei buruzko kexak. Batzuetan, obrak egitean gertatzen diren ondorio okerren kontrako protestak izaten dira, beste batzuetan, aldiz, obra proiektuaren beraren kontra egiten dira kexak, haien alderdi teknikoak zalantzatan jartzen dutenak; alderdi tekniko horiek Administrazioaren eskumenean egon arren, hiritarrek beste erizpide

batzuk edo beste aukera tekniko batzuk azaltzen dituzte, Administrazioare-
nak bezain baliagarri eta arrazoizkoak.

Udal zerbitzuak ere, hau da, kaleetako argia, ura, zaborrak, etab., na-
hiko ugari azaltzen dira hiritarrek bidaltzen dizkiguten keketan.

Garraioari buruz jasotzen diren kekek Eusko Trenbideak enpresaren
ingurukoak izaten dira, erretiratuentzako dohaneko txartelagatik hain zuzen
ere, edota Aldundien kontrakoak, merkatal gaiak errepidez garraiatzeari bu-
ruzko arautegiaren hausteekin zerikusia duten arazoengatik.

B) **Kexen aukeraketa**

*Interesgarritasun historiko-artistikoa duen etxe batean hiritarrentzako
ordutegia ipin daitekeela eta, jasotako kexa (109/90)*

Kexadunak, Usurbilen interesgarritasun historiko-artistikoa duen etxe
baten jabea izanik, bere kexa azaldu zuen, etxean publikoa hartzeko ordu-
tegia ezartzea gerta zitekeelako. Kexadunaren eritziz, Usurbilgo Udalak us-
tez ezarri nahi zion ordutegi horrek bere intimitatea kaltetu zezakeen, etxe
horretan bizi bait zen.

Eusko Jaurlaritzaren Ondare Historiko-Artistikoaren Zuzendaritzak ho-
rri buruz egindako txostenean bermatu egiten zen neurri egokiak hartuko
zirela arazoa modu orekatuan konpontzeko, alegia jabearen intimitaterako
eskubidea errespetatuz eta kultur interesgarritasuna duen etxe bat ezagu-
tzeko hiritarrek duten eskubidea bermatuz.

Hasteko, ez zen onartzen etxea irekitzeko ordutegi bat ezartzea, baina
bai finkatzen zen jauregia ikertzeko asmoa daukaten ikerlariak aukera du-
tela noiz edo behin bisitak egiteko, eta, beraz, jabeak behartuta daudela bi-
sita horiek errazteko, bi aldeei eragozpen gutxien ekartzen dien moduan.

*Administrazioak kalteengatik duen erantzunkizunaren eta hiritarrek
zama orokor direlakoak jasateko duten beharraren arteko mugaz (260/90)*

Emakume batek Arartekoarengana jo eta azaldu zuen Donostiako er-
dialdeko denda baten jabea zela, eta denda hori kokatuta dagoen kalean
obrak egiten ari zirela harzola guttia altxatzeko. Horrek kalte ekonomiko
handiak eragin zizkion, obrak iraun zuen bitartean bezeroak gutxitu zitzaiz-
kiolako, kalea modu okerrean eta dendara sartzeko oztopoak egotearen on-
dorioz.

Ararteko Erakundeak argibideak eskatu zizkion Udalari, bai eta obrak
egiten ari ziren lekura bisita egin ere, eta azkenik bere eritzia eman zuen
kexari buruz.

Arartekoak ebaztu zuen Administrazio publikoak bazeukala halako
erantzunkizun bat, hiritarrei halako kalte ekonomiko bat eragiten ziolako
zerbitzu publiko bat ematean, eta horrek esan nahi du kalteordaina eman
behar zuela hiritarrei.

Dena dela, jokoan zeuden baita ere zama orokor deitzen direnak, hau da, hainbat sujeturi eragin eta administratuek kalteordainik jasotzeko esku-biderik gabe jasan behar dituztenak. Horiek horrela, jurisprudentziaren arabera, badago halako gutxienezko obligazio bat herri-lanak egitean gertatzen diren kalteak jasateko, zeren eta udal zerbitzuak ezarri, hobetu edo zabaltea auzokide guztien onerako zerbait bait da.

Arartekoak aditzera eman zion kexadunari ez zuela ikusten jokabide okerrik egon zenik Udalaren aldetik, baina, hala ere, zaila zela finkatzea noraino jasan behar dituen hiritarrak udal obra publikoak egiteak dakartzan kalte ekonomikoak.

Ibaia bideratzeko proiektu hidraulikoa arrazoi teknikoengatik zalantzatant jartzen duen herritarraz (528/90)

Bere kexa idazkian, Tolosako herritar batek azaltzen zuen Oria eta Araxes ibaiak bideratzeko proiektua martxan jartzeko lanetan zegoela hango Udala. Horretaz gainera, kexadunak zioen Udalaren proiektua aztertu zuela, eta bere eritziz ez zegoela osorik, ez zuelako azaltzen nolakoak izango ziren erremateak eta hiriko hornigaiak, eta, bestalde, ez zuelako inolako ekintzarik iragartzen Zubi Berrirako eta Nafarroako Zubirako, halako moldez non horrek ibaiaren urbidea estutu eta etorkizunean ur handiak etortzeko arriskua eragin bait zezakeen.

Arartekoa kexa aztertzen hasi zen, eta horrela Tolosako Udalera eta, aldi berean, Iparraldeko Uren Konfederakunde Hidrografikoak Donostian duen ordezkarietara joaz, proiektu teknikoaren kopia bat eskuratu zuen.

Erakunde honek teknikari gaiturik ez duenez gero horrelako lan hidrauliko bati buruzko proiektu bat aztertzeko, Bide, Ubide eta Portu Injeniarri Bazkunari laguntza eskatu eta esperientzia handiko injeniari bat kontratatu zen proiektua aztertu eta bere txostena egin zezan.

Peritoak bere txostenean aditzera eman zuen proiektua zuzena zela teknikoki, baina ez zegoela garbi zer gertatuko zen Oria ibaiaren ezkerrekin Zubi Zaharretik ur gora, leku hari buruzko kalkulu hidraulikoak harresi bat eraikiko zelakoan eginak bait zeuden; baina horrelakorik egitea ez zegoen iragarrita, hiriaren irudi ezaguna bere hartan mantentzearen, azken batean.

Txostenaren edukiaren berri eman zitzaion Tolosako Udalari, Iparraldeko Uren Konfederakunde Hidrografikoari eta kexadunari berari; azken honi, gainera, azaldu zitzaion hiriko erremateak ez direla ibai bat bideratzeko proiektu batean jaso beharreko osagaiak, Oria ibaiaren bazterretako erremateak urbanizatzeke etorkizunean egin beharko zen proiektuan baizik.

Eibarko saihezbiderako proiektu eraldatua (N-634) hiritar baten lurretatik pasatzen delako jasotako kexa (1.157/90)

Emakume bat kexu zen saihezbiderako proiektuak bere baserriko lurrak harrapatzen zituelako, eta horrekin batera azaltzen zuen proiektuak

kalte gutxiago eragin ziezaiokeela bere nekazal eta baso hustiapenari, beste adar bat aprobetxatuz gero.

Arartekoak egin beharreko gestioak egin zituen Gipuzkoako Foru Aldundiaren Herri-Lan eta Garraio Sailarekin, eta azalpen txosten zabal bat jaso zuen arazoari buruz.

Txostena aztertu ondoren, Erakundeak artxibatu egin zuen espediente-a, bai eta bi alderdiei jakinerazi ere saihebidetaren ibilbidea, Eibarko Planean arau Subsidiarioetan jasoa, arrazionaltasunez tajatua zegoela, eta ezin zitekeela baieztu lurra alferrik betetzen zuenik ez eta oso kaltegarria zenik, bere ibilbidean harrapatzen duen ingurua sendoa eta trinkoa delako. Arartekoaren eritziz, beraz, aginte-gehiegikeriarik ez zen egon salatu-tako kasu honetan.

Saihebidetaren ordezkotrazaketari buruz herritar talde batek eginiko proposamenaz eta Administrazioaren aukeratzeko ahalmenaz (242/91)

Hiritar talde batek Arartekoarengana jo eta azaldu zion Gipuzkoako Foru Aldundiaren Herri-Lan eta Garraio Departamentuak ez ziela onartu Alegiko saihebidetarako proiektu ofizialaren ordezkotrazaketa. Kexadunen arabera, beren proposamenak bazituen alde on batzuk, askoz zarata gutxiago eragingo zuela eta seguruagoa zela, esate baterako, eta gainera aurrekontuetan inolako gehikuntzarik egin beharrik gabe.

Gai honi buruzko dokumentazioa aztertu eta gero, Arartekoak jakinerazi zien kexadunei bi trazaketak —beraien eta Foru Aldundiak eta Alegiko Udalak bultzatzen zutena— onartzeko modukoak zirela, eta ez zituztela ezinbestez bete beharreko arau legalak hausten.

Hala eta guztiz ere, saihebidetaren trazaketa zehazteko ahalmena Garraioak eta Bideetako Azpiegituretarako Foru Departamentuarena eta Alegiko Udalarena zen, eta biek trazaketa ofizialtzat emanda zegoenaren aldeko eritzia agertua zutela.

Saihebidetaren trazaketa zehazteko prozeduran inolako irregulartasunik antzematen ez zenez gero, eta ikusirik trazaketa horren oinarri ziren erizpideak hirigintzaren eta bidegintzaren ikuspegitik arrazoizkoak eta logikoak zirela, ezaugarri beretsuko beste trazaketa batzuk ere posible izan arren, Administrazioaren jokabidean inolako zuzengabekeriarik ez zela gertatu erabaki zuen Arartekoak.

Derrigorrezko desjabetze-espediente baten formazko akats hutsek hiritarraren eskubideei eragiten ez dietela eta (674/91)

Hiritar batek bere kexa idazkian aditzera ematen zuen Arabako Foru Aldundiak hautsi zuela derrigorrezko desjabetzeari buruzko legedia, haren eskubideen kaltez. Horrekin batera adierazten zuen udaletxera deitu ziotela bere lursaila bete aurreko agiria osatzeko, desjabetzea egin behar zen lur-

sailean bertan egin ordez, eta, gainera, ekintza horretan alkatea edo bere ordez izendatutakoa ez zela presente egon, arauak agindu bezala.

Emandako xehetasun guzti hauen argitan, Arartekoak kexadunarengana idatziz jo eta jakinerazi zion bere eskubideek ez zutela kalterik jaso, desjabetze-espediteteetan ohizko gauza zelako lurrak bete aurreko agiria udaltxean egitea, eta ez desjabetu beharreko lurretan, administratiboki egokiagoa eta eraginkorragoa bait zen horrela egitea.

Orobat jakinerazi zion udalerrri txikienetan alkateek erabateko dedikazioa aitortuta ez daukatenez gero, ohizkoa dela udalaren ordezkaria ez egotea presente lursaila bete aurreko agiria osatzeko ekintzan.

Azkenik, Arartekoak adierazi zion zeintzuk ziren haren eskubideak eta zer nolako errekurtsio aukerak ematen dituen desjabetzeari buruzko legegialdiak; era berean esaten zion bere eritziz formazko irregulartasun administratibo horiek, inolako garrantzi juridikorik ez izanik, ez dutela babesgabeziarik eragin edota ez dietela kalterik ekarri haren eskubideei.

3.10. OSASUNA ETA GIZARTE ONGIZATEA

A) Sarrera

Alor honetan 59 kexa aurkeztu dira, iritsi diren guztietatik % 10,9a alegia.

Lehen-lehenik esan dezagun kexa alorrek berregituratu ondoren, osasun alorreko funtzio publikoari buruzko kexak, Osasun Sailaren kontra aurkeztuak izan arren, Funtzio Publikoa eta Administrazioaren Antolakuntza alor berrian sartuko direla hemendik aurrera.

Alor honetan aurkeztu zaizkigun kexak behar bezala aztertzeke, argi eduki behar da, alde batetik, hiritarrek gero eta kalitate handiagoa eskatzen diotela osasun tratamenduari, gizartearen nagusi bait da era honetako eskariak ez murrizteke eta sail honetan zientziak eta teknikak ekarri dituzten aurreramen duei uko ez egiteke joera; eta, bestetik, aurrekontuen mugengatik, osasun alorreko administrazioak ezinbestez murriztuta dituela egin ditzakeen gastu publikoak.

Horrek esan nahi du Erakunde honetan ezin ditugula osasun alorreko arazoak asistentzia mailarik onena eskatuz planteatu, eta, derrigorrez, kontutan hartu behar ditugula hemengo eta oraingo egoeraren baldintzak, hau da, osasun alorreko jarduerak indarrean dagoen legeriaren arabera moldatu behar ditugula.

Erabiltzaileek aurretiaz ordaindutako gastuak berandu itzultzeagatik kexa batzuk jaso dira, eta aipatzekoa da, kasu horietan, diru horiek berreskuratzeko eskubidea Administrazioak berak aitortu eta onartua zuela.

Itxaroteko zerrenda luzeak ere hiritarrek osasunbide publikoaz kexatzeko dauzkaten motibu handienetako bat dira oraindik.

Gaur egungo egituren akatsak, Autonomi Komunitate honetako Administrazioa osasun alorreko azpiegituretan egiten ari den inbertsioen bidez konpondu nahi diren arren, eta, baita ere, hainbat aldiz salatu den aditu edo espezialista falta dira zerrenda luze horiek egoteko arrazoiak. Horrega-

tik, espezialistak prestatzeko plangintza sendo eta zorrotz bat egon ezean, eragingo zaio konponbiderik bilatu guztiz larria den arazo horri.

Gizarte Ongizatearen azpialorrari dagokionez, ordea, esan behar dugu hirugarren adinaren arazoei aurre egiteko baliabide urri egoteak ere kezak eragin dituela. Aurkeztu diren kexetan ez da antzeman eskabideak onartzean jokabide zuzengaberik egon denik, baina bai, aldiz, gizarte alor honetzako eskaintza ugaltzeko premia.

B) Kexen aukeraketa

Balmasedan ginekologi zerbitzu medikurik ez dagoela eta etxekoandre elkarte batek eginiko kexuaz eta anbulategi berria egiteko eskeaz (783/89)

Bizkaiko Balmasedan herriko etxekoandre eta familiaren kontsumo elkarte bat kexu zen herrian ez zegoelako ginekologi zerbitzu medikurik. Kexaren alde, herriko beste zenbait lagunen izenpenak ere ageri ziren.

Ararteko honi bidalitako kexan esaten zenez, premia-premiazkoa zen anbulategi berri bat eraikitzeko obrak ahalik eta lasterren hasi eta bukatzea, proiektua behin eta berriro atzeratzen ari bait zen. Horrekin batera, kontsultak oso leku txikietan, jende gehiegiz, eta zerbitzu batzuk eskeini gabe —esate baterako, analisirako laginak hartzeko edo X izpi zerbitzuak— egiten zirela. Hutsune horiek egonda, herriko jendeak Bilbora joan behar izaten zuen askotan.

Osasun Sailarekin egin beharreko gestioak egin ondoren, eta anbulategi berria eraikitzeko proiektuaren inguruko argitasunak jasorik (kokapeneraren lurra permutatzeko zain bait daude), espedientea artxibatu egin zen, lurra eskuratuta zeudela eta proiektua Osakidetzaren 1992ko aurrekontuetan sartuko zela, eta, ondorioz, obrak adjudikatzeko eta burutzeko prozesua hasia zegoela garantizatu zigtelako.

Zainetako malformazioa zeukan gaiso bati eginiko diagnostikoa eta ondorioz egindako ebakuntzaren ondorioan sendagileek izandako zabarberia salatzen dute (343/90)

Osakidetzaren eritetxe batean ebakuntza egin ondoren, paraplejiak jota geratu zen 19 urteko gazte batek jaso zuen tratamendu medikuari buruzko kexa bat iritsi zen Erakunde honetara.

Gaisoak bizkarreko min handiak zituela eta, Osakidetzaren traumatologoaren kontsultara jo zuen, eta egindako lehen probetan ez zen antzeman gazteak azaltzen zuen gaisotasuna eragin zezakeen funtsezko ezer. Hala eta guztiz ere, oinazeek bere hartan jarraitzen zuten, eta horiekin batera ahulezia sentitzen hasi zen azpiko gorputzadarretan, denbora tarte laburrean bi aldiz erortzera iristeraino.

Beren semea nola zegoen ikusirik, gurasoek Baionako eritegi batera kontsultara eramatea erabaki zuten, eta han, proba batzuk egin ondoren, azterketa egin zioten sendagileek bizkarrezurreko muineko tumorea diag-

nostikatu zioten; horiek horrela, gaisoa berandu gabe bidali zuten Donostiako Arantzazuko Ama Ospitaleko Neurozirugia Zerbitzura. Eritegi horretan, kexadunen arabera beti ere, ebakuntza egitea premiazkoa zela adierazi zitzairen, gaisoak azaltzen zuen eritasunaren ezaugarrien larritasun erabatekoagatik eta egoera horren arriskuagatik; aldez aurretiko aprobarik ez zitzaion egin, eta ebakuntzak izan zitzakeen arriskuen berri ere ez zitzairen jakinerazi.

Ebakuntza egitean —D-6 D-7 laminektomia bat egin zitzaion—, odoljario handi bat gertatu zenez gero, odola jariaten zuen zaina itxi eta ebakuntza gelditu behar izan zen. Ebakuntzaren ondoren, gaisoa paraplejiak jota geratu zen muineko lesio osoko bategatik.

Erakunde honek hainbat gestio egin zituen bi zentzutan. Alde batetik, aztertu nahi zen Donostiako Arantzazuko Ama Ospitalean gazteari egin zitzaion diagnostikoan eta ondoko ebakuntzan gaisoak orain jasaten duen egoera eragin zuen zabarkeria medikurik egon ote zen ala ez. Eta bestalde, gaisoaren egoera fisikoa hobetzearren, eritegiren batean —Espainian bertan zein atzerrian— tratamendua ematerik ba ote zegoen ala ez.

Lehendabizikoari dagokionez, eta azaldutako arazoaren berezitasunak ikusirik, Erakunde honi egokia iruditu zitzaion neurologi aditu baten eritzia jasotzea, Osakidetzarekin harremanik ez izanik, eritzi objetibo eta neutrala, eta aldi berean gaitasun osokoa edukitzearren. Horiek horrela, espedienteetan zegoen dokumentazio guztia bidali zitzaion, aztertu ondoren txostena egin zezan.

Esandako aditu horrek paratutako txosten zabalak adierazten duenez, gaisoari ebakuntza aurretik eginiko probak —bai Baionan, bai Donostian egindakoak— nahikoak eta zuzenak izan ziren. Guztiek pentsarazten zuten tumore bat bazela, hezur-muina zanpatzen zuena, eta ezer ez zegoen zainetako malformazio bat ere bazegoela pentsatzera eramanez zezakeenik. Zampaketa hori hazkorra izaten da, eta horregatik zen premia-premiazkoa ebakuntza egitea.

Zainetako malformazioa, halaxe adierazten zuen adituak bere txostenean, oso zaila da aurretiaz antzematen. Diagnostikoaren akatsa (zainetako malformazioa eta ez tumorea) ezin dakieke sendagileei egotzi, hauek gaisoari egin zitzaizkion proben arabera jokatu bait zuten.

Neurologo honen eritziz, ebakuntzaren ondorioa patologiaren ezaugarriak berez okertu zirelako gertatu zen, eta ebakuntza premiaz egitea guztiz arrazoizkoa zen. Ondorio hori istripu kirurgikotzat jo, eta sendagileek ez zutela oker jokatu baieztatu zuen.

Osakidetzak emandako eritziari dagokionez, aldiz, erakunde horrek ukatzen zuen sendagileek azken ondorioaren erantzunkizuna zutenik, eta hori, txostena egin zuen aipatutako adituak azaldutako argudio mediku berberengatik, hain zuzen ere.

Bigarren puntuari gagozkiolarik, bestalde, Erakunde honi iruditu zitzaion, gertatuak gertatu ondoren, ezinbestekoa zela irtenbide bat bilatzea —halakorik egonez gero— gaztearen egoera hobetzen ahalegintzearren. Horretarako, Osakidetzari galde egin zitzaion Espainian bertan edota atzerrian tratamendua eman zezakeen eritegiren bat aurkitzerik ba ote zegoen.

Osakidetzaren Zuzendaritza Nagusiak bidalitako erantzunak honela zioen, hitzez hitz:

“Joan den uztailaren 29ko zure idazkiari erantzunez, paraplejiak jotako gaisoentzako sendagintzan aditu diren eritegiei buruz galdetzen duzunez gero, honako hau adierazi nahi dizut:

Sare publikoaren barruan badira osasun zentru batzuk (Toledoko Paraplejikoaren Zentrua, Bartzelonako Guttman Institutua, Madrileko Ramón y Cajal, eta Bizkaian, Gurutzetako Ospitala), eta haietara jo daiteke gaisoa bergaitzeko aukerarik ba ote dagoen jakiteko, edozer egiten hasi aurretik.

Espainiako eta atzerriko eritegi batzuek zirujia erabiltzen dute, baina ebakuntza horien ondorioak ez dira erabat ziurrak, eta, horregatik, goian esandako zentruetara jotzea gomendatzen dugu, kasu honi buruzko argitasunak lortu nahi izanez gero”.

Erakunde honek eginiko gestioen emaitzak kexadunei jakinerazi eta espediente itxi egin zen, ez ordea alde zurekin esan gabe gaztearen oraingo egoera hobetzen lagungarri gerta litekeen edozer egiteko prest dagoela Ararteko hau.

Gaisotasun baten atzera itzuli ezinezko faseetan bergaitzeko tratamenduaren beharraz (393/90)

Sestaoko biztanle batek bere kexu idazkian aditzera ematen zuen ez zegoela ados Osakidetzak herri horretan duen azpieskualdeko zentruan jasotzen zuen tratamendu medikuarekin.

Kexaduna esklerosi anitza deritzan gaisotasunak jota egonda, ezinduta zegoen eta elbarri aulkia behar zuen mugitu ahal izateko. Bere idazkian zioenez, gaisotasunaren kontra burrukatzeko era bakarra etengabe bergaitzeko ariketak egitea zen, eta horregatik hasi zen horrelako ariketak egiten Sestaoko azpieskualdeko zentruan, baina handik gutxira ukatu egin zioten horrelakoak egiten jarraitzeko aukera.

Erakunde honek argitasunak eskatu zizkion Eusko Jaurlaritzaren Osasun eta Kontsumo Sailari, eta honek bidalitako txostena ikusirik, argi ageri zen kexadunak azaldutako arazoa esparru kliniko hutsa gainditu eta giza-tasunaren mailakoa zela. Izan ere, kexadunak erabateko konfidantza zien bergaitzeko ariketei bere gaisotasuna sendatzeko; aldiz, hainbat sendagile-ren eritziak eskatu eta alderatu ondoren, bazirudien ez zela komenigarria inolako teknikarik erabiltzea, gaisotasuna atzera itzuli ezinezko fasean aurkitzen bait zen.

Hori hala izanik ere, kasuaren berezitasunak kontutan harturik, Osasun Laguntzaren Zuzendaritzak erabaki zuen erizpide tekniko eta zientifiko guztien ginetik gaisoa berriz itzul zitekeela bergaitzeko tratamendu egokia hartzera bere etxetik hurbileneko zentruan, hau da, Sestaoko ambulategian, eta behar bezalako ikuskaritzarekin, bere lehenagoko sendagile bergaitzaileren erizpideen kontra ez jotzeko.

Erabaki horren aurrean, Arartekoa konpondutzat eman zuen kexuaren arazoa, eta espediente artxibatu egin zuen, kexadunari honako idazki hau bidali ondoren:

“Ararteko honek kezka biziz irakurtzen ditu joan den abuztuaren zortzian bidali diguzuna bezalako gutunak. Pertsona ororen osasuna guttiz arazo larria, errespetu eta arreta osoz hartu beharrekoa iruditzen bait zaigu.

Hala ere, eskuartean daukagun arazoa bere testuingururik egokienean jarriko badugu, beharrezkoa da zehaztea zein diren Osakidetzak eskeintzen duen laguntzako zerbitzu medikuaren esparrua eta zabaltasuna.

Osakidetzak, beste edozein zerbitzu publikok bezala, halako muga batzuk ditu bere aurrekontuetan, bere baliabideak ez dira amaigabeak, eta horrek erabat baldintzapean jartzen du zerbitzu eta espezialitate mediku bakoitzaren prestazio maila. Horrela, bergaitzearen alorrean, Osakidetzak tratamendu hori eskaintzen du, baina ezin du hori egin edozein hiritarrekin, gaisoaren edo gaisotasunaren berezitasunengatik, sendabidearen helburua bergaitzea ez baizik eta mantenua denean.

Nolanahi ere, beharrezko ziren gestioak egin dira Sestaoko anbulategiarekin, arau orokorraren salbuespen gisa, zure gaisotasun bereziagatik mantenu bidez bergaitzeko tratamenduan berriz hasteko aukera izan dezazun”.

Hirugarren Adinerako Egoitzetan sartzeko itxarote-zerrenden egoeraz (507/90)

Arabako Foru Aldundiaren hirugarren adinerako egoitzetako batean sartzeko itxarote-zerrenda luzeak daudela salatzen zuen kexa bat jaso zen Erakunde honetan.

Kexadunek aditzera ematen zutenez, haien ama emakume adintsua izanik, etengabe zaindurik egon beharra zuen, bere egoera fisikoa zein psikikoa larria bait zen. Seme-alabek behar bezala zaintzerik ez zutenez gero, 1987ko maiatzean Arabako Foru Aldundiaren ardurapeko hirugarren adinerako egoitza batean sartzea erabaki zuten. Hala ere, erakunde horrek Etxerako Laguntza Zerbitzua eskaini eta oporraldietan familiaren laguntzarako hainbat egoitzatan aldi baterako sartu besterik ez zuen egin; baina irtenbide horiek senitartekoen gustukoak izan ez, eta andre zaharra egoitza batean denbora-mugarik gabe egon zedin nahi zuten.

Ararteko honek galde egin zion Arabako Foru Aldundiari esandako egoitzetan sartzeko zer nolako baldintzak zeuden, sarrera nola egin behar zen eta, azkenik, itxarote-zerrendak nola zeuden; argitasun horiekin batera, kasu honi buruzko espedienteko agiriak ere eskatu zitzaizkion.

Agiri horiek jaso eta gero, xeheki aztertu zen haietako bakoitza, zehazkiago, nola baloratuta zegoen emakumearen guztirako puntuazioa osatzen zuten elementu bakoitza, eta nola aurkitzen zen bera itxarote-zerrendan. Orobat, Arabako Foru Aldundiaren egoitzetan egoiliarrak onartzeko ezarritako prozedura eta kasu honi buruzko zenbait txosten ere aztertu ziren.

Esandako argitasun guztiak aztertu eta gero, Ararteko honek zuzen eritzi zion Arabako Foru Aldundiak azaldutako jokabideari. Izan ere, bai ba-

remu ezberdinetako puntuazioak, bai egindako biderapenak ere indarrean dauden arauak betetzen zituzten.

Emakume horrek ez zuen posturik lortu egoitza batean bere puntuazioa —hau da, bere egoera sozial, familiar eta osasunezkoa— behar handiagoan aurkitzen ziren beste pertsona batzuen bano txikiagoa zelako.

Erizpide honen arabera —eta esan behar da Erakunde honek ondo deritzola—, itxarote-zerrendan denbora gutxiago —edo bat ere ez— daramaten pertsonak lehenago sartuko dira postu mugatuak dauzkaten egoitzetan. Kasu honetako emakumearen egoeran dauden pertsonak egoitza batean sartzeko duten beharra zalantzatan jarri gabe, behar hori espedientearen dauden txosten batzuetan argi azaltzen bait da, beharrezkoa da kontutuan hartzea zentru hauetako postuak mugatuak izaten direnez gero, halako erizpide objektibo eta zuzenak erabili behar direla sarrerak banatzeko orduan.

Erakunde honi zuzena iruditu zitzaion Gizarte-Ongundearen Sailak kexadunen arazoari emandako erantzuna (eguneko zentruan sartzea, etxeko laguntza ematea, egoitzan aldi baterako sartzea, etab.), ahal den neurrian hirugarren adineko jende multzoari ahalik eta arretarik egokiena emateko ahalegina egin zela erakusten bait zuen.

Gure nagusien egoera Ararteko honen kezka handienetako bat da; izan ere, horregatik, alor honetan sortzen diren inizatiba guztiei adi dago, eta jende multzo honen bizimodua hobetzearen alde egiten den guztian ahaleginak egin jarraitzeko prest.

Osakidetza bitrektomia ebakuntza baten zenbatekoa alde aurretik ordaintzea eskatzen dio gaisoari, ondoren gastuen kopurua itzultzeko (737/90-116/91)

Dirusarrera moduan alargun saria soilik jasotzen zuen 68 urteko emakume batek kexa idazki batean salatzen zuen Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak bitrektomia ebakuntza baten zenbatekoa alde aurretik ordaintzea eskatu ziola, nahiz eta erakunde horren Osasun Ikuskaritza Zerbitzuak on eritzi zion ondoren gastuen kopurua itzultzeko eskariari baietz erantzuteari.

Kexadunari ezkerreko begietako lausoagatik ebakuntza egin zioten Gasteizko Txagorritxu Ospitalean. Sendatu ondoren, doktoleari egokia iruditu zitzaion gaisoak laser izpien bidezko sendabidea jasotzea, eta, hartara, Santiago Ospitalera bidali zuten.

Geroago, kexadunak odoljario bitreo bat izan zuen ebakuntza egindako begian, eta ondorioz begi horretako ikusmena galdu. Kasu honen fase bakoitzean arduratu ziren sendagileekin arazoa aztertu ondoren, bi sendagileek adierazi zuten bitrektomia bat egin beharra zegoela, eta txostena egin zuten hala agertzeko.

Kexadunak txosten horiekin jo zuen orduan Osakidetzaren Arabako Barrutiko Zuzendaritzara, handik aurrera zer egin behar zuen eta beste ebakuntza egiteko zein zentrutara joan behar zuen jakiteko. Han aditzera eman zioten Bilboko doktore baten kontsultara joan behar zuela, eta honek aztertuko zuela ebakuntza egiteko modurik ba ote zegoen ala ez.

Sendagile honek bere oneritzia eman eta gero, halaxe adierazi zitzaion Osakidetzari, baina honek gaisoari esan zion ebakuntza egiteak ekarriko zituen gastuak alde aurretik ordaindu, eta ebakuntzaren ondoren eskatu behar zuela dirukopuru hori itzultzea, ebakuntza egin behar zuen sendagilea medikuntza pribatuko alorrekoa zelako, hain zuzen ere.

Kexaren auzia aztertu eta gero, argi azaldu zen Osakidetzaren Euskal Osasun Zerbitzuak era honetako ebakuntzak egiteko zerbitzu berezirik ez eta hitzarturik ez zuelako gertatu zela. Kasu hauetan, erakunde horrek irailaren 14ko 2.575/1973 Dekretuko 18.3 artikulura jotzen duenez, kasu hau arretagabezia medikuntzat hartu zuen, eta, hortaz, gastuak itzultzeko motibua zela erabaki.

Hala ere, Ararteko honen eritziz, araua estu ulertzeko modu bat zen hura, eta azalduakoa bezalako kasuetan bestelako araurik erabiltzerik ez dagoenean erabiltzen dela, subsidiarioki. Orobat, arretagabezia kasu bat zela ebatzi zuen, osasun sare publikoaren barruan zerbitzu berezirik ez egoteagatik sortua, eta hori gaisoaren arduraz kanpoko arazoa zela, batez ere honek beti ere jokatu zuelako erakunde horretxek berak adierazitako moduan.

Goian esandako guztia zela bide, Ararteko honek Osakidetzaren Euskal Osasun Erakundearen zuzendariarengana jo eta aditzera eman zion komenigarria izan zitekeela, kasuaren berezitasunengatik, erakunde horrek hartzea bere gain ebakuntzaren gastuak.

Erakunde honetara iritsi zen erantzunak honako hau zioen hitzez hitz:

“Ebakuntzaren gastuak Osakidetzak berak bere gain hartzea komenigarria izan daitekeela adierazi diguzunez gero, esan nahi dizut beharrezko gestioak egin eta gero horrelakorik egitea ezinezkoa dela administraziozko arrazoiengatik.

Nolanahi ere, eta kasuaren berezitasuna kontutan harturik, arretagabezia honen ondorioz sortzen den egoera jakin honi dagozkion gastuak ahalik eta lasterren itzultzeko egin beharrekoak egiteko agindua emango da”.

Dirua itzultzea Osakidetzaren zuzendari orokorrak maiatzaren 13an hartutako 752/91 zenbakiko ebazpenaren bitartez onartu zen.

Beste alde batetik, Osakidetzaren Euskal Osasun Erakundeak Arartekoari jakinerazi zion laster erosiko zela bitrektomia ebakuntzak egiteko tresneria Galdakaoko Ospitalerako.

Zenbait hilabete beranduago beste kexa idazki bat jaso genuen, antzeko arazoa agertzen zuena. Beste kasu honetan, aldiz, nagusiki Osakidetzaren gastuak ordaintzen berandutzen ari zela zioen salaketak.

Kexadunari ere bitrektomia ebakuntza bat egin zitzaion Bilbon, eta lehenago adierazi dugun sendagile berberaren bidez, Osakidetzaren Barrutiko Zuzendaritzaren aginduei jarraituz. Ebakuntzaren gastuak kexadunak berak ordaindu behar izan zituen hemen ere, eta horretarako mailegu bat eskatu zion banku erakunde bati.

Kexadunak gastuak (453.909 pta.) itzultzeko eskaria egin zion Osakidetzaren Arabako Barrutiko Zuzendaritzari 1990eko irailaren 7an, horrekin batera ikuskatzaile medikuak eskariari baiezkua erantzutearen alde azaltze-

ko konpromezua adierazten zuen agiri bat erantsiz. Urtebete beranduago, kexaduna dirukopuru hori jaso gabe zegoen oraindik.

Ararteko honek Osakidetzara jo zuen atzerapen horri buruzko argitasunak jasotzeko. Erakunde horrek adierazi zuen oker administratibo bat gertatu zela, baina konponduta zegoela, eta hala, 1991ko azaroaren 8an ordaindu ziren gastuak.

Nolanahi ere den, Ararteko honek gomendio bat luzatu zion Osakidetza-zen Zuzendaritzari, alegia "(...) eskari hauei ahalik eta lasterren erantzun beharko litzaieke. Batez ere, orain dagokigun kasuan bezalaxe, kexadunak mailegu bat eskatu behar izan zuelako, lehenago esan bezala, eta horrela-koetan gerta daiteke ebakuntzak egiteko ahalmena Gizarte Segurantzako bazkideen goera ekonomikoaren menpe geratzea".

Larrialdietan eskaintako arretaz (15/91)

Amurrioko biztanle batek eragindako kexa bat jaso zen Erakunde-ean, eta bertan, Gasteizko Ortiz de Zárate Erresidentziako larrialdietarako zerbitzuan bere emazte eta alabari eskaintako arreta txarra salatzen zuen.

Emaztearen kasuan, bat batean buruko min handia zeukalako, aipatu-tako larrialdi zerbitzura joan zen, bertan atxaketena eta antsietatea zeukala esan eta oinaze-aringarriak eta lasaigarriak errezetatu zizkioten. Hala eta guztiz ere, buruko minarekin jarraitzen zuenez, Kruzesko Ospitalera eraman zuten, eta hilabete bertan igaro ondoren "meningitis linfozitaria" diagno-siarekin eman zioten alta.

Alabari zegokionez, erori egin zen, eta kordea galdu eta gora botaka zegoenez gero, larrialdi zerbitzu horretara eraman zuten, baina bertan ez zitzaion inolako zauririk ikusi. Exean, buruko zorabioak eta sabeleko mina zeuzkala ikusirik, berriro larrialdetara jo zuten, eta bertan sabeleko ekogra-fia bat egin zitzaion emaitza negatiboarekin. Sintomek jarraitzen zutenez, sendagile aseguru pribatu baten bidez, erreklamatzailleak Deustuko klinika pribatu batera eraman zuen alaba, eta bertan, eskaner bat egin ondoren, lokiaren ezkerreko aldean hematoma epidural eta subdural bat aurkitu zioten.

Arartekoak honi buruzko informazioa eskatu zuen Osakidetza-zen Zu-zendaritza Nagusira. Eskariari erantzunez, Ortiz de Zárate Erresidentziako Zuzendari gerenteak egindako txosten bat igorri zitzaigun, non esaten bait zen, aipatutako kasuetan gaisoen patologiak behar bezala diagnostikatzer-a iritsi ez izanaz, eta horregatik eragindako arazo eta arriskuez damu zela:

"Seguraski arazo hauek ez lirateke gertatuko, hasteko, medi-kuntza-zen esku dauden miaketa osagarri guztiak larrialdi zerbitzura jotzen duten gaiso guztiei egingo balitzaie. Baina tamalez, hori, arrazoi askorengatik, ezinezkoa da. Horregatik, sendagilea bere ezagutza eta erizpideetan oinarritu behar da diagnosi bat mugatze-ko, eta esplorazio osagarriak arrazionalki erabili behar ditu, osaga-ri eta lagungarri diren neurrian bai, baina sekula ez arreta medi-kuaren helburu eta xede bezala".

Azaldutako arrazoiak eta kasu bietan zeuden baldintzak kontuan izanik, Arartekoak ez zuen bi kasuetan parte hartu zuten profesionalen aldetik axolagabekeriarik ikusi, baina hala eta guztiz ere Osasun Gestiorako Zuzendariari gomendio bat egin zion: "diagnosia egiteko orduan zalantzarik txikienaren aurrean, medikuntzaren esku dauden esplorazio osagarri guztiak egin daitezela, horrela, salatutakoaren antzeko egoerarik gerta ez dadin".

Hortzetako protesi baten galeran ospitaleak duen erantzunkizunaz (166/91)

Zumaiako emakume batek kexa bat aurkeztu zion Erakunde honi; hartan esaten zuenez, ebakuntza kirurgikoa egina zioten Arantzazuko Ama Ospitalean, eta kirotan eraman zutenean jarria zeukan bere hortzetako protesia, baina ebakuntza amaitu ondoren, berriz bere gelan zegoela, konaturatu zen falta zitzaiola.

Arartekoa harremanetan jarri zen Osakidetzaren Zuzendaritzarekin, eta han jakin zuen hori oso sarritan gertatzen den gorabehera dela, eta organismo horren Zerbitzu Juridikoa aztertzen ari zela galera horren ordainketa, bai zuzenean, bai aseguru batekin izenpeturiko erantzunkizun zibilaren polizaren bidez.

Arartekoak argitasun gehiago eskatu eta gero, Osakidetzaren Zuzendaritzak adierazi zuen kalteordaina egitea onartzen zutela, eta 70.000 pe-zeta emango zizkiotela kexadunari.

Emakumeari akordio horren berri eman, eta halaber aditzera eman zitzaion zer egin behar zuen dirukopuru hori kobratu ahal izateko. Horren ondoren, amaitutzat eman zen espedientea.

Kruzesko Ospitaleko Zirugia Maxilofazial Zerbitzuko itzarote zerrenda luzeaz (261/91)

Erakunde honetan, Kruzesko Ospitalean ebaketa egiteko zain denboraldi luzea jasaten ari zela salatuz kexu idatzi bat jaso zen.

Erreklamatzailerik zioenez, 1990eko ekainaren amaieran Basauriko Estomatologia/Odontologia Zerbitzura joan zen. Haren esanetan, ikusi zuen sendagileak, zeukan arazoak jabeturik, juizioko lau haginak ateratzea gomendatu zion, eta horretarako, Kruzesko Ospitaleko Zirugia Maxilofazial Zerbitzurako beharrezko bolantea egin zion.

Idatzian gehitzen zuenez, telefono dei baten bidez iazko urriaren 22rako zita eman omen zioten Kruzesko Ospitaleko aipatutako zerbitzuan, eta kontsulta honetan esan zioten ebakuntzarako egunaren berri jakinaraziko ziotela.

Kexadunak zioenez, ez zioten gehiago deitu, eta atzerapen hau behin baino gehiagotan salatu omen zuen Osakidetzako informazio telefonoan, erantzunik jaso jabe ordea.

Erakundeak, osasun erakundeei informazioa eskatu zien, eta espedienteetan jasotako informazioaren arabera, Kruzesko Ospitaleko Zirugia Maxilo-

fazial Zerbitzuko gaisoak zain denbora gehiegiz eduki zituztela ikusi zen, eta arazo hau, Ospital horretako Zerbitzuburuaren txostenean zehatz-mehatz aipatzen zen.

Zentzu honetan, Ararteko honek gomendio bat luzatu zion Osakidetza-ri, esanaz, nahiz eta ulertu era honetako ebakuntzak ez zirela larriak, gehiegizkoa zela Zerbitzu horretako gaisoek itxaroten eman behar zuten denbora, eta atzerapen horien arrazoiak aztertu behar zirela, itxaron beharreko denbora ahalik eta gehien laburtzearren neurriak hartzeko. Gogorarazten zion era berean, aurkeztutako erreklamazioei erantzun egin behar zaiela, bereziki horretarako ezarritako zerbitzu baten bidez eginak direnean.

Geroxeago, Osakidetzaren Bizkaiko Barrutiko Zuzendariaren idatzi bat jaso zen:

“1. (...) Barkamena eskatu Kruzesko Ospitalak erantzun ez zuelako; hori, hala ere ez da askotan gertatzen eta Zerbitzutik kanpoko arrazoiei egotzi beharko zaie”.

“2. Osakidetzaren Barrutiko Zuzendaritza hau ohartzen da aipatutako arazoaz, eta horregatik gaur egun zentru pribatu baten zerbitzuak kontratatuta dauzka Kruzesko Ospitalean maxilofaziala egiteko zai dauden gaisoei erantzuteko”.

Ezarritako tratamendu medikuaren egokitasunaz (360/91)

Gaiso bati ezarritako tratamendu mediku bati buruzko kexa idatzi bat jaso zen Erakunde honetan.

Erreklamatzaileak zioenez, bere alabak ezkerreko eskuan mina hartu zuen ikastetxean kirola egiten ari zela; Irungo Bidasoako Eskualde Ospitalera eraman eta bertan “ezkerreko eskuko metakarpioaren bosgarren lepoko pitzaketa, desplazamendurik gabe” diagnostikatu, eta pastila batzuk eta handitasuna sendatzeko pomada bat errezetatu zioten.

Alegatzaileak zioen, hurrengo egunean, minez zegoelako Irungo Gurutze Gorriko ospitalera eraman zutela, eta gaisoari han, aluminiozko ferula bat jarri ziotela.

Neskatoaren amak zioen, Bidasoako Ospitalean bere alabari ezarri zioten tratamendua ez zela zuzena izan, eskua ez ziotelako lotu eta inmobilitatu.

Eskuratutako dokumentazioa aztertu ondoren ikusi zen, kontsultatutako bi zentruetan diagnosi berdina egin zitzaiola. Bidasoako Ospitalean ezarri zitzaion tratamenduaren egokitasunari dagokionez, auzi hau sendagileei bakarrik dagokielako, Ararteko honek sendagile bati igorri zion aztertu eta ezarritako tratamenduaren zuzentasunari edo zuzentasun ezari buruzko balorazioa egin zezan.

Honela zioen sendagilearen diktamenak:

“(…) Bidasoako Ospitalak lehen unean ezarritako tratamendua, nahiz hurrengo egunean Irungo Gurutze Gorriaren Ospitalean ezarri zitzaiona, biak izan daitezke baliagarriak eta zuzenak.

Zauritutako lekua eta zauria kontuan izanik, tratamendua handiduraren kontrako pomadekin hasi daiteke (egin zen bezala) eta sintomatologiaren bilakaera izango da ferularekin (eta ez igeltsoarekin) inmobilizatzeko premia adieraziko duena.

Bestalde, hasiera-hasieratik ferula jartzea, gaisoaren adina, daukan sintomatologia eta zauritutako puntua gelditu edukitzeko bermearren arabera gomendatu ahalko da”.

Guzti horren ondorioz, azaldutako kasuan sendagileen aldetik hutsegite edo axolagabekeriarik ez zela egon ikusita, espedientea itxi egin zen.

Deba Beheko Ospitalean alergia probak egiteko dagoen itxarote zerranda luzeaz (460/91)

Kexa honetan, Mendaroko Deba Beheko Eskualde Ospitalean alergia probak egiteko zegoen itxarote zerranda luzea aipatzen zen.

Erreklamatazaileak zioen, frutak eragindako alergia arazoak zeuzkala, eta ondorioz arnasketa normaltasunez egitea galerazten ziola. 1990. urteko abenduan Eibarko anbulategiko bere sendagilearengana joan zela zioen, eta honek Donostiako Ospitalera bidali zuela beharrezko probak egin ziezaiotien. Ospitale honetan 1991ko uztailaren 12rako eman zioten zita.

Erreklamatazailearen esanetan, aipatutako data baino egun batzuk lehenago Donostiako ospitaleko dei bat jaso zuen, probak Mendaroko Deba Beheko Eskualde Ospitalean egingo zitzaizkiola esanaz, eta horretarako zita han bertan eskatu behar zuela; ospitale honetara behin baino gehiagotan deitu arren, aipatutako probak egiteko egunik ez zuela lortzen adierazten zuen bere kexan.

Ararteko hau Gipuzkoako Osakidetzako Alor Zuzendariarekin jarri zen harremanetan eta berari eskatu zion informazioa, eta era berean, zerbitzu batzutan itxaron behar izaten zen denbora luzeagatik kezka azaldu zion.

Osakidetzak berehala erantzun zuen, eta bertan erreklamatazaileari alergia probak egiteko data adierazten zitzaion.

Ikuskapen medikuaren baimenik gabe zentru pribatu batean egindako ebakuntza baten gastuak itzultzeaz (500/91)

Bi gauza salatzen zituen kexa idatzi bat jaso zen Erakunde honetan. Alde batetik zioen, Osakidetzak ez zituela ordaindu nahi izan Baionan egin zitzaion ebakuntza baten gastuak, eta bestetik, Ogasunak ez ziola onartu nahi gastu horien kitapena bere PFGZren aitorpenean.

Eskuratu zitzaigun dokumentazioa aztertu ondoren, ikusi zen alegatzaileari Baionako ospitale batean ebakuntza bat egin ziotela aldakan protesi bat ezartzeko. Gaisoari, bere gogokoak ziren sendagilearekin eta ospitalean egin zitzaion ebakuntza, eta hori Osakidetzako ikuskapen medikuaren baimenik gabe.

Osasun publikoak gastuak itzultzeko aukerari dagokionez, hau da, zentru pribatu batean egoteagatik sortzen diren gastuak osasun publikoak bere egitea dela eta, hori Ikuskapen Medikuak baimendu behar du aldez aurretik, edo bestela, Lan eta Aseguru Sozialaren Ministraritzaren beste zerbitzuek emandako osasun asistentziari buruzko irailaren 14ko 2.575/73 Dekretuan iragarritako kasuren baten barruan sartu behar da.

Kasu honi ez zegokion baimen hori, ebakuntza Osakidetzako ospitale batean egin bait zitekeen. Alegatzaileak bere gogoz jo zuen osasun sare publikotik kanpoko beste sendagile eta beste zentru batera, eta beraz, Osakidetzak lege barruan jokatzeko ebakuntza horren aurrean zegozkion bere ardura guztietatik eskuak garbitzean. Ez alferrik, lehen aipatutako dekretuak bere 18.1 artikuluan hau dio: "onuradunak, bere edo familiakoen kabuz, izendatu zaizkion zerbitzuak erabiltzen ez baditu, osasun asistentzia eman beharreko erakundeek ez dituzte ordainduko egon daitezkeen zorrak (...)".

Ebakuntzaren ondoriozko sendagile zorrak PFGZren aitortzean kitatzeko ezintasunari dagokionez, hiru Foru Aldundien zerga honi buruzko foru arauak diote, gaisotasun gastuen % 15 kitatu ahalko dela kuotatik behar bezala zurituta daudenean. Ez da zehazten kitapena jasotzeko gastua zein lekutan egin beharko den.

Ararteko honen ebazpena alegatzaileari igorri zitzaion, jakinaraziz egin da zeukan errenta aitortzean aldaketa bat sar zezakeela beharrezko dokumentu zurigarriak aurkeztuz gero, eta horrenbestez espedienteak itxi egin zen.

3.11. LANA ETA GIZARTE ASEURANTZA

A) Sarrera

Alor honetan bildu ditugun kexak 6 izan dira, hortaz, aurkeztu diren guztietatik % 1,3a. Kexagai izan diren administrazioei begiratuz gero, era honetara banatzen dira:

— Eusko Jaurlaritza	5
— Aldundiak	1
— Udalak	0

Arartekoak lan honetan egin dezakeen bitartekotza lana Autonomi Komunitateak Gizarte Segurantzaren alorrean dituen eskumenen baldintzapean dago. Hortaz, gizarte asegurantza sozialaren alor honetan egin den lana, kuotak ez ordaintzeagatik zabalduzko espedienteak, laguntzak jasotzeko eskariak, etab., zertan dauden jakiteko gestio-sailen artean eginiko gestioak izan dira.

Besteren kontuko langileak kontratatuzko eta autoenplegua suspertze-ko dirulaguntzak ere Erakunde honi kexak bidaltzeko motibu izan dira.

B) Kexen aukeraketa

Ezkontidea kontrataziorako laguntzetarako neurrietatik kanpo uzteaz (309/90)

Erreklamatzailleak bulego bat ireki zuen bere kasako profesional moduan, eta bere ezkontidea kontratatu asmo zuen bere kontura lana egingo balu bezala, otsailaren 20ko Eusko Jaurlaritzaren 47/1990 Dekretuaren bidez onartutako laguntzak jasotzeko.

Baina ez zuen eskaria aurkeztu, dekretuko 37. artikulua bere babes esparrutik kanpo uzten duelako ondokoak kontratatzeke aukera —beti ere enpresari indibidualari dagokionean—: ezkontidea, aurrekoa, ondorengoa edo albokoa, odolkidetasun, ahaidetasun edo adopzio kasuak, hirugarren mailarainokoak barne.

Zentzu berean, 1974ko maiatzaren 30eko Gizarte Segurantzaren Lege Orokorreko testu bateratuko 7.2 artikulua, sistema horren ezarpen eremutik kanpo uzten zuen enpresariaren ezkontidea, bere kontura lana egiten duen langileztat jotzen ez duelako.

Zegoen egoera juridikoan ordea, aldaketa handi bat gertatu zen abenduaren 29ko 7/1989 Lege-Dekretua indarrean sartzean, bere 14. xedapen gehigarriak aipatutako 7. artikuluko 2. zenbakia aldatu bait zuen, ezkontidearen “iuris et de iure” bazterketa “iuris tantum” bezala ordezkatzuz, hau da, aurkako froga onartzen duela.

7/1989 Erret Dekretuak, uztailaren 28ko 20/1989 Legeko 9. artikulua ere aldatu zuen 1. araua eta C letran, PFGZri dagokionean, eta hau xedatzen du:

“Berarekin bizi diren ezkontidea edo sujetu pasiboaren seme gazteek bere enpresa ihardunetan edo ekintza profesional edo artistikoetan ohiz eta era jarraituan lana egiten dutela behar bezala frogatuta dagoenean, beharrezko lan kontratua eta Gizarte Segurantzaren dagokion atalean sartuta dagoenean alegia, irabaziak erabakitzeko, beraietako bakoitzarekin finkatutako irabaziak kitatuko dira”.

Hau da, lan kontratua dela medio, ezkontidea bere kontura lan egiten duen bezala kontratatzeak, ondorio guztiak ditu zerga eta gizarte segurantzaren mailan, behar bezala frogatzen denero, baina itxuraz, ez ditu ondorio berberak kontratazio gehikuntzaren aldetik, seguraski iruzurrari aurre egiteko gehiegizko arduraren ondorioz.

Esan dugu indarrean zegoen marko legala aldatu dela, eta beraz ezkontideen arteko lan harremanak subentzionatu daitezkeela laguntzetarako beste baldintza guztiak betetzen badira; horrela beraz, uler dezakegu Konstituzioaren 14. artikuluan aitortzen den berdintasunaren printzipioa ere hausten dela, ezkontzaren bidezko batasunak kaltetuagoak izan daitezkeelako beste batasun moten ondoan, hauek beste aspektu juridiko batzuk arautzen bait dituzte.

Nolanahi, ezin da onartu ezkontideen arteko lan harremanetan ezkontideetako bat bestearen kontuko langiletzat emateko aukera ukatzeagatik kontrakoa frogatzeko bidea baztertzin denik, arau orokortzat hartuz ustezko iruzurrak.

Kasu hauetan, kontratu bidezko harremana badagoela frogatzeko beharrezko bitartekoak ezarri beharko lirateke. Baina salbuespenik gabe ukatzea neurrigabekeria da.

Ararteko honen ustez, otsailaren 20ko 47/1990 Dekretuko 37. artikulua ezabatu egin behar da etorkizunean kontrataziorako emango diren laguntzak arautuko dituzten xedapenetatik, edo bestela egiazko lan harreman bat dagoela frogatu dadila, hori hala balitz laguntzak jasotzeko ahalmena izan dezaten, eta zentzu honetan gomendio bat luzatu zitzaion Eusko Jaurlaritzako Lan Sailari.

3.12. HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA

A) Sarrera

Alor honen inguruan jaso diren keak 89 izan dira, hots, aurkeztutako guztietatik %19a, eta hartara, aurten ere, berau da kearik gehien izan dituen alorra.

Administrazioen artean era honetara banatu dira:

– Eusko Jaurlaritza	26
– Aldundiak	2
– Udalak	61

Aurreko urteekin konparazioak egiterakoan, kontutan eduki behar da alor honetatik ingurugiro gaiak kendu direla, alor berezi bat osatzeko haiekin. Horrela izanda ere, %13ko igoera gertatu da aurten 1990. urtearen aldean.

Kexen mamiari dagokienez, honela banatu dira gaien arabera:

– Hirigintza	51
– Etxebizitza	38

Hirigintzari buruzko keken artean oso ugari dira Arartekoari beren lurren hirigintz erregimena zein den eta eraikitzeko edo bestelako jardueretan erabiltzeko aukerarik ba ote den galdetzen diotenak. Horrek ongi islatzen du hirigintzak hizkera teknikoegia erabiltzen duela, hiritar arruntak nekez ulertzen duena, nahiz eta egia den udal asko ahalegin handiak egiten ari direla administratuari hirigintzari buruzko informazioa emateko.

Beste batzuetan, aldiz, hiritarrek Administrazioak hirigintz espedienteak bizkor ditzala eskatzen diote Arartekoari, batez ere planeamenduaren gestioarekin eta ejekuzioarekin zerikusia duen guztian.

Aipagarria da kexa espediente batzuetan hiritarrek halako hirigintz ekintza baten legezketasuna zalantzatan ipintzen dutela, indarrean dagoen planeamendua ekintza hori babestu gabe, planeamendu berria tramitean eta onartzekotan dagoelarik.

Etxebizitzaren alorrean, ordea, hiritarrek etxebizitza sozial bat eskuratu ahal izatearen inguruan dagoen kezka handia islatzen da kexetan. Aipatze-koak dira nolabaiteko ezintasuna eduki arren, erabateko elbarrientzat utzi-tako etxebizitzak eskuratzeko eskubiderik ez duten hiritarren kexak.

B) Kexen aukeraketa

Babespeko lur ez-urbanizagarrian plangintzek ezarritako mugez (447/90)

Kexadunak Arartekoarengana jo zuen Udalak ez ziolako baimenik ematen bere baso hustiapen batean biltegi txiki bat eraikitzeko aintzira er-zeko lursail batean, uren legediak onartu arren.

Argitasunak eskatu zitzaizkion Udalari, eta udalerriko alde hartarako arau subsidiarioen hirigintz ordenantzak onartutako erabilerak zein ziren az-tertu zen, leku hartako lurra babespeko lur ez-urbanizagarrien artean sailkatuta bait zegoen.

Hona hemen laburbildurik zertan zetzan arazoa: plangintzak zabaldu egiten zuen 1985eko Uren Legeak finkatutako babesgunea, eta agintzen zuen 200 metroko tartea egon behar zuela, aintzira ertzetik hasita, ur bi-deak eta masak babesteko; tarte horretan debekatuta zegoen edozein erai-kuntza egitea, nekazaritza edo basogintzarako etxolak barne. Honen eragi-nez, kexadunak zeukan baso hustiapena arau subsidiarioek ezarritakoarekin kontraesanetan zegoen.

Arartekoak jakinerazi zion kexadunari Udalak zuzen jokatu zuela, eta udalerrriaren esku zegoela ur bide eta masak babesteko sailkatutako aldeak eta erabileren erregimena zehaztea, bai eta Uren Legeak finkaturikoak bai-no muga handiagoak jartzea ere.

Udalaren iharduera irregularraz, eta lizentziarik gabe obrak burutu zi-tuen kexadunaren iharduera are irregularragoaz (471/90)

Alegatzaileak esaten zuen bere kexa idatzian baserri bat erosi eta ho-rretarako bere etxebizitza saldu behar izan zuela, eta Oiartzungo Udalak enkargatu zuen proiektu teknikoan jasotako obrak egiteko lizentziarik ez ziola ematen, eta baserri barruan obra txikiak egitea ere debekatu egiten ziola.

Arartekoak Alkateari eskatu zion informazioa eta ikusi ahal izan zuen arazoa alegatzaileak esaten zuena baino konplexuagoa zela. Oiartzungo Udala b) motako Planeamenduzko Arau Subsidiarioen onarketa tramita-tzen ari zen, eta horregatik ez zen inguru horretarako obra-lizentziarik ematen. Kexadunak egin nahi zituen obrak ordea, balkoitzoak ezartzea salbu,

obra txikitzat jo zitezkeen eta indarrean zegoen hirigintz araudiarekin eta tramiteetan aurkitzen zen araudi proiektuarekin bat etorri zitezkeen, eta horregatik, erreklamatzailari lizentzia ukatzen zion Gobernu Batzordearen erabakia ez zegoen legearen barruan.

Udaletxeko aparejadorea baserria ikustera joan zenean, alegatzailea eraikuntzaren egituran eragina zuten obrak egiten ari zela ikusi zuen, bolumena handituz eta ingurua fisikoki aldatuz. Hitz batean esanda, obra horiek ezin ziren legezatu, eta ezin zitzaien lizentziarik eman.

Azkenik, Arartekoak Udalaren jokaera irregularra eta kexadunaren are irregularragoa ikusiz, azkenekoari erantzun zitzaion esanaz, Oiartzungo Udalaren jokaera irregularra izan bazen ere, "zure eskubideei ez die kalterik eragin, eta beraz, ondorengo zure jokaera ere ez da sartzen indarrean da goen hirigintz legalitatearen barruan", Oiartzungo Udalak eskatutako lizentzia eman izan balu ere, kexadunak obra ilegalak berdin egingo zituela aureritiz.

Obretarako baimena Udalaren hirigintz arautegiarekin bat ote datorren frogatzeaz (491/90)

Kexadunak aditzera eman zion Arartekoari Udalak obretarako baimena eman zuela haren etxe ondoko orubean zortzi etxebizitza eraikitzeke, eta baimen horrek ez zuela betetzen hirigintz plangintzaren ordenantza, arau subsidiarioetan eraikuntzaren hondoetarako ezarritako 1,20 metroko tartea gainditu eta iragarrita ez zegoen soto bat egitea onartzen zuelako.

Arartekoa bera joan zen bisita egitera eta une haietan egiten ari ziren obrak ikuskatzera, eta kexari buruz hitz egin zuen udal agintari eta teknikariek.

Egin zen ikerlanaren arabera, arau subsidiarioak behinik-behin onartzean, Udalak halako aldaketa bat sartu zuen hirigintz-ekinbide hartan: hau da, hondo eraikigarria 3,20 metrotan zabaltzen zuen, lehenago Udalak arau subsidiarioei hasierako onarpena ematea erabaki zuenean jaso zegoena aldean. Erabaki hau, Gipuzkoako Foru Aldundiak berretsi zuen geroago, arau horiek behin-betirako onartuz.

Garajea soto bihurtzeko asmoari dagokionez, ordea, frogatu zen sotoak eraikitzeke aukerarik ez zegoela iragarrita arau subsidiarioetan, nahiz eta aitortzen zen, Udalak zioen bezala, interesgarria izan zitekeela aparkaleku gehiago eraikitzea, herriko parte hartan faltan zeudelako. Horregatik, Arartekoak gomendatu egin zion Udalari arau subsidiarioen testu bateratuan sotoak garajerako aprobeztatzeke aukera sartzea, horrela, ondoren, Udalak legezatu ahal izateko obren zati hura.

Obretarako baimenaren kontrako salaketa eta arau subsidiarioak onartzeko erabakia indarrean sartzeko dataz (551/90)

Hiritar batzuek kexa idazki bat bidali zioten Arartekoari eta salatu Udalari haien etxeen aurrean eraikuntzak egiteko obretarako baimenak ematen

ari zela ustez legearen kontra; izan ere, arau subsidiarioak behin-betirako onartzea erabaki zenean hirigintz-ekinbide hori betetzeko aukera bertan behera utzi zen.

Erakunde honek argitasunak eskatu zizkion Udalari, eta kasu honen inguruko hirigintz arauak eta plangintzarako arau subsidiarioen onarpenaren espedientearen tramitazioa aztertu ziren.

Eusko Jaurlaritzaren Lurralde-Politika, Garraio eta Turismo Sailak, 1984. urtean, b erako udal arau subsidiarioak behin-betirako onartzea erabaki zuen, bai eta akordioan agertzen ziren zehaztasunak sartu arte beren aginduak betetzeko aukera bertan behera uztea ere; agindu horiek kasu honetan salatutako hirigintz-ekinbideari eragiten zieten.

Kontua funtsezkoak ez ziren aldaketak sartzea eta zuzenketa batzuk egitea izanik, Lurzoruaren Legearen 41. artikulua bidez, bazegoen aukerarik plangintza zuzenean indarrean sartzeko Udalak okerrak zuzendu ondoren; horrela posible zen hirigintz-ekinbide hori ejekutatzen hastea eta obrak egiteko baimena ematea.

Arartekoak horren berri emateko jo zuen kexadunengana, eta aditzaera eman zien akordio hori 1985eko Toki Erregimenaren Oinarrizko Legea baino beranduagokoa izan balitz, bere 70-2. artikulua arabera, behar-beharrezkoa izango zatekeela azken testua Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta 15 eguneko epea igaro arte itxarotea.

Administrazioaren antolaketan prebisio ezak hiritarrentzat kaltea nola dakarren (1.070/90)

Alegatzaileak Arartekoarengana jo eta hau planteatu zuen, alegia kultur ondasun bezala kalifikatutako eraikuntza bateko lokal batean erreforma obrak egin nahi zituela eta Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saila gehiegi atzeratzen ari zela bere txostena emateko orduan.

Proiektua, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailean 1990eko abuztuaren 27ko datarekin aurkeztu zen informerako, Euskal Kultur Ondarearen uztailaren 3ko 7/90 Legea indarrean sartu arte, Jaurlaritza zelako historiko-artistiko bezala kalifikatutako eraikinetan obrak egin nahi zirenean informatzeko ahalmena zeukan erakundea, edo legea onartu ondoren, interes kulturalekotzat hartutakoenetan.

Euskal Kultur Ondarearen Legeak era honetako txostenak egiteko ahalmena foru diputazioei uzten die, eta beraz beren kultura sailek berrantolatatu behar dituzte aipatutako legeak ematen dizkien ahalmenak aurrera eramateko.

Arartekoaren ustez, txostena osatu eta jakinarazteko Kulturako Foru Sailak izan zuen atzerapena —izan ere interesatuak ez bait zuen jaso 1991ko martxoaren 4 arte, proiektuaren zuzenketa aurkeztu eta handik bost hilabete t'erdi geroagorarte— ezin zen neurrigabekotzat jo. Guzti hori ulertu behar da Euskal Kultur Ondarearen 7/90 Legearen onarketaren eta legearen ondoriozko ahalmen banaketaren testuinguruan, ordurarte Eusko Jaurlaritzak gestionatzen zituenak; edonola, lege baten tramitazio oso luzea izaten denez, Bizkaiko Foru Aldundiak eta bertako Kultura Sailak aldez au-

retik bazekiten zein ahalmen transferitu behar zitzaizkien, eta beraz, eta hiritar guztien onerako, antolaketa prebisioetan eta transferitutako zerbitzu berrien egituratzean eraginkortasun handiagoa espero zitekeen.

Arrazoi politikoengatik hondamen aitortpenerako espediente bat geldierazteaz (42/91)

Alegatzaileak Arartekoarengana jo eta planteatu zuen Gasteizko Udala Plan Orokorrean gorputz nagusian fatxada derrigorrez kontserbatu eta beregokitze-berrerratzeko katalogatutako berea zen etxebizitza baten hondamena aitortzeko espedientea atzeratzen ari zela.

Arartekoa Udalari zuzendu zitzaion espedientearen atzeratzearen arrazoiak ezagutzera eman zitzaiz. Alkateak erantzun bezala txosten tekniko bat bidali zuen, eta bertan esaten zen errepediearen tajuketaren aldaketa aztertzen ari zirela, horrek eraikinari eragingo ziola, eta eraikina katalogotik kentzen zen ala ez ikusteke zegoela; arazo hauei erizpide politikoekin irtenbide bat ematen ez zitzaaien bitartean, hondamen aitortpenaren espedientearen tramitazioa etenda geratzen zela.

Arartekoaren ustez Udalaren erantzuna ez zen egokia, eta berriro Alkatearengana jo zuen hondamen espedientea erizpide politikoak hartu zain ezin zela atzeratu, ekintza arautu bat zelako, Hirigintza Diziplinako Araudian arautua, eta hondamen aitortzeko behar bezalako arrazoiak egonez gero, hori sei hilabeteko epean burutu behar zela.

Azkenik, Gasteizko Udalak onartu zuen Arartekoaren gomendioa, eta dekretu bidez eraikina hondamen egoeran aitortu zuen, erauzketa proiektua aurkeztu ondoren bere erauzketa aginduz, eta katalogatutako eraikina zenez, eraikin nagusiaren fatxada, iparraldekoa salbu, eta behe solairudun ondoko beste bati lotutako eraikinaren egitura kontserbatuko zela ziurtatu zuen.

Hirigintz lizentziak ematea eta udal agintarien interes pertsonalak (83/91)

Lazkaoko emakume batek bere kexa idazkian adierazten zuenez, Udalak zilegizkoa ez zen lizentzia bat eman zuen pabilioi batzuk eraikitzekeko poligono batean, lizentzia jasotzen zuen lursailaren jabea alkatearen familia izanik.

Arartekoak Udal horretara jo eta lizentzia espedientearen kopia eskatu zuen; gainera, Udalaren oraingo alkatearekin bildu zen, garai hartan Hirigintz Argibide Batzordeko buru izan bait zen.

Arartekoak azterketa juridiko sakon bat egin zuen, eta horrela honako ondorioetara iritsi zen:

— Industri lantokiak eraikitzeke hirigintz lizentzia ez zen zilegizkoa, ez zuelako 1964ko Hiri Antolakuntzarako Plangintza Orokorrean ezarritakoa betetzen, eta hirigintz ekinbide moduan poligono osoa hartu ordez, halako lursail jakin baten lurraren borondatezko bersailkapenean babesten zelako.

Kontutan hartzen zen, halaber, arau subsidiarioak berrikitan onartzean, planeamenduak babes legala ematen ziela industri eraikuntzei.

— Arartekoaren eritziz alkateak ez zeukan inolako erantzunkizun penalik, zeren eta, lizentzia jasotako lurak bere emaztearen familiarenak izanda ere, eta, gainera, berak lizentzia ematearen aldeko botua eman arren Udalaren Aginte Batzarrean, eta, baita ere, lursailaren jabeen eta promotorearen arteko hirigintz hitzarmena izenpetu zuen arren, alkatearen botua ez zelako erabakiorra izan lizentzia ematerakoan, akordio hori hartzean talde politiko guztiak ados egon zirenez gero. Bestalde, onartutako hirigintz probetxamenduak ez zuen gainditzen gerora arau subsidiarioek hiriko industri lurretako gainontzeko zonetarako zehaztu zutena.

Azkenik, Arartekoak alkatearengana jo, eta gogorarazi zion udal agintariak uneoro gizalegez jokatzera behartuta daudela, eta, beraz, interes publikoekin gatazkan egon daitezkeen interes partikularrak baztertu behar dituztela, gaizki ulertzeko arriskua duen egoerarik edota interes publikoen gestioan zintzotasun faltarik egon ez dadin.

Balio historiko kulturala zeukan zubi bat bota dutela salatzen dute (93/91)

Confederacion Hidrografica del Norte delakoak Deba ibaia eta Kilimon ibaiadarra Mendaroko Garagartza auzoaren parean bideratzeko egina zeukan proiektuaren barruan, San Antonio zubia botatzea sartuta zegoen, eta horren aurrean, San Antonio Zubiaren Aldeko Batzordeak kexa idazki bat bidali zuen, zubi horrek balio historiko kultural handia zuela, Mendaroko harmarrian agertzeraino bezain handia eduki ere, aditzera emanaz.

Erakunde honek Eusko Jaurlaritzaren Kultur Sailera jo, eta han adierazi zitzaion zubia ez zegoela interes kulturalako ondasunen artean sailkatuturik, eta, hortaz, arazorik ez zegoela botatzeko; hala ere, zubia eraikitzeo teknikei buruzko ikerlana eta jatorrizko eraikuntzaren eta izandako berrikuntza lanen datazioa ere egitea eskatzen zuen.

Beste iturri batzutara ere jo genuen argitasun bila, eta haiek adierazi zigutenez, karlistaden garaitik ba omen zen zubi bat ibaiaren alde horretan, baina jatorrizko egurrezko egituratik zutabe baten euskarria baino ez omen zen geratzen, porlanezko gilorde batez estalita, gainera.

Erakunde honek Mendaroko Udalera ere jo zuen; honek obrak burutzearen aldeko txostena egin zuen, haren ustez etorkizunean herrian uholdeak gertatzeko arriskua gutxitzen zuelakoan. Azkenik, Confederacion Hidrografica de Aguas del Norte delakoari ere galde egin zitzaion, eta honek aditzera eman zuenez, aipatutako obrak ezinbestekoak ziren, 1953an, 1983an eta beste urte batzuetan izandako uholdeak berriz gerta ez zitezen, haien eraginez Garagartza auzoak ia urpean geratu eta kalte handiak jasan bait zituen.

Erakunde honek eskuratutako argitasunen arabera, eurite handiekin Deba ibaiko urak handi etortzen dira, eta Kilimon ibaiadarretik datorren urari bidea ixten diote; hori errebuelta bat dagoen alderdi batean gertatzen

denez gero, arazoak pilatu egiten dira, Kilimoneko urak, Deba ibaira atera ezinik, zingira osatu eta urpean ezartzen dutelako Garagartza auzoa.

Arazoa konpontzeko, Confederacion Hidrografica del Norte delakoak Kilimon ibaiaren ahoa Deba ibaiko beste leku zuzenago batera aldatu nahi zuen, metro batzuk beherago, alegia, baina orduan beste arazo bat sortzen zen: hots, zubiko begiak ez zirela bi ibaien ur etorriari bide emateko bezain zabalak, eta, horrela, zubiko hiru oin edo zutabeak kendu behar ziren, handi samarrak zirelako, bai eta zubiko gorputza bera ere, uholdeetan presa baten antzera jokatzen bait zuen.

Arartekoa bera joan zen Mendarora zubia eta ibaia bideratzeko lanak begiz aztertzeko eta administrazio bakoitzak egindako txostenen edukiaz ziurtatzeko, eta, azkenik, honako gomendioa eman zuen:

“Confederacion Hidrografica de Aguas del Norte deritzanak eskaini duen irtenbideak ibai bideari oztopo bat kentzen dionez gero, San Anton zubia alegia, ibaiko urei etorria errazten die, eta, horren medioz, nolabaiteko berme bat ematen du etorkizunean gerta litezkeen uholdeen aurrean. Era horretako uholderik ez gertatzeko eta bi ibaien bategitea konpontzeko, baliteke bestelako irtenbiderik ere egotea, injenieritza hidraulikoak gure egunotan lortu duen maila handiari eskerrak, baina Ararteko honek ez du horren berririk.

Beste alde batetik, jokoan dauden ondasunak ere hartu behar dira kontutan: alde batetik, Mendarorentzat historia duen zubi baten iraupena; eta bestetik, Deba ibaia handi datorrenean gertatzen diren kalte handiak sortzen laguntzen duen oztopo bat kentzea.

Hau guztiagatik, Ararteko honen eritziz, Deba eta Kilimon ibaietako ur handiei aurre egiteko proiektuaren barruan Mendaroko San Anton zubia botatzeko asmoa ez da Administrazioaren aginte-gehiegikeria edo zabarkeria.”

Aldi baterako utzitako etxebizitza berehala husteko eskatzen dio Udalak (160/91)

Errenteriako biztanle bat kexu zen bere etxebizitzan halako arazo bat zeukalako Udalaren erruz.

Bere idazkiak zioen 1980. urtean bere etxebizitzatik alde egin behar izan zuela etxea hondamenditzat eman zutelako. Errenteriako Udalak 1980ko ekainaren 20an erabaki zuen udal etxebizitza bat erabiltzen uztea 10 urtez gehienez ere, bere etxebizitzaren jabetza Udalaren esku uztearen truke, eta halaxe izenpetu zen hitzarmen bat baldintza horiekin. Ezarritako epea igaro zenean, Udalaren aginte-batzarrak, 1990eko martxoaren 16ko bilkuran, etxebizitza berbera 1991ko uztailearen 4ean uztekotan ematea erabaki zuen, eta halaxe jaso zen izenpetu zuten hitzarmenean. Azkenik, kexadunak azaltzen zuen epe berria amaitu baino lehenago Udalak etxebizitza hura berehala husteko eskatu ziola, zenbait mantenu lan egin behar zirelako argudiatuz.

Azaldutako agiri guztiak aztertu ondoren, Arartekoak baieztu zuen kexadunak eskubidea zuela esandako etxebizitza horretan uztailaren 4ra arte geratzeko —kexua otsailean jaso zen—, data horretan hustu behar bait zuen, hitzarmeneko 4. baldintzan jasota zegoen bezala, non eta haren jabeak, Errenteriako Udalak alegia, ematen ez zion bertan jarraitzeko baimena.

Hitzarmenean jasota zegoen etxebizitza erabiltzeko baimena luza zitekeela bi alderdiak ados egonez gero. Baina haietako baten (jabearen) alde tik horrelako asmorik ez izanik, eta baimena luzateko idatzizko akordiorik ez zegoelarik, kexadunak alde egin behar zuen bizi zen etxebizitzatik.

Etxebizitzarekin gertatuko zenari dagokionez, Erakunde honek eskatu zion txostenean, Errenteriako Udalak aditzera eman zuen horretan eta Udalaren beste bost etxebizitza gehiagotan eraberritzeko obrak egingo zirela, eta horretarako lankidetzarako hitzarmena izenpetua zutela Udalak eta Eusko Jaurlaritzaren Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak. Orobat, jakinerazten zuen komenio horretako 5.1 baldintzaren arabera, eraberritutako etxebizitzak sustapen publikoko eta babes ofizialeko etxeak izango zirela, eta eraberritu ondoren errentan utziko zirela. Gainera, 6. baldintzaren arabera, etxebizitza horien adjudikazioa alor honetan indarrean dagoen arautegiari jarraituz egingo zen.

Esandako guztiaren ildotik, Ararteko honek gomendatu zion kexadunari etxebizitza horietako bat erabiltzeko eskea egin zezakeela; nolahi ere, eskari hori, gainerako guztiak bezala, ezarritako baremuaren arabera baloratuko zen, zeren eta etxebizitzaren adjudikazioa baremuaren arabera ateratako zerrendako ordenuari jarraituz egingo bait zen.

Bestalde, uztailaren 4tik aurrera aurkitzen zuen arazoari dagokionez, eta jakinik Udalak beste etxebizitza baten parte bat betetzeko aukera eskaini ziola, eskaintza onartzeko gomendatu zitzaion, edota bestela beste etxebizitza bat bilatzen saiatzeko, eta dirulaguntza behar izanez gero, Udalaren Gizarte Ongizate Zerbitzura jo zezala, han bere eskaria aztertuko bait zen.

Aparkaleku plaza berri batzutarako sarbidea eraikitzeaz eta birzatiketa proiektu batek eragindako jabego pribatu batez (296/91)

Alegatzaileak zioen Elgoibarko Udalak sustapen pribatuko hirigintza proiektu bat onartu zuela, eraikuntza baten azpikalderako errepide bat eraikitzeko, azpi horiek aparkaleku bihurtzeko, eta horretarako kexadunarenak ziren lur batzuk igaro behar zirela eta zona berde bat desagertu.

Erakundearen ordezkariak bi aldiz joan ziren salatutako lekura, eta alegatzailearekin eta Elgoibarko Udaletxeko teknikoekin bilerak egin zituzten, eta gainera kexari zegokion eta han zegoen dokumentazioa aztertu zuten.

Auziaren oinarria hau zen: Elgoibarko 32. Poligonoaren Birzatiketa Proiektua 1967an onartu zen behin-betiko, baina ez zen ez eskritura publikoan formalizatu, ez eta Jabegoaren Erregistroan inskribitu ere bidezkoa zen bezala. Geroztik, lurraren jabegoari eragiten zieten aspektu zibilak eta administratiboak banaturik geratu ziren.

Oraintsu, Elgoibarko Udalak aparkaleku berrietarako sarbidea urbanizatzekeo proiektua tramitatu eta onartu zuen, eta kexadunak hori jartzen

zuen zalantzan, bai maila teknikoan eta baita lurraren jabego eta titularitatean ere.

Arartekoak bere gomendioan hau gogorarazten zion Udalari, alegia, ezin zuela baieztatu hirigintza proiektuak eragindako zona jabego publikoarena zenik. Alde batetik, bere garaian tramitatu zen birzatiketa proiektuak 1.006/1966 Dekretuko baldintza batzuk ez zituen bete, zeinaren arabera onartzen bait zen Birzatiketen Araudia, batez ere notaketa marginal eta behin-betirako Jabego Araudian inskribatzearekin erlazionatutako mailetan.

Eta bestetik, 32. Poligonoaren Antolamendu eta Hirigintzarako Plan Partziala aztertu ondoren, ez zegoen garbi aparkaleku plaza berrietarako sarbidearen urbanizazio proiektuak bere mende hartuko zituen lurak bide izateko edo beste erabilera publiko batzutarako erabiliko zirenik. Eta beraz interpretazio hau egin zitekeen: lur hori, birzatiketa proiektuaren ondorioz, lur sobrante ez eraikia izan zitekeela, bere aprobetxamendu agortuarekin, baina jabego pribatua duena.

Azkenik, Arartekoak gomendatzen zion Elgoibarko Udalari "lurren titulartasunari buruzko ikerketa eta estudio prozesu bat hasi zezala, 1991ko apirilaren 11ko udal akordioan jasotako baieztapen batzuk baldintzatzen dituzten datuak daudelako, eta lurraren titulartasuna publikoa dela uste dugulako, eta ikerketa horren emaitzak guri igortzea eskatzen dizugu."

Bestalde, alegatzaileari jakinarazten zitzaion Udalak onartutako hirigintza proiektu bat zegoen arren, sustapena pribatua zela, eta beraz zuzenbidean aditua zen norbaitengana jotzeko behar bezala asesora zezan, eta bere eskubideak hirigintza proiektua sustatzen zutenaren parean defendatzeko eta babesteko ekintza zibil egokiak gauzatu ahal izateko.

Babes ofizialeko etxebizitza batzuk banatzeko jarraitutako prozeduraz (369/91)

Arrigorriagako biztanle batzuk bidalitako kexa idatzian, herri horretan babes ofizialeko etxebizitza batzuk banatzeko jarraitu zen prozedura salatzzen zuten.

Erreklamatazaileek, behin-behineko adjudikazio zerrendan 235 punturekin etxebizitza baten adjudikatario bezala azaltzen zirela zioten. Halere, behin-betiko zerrendatik kanpo geratu ziren, behin-behineko zerrendan 205 punturekin eta behin-betikoan 244 punturekin geratu zen beste bati eman zitzaiolako etxebizitza.

Erreklamatazaileek eskuratu ziguten dokumentazio ugariarekin ikusi zen kexadunak gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu zuela Bizkaiko Etxebizitza Saileko Lurralde Delegatu Jaunaren ebazpenaren kontra, zeinetan onartzen bait ziren behin-behineko zerrendak. Erreklamazio honen arrazoia hau xe zen: Eusko Jaurlaritzako Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailaren 1988ko maiatzaren 6ko Aginduan, sustapen publikodun babes ofizialeko etxebizitzaren adjudikazioari buruzkoan xedatutakoaren arabera, baremoa ez zitzaiola onena izango zitzaion egoeraren arabera ezarri, eta kasu honetan zen "birzatiketa espediente pean zegoen etxe batean bizitzea, Lanbidearte-ko Gutxienezko Soldataren (LGS) 0,4 baino gutxiagoko indemnizazioare-

kin", eta horregatik 100 puntu zegozkion. Eta aldiz, baremorako kontutan hartu zitzaion egoera bestelakoa zen, "senitartekoekin batera bizitzea familia gune bat baino gehiago osatuz", eta honegatik, hasieran, 65 puntu eman zizkioten.

Aipaturiko alegazioa zela eta, errekurtsua onartu eta azkenean 244 puntu eman zitzaizkion.

Zentzu honetan, Eusko Jaurlaritzako Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailaren Aginduan, zeinaren arabera onartzen bait zen gora jotzeko errekurtsua aintzat hartzea, etxebizitza premiaren egoera onartzen zen LGSren 0,4 baino gutxiagoko indemnizazioarekin birzatiketa espedientearen zegoelako, eta 100 puntu ematen zitzaizkion, baina ebazpenean emate horren arrazoiak ez ziren aipatzen.

Kexadunari eragin zion 2. Hirigintza Iharduera Unitatearen birzatiketa espedientea 1988an amaitu zen, eta aldiz, Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailburuaren Agindua, etxebizitza sozialak adjudikatzeko espedientea irekirik, 1990eko apirilaren 10ekoa zen, hau da, bi urte geroagokoa.

Sustapen publikoko babes ofizialdun etxebizitzaren adjudikazioari buruzko 1988ko maiatzaren 6ko Agindua hitzez-hitzez interpretatuz, Ararteko honen eritzia zen agindu horretan eskatzen ziren baldintzak Arrigorriagako Udalaren aurrean eskaria aurkezteko unean hartu behar zirela aintzat, eta beraz agian "senitartekoekin batera familia gune bat baino gehiago osatuz" bizitzea aintzat hartzekoa zen, kexadunak lehen unean eskarian sartu zuen zirkunstantzia hain zuzen.

Ararteko honek gogoeta hauek Eusko Jaurlaritzako Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailburuari igorri zizkion.

Sail horretatik bidali zitzaigun erantzunean, puntuazioa definitzeko orduan hutsegite material bat egin zutela aitortzen zen. Errekurrizailari 100 puntu izendatu zitzaizkion ustez LGSren 0,4 baino gutxiagoko indemnizazio baten pean zegoen birzatiketa espedienteak eragindako etxebizitza premia bategatik; eta egiaz, 1988ko maiatzaren 6ko Aginduko II Eraskinaren arabera baloratu beharreko baldintza beste bat zen, alegia, eskatzailearen familia konposaketarentzat desegokia zen azaleradun etxebizitza batean egotea, zehazkiago pertsona bakoitzeko 8 m² erabilgarri edo gutxiagokoa, eta gutxienez 5ekoa. Kontzeptu honegatik eskatzaileari zegokion puntuaketa 100 punturainokoa zen.

Guzti honetatik eratortzen zen beraz, puntuaketa definitzeko orduan hutsegite material bat egon zela, baina halere puntuaketa ez zela aldatzen, eskaria egiteko unean kexadunak bai betetzen zuen familia konposaketarentzat desegokia zen azaleradun etxebizitzaren baldintza, eta beraz behin-betiko zerrendako ordena ere ez zen aldatzen.

Errotaburun —Donostia— etxebizitza sozialen adjudikazio eta sustapenaz (589/91)

Errotaburuko etxebizitzaren adjudikatario batzordeak Arartekoarengana jo zuen Donostiako Udalak eta Errotaburu S.A. kontzesionariak Errotabu-

ruko etxebizitza sozialen sustapen, eraikuntza eta kontzesio bidezko salmentan izandako jarrera salatzeke.

Kexan desadostasun puntu hauek aipatzen zituzten:

“Ordaindu beharreko gehienezko kantitatearen %4ko errekar-goa eskatzen ari dira, zein ezingo den %20 baino gehiago izan, kontratua sinatu aurretik, eta honekin, legeak ezarritako gehienezko muga gaindituta geratuko litzateke.

Garajea etxebizitzari lotu nahi zaio, eta beraz, bere erosketa derrigorrezkoa egin.

Garajearen prezioari ezarri lekiokkeen modulua 1989koa izan behar du, eta ez 1990ekoa.

Errotaburu S.A. kontzesionaria ez da argi jokutzen ari, eta etxebizitzaren onuradunek eskatzen dizkioten informazio guztiak ez ditu eskuratzen”.

Erakunde honek harremaneta jarri zen Donostiako Udaleko Etxebizitzaren Patronatoko eta Errotaburu S.A. kontzesionariaren enpresa adjudikatario ordezkariekin, eta baita Errotaburuko etxebizitzaren adjukikatarioen batzordearekin, arazoa gertutik aztertu eta informazio zuzena eta osoagoa lortzeko.

Arartekoak ikusi zuenez, kexaren gakoa Udalaren akordioen eta enpresa adjudikatarioaren arteko zenbait kontraesanetan zegoen, hala nola: udal gorporazioaren aldetik Errotaburuko Plan Partzialaren adjudikaziorako lehiaketa baldintzen onarketa, adjudikatarioek aurkeztutako eskaintza ekonomikoa, lehiaketa adjudikatzen zuen udal akordioa, eta Udalak Errotaburu S.A.-ren aldeko adjudikazioa formalizatzen zuen kontratua.

Harridura sortarazi zuen beste arazo bat Eusko Jaurlaritzaren 166/1990 Dekretoa zen, etxebizitza gaietarako neurri finantziariei zegokiena, eta Dekretoa argitaratu aurretik hartutako konpromezuei, Errotabururen sustapenari beraz, zein neurritan eragiten zien argitzen zuen behin-behineko xedapenik jasotzen ez zuen Dekretoa. Etxebizitza Zuzendaritzaren Zirkularren aldetik egon zen emendakin ahalegin bat, apirilaren 25eko 2/1991 zenbakiduna, Dekretuak ahaztutakoa zuzentzen ahalegintzeko eta behin-behineko egoera hauek konpontzeko, baina zirkular honek oraindik arazo gehiago sortu zituen arau hierarkiaren printzipioa hautsi zuelako.

Bien bitartean, Errotaburu S.A. egingo ziren etxebizitzaren jabeak zituzten ari zen salerosketa kontratuak sinatzeko, ordainketarako bi modu ezberdin eskainiz, eta bietako batean aipatutako %4ko errekar-goa exijitzen zuten finantz gastuen ordainetan.

Arartekoak bere diktamenean ulertzen zuen Plan Partzialaren adjudikaziorako eta etxebizitzaren jabeak hautatzeko deialdia egin zenean, oreka baldintza batzuk zeudela Eusko Jaurlaritzaren 166/90 Dekretuak aldatzen zituen alderdien artean, eta horrek, kontrato aurreko finantz oreka hau berri indarrean jartzearren, Errotaburu S.A.-ri aukera ematen zion etxebizitzaren jabeen bizkar uzteko araudi berriak zekarren %4ko finantz kostuaren zatirik handiena.

Garajeak etxebizitzari lotzeaz, eta beraz derrigorrez erosi beharraz, kontraesan nabari bat sortzen zen deialdiko oinarrien eta espedienteko beste

dokumentuen artean. Arartekoak, arazoa behar bezala kokatu nahi izan zuen, jabe gehienak ados bait zeuden garaje plaza bat erostearekin, eta Udalarekin akordio batera iritsi zen, arrazoi desberdinengatik (gidatzeko karnetik gabeko agureak, elbarriak, bitartekorik gabeak,...) garaje plaza erostea interesatzen ez zitzaientzat hori traba bat izan ez zedin, eta garaje plaza etxebizitzarekin batera erosteko derrigortasuna ez ezartzeko.

Bazegoen baita ere beste arazo bat: garajearen salneurria erabakiko zuen modulua 1989koa izan behar zen ala 1990ekoa. Behin eta berriz, txosten ezberdinen arteko kontraesanek ez zuten inolako soluziorik ematen, alderantziz, ilundu egiten zuten. Hau izan zen Arartekoaren interpretazioa: Errotaburu S.A. eta Donostiako Udalaren arteko kontratuaren edukia zela nagusi, eta beraz, ezarri beharreko modulua, 1990ekoa izan behar zela. Interpretazio hau arrazoitzeko bazegoen beste puntu bat ere, etxebizitzei ezartzen zitzaien modulua 1990ekoa zela, eta horrela, bi kasuetan ezarri beharreko urteko moduluaren koherentzia lortzen zen.

Arartekoak, Donostiako Udalari aholku bat emanaz amaitzen zuen bere diktamena: "aurrerantzean, burutzen dituen tramite eta prozesuei ardura gehiago eskaintzeko, eta publizitate, gardentasun eta informazioaren eskuragarritasun erizpideak nagusi daitezela beti etxebizitzaren jabeen, Errotaburu S.A.-ren eta Udalaren arteko harremanetan".

Azkenik, Arartekoak zioen, etxebizitzaren salerosketa kontratuak Eusko Jaurlaritzako Etxebizitzaren Zuzendaritzak ikuskatu gabe zeudenez, kontratu horiek jaso beharko zituzketela administrazio autonomikoak finka zitzakeen aldaketa eta zehaztasunak.

Zilegizkoa ez zen etxebizitza bat bota eta bizilagunak etxea uztera ukatzeaz (624/91)

Vitoria-Gasteizko senar-emazte batzuek Arartekoari azaldu zioten Udalak beren familiarekin batera bizi ziren etxea bota nahi zuela.

Kexadunek ziotenez, urbanizatu ezinezko lurretan sail txiki bat eta nekazaritzarako pabilioi desmuntagarri txiki bat erosi zituzten aspaldi. Beren lursailean pabilioi aurrefabrikatua atondu, eta etxebizitza izateko moldatu zuten.

Hura legeztatzeko ahaleginak egin zituzten arren, ez zuten horrelakorik lortu; Udalak, bere aldetik, bizilagunek etxea botatzeko tramitea hasi zuen, eta haiek egiten ez zutenez gero, ohartu zien etxea botatzeko lanak berehala hasteko kontratazioa egingo zuela Administrazioak berak.

Erakunde honek Vitoria-Gasteizko Udalera jo zuen hirigintzaren alorreko lege-hauste nabarmen horrek planteatzen zuen arazo larriari halako irtenbideren bat emateko. Zeuden aukeren artean, etxebizitza bota ondoren, eta zerbait iraunkorragoa aurkitu arte, bizitzeko balioko zien beste behin-behineko etxebizitza bat bilatzeko aukera aztertu zen. Nolanahi ere, saioak ez zuen inolako ondorioz eduki, eta espedientea artxibatu egin zen Udalak, Hirigintz Diziplinazren Arautegiak iragarritakoa beteaz, etxebizitza botatzeari ekin zionean.

3.13. ERA GUZTIETAKO GESTIOAK

A) Sarrera

Atal honetan sartu ditu beren mamiagatik gainerako ataletan sartu ezin diren kekek. Guztira 53 izan dira, alegia, aurkeztu diren guztietatik %6,9a.

Batzuetan, kebaren beraren edukiagatik, eta dagokion administrazio saila Arartekoaren bitartekotza onartzeko prest egotean, Erakunde hau sortu eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/85 Legean iragarritako jarduerasparrutik kanpo lan egitera iritsi da.

Atal hau osatzen duten kekek, beren sailkapenari begira, hondarrekoak badira ere, beren jatorriak ongi erakusten digu beren edukiagatik beste ataletan sartuta dauden beste keketatik apartekoak ez direla. Horrela, ikusten dugu arazo batzuk ez lirakeela funtsean hala izan beharko, baina haiek eragin zituzten motibuak guztiz ezohizkoak izanda, zaila zen administrazio prozedura jakin batean edo bestean sartzea. Beste batzuetan, aldiz, halako arau bati buruzko irakurketa estua zuzentasun erizpide batetik egin zitezkeen beste irakurketa baten gainera egotea izan da kexa eragin duena. Beraz, gainerako ataletan biltzen diren kexa askotan ere aurki daitezkeen motibuak dauzkaten kekek dira hemengo hauek.

B) Kexen aukeraketa

Ezarritako legezko epea bukatu ondoren, Ordiziako Udalari erantzunkizun zibila eskatzeaz (280/89)

Ordiziako emakume batek idazki bat bidali zuen Erakunde honetara, Udalaren galdi batek harrapatua izan ondoren, hanka bat moztu beharrean gertatu zela, eta istripuagatik inolako kalteordainik jaso ez zuela salatzeke.

Kexadunak 52 urte zituen, eta, esan bezala, 1941ean gertaturiko istripu horrengatik hanka moztu behar izan zioten. Bere idazkian zioen bezala, udalbatzar ezberdinek ez zioten erantzun egokirik eman bere eskariari, baina hala ere ez zuen etsitzen nolabaiteko kalteordainen bat jasotzeko ahaleginetan.

Argitasunak eskatu eta zegoen dokumentazio guztia aztertu ondoren, Ararteko honek honako hau ebatzi zuen: indarrean dagoen Arautegi Zibilak erantzunkizun zibila eskatzen denerako duen 1.968 artikuluan adierazitako epea igarota egonda, nahiz eta Ordiziako Udala legez behartuta ez egon inolaz ere kexadunari kalteordainik ematera, komenigarria zen, ordea, arrazoi etikoengatik izan ere, lagunarteko konponbideren bat aurkitzea auziari.

Erakunde honek izkribu batez jakinerazi zion Ordiziako Udalari bere eritzia, eta zenbait gestio egin zituen, ahoz eta idatziz, kaltetunari nolabaiteko ordaina lortu ahal izateko.

Ordiziako Udalak, hasieran uzkur agertu arren arazoari konponbideren bat emateko, bere eritzia aldatu, eta 1991eko apirilaren 30ean emandako

0273 zenbakiko Alkatetzaren Dekretu bidez erreklamatzailerari 500.000 pezetako dirulaguntza galduan ematea erabaki zuen.

Egoera kafkiano bat (356/90)

Kasu honetako kexaduna gerrate zibila bitartean SESBera bidalia izan zen eta han bizi ia berrogei urtez, 1973ko maiatzean berriz ere Espainiara itzuli ahal izan zen arte. Handik hilabetera, Gipuzkoako Gobernu Zibilak Nortasun Agiri Nazionala luzatu zien familikide guztiei, hau da, kexadunari berari, emazteari eta beren bi umei.

Urte batzuk beranduago, umeetako batek ezkontzea erabaki zuenean, han non ikusi zuen familiaren egoera juridikoa ez zutela onartzen agintariek, ustez arazoak zeudelako SESBen eginiko ezkontza legeztatzeko. Horiek horrela, kexaduna eta bere emazteak berriz ezkontzeko erabakia hartu, eta halaxe egin ere egin zuten Tolosako Auzitegian. Hala eta guztiz ere, umeek ez zuten jaiotze-agirien inskribapena lortzerik izan.

Jaiotze-agirien inguruko arazoa konpondu zen, aholkulari egokien birtartez, Madrilgo Errolda Zibil Nagusira jo eta oztoporik gabe inskribatu ahal izan zutenean. Ondoren Famili Liburua eskuratu zieten, eta hartara familiaren egoera juridikoa konponduta geratu zen.

Handik urte batzutara, ordea, kexadunaren emazteari, Soya (izena) Vasilevna (aitaren aldeko izena) Besrukova (deitura) andreari, NANA berritzea ukatu zioten bigarren deiturarik ez edukitzeagatik. Madrilgo Errolda Zibil Nagusira azaldu eta gero, han jakinerazi zieten emaztearen hiritartasunaren arazoa lehen ezkontza, Moskun 1945ean ospatutakoa, erroldaratu konponduko zela. Erroldan sartzearekin batera eskuratuko zuen hiritartasuna; aldiz, bigarren ezkontza, Tolosan 1980ean ospatua, arautegi ezberdin baten menpe egongo zen, eta askoz traba gehiago izango zituen.

Lehen-lehenik, beraz, bigarren ezkontza baliogabetu beharra zegoen, baina Madrilgo Errolda Zibil Nagusiaren arabera, ezkontza hura baliogabetzeko hartu behar zuten bidea munta txikikoa izanik, sei hilabete behar zituen. Pertsona bati NANA lortzeko sei hilabete itxaron erazteak zentzurik ez duenez gero, batez ere lehendik lortua zuela kontutan harturik, kontrako bidea hartzea erabaki zuten, alegia, lehen ezkontza erroldaratu eta bigarrena baliogabetzeko ahaleginekin jarraitu.

Gaur egun, kexaduna eta bere familia Espainiaratu zirela hamazortzi urte igaro ondoren, haien agiri guztiak behar bezala daude. Lehen ezkontza inskribaturik dago Madrilgo Errolda Zibil Nagusian, eta, ondorioz, kexadunaren emazteak espainiartasuna eta NANA lortu ahal izan ditu. Bigarren ezkontzaren baliogabetezari dagokionez, Errolda Zibil Nagusiak Tolosako Auzitegiari bidali zion espediente, eta honek Fiskalgoari, eta hauxe da ofizioz auzi honetan parte lan egiten ari dena, horrenbestez espero delarik behar bezala konponduko dela.

Joan den 1990eko urriaren 28ko hauteskunde autonomikoetan irregulartasunak gertatu direla salatzen du (530/90)

Emakume batek kexu idazki bat bidali zuen, joan den 1990eko urriaren 28ko hauteskunde autonomikoetan ustez irregulartasunak gertatu zirela salatzeko. Kexadunak zioen alderdi politikoeek hiritarren etxebizitzetara bidalitako botu-azalen artetik bi gutxienez gainerako guztiak eta bozketa lekuan ematen zirenak ez bezalakoak zirela. Kexadunak hiru botu-azal ere erantsi zituen, denak balioduntzat emanak, desberdintasun nabariak eta ikusgarriak erakusten zituztenak.

Arartekoaren eritziz, kexadunak arrazoia zeukan, zeren eta Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak araupetzen dituen ekainaren 15eko 5/90 Legearen 115 d) artikulua araberara, botoak baliogabekoak dira "azalak ezagutzeko moduko ikurrak edo zeinuak baldin badituzte"; ondorioz, idazki bat bidali zion Euskal Autonomi Komunitateko Hauteskunde Batzarraren Buruari antzeko beste erreklamaziorik egin ote zen, eta, hala izanez gero, horren inguruan zer nolako erabakia hartu zen jakiteko.

Organismo horrek bidalitako adierazpenaren arabera, Eusko Legebiltzarrerako hauteskunde bidez buruzko Legearen 88.1 artikuluari jarraituz, Eusko Jaurlaritzak uztailaren 24ko 201/1990 dekretuz zehaztu zuen zein izango ziren bozketarako paper eta azalen eredu ofiziala eta bere ezaugarriak. Artikulu horretan 2. zatia araberara, Lurralde Historiko bakoitzeko Hauteskunde Batzarrari dagokio botu-paperen eredu ofiziala onartzea, bai eta alderdi politikoei egindako botu-paper eta azalek Eusko Jaurlaritzak finkatutako eredu ofizialari jarraitzen diotela egiaztatzea ere.

Hala eta guztiz ere, txostenean esaten zen bezala, Eusko Jaurlaritzaren Hauteskunde Prozesuen Zuzendariaren bidez Batzarrak jakin zuen Eusko Jaurlaritzak bozketarako bi botu-azal moeta jarri zituela Lurralde Historikoetako Hauteskunde Batzarren esku, eta biak onartu zituztela Batzar horiek. Txosten horretan esaten zen, baita ere, Jaurlaritzak eskatu zuela Lurralde Historikoetako Hauteskunde Batzarrek onartutako botu-azalak guztiz baliozkoak zirela jakinerazteko hauteskunde mahaiei.

Idazkiak jarraitzen zuen bezala, eskari hori betetzeari ekin bazitzaion ere, geroago Euskadiko Ezkerraren ordezkari orokor baten izkribua jaso zen, berau ere arazo berberaren inguruko irregulartasunak gertatu zirela salatzen zuena. Hori guztiagatik, Euskal Autonomi Komunitateko Hauteskunde Batzarrak honako akordio hau hartu zuen:

"Euskadiko Ezkerraren ordezkari orokorraren izkribua Eusko Jaurlaritzari igortzea, Hauteskunde Prozesuen Zuzendaritzaren bitartez.

Horrekin batera, Batzar honek Eusko Jaurlaritzari gomendatzen dio bozketarako azaletan eredu bateratua lortzeko behar diren neurriak har daitezela".

Guzti honen berri kexadunari eman, eta, akordio hori benetan gauzatu gero etorkizuneko hauteskundeetan kexu hau eragin zuena bezalako egoerarik ez dela gertatuko eritza, espedientea artxibatu egin zen.

IV. ATALA

ESTATISTIKA

4.1. OHAR OROKORRAK

1991ko hamabi hilabeteak bitartean, 3.243 izkribu eta agiri jaso ziren Ararteko Erakundearen, eta, bestalde, Erakundeak berak beste 3.353 izkribu bidali dizkie bai Administrazio desberdinei eta bai hiritarrei, Erakundearen sarrera eta irteera erregistroan jasotako mugimenduek erakusten duten bezala.

Aurtengo datuak 1990ekoekin alderatuz gero, ikusten da administrazio publikoetatik bezala hiritarrendantik iritsitako izkribuak gehitu egin direla, % 21ean hain zuzen ere; horrek erakusten du Arartekoa apurka-apurka finkatuz doala antolakuntza bezala, gero eta gehiago azaltzen dela gizarteko maila guztietan eta, batzuetan, ezinbesteko tresna dela.

	1991	1990. urtearekiko gehikuntza
Sarrerak	3.243	% 21,1
Irteerak	3.353	- % 11,7

Hil bakoitzean irten diren izkribuak, batz bestea, 270 izan dira, eta sartu direnak, aldiz, 280; batz besteko berdina samarra osatu dute urte osoan, nahiz eta udako hilabeteetan txikiagoa izan, eta urteko azken hiru hilabeteetan handiagoa.

Hilabetea	Sarrerak	Irteerak
Urtarrila	304	285
Otsaila	228	282
Martxoa	208	155
Apirila	221	191
Maiatza	313	343
Ekaina	296	330
Uztaila	263	269
Abuztua	113	182
Iraila	219	231
Urria	455	372
Azaroa	347	261
Abendua	276	352
1991. urtea	3.243	3.353

(Ikus 1 diagrama 172 orrialdean)

Jasotako kexak

1991. urtean, Euskal Erkidego Autonomoko hiritarrek, banaka zein taldeka bildurik, 769 kexa aurkeztu dizkiote guztira Arartekoari.

Kexa guztiak ez dira halakotzat kontutan hartu, zeren eta aukeraketa baten ondorioz, euskal Administrazio publikoaren kontrako 547 kexa onartu bait dira guztira. Onartu ez direnen artean, bereiztu behar dira, alde batetik, gaiarengatik Defensor del Pueblo delakoaren eskumenekoak direnak; bestetik, badira beste batzuk, hiritarraren aldeko zenbait gestio eragin dituztenak, baina planteatutako auzi motagatik espediente bat irekitzera eraman dutenak; eta, azkenik, Erakunde hau sortu eta arautu zuen otsailaren 27ko 3/85 Legeak ezarritakoaren arabera baztertu behar ziren kexak.

Jasotako kexak: 769

– Defensor del Pueblo-ri bidalitakoak	70
– Era guztietako gestioak	53
– Onartu gabeko kexak	99
– Euskal Administrazio publikoaren kontrako kexak	547

(Ikus 2 diagrama 173 orrialdean)

Arartekoaren eskumenekoak ez baizik eta Estatuko Defensor del Pueblo-ren eskumenekoak diren 70 kexekin, Estatuaren erakunde kide honekiko elkarlanaren ohizko bideei ekin zaie: hots, Arartekoak berak bidaltzen dizkio Defensor del Pueblo-ri kexa idazki horiek, bai eta kexadunari horren berri adierazi ere, hortik aurrera egin beharreko guztietarako Defensor del Pueblo-rengana jo dezan.

Joan den urtearen aldean, % 10ean gehitu da kexa espedienterik eragin ez duten era guztietako gestioen atala. Era guztietako gestio hauen artean daude Ararteko Erakundeak sail publiko ugarirekin egiten dituenak, izan ere, haiekin harreman gero eta estuagoak edukitzeko ahaleginak egiten dira, zuzeneko gestioaren bitartez irtenbidea bilatzeko edo konponbidean jartzeko hiritarraren benetako arazoak.

Onartu ez diren kexak gutxiago izan dira 1991. urtean, eta uste dugu hiritarrentzako informazio zerbitzuak egiten duen lan handiari eskerrak gertatu dela hori. Lan hori bai telefonoz, bai Erakundearen egoitzan bertan azaltzen diren hiritarrentzat zuzenean eskeintzen da. Gainera, kasu hauetan, argitasunak ematen zaizkio hiritarrari, bere eskubideen onerako zein bide den egokiena, eta bere nahia lortzeko aukera zenbateraino duen argituz. Atal honetan oso ugariak dira Administrazioarekin zerikusirik ez duten auzi pribatuak, gehienetan ezkontzari eta familiari buruzkoak, edo jabe elkarteen barruko auzoen arteko harremanei eta maizter eta nagusien arteko harremanei buruzkoak.

Onartu gabeko kexak eta arrazoiak

— Maila pribatuko kexak	28
— Auzibidera eramandako kexak	39
— Urtebetetik gora iragandakoak	2
— Aurretiaz kexabide administratiborik aurkeztu gabekoak	10
— Erakundearen eskumenetik kanpokoak	13
— Beste zenbait	7
<hr/>	
Guztira	99

(Ikus 3 eta 4 diagramak 174 eta 175 orrialdeetan)

4.2. ESTADISTIKA KONPARATUA

Atal estatistiko honen helburua Ararteko Erakundearen jarduera beste parlamentu-ordezkarien kasuekin konparatzea da.

Hemen emango diren datuak bere testuinguru egokian kokatuko baditugu, kontutan eduki beharko dugu zenbait elkarte autonomok askoz eskumen handiagoak dauzkatela besteek baino, eta, ondorioz, handiagoa dela, baita ere, haietako herri-defendatzaile autonomoaren lan esparrua; eta, jakina, Defensor del Pueblo delakoaren kasuan, eskumen eta Administrazio mailan duen lan esparrua askoz zabalagoa da besteek dutena baino.

Badira beste faktore batzuk datu estatistikoak, askotan hotzak, baldintzaten dituztenak; horra hor, esaterako, erakunde bakoitzak kexak zenbaterako erabiltzen duen modua, edo hiritarren beraiek beren eskubideak aldarrikatzerakoan erakusten duten nortasuna bera ere.

A) 1991. urtean jasotako kexak

1990. urtearen aldean, Arartekoaz gainera, bakarrik Valedor do Pobo delakoak, bere zereginetan urtealdiaren erdian hasi zenak, eta Diputado del Comun delakoak izan dute gehikuntzarik guztira jaso dituzten kexa kopurua. Esan daiteke herri-defendatzaileak erakunde gisa sustraitzen diren bezain laster, jasotzen dituzten kexen kopurua orekatzen dela; dena dela, beste zenbait arrazoiengatik, eta beste jardunbide batzuen bitartez, gero eta pisu gehiago daukate gizartean bertan, bai eta banakakoen zein taldeen arteko auzien konponketan. Horregatik, guztirako kexa kopurua ezin da neu-

rri bakarria izan, erakunde hauek eskeintzen duten zerbitzua eta betetzen duten lana epaitzeko.

Hemen ez da kontutan hartzen elkarte autonomo bakoitzak biztanle kopuru desberdina duela, eta, beraz, hemen ematen ditugun datuak guztirakoak direla, eta ez biztanleriaren arabera ponderatuak.

	Kexak
Defensor del Pueblo	25.676
Diputado del Común	2.465
Defensor del Pueblo Andaluz	1.975
Síndic de Greuges de Catalunya	1.641
Valedor do Pobo	776
Ararteko	769
Justicia de Aragón	541

(Ikus 5 diagrama 176 orrialdean)

B) 1991.ean 10.000 biztanleko jasotako kexak

Interesgarria da, era berean, 1991. urtean Arartekoak jasotako kexa kopuru ponderatua eta beste elkarte autonomoetako parlamentuek izendatutako herri-defendatzaileek jasotako kopurua alderatzea. Horretarako, 10.000 biztanleko zenbat kexa jaso dituzten ateratzen da, beti ere elkarte autonomo bakoitzeko erabateko biztanlegoa kontutan hartuz.

Erakundea	Zenbat kexa	Biztanlegoa	B.ko kexak 10.000
D.C. Canario	2.465	1.557.533	15,82
D.P. Español	25.676	39.541.497	6,49
El Justicia	541	1.196.454	4,52
Ararteko	769	2.093.712	3,67
D.P. Andaluz	1.975	7.019.285	2,81
S. Greuges	1.676	6.124.923	2,67
Valedor do Pobo	776	2.896.801	2,67

(Ikus 6 diagrama 177 orrialdean)

Goiko zenbaki horietan ageri denez, 10.000 biztanleko 3,67 kexa jaso ondoren, Arartekoa taularen erdikaldeko leku batean aurkitzen da, proportioari begiratuaz kexa gehiago jaso bait ditu Defensor del Pueblo Andaluz, Valedor do Pobo eta Síndic de Greuges direlakoek baino.

Kopuru handien artean, aipatzekoak dira Justicia de Aragón deritzana, urtez urte errepikatzen den joera batean, eta Kanarietako Diputado del Común Canario delakoa.

C) Defensor del Pueblo Erakundeak Euskal Autonomi Komunitatetik jasotako kexak

Euskal Autonomi Komunitateko biztanleek Defensor del Pueblo-ri egindako kexak, guztira, iaz baino gutxiago izan dira 1991. urtean, zehazkiago, % 11 gutxiago. Aurtun Defensor del Pueblo-k guztira jaso dituen kexen kopuruak izandako gutxitzearekin bat dator datu hori.

Honek azalduko luke, bestelako arrazoiak aztertzen hasi gabe, zergatik igo den, nahiko igo ere, EEako biztanleek Defensor del Pueblo-ri egindako kexen portzentaia 1991. urtean.

Guztira aurkeztu diren 1.032 kexetatik, % 6,7a Arartekoaren bulegoetan aurkeztu, eta Erakunde honek, Estatuko herri-defendatzailearen esku-meneko arazoak izateagatik, Defensor del Pueblo-ri bidalitakoak dira.

	1984	1985	1986	1987	1988	1989	1990	1991
Araba	109	78	89	78	61	156	104	90
Gipuzkoa	291	160	139	103	89	110	183	495
Bizkaia	435	268	298	248	224	262	882	447
E.E.A.	838	506	526	429	374	528	1.169	1.032

Defensor del Pueblo-ri aurkeztutako kexen artetik Euskal Autonomi Komunitateko biztanleek bidalitakoen portzentaia

	1984	1985	1986	1987	1988	1989	1990	1991
Estatuko	% 3,4	% 3	% 3,9	% 3,5	% 2,7	% 2,5	% 3,9	% 4

(Ikus 7 diagrama 178 orrialdean)

4.3. JASOTAKO KEXAK ADMINISTRAZIOEN ARABERA

Jaso diren kexarik gehienak, guztietatik % 43a zehazki, Eusko Jaurlaritzaren Administrazioaren aurkakoak dira; ondoan datoz udalen aurka aur-

keztutakoak, % 39,2a, eta, azkenik, kexarik gutxien eragin dituen lurreko historikoetako Administrazioa izan da, guztien artetik % 16a jaso bait du.

Hemen eskeiniko ditugun datuak hobetu ulertuko badira, estatistika atal guzti honetan honako izendapen hauek erabiliko ditugu, guztiz zuzenak ez badira ere:

– Euskal Autonomi Komunitateko Administrazio publikoa izendatzeko, “Eusko Jaurlaritzaren Administrazioa” esango dugu.

– Lurreko historikoetako Administrazio publikoa izendatzeko, “Foru Administrazioa” esango dugu.

– Udalen eta beste erakunde lokalen Administrazio publikoa izendatzeko, alde batera utzirik foru aldundien bitasuna, “Administrazio Lokala” esango dugu.

	Zenbat	%
– Eusko Jaurlaritzaren Administrazioa	223	45,5
– Administrazio Lokala	192	39,2
– Foru Administrazioa	75	15,3
	490	100

(Ikus 8 diagrama 179 orrialdean)

Zer nolako joera azaldu den aztertzen badugu, esan dezagun 10 puntutan jaitsi direla, 1990. urtearen aldean, Eusko Jaurlaritzaren Administrazioaren aurka azaldutako kexak; aldiz, 7 eta 3 puntutan igo dira Administrazio Lokalen eta Foru Administrazioen aurkakoak, hurrenez-hurren.

Interesgarria da aipatzea lehendabiziko aldiz udalen aurka azaldutako kexak Eusko Jaurlaritzaren Administrazioaren aurka aurkeztutakoen mailara iritsi direla; joera honek bere hartan jarraituz gero, 1992. urtean gerta liteke udal Administrazioa izatea EEako biztanleak gehien kezkatzen dituen Administrazioa, behintzat beren kexak Arartekoari azaltzean.

Foru administrazioen aurkako kexak

Hiru foru administrazioen kontra aurkeztutako kexabideak berdin samar banatzen dira hiruren artean. Gehienak Bizkaiko Foru Aldundiari dagozkie, ondoren Arabako Foru Aldundiari, eta azkenik Gipuzkoakoari.

Kexak foru aldundien arabera

	Zenbat	%
Gipuzkoa	20	26,6
Bizkaia	30	40
Araba	25	33,4
GUZTIRA	75	100

(Ikus 9 diagrama 180 orrialdean)

Udalen aurkako kexak

Udalen kontra aurkeztu diren kexen artetik, aipatzekoa da Bizkaiko udalen aurka aurkeztu direla gehienak, ondoren Gipuzkoakoen kontra, eta azken lekuan, eta neurri txikiagoan, Arabako udalen aurkakoak daude.

Ikus dezagun ondoan nola banatzen diren jaso ditugun kexak, EEAKo lurralde historikoetako udalen artean:

Araba

Gasteiz	27
Laudio	2
Arratzu-Ubarrundi	2
Aiara	1
Oion	1
Iruraiz-Gauna	1
Zuia	1
La Puebla de Labarca	1
Amurrio	1
Beranturi	1
Aramaio	1
GUZTIRA	39

Bizkaia

Bilbo	28
Barakaldo	5
Bermeo	5
Santurtzi	5
Portugaleta	4
Erandio	3

Getxo	3
Basauri	2
Elorrio	2
Galdakao	2
Gernika	2
Sestao	2
Zaratamo	2
Zornotza-Echano	1
Gorliz	1
Zalla	1
Sopuerta	1
Derio	1
Karrantza	1
Lezama	1
Urduña	1
Abadiño	1
Igorre	1
Gamiz-Fika	1
Errigoiti	1
Trapagaran	1
<hr/>	
GUZTIRA	78

Gipuzkoa

Donostia	27
Irun	8
Tolosa	4
Hondarribia	3
Eibar	3
Oiartzun	3
Zarautz	3
Andoain	2
Azkoitia	2
Bergara	2
Lasarte-Oria	2
Ormaiztegi	2
Errenteria	1
Iruerrieta	1
Leaburu-Gaztelu	1
Orexa	1
Lizartza	1
Zestoa	1
Aia	1
Lazkao	1
Billabona	1
Aretxabaleta	1

Elgoibar	1
Lezo	1
Abaltzisketa	1
Altzo	1
GUZTIRA	75

(Ikus 10, 11 eta 12 diagramak 181, 182 eta 183 orrialdeetan)

4.4. SAILEN ARABERAKO ESTADISTIKA

Txosten honetako "kexen laburpena sailen arabera" izeneko atalean aipatu den bezala, 1990. urtearen aldean, kexak sailen arabera sailkatzeko erizpidea aldatu dugu, bai eta haien izendapena ere.

Hirigintza, etxebizitza eta ingurugiro saila bitan banatu dugu: alde batetik hirigintza eta etxebizitza bereiztu dugu, eta bestetik ingurugiroa. Gainera, funtzio publikoa eta administrazioaren antolakuntza saila sortu dugu, lehengo lehendakaritza sailaren orde; azken honetan jasotzen dira funtzio publikoaren inguruan egin diren kexak, haien artean osasun eta polizia aloretako langileenak ere. Hau da, azken bi hauek beren sail berezietatik kendu eta funtzio publikoari buruzkoen artera pasa ditugu.

Kexabideak sailen arabera nola sailkatzen diren aztertzean, aurreko urteetan azaldutako joera erakusten dutela ageri da. Hala, bada, kexarik gehien jaso duten sailak honako hauek dira, hurrenez hurren: hirigintza eta etxebizitza; funtzio publikoa eta administrazioaren antolakuntza; osasuna; eta ogasuna, ondoan azaltzen dugun taulan ikus daitekeen bezala.

	Zenbat kexa jaso	%
Hiri. eta Etxe.	89	18,1
F.P. eta Adm. ant.	66	13,5
Osasuna	51	10,5
Ogasuna	48	9,8
Herrizaingoa	42	8,5
Hezkuntza	41	8,4
Ingurugiroa	41	8,4
Justizia	22	4,4
Kul. eta Ele.	30	8,4
Herri-Lan. eta Zerb.	29	6,1
Nek. Ind. Merk eta Tur.	25	5,1
Lana eta Giz. Segur.	6	1,2
GUZTIRA	490	100

(Ikus 13 diagrama 184 orrialdean)

Kexak azpisailen arabera

Jarraian, kexak azpisailetan sailkaturik azaltzen dituen taula bat dugu, nahiko argigarria jasotako kexabideen nondik-norakoa zehazkiago ezagutzeko.

– Hirigintza eta etxebizitza	89
– Hirigintza	51
– Etxebizitza	38
– Funtzio publikoa eta Adm. antolakuntza	66
– Funtzio publikoa	61
– Administrazioaren antolakuntza	5
– Osasuna eta Gizarte Ongizatea	51
– Osasuna	42
– Gizarte-Ongizatea	9
– Ogasuna	48
– Ogasun lokala	14
– Foru ogasuna	34
– Herrizaingoa	42
– Bidezaingoa	33
– Poliziaren ekintzak	1
– Ordena publikoa	5
– Hezkuntza	41
– Ikastegia aukeratzeko eskubidea	6
– Irakaskuntzaren programazio orokorra	15
– Eskolen instalakuntzak	2
– Bekak eta ikasteko laguntzak	4
– Eskolako garraioa	3
– Besterik	11
– Ingurugiroa	41
– Sailkaturiko hiri-ekintzak	37
– Ingurugiroaren beste arazo batzuk	4

– Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa	25
– Nek., Abeltzantza eta Arrantzua	18
– Industria	6
– Merkataritza	4
– Kultura eta Elebitasuna	30
– Kultura	15
– Elebitasuna	15
– Herri-lanak eta Zerbitzuak	29
– Herri-lanak	12
– Garraioak	6
– Udal zerbitzuak	10
– Besterik	1
– Justizia	22
– Administrazio autonomikoak justizia gaietan bu- rutu dituen jardueri dagozkien kexak	1
– Justizia Administrazioaren administrazio zerbi- tzuei dagozkien kexak	21
– Lan eta Gizarte Segurantza	6
– Lana	3
– Gizarte segurantza	3

Eusko Jaurlaritzaren Administrazioaren aurkako kexabideak sailetan banaturik

Eusko Jaurlaritzaren Administrazioaren kontra aurkeztutako kexabi-
deen artetik, gehienak funtzio publikoa eta Administrazioaren antolakuntza-
ri, osasunari eta hezkuntzari dagozkie, hiru sail horien artean Administrazio
horren aurka jaso direnak hiru kexatetik bi bait dira.

	Zenbat kexa jaso	%
F.P. eta Adm. ant.	45	20,2
Osasuna	42	18,9
Hezkuntza	41	18,4
Hiri. eta Etxe.	26	11,6
Justizia	22	9,9
Herrizaingoa	14	6,3
Kul. eta Ele.	12	5,4
Nek. Ind. Merk. eta Tur.	8	3,6

	Zenbat kexa jaso	%
Herri-lan. eta Zerb.	7	3,2
Lana eta Giz. Segur.	5	2,2
Ingurugiroa	1	0,4
Ogasuna	—	—
GUZTIRA	223	100

(Ikus 14 diagrama 185 orrialdean)

Foru aldundien aurkako kexabideak sailetan banaturik

Aurten ere azpimarratzekoa da kexabide ugari aurkeztu direla foru aldundien ogasun alorrean, portzentaian adierazita, % 45,3a bait da, hau da, administrazio horien aurka azaldu diren kexa guztietatik erdia.

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira	%
Ogasuna	7	17	10	34	45,3
Nekaz.Ind.Merk.Tur.	14	—	3	17	22,6
F.P. eta Adm. ant.	1	3	2	6	8
Osasuna	2	2	2	6	8
Herri-lan. eta Zerb.	—	3	2	5	6,6
Kul. eta Ele.	—	3	—	3	4
Hiri. eta Etxe.	1	—	1	2	2,7
Ingurugiroa	—	1	—	1	1,4
Lana eta Giz. Segur.	—	1	—	1	1,4
Hezkuntza	—	—	—	—	—
Herrizaingoa	—	—	—	—	—

(Ikus 15 diagrama 186 orrialdean)

Udalen aurkako kexabideak sailetan banaturik

Era honetako kexekin gertatu ohi den bezala, kexa gehienak, zehatz-mehatz esanda guztietatik % 55a, hirigintza, etxebizitza eta ingurugiroarekin zerikusia zuten auziengatik aurkeztu dira; horrek nahiko garbi erakusten du Euskal Autonomi Komunitateko hiritarrek ardura handi samarra dutela alor horretan.

Aipatzekoa da zaratengatik batez ere taberna eta antzeko establezimenduen aurka aurkeztutako kexak dexente ugaltu direla.

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira	%
Hiri. eta Etxe.	12	17	32	61	31,7
Ingurugiroa	8	13	18	39	20,3
Herrizaingoa	7	13	8	28	14,6
Herri-Lan.eta Zerb.	5	7	5	17	8,9
Kul. eta Ele.	2	6	7	15	7,8
F.P. eta Adm. ant.	3	10	2	15	7,8
Ogasuna	2	9	3	14	7,4
Osasuna	—	3	—	3	1,5
Hezkuntza	—	—	—	—	—
Nek.Ind.Merk.Tur.	—	—	—	—	—
Lana eta Giz.Segur.	—	—	—	—	—

(Ikus 16 diagrama 187 orrialdean)

4.5. LURRALDEEN ARABERAKO SAILKAPENA

Lurralde historikoei begiratu, Bizkaiko biztanleak dira kexarik gehien aurkeztu dutenak, 293 zehazki, ondoren Gipuzkoakoak 244ekin eta, azkenik, Arabakoak 158 kexarekin.

Kexabideen jatorria

	1989	1990	1991	Joera
Bizkaia	288	284	293	% 3,2
Gipuzkoa	188	195	244	% +25
Horregatik, hizkuntzari dagozkion arazoengatik Ararteko Erakunde honi azaldu zaizkion kexak aztertu eta tratatzeko unean, honen inguruan indarrean dagoen legeria zorrozki betetzearen ikuspegia hartu da, ezin bestela, hau da, ideologiak edo ikuspegi pertsonalak alde batera utzirik.

Hizkuntzaren kontu honek bere barnean dituen esparruetako bat hezkuntzarena da, eta, zehazkiago esanda, irakaskuntzarako hizkuntz ereduaren hautaketa.

Alor batean zein bestean, ez dira falta izan Administrazioak hizkuntz ereduaren plangintzan agertzen duen jarrera diskriminatzailetzat jo dutenak.

Ildo horretatik, Ararteko Erakundeari kexa bat helarazi zion Gasteizko guraso talde batek, haien eritziz ikasgela batean A eredia ez jarraitzeak Konstituzioaren bidez aitortuta dauden berdintasunerako eta hezkuntzarako eskubideak kaltetzen zirelako.

Honen inguruan azalduetako auzia funtsezko eskubideek izan behar dituzten mugekin zerikusia duela pentsatzekoa denez gero, oro har, hitzez-hitz ekarri dugu hona kexa honi eman zitzaion ebazpena:

Vitoria-Gasteizko Luis Elejalde ikastegi publikoan 1991-92 ikasturterako OHOk 1. mailan A hizkuntz eredia bertan behera uztearen inguruan Erakunde honetan jaso den kexu idazkiari dagokionez, lehen-lehenik argitu behar da, arazoa egoki ulertuko bada, hezkuntz Administrazitza funtsezko eskubiderik kaltetu ote

duen ala ez, eta, zehazkiago esanda, Konstituzioak aitortutako berdintasunerako eta heziketarako eskubideak ukatu ote diren ala ez.

Arazo hau aztertzean, Ararteko honek ongi daki Hizkuntz Eskubideen azian bihotz-animari dagozkien faktoreek ere dutela pisua, Walter Kampfer jaunak ongi adierazi duen bezala, eta haien eraginez guztiz auzi korapilatsua eta eskuzabaltasunez eta ulertzearen aldeko jokaeraz erabiltzekoa dela, herri-aginteen (Estatuaren eta elkarte autonomoen) aldetik ez ezik, hezkuntz mundua osatzen duten partaide guztien aldetik ere (irakasle, ikasle eta gurasoen aldetik). Horregatik, gaiari buruzko ikerlan erabat juridikoa egiten ahalginduko gara, Erakunde honi ez dagozkion bestelako erizpideetan sartu gabe.

I KONSTITUZIOAREN TESTUKO 14. ETA 27. ARTIKULUEK DIOTENA BETETZEARI DAGOKIONEZ, ADMINISTRAZIOAREN JOKAERAREN KONSTITUZIONALTASUNARI BURUZKO AZTERKETA.

Lehen-lehenik azal dutako arazoa izango da, beraz, Luis Elejalde ikastegian OHOk 1. mailan A hizkuntz eredurik ez ematea bestela nahi zuten gurasoen eskubideak kaltetzen ote dituen, eta, hortaz, erabaki hori Konstituzioaren testuko 14. eta 27. artikuluen aurkakoa ote den ebaztea izango da.

A) Honi dagokionez, legea betetzean berdintasunaren abiaburuak ustez jasandako kalte bat genuke hemen, arrazoirik gabeko edo zuzentasunik gabeko ekintza baten ondorio.

Antzeko auzi batean azal dutako beste kasu batean, garai hartan Bilboko Lurralde Entzutegia zenaren Administrazio-Auzibideetarako Sailak epaia eman zuen 1989ko otsailaren 18an; horretan, berdintasunaren inguruan dagoen jurisprudenzia konstituzional ugarian oinarriturik, honako hau adierazten da: “kontutan hartu behar da, hala ere, planteiamendu hau ez datorrela bat Espainiako Konstituzioaren (EK aurrerantzean) 14. artikulua ematen duen bermearekin, zeren eta berdintasunaren abiaburuak debekatu arren herri-aginteez legea betetzean arrazoirik gabeko erizpide batez edota motibu arrazoituezin edo zuzengabe batengatik tratatu desberdina ematea —Konstituzio Epaitegiaren Epaiak (KEE aurrerantzean): 63/84, 78/84, 108/84, 175/87, 197/87, 108/88...—, bi elementu horiek erabat lotuta hartu behar bait dira —erizpidea aldatzearekin egoera desberdinetan erizpide desberdinak erabili behar direla ulertu gabe hortik—; izan ere, bestela jokatzuz gero, norberari edo gizarte-egoerari dagozkion zertzelada edo ezaugarriengatik bazterkeria jasateko Konstituzioak ezartzen duen debekua nahastu egingo litzateke Konstituzioko 9.3 artikulua azaltzen duen zuzengabetasuna debekatzeko arauarekin”.

Epai horrek honako hau ere eranstean dio aurrean esandakolari: “ondorioz, beste neurri batzuk erabiliz gero, kontutan hartutako

jokaerak merezi duen balorazio juridikoaren kalterik gabe, eta, are gehiago, hipotesi gisa jokaera horrek legearen babesik ez duela eta zuzengabea dela onartuko balitz ere, egia litzateke ekintzalearen kontakizunaren arabera ez dela argi ikusten araua betetzean erizpidea aldatu egin denik, eta bai ordea erabaki administratibo bat eraman dela burura”.

Horrexegatik, legea betetzean berdintasunaren abiaburuak kalterik jaso ez duelakoan gaude, nahiz eta hori ez doan gerora Administrazioaren jokaerak ohizko legeak bete ote dituen aztertzeari ekitearen kaltetan.

B) EKko 27. artikulua ezartzen duen heziketarako eskubidea errespetatu ote den aztertzea geratuko litzateke, beraz.

Funtsezko eskubide bati kalte egin zaiola argitzeko, beharrezkoa da, gure ustez, eskubidearen mami-mamiak edo funtsezko edukiak jasatea kalte hori, eta ez haren bazterreko zati batean edo zeharka.

Horiek horrela, Konstituzio Epaitegiaren 11/81 epaiak jurisdikzio bidez sortutako “funtsezko edukia” deritzan kontzeptura jo behar dugu, haren zortzigarren oinarri juridikoak (8. F.J.) honako hau adierazten bait du:

“Bi bide har daitezke «funtsezko edukia» deritzan ideia nola-bait hurbiltzeko, EKaren 53. artikuluan funtsezko eskubide guztiei bait dagokie, eta edozein eskubide subjektibori buruzkoa izan bait daiteke, konstituzionala izan zein ez. Bide horietako lehena eskubide bakoitzaren jazaera juridiko deitzen den horretara jotzea da, hau da, eskubide horiek ulertzeko modura. Ideia honen arabera, arau-xedapenek erabiltzen duten hizkera lotu egin behar da zenbaitek metahizkuntza deitu dutenarekin, hau da, jendeak, epaileek eta, orohar, Zuzenbide alorreko adituek onartu eta haien artean zabalduz dauden ideia edo usteekin. Askotan, «nomen» delakoa eta zuzenbide subjektibo baten norainokoa eskubide hori bera halako legegile batek jaso eta arautu baino lehenagokoak izaten dira. Kontzeptu gisa, eskubidearen era abstraktua legea egin aurrekoa da, eta, ildo horretatik, arautzen denean, era abstraktu hori ezagutu eta aitortu egiten dela esan daiteke. Zuzenbidean aditu direnek erantzun dezakete legegileak arautu duena halako era bateko eskubidetzat jotzen denaren arabera den ala ez. Eskubide subjektibo baten funtsezko edukizat jotzen dena zera da: eskubide bat deskribaturiko eraren arabera dela ezagutu edo aitortzeko beharrezkoak diren ahalmenak edo ekiteko gaitasunak, zeren eta horiek izan ezean, era horretakoa izateari utzi, beste baten barruan sartu eta, nolabait esateko, bere mamia galtzen bait du. Hori dena, kasu bakoitza tratatzen den une historikoari eta, eskubide konstituzionalak direnean, gizarte demokratikoenak berez diren baldintzei dagokielarik.

Eskubide baten funtsezko edukia zehazteko har daitezkeen bigarren bidea, aldiz, halako tradizio handi batek eskubide subjeti-

boen mami eta funts gisa juridikoki babestuta dauden interesak deitu dituen bilatzen saiatzea da. Eskubidearen edukiaren berez-kotasunaz hitz egin daiteke orduan, berez-kotasun hori erabat beharrezkoa bait da eskubideari biritza ematen dioten interes juridikoki babesgarriak benetan eta egiatan babestuta gerta daitezten. Honela, funtsezko edukia kolokan edo aitortu gabe geratzen da, eskubide horri halako muga batzuk ezarrita, hartaz baliatu ezina dagoenean edota arrazoizkoa den baino zailago bihurtu edo beharrezko babesik gabe uzten denean”.

Aldez aurretiko izaeraz, heziketarako eskubideari ezar dakizkiokeen bi ohar egiten dira, balio orokorrekoak. Lehen-lehenik, Konstituzioaren testuko I. tituluko 2. ataleko 1. sekzioan kokatuta egon arren, heziketa jasotzeko eskubidea eskubide sozial arrunta dela. Gaur egun, askatasun publikoen eta eskubide sozialen arteko aldea berraztertzen ari bada ere, eskubide guztien alderdi soziala kontutan hartzen ari bait da, eta horrela kategoria guztiak batzen, egia da, orobat, izaera absoluturik ezin dakiekeela eman eskubide horiei.

Gauzak horrela, doktrinaren batek oso modu adierazkorrean adierazi duenez, “esan gabe doa, heziketarako eskubidearen edukia ezin izan daiteke herrialdeko azken baserrietan ere eskolak eraikitzea, eta, hortaz, ez dago inolako auzi-errekurtsorik edo babes-errekurtsorik Administrazioa era horretako ekintza bat egitera behar dezakeenik. Nolanahi ere den, Kauffmann eta Smend-engandik hasita Alemaniako doktrinak baieztatu duenez, funtsezko eskubideak eskubide subjetoak ez ezik, antolamendu politiko osoaren osagai, eta konstituziogileak nahi izandako halako balore batzuen finkatzaile eta zabaltzaile ere badira”.

Horrek esan nahi du, ezer baino lehen, heziketarako eskubidea ez dela eskubide absolutua, baizik eta hura burura eramateko baliabide ekonomiko mugatu batzuen arabera osatzen dela; esan nahi du, orobat, heziketarako eskubide horren bitartez, neurri administratiboak edo Administrazioaren izatezko gelditasuna bera jarri litezkeela kontrolpean.

Bigarren oharra: EKko 10. artikulua halako balio berezi bat duke heziketarako eskubidea ulertzeko orduan, zeren eta konstituziogileek eskubide hori bereziki izan bait zuten gogoan Konstituzioaren bidez arautzeko bidean jarri zutenean. Ohar orokor hauek egin eta gero, aztertu behar da heziketa inolako bazterkeriarik gabe jasotzeko eskubideri dagokionez, EKko 27. artikulua arabera gurasoek eskubidea ote duten ala ez beren seme-alabek jasoko duten heziketa gurasoek berek nahi duten hizkuntzan eta aukeratzen duten ikastegian jasotzeko.

Azterketa hori egiteko, esandako 27. artikulua hori Konstituzio-ko 14. eta 3.3 artikuluekin lotu beharko da.

Hizkuntz arazoak direla eta, Konstituzio Epaitegiak emandako epai batzuetan bere eritzia eman izan du heziketarako eskubideari dagokionez.

Horrela, 137/86 KEEan, azaroaren 6koan, lehen oinarri juridikoan aditzaera ematen denez, "euskarazko irakaskuntza eta gaztelaniazko irakaskuntza biak elkarren ondoan egotea Konstituzioaren arabera zilegia dela aitortu behar da, baldin eta bermatzen bada, berdintasun osoz, Euskal Herriko biztanleek era bateko edo beste irakaskuntza aukeratzeko daukaten benetako eskubidea".

Halaber, urriaren 27ko 87/83 KEEan, honako hau ematen da aditzera: "Eusko Jaurlaritzak bereziki azpimarratu nahi du gaztelania eta euskara ofizialak direla biak; izan ere, Euskadiko biztanle guztiek eskubidea dute bi hizkuntzak jakin eta erabiltzeko (Estatutuaren 6.1 artikulua). *Horrek esan nahi du, noski, bi hizkuntzak irakatsi behar direla elkarteko ikastegietan, helburu hori lortzen lagunduko duen trinkotasunarekin.* Eta, honi dagokionez, esatekoa da betebeharrak hori ez datorrela Estatututik bakarrik, konstituziotik beretik baino".

Eta EKko 3. artikulua erantsi eta gero, honako hau dio: "agindu hauen arabera, Estatu osoak (elkarte autonomoak barne) gaztelania bezala beste hizkuntza ofizialen bat duten elkarteetako beste hizkuntzak ere jakiten direla bermatzeko betebeharra dauka, Konstituzioak ezarria".

Nazioarteko zuzenbidearen ikuspegitik begiratuta, heziketan bazterkeriarik ez onartzeko abiaburua 1960ko abenduaren 15eko Bazterkeria Oronen Aurkako Hitzarmenean ere agertzen da, eta esan behar da Espainiak ere onartu duela delako hitzarmen hori.

Guzti honen arabera, zalantzarik gabe, hezkuntzaren alorreko Administrazioa behartuta dago bi hizkuntzak Autonomi Komunitateko ikastegietan irakasten direla ziurtatzera.

Hala eta guztiz ere, horrek ez du esan nahi irakaskuntza norberak aukeratu duen ikastegi publikoan eta nahiago den hizkuntzan jasotzeko eskubidea dagoenik, Konstituzio Epaitegiak berak auzi honi buruz azaldu duenaren arabera.

Izan ere, otsailaren 12ko 19/1990 KEEak honako hau adierazten du argi eta garbi: "Konstituzioko 27. artikulua dioena ustez bete ez dela eta, gogoratu behar da artikulua horretako zati bakar batek ere, ez bakarka harturik ez eta Giza Eskubideei Buruzko Mundu mailako Aitorpenaren edo gai honi buruzko nazioarteko hitzarmenen argitan aztertuta ere, ez duela onartzen seme-alabek gurasoen aukerako hizkuntzan eta ikastegi publikoan irakaskuntza jasotzeko eskubide konstituzional bermatua dutenik gurasoek. Eskubide hori ez dator, orobat, Konstituzioaren 14. artikulutik ere, zeren eta, bertan ezarrita dagoen tratu bidegabeki desberdina emateko debekua hemen dagokigun alorretara ekarrita, horren arabera, zalantzarik gabe, hezkuntzarako eskubideaz gozatzeko aukeraren gainetik ezin egon bait daiteke hizkuntzagatik gertatzen den bazterkeriarik; horrek, hala ere, ez du esan nahi, eta ezin esan nahi ere, Konstituzioak ezarrita espainiarrek legearen aurrean duten

berdintasuna bakarrik lortzen denik ikasleek irakaskuntza —kasu honetan, oinarrizko heziketa orokorra— oso-osorik gurasoek nahi duten hizkuntzan —kasu honetan, balentzieraz— eta aukeratzen duten ikastegian jasotzen dutenean. Aurrean esandakotik ateratzen den ondorioa, honako hau da: *derrigorrezko ikastegiak eta haietan eman beharreko irakaskuntzarako hizkuntza aukeratzeko eskubidea legezko izaera duen eskubidea da*; hortaz, ezin har daiteke Konstituzioaren bidez bermatuta dagoen eskubidearen kalterakotzat de-mandaturiko Administrazioak egiten duen hezkuntz eskaintza...”.

Epai honek azaroaren 27ko 195/89 KEEak ezarritakoa erre-produzitzen du.

Era berean, esan behar da Giza Eskubideen Europako Epai-tegiaren epai batek, 1968ko uztailaren 23koak, Belgikako hizkuntz arauketaren alderdi batzuei buruzkoak, baieztatu zuela hezkuntza jasotzeko eskubideak ez zekarrela gurasoek irakaskuntzarako hizkuntzaren inguruan egiten duten aukera errespetatzeko beharrik, eta bazterkeria gerta zitekeela bakar-bakarrik tratu desberdinak zuribide objetibo edo arrazoizkorik ez zuenean.

Guzti hori ikusirik, esan dezakegu EKko 27. artikulua ez duela kalterik jasaten gurasoek aukeraturiko hizkuntzan eta ikastegi publikoan ematen ez denean irakaskuntza. Hori hala da, Administrazioaren ekintzan gaiari buruzko ohizko legeria betetzearen kalterik gabe.

II HEZKUNTZ ALORREKO ADMINISTRAZIOAREN EKINTZARI BURUZKO AZTERKETA OHIZKO LEGERIAREN ARGITAN

Ararteko Erakunde honek Konstituzioko 14. eta 27. artikuluetan finkatuta dauden funtsezko eskubideak, alegia legearen aurrean berdinak izatekoa eta hezkuntza jasotzekoa, kalterik hartu gabe daudela eritzita, hezkuntz alorreko Administrazioak ohizko legeria bete ote duen aztertzeari ekingo diogu orain:

A) Lehen-lehenik, egiaztatu behar da erabilitako prozedura egokia ote den ala ez, eta, zehazkiago, prozedura hori Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuaren 1991ko martxoaren 4ko Aginduaren arabera ote den; izan ere, agindu horren bitartez, Euskal Autonomi Komunitateko Unibertsitatez besteko ikastetxe herri-diruz hornituetan ikasleak onartzeko prozedura araupetzen zen, Aurrekola eta OHoko 1991/92 ikasturtearen hasierari buruz Ikastegietako Zuzendariaren Oharrari zegokionez.

Ohar horrek zioen bezala, “Aurrematrikulazioa egiteko epea hasi baino lehenago, lurralde ordezkariak ikastegi publiko eta hitzartutakoei jakinerazi beharko diete zeintzuk diren aukeran dauden lerro eta ereduak”.

Prentsako iragarki lokaletan, 1991ko apirilaren 7an, iragarki bat eman zen argitara, Aurrekola, OHO eta Heziketa Bereziko ikasle berriak dirubide publikoekin hornituriko ikastegietan au-

reinskribatzeko argitasunak eta, orobat, 1991-1992 ikasturterako ikastegi publiko eta pribatu hitzartuetan zegoen irakaskuntz eskaintza ere jakingai jartzeko.

Eskaintza horretan, Vitoria-Gasteizko Luis Elejalde ikastegiarantz OHoko 1. mailan A ereduko 30 postu eta B ereduko 60 finkatzen ziren.

OHoko ikastegietan aurreinskribapena egiteko epea apirilaren 8tik 18ra bitartekoa izan zen, bi egunak barne, lehenago esandako aginduaren 7.1 artikulua ezarritakoaren arabera.

1991-1992 ikasturtearen hasierari dagokionez, aginduaren 2.a) idazatiaren arabera, Aurre eskolan eta OHOn taldeak egiteko erizpi-dea honako hau zen: 15-30 ikasle/gela: gela bat.

Ikastegi bakoitzera bidalitako aurreinskribapenerako arauetan argi eta garbi azaltzen zen gutxienezko ikasle kopurua bete behar zela gela bat ziurtatzeko.

El Pilar hirialdean, OHoko 1. mailako A eredua eskaintzen zuten ikastegietan aurreinskribaturiko ikasleak 9 ziren Luis Elejalde ikastegian; 10 Pfo Baroja ikastegian, eta 26 Divino Maestro ikastegian.

Hezkuntz alorreko Administrazioak erabaki zuen El Pilar hirialdean A ereduko OHoko 1. mailarako eskatzen ziren 45 postuak bi gelarekin betetzen zirela, eta erabaki hori aztergai jarri zuen sindikatuen ordezkariekin eginiko Plangintzarako Batzordearen bileran. Eta erabaki hori, eskuarte publikoen erabilera egokiaren ikuspegitik, zuzentzat jotzekoa da.

Esandako aginduaren 7.3. artikulua ezartzen du apirilaren 26a baino lehenago Aurre eskola eta OHoko ikastegi bakoitzak ikasle onartuen eta onartu gabeen behin-behineko zerrendak argitaratu behar dituela.

Egun horretxetan, OHoko plangintzarako arduradunak Ikastegiko Zuzendaritzari jakinerazi zion ezinezkoa zela A ereduko ikasgela bat irekitzea Luis Elejalde ikastegi publikoan aurreinskribapen gutxi jaso zirelako, eta maila eta eredu horietako ikaspostu aski eskaintzen zirela hirialde horretako beste ikastegietan.

Luis Elejalde ikastegi publikoko Eskola Batzordeak 1991ko maiatzaren 6an eginiko bileraren aktan, zuzendari andreak eskatu-rik, "A ereduko OHoko 1. mailarako eskabidea egin duten ikasleak, guztira 9, eta B ereduko 1. mailarako eskatu dutenak ere, guztira 42, onartzea" erabaki zela frogatu da. Orobat, zuzendariak honako hau ere jakinerazi zion Batzordeari: "aurtengo apirilaren 26an Hezkuntz Ordezkaririk irretetekoarekin egin zen bileran, honek jakinerazi zigun, bere eritziz, 1991-1992 ikasturterako A ereduko OHoko 1. maila kendu egingo zela, hirialde honetan izena eman-goto zuten ikasleen kopuruan oinarrituz Ordezkaritzak egin zuen matrikulazioaren joera ikusirik".

A ereduko OHoko lehen mailarako egindako eskabideak Eskola Batzordeak maiatzaren 6an eginiko bileran onartu eta ondoren argitaratu ziren behin-behineko zerrendak, Aginduak ezarritako epea —apirilaren 26a hain zuzen— amaitu baino beranduago. Hala

ere, ez dugu uste atzerapen horrek babesik eza eragin zuenik, aurreinskribapena egin zuten ikasle guztiak onartu zirelako, eta prozesu orokorrari ez ziolako kalterik egin.

Halaber, maiatzaren lehen hamabostaldian, Ikastegien Zerbitzuak eskaria egindako familia bakoitzari aditzera eman zion zer nolako egoera zegoen, aurreinskribapenak gutxi zirelako, eta, era berean, bigarren aukerako ikastegietan matrikula egiterik ez zegoela.

OHOko ikastegietan matrikula egiteko epea 1991ko 17tik 28ra bitartekoa izan zen.

Frogatuta dago Luis Elejalde ikastegi publikoan aurreinskribapena egin zuten bederatzi ikasleen aurreinskribapen-orrian haietako bostek bigarren lekuan Divino Maestro ikastegia hautatu zutela, bik Luis Dorao, eta beste bik ez zutela inolako aukerarik egin.

Hirialdeko hezkuntz eskaintza aztertzen badugu, ikusiko da Pio Baroja ikastegi publikoan 30 postutik 17 bete zirela, eta, hortaz, beste 13 libre zeudela; aldiz, Divino Maestro ikastegian, 30 postutik 26 inskribatuta zeuden, eta, beraz, 4 besterik ez zeuden libre. Bestalde, Luis Dorao ikastegi publikoan, bederatzi ikasle horien bizilekutik hurbil, 32 inskribapen zeuzkaten, eta, hortaz, 28 postu libre. Horregatik, Luis Elejalde I.P.an aurreinskribatutako bederatzi ikasleetatik bost Divino Maestro I.P.an onartu ziren, beste bi Luis Dorao I.P.an, bat Pío Baroja I.P.an, eta beste bat Presentación de María ikastetxean.

Ararteko honen eritziz, erabilitako prozedura zuzena da, eta gurasoek bigarren aukeran azaldutako nahia errespetatu egin da, bai eta irakaskuntzarako hizkuntz eredia aukeratzeko eskubidea ere, eskatzaileak bizi diren hirialdean irakaskuntz eskaintza nahikoa bait zen.

B) Guraso taldeek aurkeztu zuten kexu-idazkian ordura arte aurreinskribapena egindako umeekin A ereduko lerroari eusteko eskatzen zen, bai eta "azken urteotan askotan B eta D ereduekin hizkuntz lerroa zaintzeko erabili diren erizpide berberekin jokatzeko" ere.

Hortaz, Ikastegietarako Zuzendariak bere oharrean hamabost ikasle gutxienez eskatzen bazituen ere, hori baino ikasle gutxiagorekin ikasgela bat eskaintzen jarraitzea da eskatzen dena. Gainera, horrekin batera adierazten da aukeratutako hizkuntzagatik ustez bazterkeria gertatzen dela, A ereduaren kalterako, hain zuzen ere.

Lehenik, 15 ikasle baino gutxiagoko ikasgelak zer nola dau den eta arau orokorretik salbuetsita geratzeko arrazoiak zeintzuk diren aztertzen da. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak berek eskuratutako xehetasunak hartu dira horretarako:

"1) 15 ikasle baino gutxiagoko ratioak dauzkaten ikasgeletatik % 68 nekazal inguruetan daude kokaturik, askotan ezinezkoa izaten bait da maila desberdinak batzea (13+12=25, esaterako), taldeak osatzeko kopurua gaindituta geratzen direlako.

Bestalde, aukera desberdintasuna konpentsatzeko ahaleginak egitearen aldeko filosofia etengabe azaltzen da Administrazioak eskola hauekiko daraman jokabidean.

2) Ezaugarri berberak dauzkaten gainerako ikasgelak, % 32 alegia, Gasteizen daude. Salbuespen hauek zuzitzen dituzten arrazoiak honako hauek dira:

a) LOGSE deritzana 3-6 urte bitarteko epean (Haur Heziketaren 2. zikloan) ezartzean, 1991-92 ikasturterako ratioak, lekurik dagoen bitartean, 25 ikasle/gela (3 urte) eta 28 ikasle/gela (4 eta 5 urte) izango dira, hauek bait dira LOGSEk etorkizunerako ezartzea espero dituen ratioak. Horren medioz, 13 eta 13, 13 eta 14 (Luis Dorao, esaterako), edo 14 eta 14 ikasle izango dituzten ikasgelak egongo dira.

b) Gizarte mailan okerragoko egoeran aurkitzen diren gizataldeen aldeko hezkuntz politika konpentsatzaile bat erabiltzeagatik; halaxe gertatzen da Ntra. Sra. de las Nieves ikastegi publikoan (ikasle ijitoak), edo Gasteizko Santa María I.P.an (ikasle arabiarrak edo maila sozioekonomiko apaleko familietako umeak).

c) Biztanleria zahartua egotearen ondorioz, atzerakada demografikoa gertatzean batasun eskolarrari eustea (Zaramaga, Ariznabarra, Santa Luzia, Ehari, etab.). Honako ikastegiak daude hauen artean: Juan Ramón Jiménez, Santa Ana, Pío Baroja, Eulogio Gómez, Santa Lucía, Angel Ganivet, López de Guereñu, etab.

Euskalduntze prozesuan D ereduak indartzeko ahaleginen ondorioz daude era honetako taldeak Banbi ikastolan, Adurtza ikastolan...

e) Hezkuntz behar bereziak dauzkaten ikasleak integratzeko ahaleginen ondorioz ere taldeko ikasleen kopurua murrizten da.

Luis Elejalde ikastegi publikoko gurasoek azaldutako kasua ez da aurrean zehaztuta eman ditugunen artean sailkatzekoa, eta horrela hezkuntz alorreko Administrazioak azaldu duen jarrera ezin da okertzat hartu.

Hizkuntz eredia hautatzeko eskubidean bazterkeria gertatu dela dioen salaketari dagokionez, 1991-92 ikasturterako sarrera berriko ikasgelak aztertu dira, hamabost ikasle baino gutxiago dauzkatenak, hain zuzen ere, gure eritziz horixe bait da Luis Elejalde I.P.arekin konparazioa egiteko neurri egokia, esandako bazterkeria benetan gertatu den ala ez erabakitzeko.

OHOKO 1. eta 2. mailetako hiru urteko ikasleak dauzkaten 21 ikasgeletatik 16 A ereduak dira, 15 B ereduak, eta D ereduak ez dago bat ere; hortaz, begien bistan dago bazterkeriarik ez dela gertatu hizkuntz ereduaren aukeran.

C) Kexa idazkian adierazten zen Luis Elejalde ikastegian matrikulazioa txikia izan zela, hain zuzen ere auzoan aspalditik zurrumurrua atera zelako A eredia kenduko zela ikastegi horretatik. Era berean, ikastegiko zuzendariaren jokamoldea ere salatzen zen.

Ararteko honek ezin du baieztu ez ukatu ere aurreinskribapena baino lehenago OHOk 1. mailako A ereduak kenduko zela zioen zurrumurrurik bazen ala ez, baina, hala eta guztiz ere, egia da irakaskuntz eskaintzan OHOk 1. mailako A eredurako 30 postu argitaratzeak hezkuntz eredu hori eskaintzeko asmoa erakusten duela.

Horregatik, erakunde honek aztertuko du benetan araugabeko jokabiderik egon ote den ala ez auzitan dagoen eredu horren eskaintza, bai eta gurasoek argitasun nahikorik jaso duten ala ez.

Ildo honetatik, eta arazo honetan sartuta dauden gurasoekin hitz egin eta gero, txostena eskatu zaio Hezkuntzako Ikuskaritza Teknikoari; txostena prestatzeko eman diren pausuak eta egin diren ahaleginak ugariak izan dira:

a) Ikastegiko zuzendaritza taldearekin hitz egin (zuzendaria eta idazkariarekin).

b) Irakasle klaustroa osatzen duten guztiekin bildu.

c) Ikastegiko OHOk lehen mailan (A ereduan) aurreinskribapena egin zuten ikasleen 9 aita/ametarik 6rekin hitz egin.

Gainera, Ararteko honek hainbat bilera ere egin ditu Arabako Hezkuntz Lurralde Ordezkariekin eta ikastegiko zuzendari andrearekin berarekin ere. Ondoan doa Hezkuntzako Ikuskaritza Teknikoaren txostena:

“Argitasunak jaso eta aztertu ondoren, Ikuskaritza honek hemengo ondorio hauek atera ditu:

a) 1991ko martxoaren 4ko Aginduak bere 7.1 artikuluan ezartzen duenez, ikasleak onartzeko aurreinskribapen-eskariak aurkezteko epea apirilaren 8tik 18ra bitartekoa izan zen (bi egunak barne).

b) Tarte horretan A ereduko OHOk lehen mailan postua edukitzeko aurkeztu ziren eskari guztiak jaso ziren, bederatzi gutzira; haietan eskatutako hizkuntz ereduak da, hain zuzen ere, azkenik eman zaiena.

c) Eskabideak onartzeko prozesuan ez da inolako araugabekeriarik antzeman zuzendaritzaren aldetik ez eta horretaz arduratu zen irakaslearen aldetik ere.

d) Maiatzaren 6an Eskola Batzordeak egin zuen bileran A ereduko lehen mailarako eskabide guztiak onartu ziren, eta ondoren behin-behineko zerrendak argitaratu. Aipatutako aginduak ezarritako data baino beranduagokoa izan arren, horrek ez du ondorio garrantzitsurik izan, aurkeztutako eskabide guztiak ontzat hartu zirelako.

e) Gurekin hitz egin duten aita/ama guztiak zuzendariaren araugabekeriatzat jotzen dute A ereduak lehen mailan kentzeko erabakiari eta horren ondorioei buruzko argitasunik eman ez izana, haien ustez zuzendariak eman behar bait zituen argitasun horiek. Honi dagokionez, esatekoa da ikastegiko zuzendaritzak Lurralde Ordezkaritzaren zerbitzuekin izandako bilera batean ahoz erabaki

zela zerbitzu horietxek eman behar zietela gurasoei hartutako erabakiaren berri, bai eta adierazi ere zein ikastegitara jo behar zuten matrikula egiteko.

Goian esandako guztiagatik, beraz, Ikuskaritza Tekniko honek uste du, jasotako xehetasunen arabera, Luis Elejalde I.P.an ikasleak onartzeko prozesua indarrean dagoen arautegiari jarraituz gertatu dela, eta ez dela araugabekeriarik egon zuzendariaren jokabidean, txosten honen eragile izan den idazkian azaldu denaren zentzuan”.

Txosten horretatik ondoriotzat ateratzen da onartzeko prozesua indarrean dagoen arautegiari jarraituz egin dela eta araugabekeriarik ez dela antzeman zuzendariaren jokabidean.

Gure ikerketan beste bide bati ere ekin izan zaio, hirialde horretako ikastegiak aztertzea alegia. Izan ere, Luis Elejalde ikastegi publikoan ikasleak onartzeko prozesuan araugabekeriarik gertatuz gero, ikasleak hirialde horretan bertan hizkuntz eredu bera eskaintzen zuten beste ikastegi batzuetara desbideratuko ziren, eta ikasleen kopurua horrela nabarmenki gehitu.

Ikasle kopurua aztertu dugunean, ikusi da Luis Elejalde ikastegi publikoan, OHOKo 2. eta 3. mailetan 21 eta 18 ikasle matrikulatu direla, hurrenez hurren, eta ez dela inolako gehikuntzarik gertatu B ereduko mailetan, hauek, OHOKo 1., 2. eta 3. mailetan 42, 41 eta 40 ikasle bait dituzte, hurrenez hurren.

Hala ere, Luis Elejalde I.P.an gertatu den murrizketa honek ez die gehikuntzarik ekarri hirialde horretxetako beste ikastegiei, haientan ere jaitsi bait da A ereduan izandako matrikulazioa.

Horrela, Divino Maestro I.P.an, OHOKo 1. mailarako 26 ikasle matrikulatu dira, eta OHOKo 2. eta 3. mailetan, aldiz, 31 eta 41 ikasle. Era berean, Pio Baroja I.P.an 17 ikasle matrikulatu dira A ereduko OHOKo 1. mailan, 17 OHOKo 2. mailan eta 26 ikasle 3. mailan.

Hortaz, argi dago murrizketa hori Luis Elejalde I.P.an ezezik, hirialde bereko beste ikastegietan ere gertatu dela.

Berriz ere, estatistika hauek aztertu eta gero, Ararteko honek uste du demografiaren jaitziera dela, beste ezer baino lehenago, murrizketa hori eragin duena.

Vitoria-Gasteizko El Pilar auzoan, 1985etik 1990era bitartean jaiotako umeen kopurua honako hau da, izan ere:

1985	1986	1987	1988	1989	1990
105	106	97	95	80	76

Beste alde batetik, Autonomi komunitate honetan irakaskuntzaren hizkuntz eredia aukeraren printzipioan oinarrituta dagoenez, hau da, gurasoek beren seme-alabentzat zein eredu nahi duten aukeratu behar dutenez, hezkuntzaren alorrean egiten den eskaintza gurasoen nahien arabera moldatu beharko da.

Guzti hau ikusirik, Ararteko honek uste du EKko 14. eta 27. artikulua ez direla hautsi, eta Luis Elejalde I.P.an ikasleak onartzeko prozesuan araugabeko jokabiderik ere ez dela egon; izan ere, bederatzi ikasleei gurasoek hautaturiko hizkuntz eredian eta bizilekuaren hirialde berean eskolatzeko aukera ziurtatu zaie.

Halaber, uste du Luis Elejalde I.P.an A ereduko goragoko mailetan ikasten duten umeen gurasoek bere seme-alaben etorkizunaz duten kezka, ulertzekoa izan arren, desagertu behar dela, etorkizun hori ziurtaturik bait dago ikasle guztiak aukeratu den hizkuntz eredian eskolatzeko jarraitzeko, eta ikasle bakoitzaren beharren arabera, talde multiprofesionalen eta laguntzarako irakasleen bidez, ikasgelak bikoiztuz etab., eskolatzeko horren etekinik onena lortzeko behar diren zerbitzu eta eskuarteak hornitzen jarraitzeko konpromezuarekin. Beraz, Hezkuntz Lurralde Ordezkaritzak 1991/92 ikasurtean A ereduko OHOk 2. maila egingo duten 21 ikasleen probetxamenduan gertatzen den edozein zertzelada aztertu eta, bere kasuan, konpontzeko konpromezua du.

7.2. ZERGAK ORDAINERAZTEKO ORDUAN, ADMINISTRAZIOAK ONDASUN HIGIEZINAK EGIAZTATZEAN ZERGADUNAK DITUEN GARANTIAK

Zergalaritzaren Lege Orokorraren 52.1 artikulua arabera, "Administrazioak bere esku dauka zergagai diren errenta, produktu, ondasun eta gainerakoen balioa egiaztatzeko aukera".

Administrazioari ematen zaion ahalmen horren helburuak iruzur fiskalari aurre egitea eta Espainiako Konstituzioaren 31. artikulua eta Zergalaritzaren Lege Orokorraren 3. artikulua ezartzen dituzten gaitasun ekonomiko, berdintasun, orokortasun, progresibotasun eta banaketa ekitatiboaren printzipioak ahalik eta eraginkortasunik handienaz lortzea dira, nagusiki.

Zergadunek beren aitortpenetan azaltzen dituzten balioak egiaztatzeko ahalmen orokorrak garrantzi nabarmena dauka zergak ordainerazteko orduan ondasun higiezinaren balioa zehaztu behar denean, hauen balioa ia zerga guztietarako neurtzen bait da. Nolanahi ere, hemengo gomendio honetan ondasun eskualdatze eta ekintza juridiko dokumentatuen zergari buruz arituko gara batez ere. Hori hala da, lehen-lehenik gai honetaz Arartekoari egin zaizkion kexek zerga horretan eginiko likidazioak salatzen zituztelako, eta, bigarrenik, gai horri buruzko jurisprudentzia Auzitegi Gorenak gai horietaz emandako epaietan oinarrituta osatu delako funtsean.

Balioak egiaztatzeko prozeduraren inguruan azaltzen zaigun lehen kontua zera da, Administrazioaren ekintzek behartze-indarra daukatela berekiko; edo, bestela esanda, Administrazioa bat bakarra da (batasun printzipioa), eta bere sailak ez dira elkarrengandik apartekoak, beraz batasun

printzipio hori zerga alorreko sailen apartekotasun printzipioaren gainerik dago. Orain arte, doktrina jurisprudenzialak ulertu ohi zuen halako zerga bat ordaineraztera zuzendutako ekintzek ez dutela behartze-indarrik eta, hortaz, ez dutela inolako ondorioz beste zerga desberdin baten likidazioan. Izan ere, hori hala zen Zergalaritzaren Lege Orokorra jartzen zelako gorenako mailan, bai bere izaera bereziagatik zerga alorrean, bai Estatuaren Administrazioaren Erregimen Juridikoaren Legea, bere 1. artikuluan Administrazioak izatasun juridiko bakarra duela ezartzen duena, baino beranduagokoa zelako. Doktrina hori, azkeneko aldiz 1984ko apirilaren 24ean Auzitegi Gorenak hartu zuen epaian azaltzen delarik (Ar. 2.849), gaindituta dago gaur egun; horrela, esan dezakegu jurisprudenzia ez dituela onartzen bi balorazio desberdin ondasun higiezin berbera eskuz aldatzen denean, eta hori, bai legezkotasun, batasun eta koordinazio printzipioetan oinarriturik, bai norberaren ekintzaren doktrinean eta fede onean oinarriturik.

Horrela, 1988ko ekainaren 11ko Auzitegi Gorenaren epaiaren (AGE) arabera (Ar. 4.886):

“Administrazioak ezin die ondasun berberei bi balio desberdin eman, kopuruen arteko aldea txikia izan arren, halako gutxienezko epe batean, bi zerga desberdinetarako, zeren eta horrela eginez gero Administrazioaren zerbitzuen eraginkortasuna kolokan eta zailantzan jarriko bait litzateke”.

Eta 1990eko abenduaren 20ko AGEk (Ar. 10.147) hauxe bera adierazten du beste hitz hauekin:

“Esandako doktrina jurisprudenzialaren bidez galerazi nahi izan dena, hain zuzen ere, ondasun berberari balio desberdina ematea, eta ondasun hori edukitzeari edo eskuz aldatzeari dagozkion zerga desberdinetan, nolako Administrazioa izan (estatukoa, autonomikoa edo udalekoa), halako emaitza gertatzea da; izan ere, horrek erabat nahastuko luke ondasunaren jabea, ordaindu behar dituen zergak zenbat, hainbat balio dituela ikustean”.

Ondasunen eskualdatzeari eta ekintza juridiko dokumentatuei eta oinordekotasun eta dohaiei buruzko zergetan, oinarri zergagarria eskuz aldatutako ondasun edo eskubidearen egiazko balioaren arabera zehazten da, eta Administrazioak, esan dugun bezala, balio hori egiazta dezake Zergalaritzaren Lege Orokorra ematen dizkion bideetatik. Bere 52. artikuluan eta lurralde historikoetako foru arauetako dagozkion aginduetan iragarrita dauden bideen artean, ondasunaren balioa merkatuko batz besteko salneurrien arabera zehaztea dago, nahiko bide zuzen eta onuragarria delarik hori Administrazioarentzat zein administratuarentzat ere. Ildo honetatik, lurralde historikoetako ogasunek halako taula batzuk onartu dituzte halako ondasun higiezin batzuek merkatuan dauzkaten batz besteko salneurriak kalkulatzeko, eta taula horiek erabiltzen dituzte zerga hauetarako aitortu beharreko balioak egiaztatzeko.

Bide horretatik doa, esaterako, Arabako lurralde historikoko 13/1990 Foru Araua, martxoaren 20koa, bere zio adierazpenetan honako hau azaltzen bait du:

“(…) Lurralde Historiko honetako zergalaritzan Foru Aldundiaren eta administratuaren arteko zerga-harremanetan balio bakarra egoteko joera hasi da”.

Horrela, foru arau horren ebazpen gehigarriak iragartzen duen bezala, ondasunen eskualdatzearen zergan (OEZ) eta oinordekotasun eta dohaiei buruzko zergan, ondasun higiezinak Foru Aldundiak ematen dituen aginduen arabera baloratuko dira; horretarako, halako balio taula batzuk daude, halako aldagai batzuen arabera taiutuak: hau da, kokapena, gainazala eta baloratu beharreko ondasunen (etxe, garaje, etab.) eraikuntzaren kalitatea.

Nolanahi ere, zuzena izan nahi duen arren, baloratzeko modu hori askotan ez da egokia, ez bait da harrigarria ondasun berberari balio desberdina ematea oinarri zergagarri bera duten bi zergetan. Are larriagoa da oraindik balio desberdin horiek zerga berebean gertatzen badira.

Honi dagokionez, gauza deigarria da Bizkaiko Foru Ogasunaren Balorazio Zerbitzuak hiritar batek eskatuta ondasun bati OEZrako ematen dion balioak, lurralde historiko horretako 995/1989 Ogasunerako Foru Diputatuaren Aginduaren arabera, Administrazio hori behartzeko indarra izatea bakarrik baldin eta balio hori adierazten denetik bi hilabeteko epean, zergaren aitopenarekin batera aurkezten badira eskualdatzekoa den ondasuna eta horretarako adierazten den aurretiazko balorazioaren kopia bat. Horren eraginez, praktikan, forma hutsezkoa den betebeharrak ez betetzea, esate baterako Ogasunak egindako aurretiazko balorazioaren fotokopia ez aurkeztea —balorazio horretara erizpide objetiboen bitartez iritsi dela pentsatzeko delarik—, likidazio bidez balio desberdina finkatzeko arrazoia izaten da, nahiz eta bi hilabete besterik ez igaro aurretiazko balorazioaren eskaria egin zenetik zergadunak bere autolikidazioa aurkeztu arte, erakunde honek 555/91 zenbakiz tramitatu zuen kexan gertatu zen bezala. Honelako jokabideek, 1988ko ekainaren 11ko epai horrek adierazten duen moduan, zalantzatan jartzen dute Administrazioaren eraginkortasuna, eta pentsarazten dute haren erabakiak badaezpadaakoak direla, Administrazioaren jardueraren oinarri izan behar duten fede onaren eta segurtasun juridikoaren printzipioen kontra; gainera, administratua eraman dezakete erabaki horietako bakoitza inpugnatzera.

Honelako kasuetan, administratua kexabidea aurkeztea erabakitzen bada, Administrazioa itzul daiteke eginiko balorazioa, perituen eritzia eskatuz.

Eta hementxe azaltzen da azpimarratu beharreko bigarren kontua: alegia, *Administrazioak eginiko balorazioak motibua eduki behar izatea.*

Honi gagozkiolarik, 1989ko maiatzaren 26ko AGEak (Ar. 4.607) honako hau ezartzen du bere hirugarren funtsean:

“(…) Administrazioak egiaztatzeko eskubidea duen bezala, hiritarrari aitortu behar zaio egiaztapen hori onartu edo inpugnatzeko garantia, eta horrelako erabakia hartu ahal izateko beharrezkoa da Administrazioaren perituak balorazioa egitean kontutan hartu zituen xehetasunak jakitea.

(…) Jakin behar da ondasun higiezinaren zahartasuna, eraikitze sistema eta egoera bezalako xehetasunak kontutan hartu ziren ala ez, bai eta hemen zehaztu beharrik ez dagoen arren, edozein balorazio egiteko beharrezkoak diren beste zenbait datu ere, Administrazioaren teknikariaren balorazioa jurisdikzio honek fiskalizatzeko modukoa delako.

Administrazioak esaten badu gehiegizkoa izan zela, eta dagoen likidazioa egiten badu gehiegizkoa izateagatik, horren kontra-koa frogatzeko beharra ez dagokio hiritarrari; aitzitik, Administrazioari dagokio, bere eskubidean bait dago, hori hala zela frogatzea, zeren eta Zergalaritzaren Lege Orokorraren 114. artikulua ez bait da hiritarrei soilik aplikatu beharrezkoa, baizik eta Administrazioari ere, bai gestio zein erreklamazio bidean”.

Hortaz, Auzitegi Gorenak bere 1984ko uztailaren 9ko epaian (Ar. 4.226) aditzera ematen duenez, Administrazioaren perituak eginiko balorazioan “*lortutako emaitza islatzen duen zenbaki bat eduki ez ezik, adierazitako emaitza horretara iristeko kontutan hartu diren erizpideak eta kalkuluak ere azaldu behar dira, zeren eta horrelakorik egon ezean, horrek eragiten duen ekintza administratiboak ez bait du behar bezalako motiburik izango, eta, horrela, Administrazio Prozeduraren Legearen 43. artikulua hautsiko da*”. (Zentzu berean, 990/1/20ko AGEa, 398. Ar.)

Baldintza berbera jartzen du Zergalaritzaren Lege Orokorraren 121.2 artikulua; izan ere, honen arabera, “aitorpenen ondorioaren gainetik oinarri zergagarria gehitzen bada, zergadunari aditzera eman behar zaio, hura eragin duten egitateak eta gainerako elementuak zehatzmehatz adieraziz”.

Kontrakoa onartzeko gero, zergaduna babesik ezean gertatuko litzateke, ez bait luke jakingo Administrazioak zernolako motibuak izan dituen likidazioa egiteko; hortaz, motibuak eta adierazpenak argi eta garbi ematen ez dituzten jakinerazpenak zuzenbidearen arabekoak ez direla, eta, beraz, baliogabeak direla ulertu behar da.

Zentzu honetan, erakunde honetan 288/91 zenbakiz tramitatutako kean, Bizkaiko Foru Ogasunak ondasunak eskuz aldatzeagatik balioa egiaztatzeko espedientea hasi zuen, eskuz aldatzekoa zen garajeari 1.250.000 pezetako balioa emanik, zergadunak 400.000 pezeta jarri zituelarik bere aitortpenean. Zergaduna ez zegoen ados Administrazioak eginiko balorazioarekin, eta 10/85 Foru Arauaren 49. artikuluari jarraituz, kontraesaneko tasazio periziala egiteari ekin zitzaion. Administrazioak peritua izendatu ondoren, honek 1.250.000 pezetako balioa berretsi zuen bere txostenean. Bi jakinerazpenak balorazioaren ondoriozko kopurua ematera mugatzen ziren, kalkulua egiteko erabilitako datuen berri adierazi gabe. Horren aurrean, peritua izendatzeko zeukan eskubideaz baliatuz, zergadunak Bizkaiko arkitektoen bazkun ofizialeko kidea zen arkitekto teknikari batek prestatu-

ko txostena aurkeztu zuen, balorazioaren gai zen lursailaren deskribapen grafikoaz gainera, bere eritziz haren balioa 600.000 pezetan finkatzera eman zuten arrazoiak erantsita.

Zergadunaren perituak azaldu zituen argudioen artean, lursailaren banaketa irregularra zela eta bere gainazala txikia zela zioen, eta horregatik tamaina txikiko ibilgailu batentzat baino ez zela egokia; gainera, erasten zuenez, garaje solairuko zutabeen banaketak dexente zailtzen zuen garaje postu horretara sartzeko egin beharreko maniobra.

Lehen instantziako epaileak hirugarren peritu bat izendatu zuen, eta espedientea eskuratu ondoren, ondasunari 917.901 pezetako balioa eritzi zion beste peritu horrek. Aurrekoek bezalaxe, ordea, haren balorazioak ere ez zeukan funtsezko argudiorik, edo behintzat horrelakorik ez zen erantsi zeharkako zergen Administrazioak zergadunari egin zion jakinerazpenean.

Azkenik, beharrezkoa iruditzen zaigu aipatzea, *jakinerazpenari begira, ondasun eskualdatze eta ekintza juridiko dokumentatuen zergari buruzko foru arauak parekatzen dituztela dokumentua aurkezten duena eta zerga ordaintzera behartuta dagoen pertsona, biak bat balira bezala hartuta.*

Izan ere, eta hiru arauetatik edozein aipatzearren, Gipuzkoako lurralde historikoko ondasun eskualdatze eta ekintza juridiko dokumentatuen zergari buruzko abenduaren 30eko 18/1987 Foru Arauaren 50. artikuluko laugarren atalak honako hau dio:

“Autolikidazioa aurkezten duena zergadunaren mandataritzat hartuko da, eta autolikidazio horri buruz egiten zaizkion jakinerazpen guztiek, bai balioen egiaztapenari zein egiten diren likidazio osagarri dagokienez, bai eta aurkezle horrek izenpetzen dituen diligenza guztiei dagokienez ere, interesatuekin berekin egin izan balitz bezalako balioa izango dute, eta ondorio berberak izango dituzte”.

Agindu honen eginkortasuna aztertzean, beharrezkoa da Zergalaritzaren Lege Orokorren 124. artikulua gogoratzea, ezen zergei buruzko likidazioak zergadunari adierazi ez ezik, haien kontra zer nolako errekurtsoak eta zein epetan ezar daitezkeen ere jakinerazi behar dela agintzen bait du.

Estatu mailan, 1986ko urtarrilaren 29ko epaiak (Ar. 323) aditzera eman zuen ondasun eskualdatzearen zergaren legearen testu bateratuko 59. artikulua gehiegikerian erortzen zela bateratze horretan, bateratzeko ziren arauetatik batean ere ez zegoen parekatze bat finkatzen zuelako; baina lege izakera ez izanik, eta Administrazio Prozeduraren Legearen 79. artikuluan eta Zergalaritzaren Lege Orokorren 124. artikuluan ezarritakoa betetzen ez zenez gero, baliogabekotzat eman behar zen.

Esandako epai horrek azaldutakoa baldin bada dokumentua aurkezten duena eta zergaduna parekatzea baliogabe uzteko motibu bakarra, behartuta egongo ginatke parekatze hori lege antolamenduari bat datorrela onartzera, lurralde historikoetan zerga hau antolatzen duten aginduek arau izakera daukatelako.

Nolanahi ere, erakunde honen eritziz, babesik ezaren debekuaren eta babes judizial eraginkorren printzipioak direla medio, baieztapen hori

egokitu behar da; hau da, doktrinaren sektore batek proposatzen duen bezala, dokumentu aurkezlearen figurari hasierako aldian eutsiko zaio, alegia, Administrazioari zergagaiaren berri ematean, tramite hutsa dela ulertzen delako, baina handik aurrerako jakinerazpen guztiak zergadunari berari egin behar zaizkio. Horren arrazoia argi asko azaltzen da Andaluziako Justizia Auzitegi Gorenak 1990eko abenduaren 3an eman zuen epaian:

“Kudeatzaile administratibo batek, edo beste nornahik, zerga-likidaziorako halako agiri bat aurkezteagatik, ez da pentsatu behar zergaduna ordezkatzeko jarraituko duela urteak igaro eta gero, mandatu-emaiaren eta mandatarien arteko harremanak alda daitezkeelako denbora igarotzean”.

Ondasun higiezinaren balioaz Administrazioak egiten duen egiaztapenaren aurrean zergadunak duen egoera labur aztertu eta gero, ondorioz esan dezakegu Administrazioak ondoko printzipioak bete behar dituela, bere ahalmen horretaz baliatzean:

1. *Batasun printzipioa*; hau da, Administrazioaren ekintzek berau behartzeko indarra daukate.

2. *Segurtasun juridikoaren eta arbitrakeriaren eragozpenaren printzipioak (Espainiako Konstituzioa, 9.3 art.)*; hau da, zerga-likidazioek motibua izan behar dute.

3. *Babes judizial eraginkorraren printzipioa*; honen arabera, zergaduna zerga ordaintzera behartuta egonik, berari eta ez beste inori jakinerazi behar zaizkio balio zuzenketak eta zerga-likidazioak, argi eta garbi azalduz haien kontra zer nolako errekurtsioak eta zein epetan ezar daitezkeen.

Eta horiekin batera, Administrazioak men egin beharko die Konstituzioaren 103.1 artikulua ikaputzen dituen; artikulua horren arabera:

“Administrazio publikoak objetiboki zerbitzatzeko dituen interes orokorrak, eta eraginkortasuna, hierarkia, deszentralizazio, deskonzentrazio eta koordinazioaren printzipioetan oinarrituz, Legearen eta Zuzenbidearen erabat mende jokatzen du”.

7.3. FUNTZIO PUBLIKOA ANTOLATZEKO TRESNAK, ENPLEGU PUBLIKOAREN OINARRIZKO PRINTZPIOËN BERME

Ararteko Erakundeak ardura berezia du Administrazio publikoak bere funtzionarioekin duen harremanei dagokienean, eta ez soilik bere eginkizuna funtzionarioek Administrazioaren aurrean dauzkaten eskubideak bermatzea delako, baizik eta harreman horrek, oro har, baldintzapean jartzen duelako zerbitzu publikoaren zeregina.

Administrazio publikoaren eta funtzionarioen arteko harremanen arauketaren zati handi bat lanpostuei buruzkoa da, eta lanpostuen zerrendetan

eta lan eskaintza publikoetan mamitzen da. Tresna horien bitartez arautzen dira administrazioen antolatze ahaleginak, funtzionarien karrera administratiboa eta enplegu publikoa eskuratzeko bidea. Arrazoi aski dira, hortaz, funtzio publikoaren antolakuntzan funtsezkoak diren bi osagai hauek, Euskal Funtzio Publikoaren 6/89 Legean (EHAA 144, uztailaren 18koa) hala-kotzat jasota daudenak, ardura bereziz hartzeko, beren aplikazioari dago-kion neurrian.

Lanpostuen zerrendak administrazio publikoek beren langile beharrak zehazteko eta lanpostu horiek betetzeko baldintzak finkatzeko dauzkaten tresnak dira. Orobat, aurrekontuen bidez diruz hornituta dauden lanpostu guztiak agertzen dira zerrenda horietan.

Lan eskaintza publikoak, aldiz, aurrekontuen bidez diruz hornituta dauden lanpostu betegabeak biltzeko tresnak dira. Eskaintza horietan, urtealdi bakoitzean bete behar diren lanpostuak zeintzuk diren zehazten da, eta, beharra egonez gero, gainontzeko lanpostuak noiz bete ahalko diren iragar-tzen.

Beraz, begien bistan dago lanpostu zerrendak eta lan eskaintzak lotu-rik daudela. Horrela, eskaintza horiek lanpostu zerrendetako hutsuneak agertu behar dituzte, eta zerrendetan, bestalde, ezingo da aldaketarik sartu lan eskaintzan konprometituak izan badira. Era berean, zerrendetako lanpostu bakoitzarentzat ezartzen diren betebeharrak, titulazioari edo/eta es-katu behar den hizkuntz ezaugarriari dagokienean, lan eskaintza publikoa osatzen dute.

Beste alde batetik, Euskal Funtzio Publikoaren Legeak dioenaren ara-bera, behin-behineko funtzionarioek betetzen dituzten lanpostuak, plantilako hutsuneak izanik, onartzen den lehen eskaintza publikoan sartu behar dira, arau orokor bezala. Legearen agindua hain da argia, non finkatzen bait du behar hori betetzen ez bada hutsune hori automatikoki amortizatuko dela.

Esandako guztiaren arabera:

1. Pertsona batek betetzen duen lanpostu guztiak aurrekontu bidez diruz hornituta egon behar dute, eta dagokion lanpostu zerrendan agertu.
2. Aurrekontu bidez diruz hornituta dagoen, eta hortaz zerrendetan agertzen den edozein lanpostu hutsik egonez gero, dagokion lan eskeintzan sartu behar da.

Bada, antolakuntzarako tresna hauek, alegia lanpostu zerrendak eta lan eskaintzak, ez erabiltzeagatik, askotan lege iragarpenak ez dira betetzen ari, eta hori Euskal Funtzio Publikoaren Legearen mende dauden administrazio guztietan.

Gauzak horrela, esan dezakegu administrazio batzuetan ez dagoela lanpostu zerrendarik eta, inoiz, zerrenda horiek ez daudela osorik, haietan ez bait dira agertzen aurrekontu bidez diruz hornituta dauden lanpostu huts guztiak. Lan eskaintza publikoei gagozkielarik, ordea, ikusten da haietan ez direla hutsune guztiak sartzten, eta beste kasu batzuetan hutsune horiek lanpostu zerrendan jaso bai, baina amortizatu gabe daudela.

Hortaz, esan daiteke Euskal Funtzio Publikoaren Legeak ezartzen due-na atzeratzen ari dela lanpostu zerrendak osatu beharrari dagokionez, bai

eta Legeak iragartzen duenaren kontrako jokabideak ere gertatzen direla, lanpostu hutsak ez direlako agertzen lan eskaintza publikoetan, lanpostu horiek behin-behineko langileek beteta egon arren, eta, beraz, Funtzio Publikoaren Legearen 92. artikulua menpe.

Kasu batzuetan argudia daiteke legea bete arren egoerak ez direla behar bezain egokiak, berez, baina bai esan daiteke, ordea, kasu honetan legea ez betetzeari kaltetuta gertatzen direla lan eskaintza publikotik kendutako lanpostu hutsak betetzeko lehiatzaileak. Era berean, behin-behineko egoera behar ez bezala luzatzea ez da oso gomendagarria, besteak beste, funtzio publikora aukera berdinekin sartzeko ahalbidea kolokan jar dezakeelako.

Hemen aipatzen ari garen tresnez gainera, ezin ahaz ditzakegu barneko egitura organikoak, lanpostu zerrendekin lotuta egonik, funtzio publikoa antolatzeke funtsezko tresna direlako haiek ere.

Horri dagokionez, pentsatzekoa da lan eskaintza publikoan lanpostu batzuk ez direla sartzeko, lanpostu horiek atxekituta dauzkaten antolakuntza egitura batzuk derrigorrez egokitu behar direlako. Nolanahi izanda ere, hori baldin bada arrazoiak, esan behar da egitura horien egokitzapenak gehiegi atzeratzen ari direla, lanpostu zerrenda batzuk eta dagozkien lan eskaintza publikoak noiz onartu diren kontutan hartzen badugu. Dena dela, ez dirudi aurreko arrazoiak aski direnik lanpostu batzuk lan eskaintza publikotik kanpo uzteko, zeren eta, hasteko, funtzionariak egotea eta egitura horiek egokitzea ez bait dira bateratu ezin daitezkeen gauzak. Halaxe frogatzen dute, adibidez, 1990eko abenduaren 28ko aginduz deitutako Lehiaketarako Batzorde Teknikoak 1992ko otsailaren 4ean (EHAA 26, otsailaren 7koa) hartutako erabakiaren baldintzek berek, haietan honako hau adierazten bait da:

“...deialdian Osakidetzari atxekita agertzen diren lanpostuak, bai eta hartan sartutako beste batzuk ere, amortiza litezke Administrazioak bere burua antolatzeke duen ahalmenaren ondorioz hala-ko berregokitzapen batzuk egin behar balira”.

Lanpostu zerrendak berez aldakorrak direnez gero, eta antolakuntza mailan dauden beharrak egiaz islatu behar dituztenez gero, posible da haiek etengabe moldatzen ibiltzea.

Lanpostu zerrendetatik eta lan eskaintza publikoetatik kanpo hutsu-neak egotea, egiturak egokitzeko beharra aitzakiatzat harturik, eta alde batera utzirik horretarako dauden arrazoiak, ez da legeriak iragartzen duen tresna, eta, gainera, jokabide horrek eragin txarra izan dezake enplegu publikoaren inguruan egon behar duen garbitasunean.

Datozen urteotako lan eskaintzetan -eta horri buruz esan behar da Funtzio Publikoaren legeak bere 22. artikuluan eskatzen duen aldikotasuna edo maiztasuna beti ez dela betetzen ari-aurrekontu bidez jasota dauden lanpostu huts guztiak sar litezke, Euskal Funtzio Publikoaren Legeak ezartzen duenaren arabera. Horretarako beharrezkoa litzateke aldeztu aurretik hutsune horiek dagozkion lanpostu zerrendetan agertzea.

Euskal funtzio publikoa normaltzeko hasi den bidean, pentsatzekoa da dauden arazo batzuek badutela zerikusirik Euskal Funtzio Publikoaren Legea berandu onartu izanarekin. Zentzu honetan, Ararteko honek ongi daki administrazioen eta langileen ordezkarien artean egon daitezkeen desadostasunek badutela beren eragina arazo hauetan, eta haien ondorioz atzera daitezkeela hemen azaldu ditugun puntuetako batzuk. Hori hala dela onartuta ere, horrek ezin ditzake geldierazi lanpostu zerrendak egiteko lanak.

Esandako guztiagatik, Ararteko honek uste du beharrezkoa dela administrazio guztiei gogoratzea zeintzuk diren Euskal Funtzio Publikoaren Legeak ezartzen dituen betebeharrak, lanpostu zerrendak egiteari eta behin-behineko funtzionarioek betetako lanpostuak lan eskaintza publikoetan sarzteari dagokienez.

7.4. ADIN GUTXIKOAREN BABESA EUSKAL AUTONOMI KOMUNITATEAREN ESPARRUAN

Ararteko Erakundea, Administrazioaren jarduera kontrolatzeko zeregina edukitzeaz gainera, Konstituzioaren I. Idazpuruan aipatuta agertzen diren funtsezko eskubideak bermatzeko tresna ere bada. Ildo horretatik, gizartean babesik gutxien daukaten giza taldeez arduratzea bide baliagarria da gizarteak dituen beharrak eta egiten dituen eskariak, eta legerian dauden akatsak edo hutsuneak antzemateko; lan hori beharrezkoa da aginte publikoek behar diren neurriak har ditzaten hiritarren eskubideak ziurtatzeko.

Erakundearen aldetik ardura gehien jaso duten giza taldeen artean adin gutxikoena dago; izan ere, Nazio Batuen Batzar Nagusiak 1959ko azaroan egindako Umeen Eskubidearen Aitorpenean, eta Batzar Nagusiak 1989ko azaroan berretsi zuen Umeen Eskubideei buruzko Konbentzioaren Hitzaurrean zehazten den bezala, "umeak, bere gorputz eta gogoaren heldutasunera iritsi gabe dagoelarik, babes eta arreta bereziak behar ditu, baita legearen babesa ere, bai jaio aurretik, bai ondoren".

Beste alde batetik, Espainiako Konstituzioak, bere 39. artikuluan, bote-re publikoei ezartzen die umeen babes osoa ziurtatzeko beharra, haien eskubideen alde nazioarteko akordioetan iragarrita dagoen babesa barne.

Horrela, adin gutxikoaren eskubideen babesa mintzagai nagusia izan zen 1991ko apirillean egin zen Herri-Defendatzaileen VI. Jardunaldietan.

Jardunaldien aktan jasota agertzen den bezala, gaur egungo legeria ez da nahikoa adin gutxikoen gai honetan, eta moldatu behar da Nazio Batuek umeen eskubideei buruzko esandako konbentzio horretan ezarritakoaren arabera, eta, baita ere, Konstituzio Epaitegiak 1991ko otsailaren 14ean emandako 36/91 Epairen arabera, azken honetan baliogabekotzat ematen bait da Adin Gutxikoen Auzitegi Tutelarren Legearen 15. artikulua, Konstituzioaren 24. artikuluan finkatzen diren garantia prozesalen kontra doalako.

Honi dagokionez, Euskal Herriaren Autonomi Estatutuaren 10.14 artikulua Autonomi Komunitateari soili-soilik ematen dio adin gutxikoak babestu eta tutelatzeko erakunde eta etxeen antolaketari, erregimenari eta funtzionamenduari buruzko ardura, gai zibil, penal eta kartzelazkoen ere legegintza orokorrak diotenaren arabera.

Eusko Legebiltzarrak jadanik erabili zituen Autonomi Estatutuak gai honetan ematen dizkion legeak egiteko ahalmenak, Zerbitzu Sozialei buruzko 6/1982 Legea, maiatzaren 20koa (EHAA 71, ekainaren 2koa), onartu zuenean. Zerbitzu sozialei buruzko legeak oso barreiatuta zeuden, zerbitzu horiek bultzatzeko zeregina zuten organismoak ere ugariak zirelako, eta lege horrek egoera hori konpondu nahi zuen; izan ere, bere 3. artikuluan zerbitzu sozialen artean lehentasun mailan jartzen du "haurren eta gazteen ongizatea suspertzea, batez ere famili giro egokian bizi ez badira, gizartera gutziz moldatzerik izan dezaten".

6/1982 Legeak ere zerbitzu sozialen alorrean dauden eskumenak Gobernuaren, lurralde historikoetako foru erakundeen, udalen eta gainerako erakunde lokalen artean banatzen ditu. Bestalde, azaroaren 25eko 27/1983 Legeak, Autonomi Komunitateko erakunde amankomunen eta lurralde historikoetako foru sailen arteko harremanak jorratzen dituenak, azken hauen esku uzten du bere 7 c) 1 eta 2 artikuluan, bakoitzak bere lurraldean haur eta gazteentzako laguntza sozialaren eta politikabideren alorrean erakunde amankomunek taiutu duten legeria gauzatzea, berauek ere zuzenean parte har badezakete ere.

Era honetara, eta transferentziei buruzko dekretuen bitartez, 1985ean lurralde historikoei utzi zitzaizkien erakunde amankomunek adin gutxikoen babes, tutela eta gizarteratze alorrean zeuzkaten zerbitzuak, alde zuretik zehazturik zeintzuk ziren ahalmen horiei zegozkien pertsonala, ondasunak, eskubide eta betebeharrak.

Une honetan, adin gutxikoen babesari dagokionez antolakuntza juridikoan gertatu diren aldaketak ikusirik, bidezkoa dirudi Eusko Legebiltzarrak Autonomi Estatutuak Autonomi Komunitateari ematen dion ahalmenaz baliatu eta testu bakar batean biltzeak adin gutxikoari aplikatu beharrekoak diren arau eta agindu guztiak, Kataluniako Legebiltzarrean egin den bezala, babesgabeko adin gutxikoen babesari eta adopzioari buruzko 37/1991 Legea, abenduaren 30ekoa, indarrean jartzean.

Handi-handika azalduta, Euskal Autonomi Komunitatean adin gutxikoari aplikatzen zaion legeria bi alderdi desberdinetan banatzen da. Lehen-lehenik, babesgabeko adin gutxikoaren babesari aipatu behar da; beraz, nortasuna osorik garatzea eragozten dion egoera batean aurkitzen dena da, eta babes hori familia baten barruan giro egokia emanaz mami daiteke, adopzioa gertatuz gero; edota lege antolakuntzaren bidez adin gutxikoak zaindu eta kuztodiartzeko zeregina daukaten erakundeen esku utziz, harrera gertatuz gero.

Zentzu honetan, adin gutxikoak zaindu eta kuztodiartzeko erantzunkizuna horrelako erakundeei uzteko erabiltzen den prozeduraren epe bakoitzean parte hartzen duten agente guztiak halako arautegi bat daukate, hainbat aldaketa izan dituenak. Aldaketarik garrantzitsuenak, seme-alabatasun, guraso botere, eta senar-emazteen erregimen ekonomiko mailan Kode Zibila eraberritzen duen 11/1981 Legeak eragindakoak dira, eta haiekin batera, Tutoretzaren 13/1983 Legeak, eta adopzio alorrean Kode Zibila eta Auzitaratze Zibilaren Legea eraberritzeko 21/1987 Legeak sartutako aldaketak ere.

Aipatu ditugun alderdietatik bigarrena, 16 urte baino gutxiagoak zigortu edo zentzartzeko neurriak hartzeko ardura duten sailei dagokie; eta

esan den bezala, gai hau nahiko aldatuta gertatu da, Konstituzio Epaitegiak 1991ko otsailaren 14ean emandako epaiaren bidez. Konstituzio Epaitegiak Espainiako hainbat probintziatako adin gutxikoen epaileek planteatutako in-konstituzionaltasun auziak erabakitzen ditu, adin gutxikoen auzitegi tutelaren legeriaren 15. artikuluari dagokionean. Artikulu horren arabera, adin gutxikoak zentzatzeko prozeduretan, epaialdiak “ez dira publikoak izango, eta auzitegiek gainerako jurisdikzioetan indarrean dauden arau prozesalei men egin beharko diete”, baina hori Konstituzioaren 24. artikulua dioenaren kontra doa, honen arabera, “pertsona guztiek” dutelako berme horiek edukitzeko eskubidea.

Eman ditugun argudioak, Erakunde honen eritziz, arrazoi aski dira Autonomi Komunitateko botere publikoek Estatutuan aitortutako ahalmenak beren gain hartu, eta lege-tresna bat izan dezaten, Autonomi Komunitatearen esparruan, indarrean dauden lege eta arauak bildu, argitu eta moldatzeko, hori dena Estatuari arautzea dagozkion alderdi zibil eta prozesal guztiak errespetatzearen kalterik gabe.

7.5. INFORMAZIOA JASOTZEKO ESKUBIDEA ETA ALOKERARI BURUZKO POLITIKA BABESTUTAKO ETXEBIZITZETAN

Konstituzioak etxebizitza edukitzea eskubidea dela aitortzen du, baina hori benetan gauzatu dadin, denek eduki behar dute eskubidea, eta etxebizitzak duina eta egokia izan behar du. Helburu horri begira, beharrezkoa da alor honetan eskuhartzeko onartzen diren egitarauak kontutan har ditzaten etxebizitzaren arazoan sartuta dauden faktore ugariak.

Euskal Herriko Autonomi Komunitatea bere politikabidea aurrera eramaten ari da etxebizitzaren alorrean, kasu askotan Estatuarena baino planteamendu hobegoaz, itun ekonomikoaren sistemari esker finantz eta fiskalitate mailan daukan burujabetasuna dela bitarte.

Etxebizitza alorreko politika hori egokia izango bada, ezingo da mugatu babes ofizialeko etxebizitzetan (BOE direlakoetan) jardutera; aitzitik, Administrazioak bere esku dituen tresna juridiko guztiak (hau da, hirigintza alorreko politika, hiri-alokerak, fiskalitatea, eta finantzabideak) batera eta koordinaturik erabili beharko ditu. Gutxinaka-gutxinaka jo behar da Europako Elkartearen barruan gobernuak erabili ohi duten politikabidera; izan ere, hauek zuzeneko laguntza ematen dute etxebizitzarentzat dirulaguntzen bidez, gai honetan egiten diren inbertsio publikoen helburua zorrozki kontrolatzen dute, eta zeharkako laguntza ere eskaintzen dute bide fiskaletik, hauxe delarik haien partaidetzaren funtsezko oinarria.

Etxebizitzen merkatuan 1985ean hasitako espekulazioak neurri handi batez ugaldu du “Etxebizitzaren Arazoa” deitu izan dena. Prezioek neurritz kanpo gora egitean, ia alferrekoa izatera iritsi da etxebizitzetarako kredituen baldintzak hobetzea.

Hiritarrak gaur duen arazoa ez da, antzina bezala, etxebizitza librea finantzatzeko sistema gutxi garatuta egotea, eta horren eraginez merkatuak eskatzen dituen prezioak ezin ordaindu izatea. Sektore honetan gaur egun dagoen kinka larriaren lehen arrazoa, ordea, salneurriaren eta familiak bere

esku duen errentaren arteko proportzioak iritsi duen maila handia da; izan ere, etxea behar bai, baina ordaindu ezin dezaketena, gaur egun, gizartearen beheko mailatan ez ezik, erdi mailako errenta daukaten familien artean ere aurkitzen dira. Egoera hori are larriagoa da hirugarren adinekoentzat eta gazteentzat; eta paradoxa da behar handiena daukaten eta eskari handiena egiten duten giza-taldeak haietxek izanik, etxebizitza eskuratzeko oztopo gehien dutenak ere haiek izatea.

Behin eta berriz azpimarratuko dugu erakunde publikoek politikabide orokor bati ekin behar diotela hemen aipatzen ari garen alor honetan, baina ezin dezakegu ahaztu gomendio eta iradokizun zehatzak ere egin behar direla, eta, hain zuzen ere, bide horretatik doaz jarraian eskaintzen ditugun oharrak.

Ikuspuntu fiskaletik begiratuta, badirudi komenigarria dela arautegi foralake gehienezko muga bat ipintzea etxebizitza baten salneurriari, inbertitutako dirukopuruaren % 15eko kenketa bat egin ahal izatearren pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren oinarri zergagarritik. Horren helburua, kasu honetan, ematen diren laguntzak benetan beharra daukatenei iristeko prozesuan aurrera egitea da, ohizkoa ez den etxebizitza erosteko lehenago ematen zen bonifikazioa kenduz hasitako bidetik.

Azken finean, bi dira hemen azaltzen zaizkigun puntuak: batetik, etxebizitza eskaintza publikoari buruzko informazio egokia edukitzeko eskubi-dea, eta bestetik, hiri-alokeren sektore eztabaidatua. Orobat, babes ofizialeko etxebizitzak banatzeko erizpideen inguruan sortzen diren arazoak ere azaltzen zaizkigu hemen.

A) Informazioa jasotzeko eskubidea

Kontsumitzailearen Estatutuaren inguruan, 10/1981 Legearen (EHAA 103, abenduaren 15ekoa) 8. artikulua garatzearen, Eusko Jaurlaritzak azaroaren 14ean emandako 257/1983 Dekretuak dioenez (EHAA 173, azaroaren 23koa), etxe-erakitzaileak eta sustatzaileak behartuta daude erosleari edo maizterrari etxearen ezaugarri guztiak (osasun eta higiene baldintzak, eraikuntzari buruzkoak eta energia aurrezteko neurriak) jakineraztera, BOEentzat dagoen arautegi bereziak (hirugarren azken xedapenak) kasu horretarako esijitzen duen informazio bereziaz gainera. Xedapen berritzaile hori guztiz laudagarria da, eta bere alde du, gainera, zentzu berean sei urte beranduago eman zen 515/1989 Erret Dekretua baino lehenagokoa izatea; beste kontu bat da, ordea, eguneroko praktikan betetzen den ala ez. Aurten babespeko etxebizitza batzuen adjudikatariek aurkeztu zuten kexa batek, hain zuzen ere, kontratua izenpetu aurretik erosleei haren kopia bat ematea ukatu zitzaizela salatzen zuen.

Etxebizitzaren ezaugarriei buruzko argitasunak garrantzitsuak diren arren, gure eritziz askoz garrantzitsuagoa da hiritarrari etxebizitza alorreko eskaintza publikoaren berri ematea, bai eta erosi nahi den etxean biziko direnek bete behar dituzten baldintzei buruzko informazioa ere.

Babes Ofizialeko Etxebizitzaren inguruko arautegia guztiz konplexua da, hainbat denboran zehar indarrean jarri diren arauak ere ugari-ugariak dire-

lako, eta arau horiek aldakorrek direlako etxebizitzaren merkatuaren egoera aldatzen den neurrian.

Beraz, aplikatu daitezkeen erregimenak ugari dira, eta dauden arauak erabat konplexuak izateaz gainera, oso barreiatuta daude; eta hori arazo bat da, bataz besteko hiritarrarentzat ez ezik, horiei buruz ikerketa zorrotzak egin nahi dituenarentzat ere.

Eskaintza publikoari eta bere baldintzei buruzko informazioa jasotzeko eskubidea erabat instrumentala da, eta, horregatik, eskubide hori ziurtatu behar da, etxebizitza duina izateko eskubidea benetan gauzatu ahal izateko.

Esandako guztian oinarrituz, Ararteko honek honako ekintzak proposatzen ditu:

1. Babes Ofizialeko Etxeetan bizi direnen eskubide eta betebeharren Agiri bat prestatzea, erregimen juridikoaren alderdi nagusiak (erabiltzeko baldintzak, gehienezko salneurri eta errentak, legehausteak eta zigorrak, erreklamatzeko moduak, etab.) ulertzeko moduko hizkuntzan emateko.

2. Erakunde batzuek zein besteek ematen duten informazioa pertsonalizatzea, leihatiletan itxaroten egon beharrik egon ez dadin, eta elkarrenganako konfidantza piztu dadin Administrazioaren eta hiritarraren artean.

3. Aldian-aldian liburuskak argitaratu eta banatu behar dira, zer nolako laguntzak eska daitezkeen, zeintzuk diren haiek lortzeko baldintzak, eta etxebizitza bat eskuratzeko laguntza jasotzen denean zer nolako mugapen eta debekuak dauden azaltzeko. Ekimen hau guztiz interesgarria litzateke sustapen pribatukoak diren babes ofizialeko etxebizitzak zaharberritzeari dagokionez, bigarren eskuko etxebizitzetarako laguntzei dagokienez, bai eta babes ofizialik gabeko etxebizitza amaituei dagokienez ere.

4. Aztertu behar da modurik ba ote dagoen Eusko Jaurlaritzaren Kontsumo Zuzendaritzak eta plangintzekin zerikusia duten udalek bat eginik lan egiteko; horrela, gure herrian dauden kontsumitzaileen informaziorako udal bulegoek (48 guztira) BOEei buruzko informazioa ere ematerik izango dute beren lan esparruaren barruan. Horretarako, beren langileak bertziklatzeko ildoak finkatu, beren ordutegiak moldatu, osagarritzko gastuez arduratu, eta, azken finean, berriz antolatu beharko liriateke. Ondo baino hobeto dakigu arazoak gerta daitezkeela hemen ematen dugun aholkua mamitzeko, baina tresna hori ondo erabiliz gero erabat arrazoizkoa litzateke kontutan hartzea.

B) Hiri-alokerak

Konstituzioaren 47. artikulua etxebizitza edukitzeko eskubidea ziurtatzeko beharra ezartzen die botere publikoei, baina esan gabe zein izan behar duen edukitzeko erregimen egokienak. Bere aplikazioan urrunago joan da, ordea, eta erositako etxebizitza batez ere bultzatu du Administrazioak, bai dirulaguntzaren eta zuzeneko eraikuntzaren bidez, bai zeharkako laguntza fiskalen bidez.

Espainiako estatuan alokatutako etxebizitzak gutxi badira (etxebizitza guztietatik % 11,75), Euskadin are larriagoa da egoera, zeren eta, Herri-Lan

eta Hirigintz Ministraritzak 1989an zeuden alokerari buruz egin zuen inkesta baten arabera, gurea bait da alokerako etxebizitza gutxien dituen elkarte autonomoa (Euskadin bizi direnetatik bakarrik % 7,2 bizi dira alokatutako etxebizitza batean, hau da, Estatuko batuz bestekoa baino 4,3 puntu gutxiago).

Ez gara oso ausartak izango alokeraren alorrean arazo ugari pilotzen direla esaten badugu: arau zorrotzak, aukera eskasa, eskaintza berrian errenta txikirik eza, alokaturiko etxeen kontserbazio egoera txarra, tratamendu fiskalean gertatzen den bereizkeria, etab.

Egoera orokorra planu bikoitzean kokatu behar dugu:

1. Alde batetik, arauari dagokienez nahaste handia dago.
2. Bestetik, apenas eskaintzen den alokaturiko etxebizitza babesturik, Administrazioak sustatzeko ahaleginak egin dituen arren, ugariak bezain alferrekoak egin ere.

Lehen planua alde batera utziko dugu, hiri-alokeren erregimen juridikoa finkatzeko ahalmena Estatuari dagokiolako, Konstituzioaren 149.1.8 artikulua arabera; hala ere, esan behar da arau-berrikuntzen artean gutxi direla iragartzen direnetik burura eramaten diren arte alokeraren legeria bezainbeste atzeratu direnak, eta hori haren garrantzia erabat kontutan hartzekoa delarik, BOEentzako ordezeko izaera duelako.

Autonomi Komunitatean alokaturiko etxebizitzaren alorra suspertzeko beharrari dagokionez, arautegi batzuen eta besteen motibu-azalpenetan jasotzen diren asmoak gorpuztu egin behar dira haien artikuluetan, era horretara arau eraginkor bihurtzeko. Alokaturiko etxebizitza sozialen eskaintza ez da nahikoa, esaten dugun bezala, (baina bai, ordea, Estatuko beste zenbait lekutan baino handiagoa), baina sustapen pribatuko alokaturiko BOEen eskaintza, aldiz, ia hutsaren pare da.

Badirudi ezinbestekoa dela Eusko Jaurlaritzak eta udalek beren ahaleginak bereizki gai honi eskeintzea, bai eta beren esku hartzea, inolako beldurrik gabe, alokera bultzateko zeregina, horrek dexente lagunduko duela etxebizitza edukitzeko dagoen behar gero eta handiagoari erantzuna ematen. Horri begira, honako neurri hauek har daitezela proposatzen dugu:

1. Alokera eta jabetza hurbildu, jasotzen duten tratamendu fiskalean.
2. Udalek esku hartu behar dute Eusko Jaurlaritzarekin eginiko hitzarmenen bidez, haiek direlako hiritarrarengandik hurbilen daudenak, auzokoen beharrak eta zertzeladak hobeto ezagutzen dituztenak, eta alokaturiko etxebizitza sozialak hobeto gestionatu eta kontrolatu dezaketenak. Baliabide gutxiko udalen kasuan, Eusko Jaurlaritzak har lezake protagonismoa, gestio elkartearen bitartez.
3. Azkenik, behar-beharrezkoa da ideiak plazaratzea alokeran utziko diren BOEak eraikitzea errentagarria eta, horren ondorioz, erakargarria izan dadin ekimen pribatuarentzat.

Oso interesgarria da Suediako eredua, alokaturiko etxebizitzak gizartearen integrazioarako eredu direlako. Horretarako, hautatzeko aukerak

ugaldu behar dira, eskaintza orokorrari utzitako etxebizitza sortak erreserbatuz, eta dirusarreraren aldetik inolako mugarik ez ipiniz horrelako etxeak eskuratu nahi dituztenentzat. Hori bai, errenta handiagoak dauzkaten etxedunek alokera handiagoak ordainduko lituzkete, gainazalaren eta hornimenduen aldetik ezaugarri hobegoko etxeak lortzearen truke.

C) Babes ofizialeko etxebizitzak banatzeko erizpideak

Ararteko Erakundeak 1991. urtean jaso dituen kexa batzuek adierazten dute nahiko baliorik ez zaiela ematen, eta inoiz baliorik batere ez, egoera pertsonal batzuei, etxebizitzak banatzeko erizpideen barruan. Erizpide horiek eskatzailearen etxebizitzaren gainazalean oinarritu ohi dira, batez ere, eta ahazturik uzten dute kasu batzuetan, ezaugarri objetiboen aldetik, eskatzailearen etxebizitzak balio berezirik merezi ez duen arren, balioa bai izan beharko lukeela bertan bizi denaren egoera pertsonalari begiraturaz gero (igogailurik gabeko etxeetan bizi diren aiton-amonak, senitarteko ezinduak dauzkatenak, etab.).

Aipatu behar da, baita ere, ezinduentzat etxebizitzak erreserbatzea ia alferreko neurria dela 34 etxebizitza baino gutxiago eskaintzen direnean (eta hori oso sarritan gertatzen da udalerrri txikietan), gutxienezko horren gainetik aplikatzen hasten baita erreserba hori. Horren medioz, hirigune txikietan bizi diren ezinduak diskriminazio positiborako neurri horietatik kanpo geratzen dira.

Joan den urteko txostenean ere aztergai izan genuen egoera pertsonal horiek nola hartu behar diren kontutan etxebizitza beharra zehazteko orduan, eta uste dugu aurten ere berriz adierazi behar dugula beharrezkoa dela aurreko aldian eskatzen genuen errebisioa egitea.

7.6. ESTABLEZIMENDU PUBLIKOETAKO ZARATEN INGURUKO ARAZOARI BURUZKO HURBILKETA JURIDIKOA

7.6.1. Sarrera

Hirietan ingurugiro egoki eta osasungarriaz gozatzea, hiritar guztiok sentitzen dugun nahia da; gizabanakoen izaera osoki eta modu orekatuan garatzeko aukera ematen duen bizitza kalitatearen adierazlea da.

Helburu hori lortzearen, etengabe kutsaduraren kontra joan beharra dago, gizakia aurkitzen den leku guztietan elementu distortsionagarria delako. Biztanleak gero eta gehiago pilatzen dira hirietan, eta horiek jarduera ezberdin ugari biltzen diren giro konplexu bat osatzen dute. Horregatik, inguru gizatiar, duin eta bizigarri bat izatearren kutsaduraren kontrako burruka ezinbestekoa da.

Historikoki, hiri antolamendu eta planifikazioei buruzko txostenetan zonan bereiztean aurrerapausu handiak eman dira hirietako erdialdeen bizigarritasunean eta ingurugiroaren kalitatean, elkarren artean konponezinak ziren erabilerak aldendu eta isolatu direlako. Hala eta guztiz, hirietan erabi-

lera mota asko daude, eta gizonak eremu eta espazio berean jarduera ezberdinak elkartzeko joera duenez gero, hiriak horretarako aukera paregabea ematen dio. Hiriko ingurugiroaren defentsan eta hirian bizitza kalitatea ere bilatzen delako, espazioan eta denboran bizitzeko, lana egiteko, garraioak edukitzeko, aisiarako, etabarrerako aukerak batera burutzeko aukera emango duten teknikak eta arauak sortu behar dira.

Kutsadura, gure hirietako ingurugiroa pobretzen duen faktore moduan, hainbat elementuren bidez hedatzen da, hala nola uraren eta airearen bidez, eta azkeneko horixe da keak eta zaratak erabiltzen dutena.

Uraren eta hiri sistemak sortarazitako hondakinen gestio oso bat beharrezkoa da. Eguratsa babesteko eta alde zurreko neurriak hartzeko politika egoki batek, elementu tinkoek, adibidez industria eta tailerrek, eta elementu mugigarriek, esate baterako ibilgailuek sortutako airearen kutsadura garbitu edo murriztu behar du.

Baina agian, hirietan zarategatik dagoen kutsadura da tratamendurik zailena daukana. Motor edo makinaren soinu-mailak mugatzea ez da aski, hiri morfologiari dagozkion alderdiek, teknologia, soziologia eta kultura mailakoek ere modu erabakiorrean eragiten dute.

Eraikinak eta kaleetan lanak egiteko erabiltzen diren makinak, zaratarren kontrako teknikaz hornitu behar dira; garraioaren zaratak ibilgailuen motorrak kontrolatuz eta zirkulazioa eta bide nagusiak hobeto antolatuz murriztu behar dira; elektrogailuen funtzionamenduan eta etxeko obretan zarata mugatu; sirena eta alarman erabilera arautu; aisian eta denborapasan bizilagunek dauzkaten ohitura sozialak aldatu, etabar; hitz batean, hiriaren planifikazio eta gestio egoki batetik heldu behar zaio arazo honi.

Hiritarrek zarataren aurrean daukaten sentiberatasuna gero eta handiagoa da, eta horren gaitzei aurre egiteko prebentzio eza mugatze mailako neurriak har daitezela eskatzen dute. Etengabe zaratak entzuten egoteak kalte handiak sor ditzake, entzumena hondatu, nahaste psikikoak eragin, atsedena galdu, ez du lana normal egiten uzten eta pertsonen arteko komunikazioa eta elkarbizitza ona kaltetzen du. Zarata, laburbilduz, hirietako bizimoduaren kalitatea gehien kaltetzen duen faktoreetako bat da.

Azken urte hauetan sortu den kezka hau Ararteko Erakundean ere nabaritu da, gero eta kexa gehiago aurkezten bait dituzte bizilagunek gogai-penen eta gehiegizko zaraten kontra, normalean aisiarako ostalaritzako jardueren funtzionamenduan legea errespetatzen ez delako.

Gure hirietako zaratarik handiena garraioak sortarazten duen arren, hiritarrentzat hau baino mingarriagoa da denborapasarako jarduerak sortutakoa. Garraioaren arazoa nagusiki egunez gertatzen da, berak sortzen duen zarataren tonua jasangarria gertatzen da, eta gainera, etxeak eta lokalak errazago isola daitezke horietatik babesteko. Bestalde, ez da ahaztu behar zarata mota hori erabat kentzeko egitura mailako konponbideak aurkitu behar direla, normalean oso konplexuak eta epe motzera edo erdi epera burutzen zailak direnak.

Denborapasarako lokaletara gero eta pertsona gehiago joaten dira, eta horregatik era horretako lokalak gero eta gehiago irekitzen dira, eta normalean hirietako zona jakin batzuetan biltzen direnez gero, are gogaikarriagoak gertatzen dira guzti horiek batera eragiten duten zaratak.

Fenomeno honek eragin handia du gizartean, eta hiritarrak horregatik dira gero eta zorrotzagoak aginte publikoekin, eta beren osasuna eta atsendena, bereziki gauekoa, etengabe zain ditzatela eskatzen dute, eta "lasaitasunaren administrazio polizia" delakoak neurriak har ditzala.

Azterketa honen bidez arazo honetara hurbilpen bat egin nahi da; denborapasa eta ostalaritzako jarduerak eragindako zaratek biztanleei sortzen dizkieten arazorik nagusienak zein diren ikusi, arazo hauen aurrean Administrazioaren erantzuna zein den eta zein tresna dauzkan jakin nahi da. Honela, eta Arartekoaren bidez, Administrazioa bultzatu nahi da aipatu diren helburuak lortzeko bitarteko gehiago jar ditzan eta arautegiaren erreformari ekin diezaion, gure ustez ezinbestekoa, lehentasunezkoa eta premiazkoa delako.

7.6.2. Establezimendu publikoen funtzionamenduak sortzen dituen zaraten azterketa

7.6.2.1. Biztanleen eskubideei eragiten dieten ikuspuntutik

Erakunde honetan jaso diren kexen artean nabariak dira jarduera gogaikarri izenpekoek, eta bereziki ostalaritzako establezimenduen funtzionamenduak sortzen dituzten zaratek, biztanleei eragindako kalteei dagozkienak. Urtez urte mota honetako kexa gehiago aurkezten dira, eta horrela, 1991. urtean zarata gogaikarriak salatzen dituzten kexak aurreko urtean aurkeztutakoak baino hiru bider gehiago dira.

Zarata gogaikarri hauek sortzen dira, establezimenduaren jarduera-baimenean baldintza bezala agertzen ziren zaraten isolamendurako neurri zuzentzaileak betetzen ez direlako, hain zuzen ere.

Horrela, foru aldundietako ingurugiro sailek jarduera horiek sailkatzerakoan, lokala insonorizatzeko beharra ezartzen dute, jarduera mota bakoitzarentzat ezarritako eta baimendutako dezibelioak gainditu ez daitezen.

Sarritan gertatu ohi da, ordea, neurri zuzentzaileak jarduera martxan jartzerakoan betetzea, baina gero, denboraren joanean, horien aplikazioan nagitasuna nagusitzea, zaratak eragindako kutsadura sortaraziz eta biztanleen lasaitasun eta intimitatean, beren bitzta kalitatean, eta batzuetan baita beren osasunean ere eragin kaltegarriak edukiz edo edukitzeko zorian egonaz.

Beraz, jarduerarako baimena emateko pausuak ez dira agortzen horri neurri zuzentzaileak ezartzearekin, ez eta jarduera martxan jarri aurretik neurri horiek betetzen ote diren udal teknikoek frogatzearekin ere. Horregatik esaten da zenbait ekintza uneoro eskatu behar direla, jarduerak funtzionatzen duen denbora guztian alegia.

Zeregin hau zaila gertatzen da zentzurik zabalenean ikuskizun eta denborapasarako establezimenduetan, eta hor ostalaritzako jarduera guztiak ere sartzen ditugu. Establezimendu horietan, zaratak, ezarritako musika ekipoen indarraren intentsitatearekin zuzenki erlazionatuta egoten dira, eta indarra botoi bat mugitu hutsarekin erraz alda daiteke. Aldiz, merkataritzako beste jarduera batzuek sortzen dituzten zaratak etengabeak eta tinkoak dira, eta

beraz kontrolagarriagoak, batzuetan zaratak kentzeko dardararen kontrako elementuekin makinak lotzea aski izaten bait da.

Era berean, biztanleek kexa asko aurkezten dizkiote Erakunde honi ustez legez kanpo datiden jarduerak sortzen dituzten zarata gogaikarriengatik. Salaketa horiek ondorengo kasuei dagozkie:

A) *Beharrezko lizentziarik gabe diharduten jarduerak.* Kasu hauetan Administrazioak ez du esku hartu bizilagunen batek establezimenduak sortzen dituen zaratak salatu dituen arte. Kasu gehienetan, udal agintariek lokal horien jabeek eskatzen diete jarduera legeztatu dezatela, eta legeztatze tramieta daudela, eta Udalak jarduera hori neurri zuzentzaileen arabera egoki dezatela eskatzen dienean, establezimendu horien jabeek estatus juridiko edo eskuratutako eskubideak aldarrikatzen dituzte. Epaitegi Gorenaren jurisprudentzia luzeak adierazten duen bezala, argudio horrek ez du zentzurik, Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuen Arautegiaren (aurrerantzean JGA) pean dauden jarduera sailkatuen aurrean gaudelako; gainera, aipatu Araudiko Aldi baterako Bigarren Xedapenak hau dio: "Arautegi hau argitaratzen denean, bere 3. artikuluan sartzen diren eta udal administrazioaren beharrezko baimenarekin jardueretakoren bat burutzen dutenei errespetatuko zaizkie eskuratutako eskubideak, Arautegi honetan arautzen diren beharrezko elementu zuzentzaileen ezarketari dagozkien betebeharren kalterik gabe". Beraz, JGAk berak ezartzen du elementu zuzentzaileak jartzeko obligazioa, eta ondorioz Administrazioak neurri zuzentzaileak jartzeko eskatzen duenean, ezin dira eskuratutako eskubideak aldarrikatu.

B) *Establezimenduak, irekitzeko beharrezko baimena jaso baino lehen jarduerari ekitea.* Behin baino gehiagotan gertatzen da, Administrazioak, jarduerarako lizentzia eta irekitzeko baimenaren espedientea tramitatzeko eta konpontzeko atzerapenaren aurrean, jarduera hori modu irregularrean martxan jartzeko baimena ematen duela, eta normalean, gainera, udal teknikariek jarduera hori dagozkion neurri zuzentzaileen arabera egokitzen ote den frogatzeko beharrezko ikuskapena burutu gabe. Egoera horrek aldi bat irauten du, hilabete batzuk, eta azkenik jarduerarako lizentzia eta irekitzeko baimenak emateko Udalak ateratzen duen dekretuarekin konpontzen dira.

C) *Jarduera legeztatuak eta baimendu gabeko erabilerak.* Kasu horiek honelako baldintzetan ematen dira: dastalekuetan, non akohola saltzea debekatuta bait dago; publikoarentzat sarritan irekitzen diren sozietate pribatuak; baimenean iragarri gabe indar handiko musika ekipoak jartzen dituzten kafetegiak, etabar. Kasu guzti horietan, arazoa konplexuagoa izaten da, jarduera baimentzen duen irekitzeko baimen bat bait dago, nahiz eta erabilera batzuk baimendutakotik kanpo geratu, eta beraz, klandestinitzat jo daitezke. Batzuetan, ezin da frogatu erabilera osagarri hori legez kanpoko denik, batez ere nolabaiteko isiltasunarekin edo disimuluarekin burutzen denean.

Esan behar da, baita ere, sarritan zaratek sortutako gogaipenak ikuskizunak eskaintzen dituzten establezimenduek sortarazten dituztela zeharka,

hau da, lokal barruko jarduera hori baimendutako gehienezko soinu mailetara egokitu bai, baina —eta hau pub, taberna eta kafetegietan gertatu ohi da— jendea edariak edatera kalera ateratzen denean. Hori, hiri eta herrietako alde zaharretan gertatu ohi da, eta baita, hirietako zabalguneeetako zona batzuetan ere, haietan ikuskizunerako establezimendu asko biltzen direnez gero, modaren arabera, pertsona ugari biltzen direlako.

Giro horietan, ikuskizunetarako establezimendu publikoek ez dituzte atea beharrezko orduan ixten, eta horrela, zaratak sortzen dituen gogaipekin are larriago bihurtzen dira goizaldean gertatzen direlako, aste buruetan, batez ere.

Udal askok, beren oinarrizko planeamenduko hiri ordenantzetan badaezpadako neurri bat sartu dute, ostalaritzako establezimenduak nahiko pilatuta dauden zonetan berriak irekitzeko gutxieneko tarte batzuk egotea bermatzen duen arautegi bat indarrean ipiniz.

Bestalde, zaratak neurtzeko prozedurak eta neurketaren emaitzak salatzen dituzten kexak gero eta gehiago aurkezten dira, behar bezala gaitutako pertsonak ez dituztelako egin, edo beharrezko ekiporik gabe egin direlako neurketa horiek.

Euskal Autonomi Komunitateko hiru hiriburuetan eta udal gutxitan salbu, beste herrietan ez dago zaraten neurketa behar bezala egiteko gaitasuna duen udal langilerik. Batzuetan aparejadoreak dira lan hori egiten dutenak, beste batzuetan udaltzaingoek egiten dute, edo baita ertzainek ere, eta kasu gehienetan horiek ez daukate lan horretarako prestaketa tekniko egokirik.

Horren ondorioz, hiritar askok jartzen dute zalantzan neurketen emaitza, salatutako jarduerak kanpora jaurtitzeko dituen dezibelioek arauak baimendutakoa gainditzen dutela uste izaten bait dute, nahiz eta egindako neurketak ez adierazi hori.

Beste batzuetan, zaratak sortzen dituzten establezimenduen jabeak dira, udal teknikariak bizilagunaren etxera neurketa egitera joan zirenean ez zitzaizela abisatu esaten dutenak, eta halere, ekintza horrek kargu proba bezala balioa du zigor neurri bat jartzeko.

Normalki Erakunde honetan aurkezten diren kexak, eragindako jabeen komunitateak osatzen duen kolektiboenak dira, izan ere ez bait daude etengabeko gogaipekin jasateaz bakarrik aspertuta, baizik baita udal agentzien aldetik nahi bezalako laguntzarik ez jasotzeaz ere.

Udalen laguntza eza era ezberdinetan nabaritzen da: jarduera baimendu baino lehen badaezpadako frogak egiten ez direlako lokalen zaraten aurkako sistema horniketaz eta neurri zuzentzaileen funtzionamendu zuzenaz, edo jarduera martxan dagoenean aldian-aldiko frogak egiten ez direlako, guzti hori JGAN aitortzen zaien ikuskapen ahalmenean sartu arren. Bestalde, Administrazioak batzuetan ez du zaintzen establezimendua denboraldi baterako ixteko emandako agindua edo musika ekipoak erretiratzeko emandakoa betetzen ote diren ala ez.

Administrazioaren geldikeria horren aurrean eragindako biztanleei gertatzen zaien aukera bakarra, auzi bidera jotzea da, eta horrek gastu ugari sortzen ditu. Horretaz gain, bide hori are alferrekoagoa izaten da, errekursoa Epaitegian aurkezten den unetik epaia ematen duen arte igarotzen den denbora luzeagatik, nahiz eta badaezpada jardueraren funtzionamendua

etetea eskatzeko aukera geratzen den. Hiritarrek gora-behera guzti horiek jasan behar dituzte udal aginteez beren zeregina bete dezaten lortzeko, alegia, establezimenduak jarduerarako baimenean jasotako neurri zuzentzaileak ezartzera behartzeko.

Gerta daitekeena da Epaitegiak Administrazioari neurri zuzentzaile batzuk jarri edo jadanik ezarritakoak bete ditzala, edo zigorrak ezarri ditzala agintzea eta Administrazioak ez betetzea, edo epaia betetzeko epea atzeratzea. Kasu hauetan, epaia betetzeko pausuak ematen diren bitartean, hiritarrak auzitegien epai berri bat eskatu beharko du, epai hori betetzeko ardua daukan Administrazioak dagokiona egin dezan.

7.6.2.2. *Establezimendu publikoen jabeek dauzkaten arazoek ikuspuntutik*

Establezimendu publikoen jabeek dauzkaten arazoek ikuspuntutik begiratuta, honako ohar hauek egin behar dira:

— JGAk ezartzen dituen epeen arabera, jarduerarako baimenaren espediente bideratzeko bi hilabete eta erdi beharko lirarteke, gutxi gora-behera, jabeak bere proiektua aurkezten duenetik, Udalak baimena eman arte.

Tramitazio hori, hala ere, atzeratu oi da, jabeak behar diren agiri guztiak eramaten ez dituelako —era horretara isiltasunerako epea ere eteten delarik—, edota Administrazioagatik beragatik, prozedura horretan erakunde batek baino gehiagok hartzen dutelako parte, eta haietako gehienek era honetako eskariak tramitatzeko behar diren bitarteak, bai pertsonal bai material mailakoak, ez daukatzelako.

Guzti horrek, azken finean, kalte ekonomiko handia dakarkie jabe horiei, obrak egiteko baimena ezin dutelako jarduerarako baimena eskuratu arte eskatu, eta, horrela, berandu samar arte ezin dutelako ireki beren establezimendua.

— JGAren 33. artikuluko 4. ahapaldian finkatzen den bezala, baimena eskatzen den egunetik hasita lau hilabete igarotzen direnean erabakirik hartu gabe eta eskatzaileari horren berririk eman gabe, honek atzerapen hori salatu ahalko du Udalan eta Probintziako Zerbitzu Teknikoen Batzordean (gaurregun Foru Diputazioan edo Eusko Jaurlaritzan jarduera lekutu nahi den zoru motaren arabera); eta salaketa egiten duenetik bi hilabete igaro ondoren, baimena eman diotela ulertu ahalko du, isiltasun administratiboaren bidez. Hortaz, sei hilabete igaro behar dira era honetako baimenak eskatzen dituztenek isiltasun positiboaren bidez beren jarduerak baimena duela ulertzeko, eta gure eritziz epe hori ere gehiegizkoa da.

Isiltasun administratibo positiboaren bidez jarduera hasten duten establezimendu publiko hauetan, Udalaren zerbitzu teknikoek ezin izaten dute beharrezkoa den ikuskapena egin, eta, beraz, ez da frogatzen establezimenduak betetzen ote dituen ala ez aplikatu behar diren neurri zuzentzaileak. Horrela, jarduera horiek auzokoentzat gogaikarria den edozein motatako kalterik eragiten dutenean, auzokoek Udal agintariari salatzen badiote hori, orduan Udalari dagokio neurri zuzentzaileak betetzen ote diren ikuskatzea. Horren ondorioz frogatzen baldin bada establezimendu horretako jarduerak

ez dituela betetzen legearen arabera eskatu behar zaizkion baldintzak, orduan Administrazioak, bada-ezpadako neurri bezala, establezimendua ixtea erabakitzen du. Horren inguruan, Epaitegi Gorenaren jurisprudentziaren arabera, ezin daiteke ulertu isiltasun administratiboaren bidez baimena eman denik espreski ematerik izan ez denean, hori argi eta garbi debekatu bait du lege antolakuntzak.

— Edozein establezimendu publiko zabaldu ahal izateko, baimenean ezarritako neurri zuzentzaile guztiak betetzea beharrezkoa da. Auzokoek ez badiete establezimendu horietako jabeek obrak egiteko baimenik eman nahi, eraikuntza osoko amankomuneko elementuei eragiten dietelako, orduan jarduera horretan aritu nahi dutenek ohizko epaitegietara jo beste erremediorik ez dute, eta, kasu horietan normalean, derrigorrezko zortasuna dagoela aitortzeko eskatu behar izaten dute. Kasu hauetako gehienetan, auzokoek ez dute beren baimena eman nahi izaten, jarduera horren eragin gogaikarriak jasan beharko dituztelakoan, eta, batzuetan, jarduera horren eragirik beren etxebizitzek balioa galduko dutelakoan.

Batzuetan, establezimendu publikoetako zaratak salatzeko Erakunde honetan aurkeztu diren kexak aztertzean ohartu gara Administrazioak jardueraren jabeak bere lokala zarataren kontrako sistemaz hornitzeko agintzen dionean, eta neurri zuzentzaileak betetzen ote diren ala ez ikuskatzeko duen ahalmenaz baliatu nahi izaten duenean, auzokoek ez dietela beren etxebizitzetara sartzen uzten udal teknikariei, eta hauek, beraz, ezin dituztela beren neurketak egin, ez eta zarataren kontrako sistemak behar bezala funtzionatzen duen ala ez frogatu.

7.6.2.3. *Administrazioaren jokabidearen ikuspuntutik*

Jarduera gogaikarrien arautegia indarrean jartzea nekeza da Administrazioarentzat, eta ez dio etekin handiegirik ematen, askotan behar bezalako prestakuntzarik ez eta bultzagarrikerik eduki gabe aurre egin behar izaten die-lako establezimendu publikoek eragiten dituzten zaraten arazoei.

Jarraian azalduko ditugu Administrazioak, eta udalek nagusiki, zarata bidezko kutsadura kontrolatzeko orduan aurkitzen dituzten oztopoak, bai lege aldekoak, bai praktikoak ere.

Administrazioak behar baino balio gutxiago eman izaten die establezimendu publikoak ikuskatu eta kontrolatzeko zereginei, eta askotan ez die behar bezalako arreta eskaintzen, edota horretarako behar diren bitartekoak jartzen. Esan behar da, hala ere, azkenaldi honetan joera hobea antzematen ari dela, eta gutxinaka-gutxinaka gero eta gehiago izaten ari direla udalek alor honetan egiten dituzten ahaleginak.

Udalerrri txiki eta erdi mailako askotan, etxe bateko auzokoak gutxi, eta haien arteko harremanak zuzenak izaten direnez gero, arazo handiak egoten dira neurri zuzentzaileak beteratzeko eta, hala badagokio, zigorrak ezartzeko; izan ere, neurri horiek hartu behar dituzten udal arduradunek eta neurri horiek bete behar dituzten establezimendu horien jabeek oso hurbileko harremanak izaten dituzte elkarren artean. Kasu horietan, hobe izaten

da ekintza batzuk urrutiagoko maila administratibo batetik egitea, foru aldundietatik, esate baterako.

Ahalmenak erakunde publiko desberdinen artean barreiatuta egotean, askotan erakunde publikoek ez dute hainbat arazori buruz ardurarik hartzen. Era berean, eginkizun batzuk, ikuskaritza eta zigorra kasu, herri-erakunde bat baino gehiagoren esku egoten direnez gero, nekeza izaten da kontrol neurri egokiak hartzea, eta arduradun administratiboek inoiz ihes egiten diote beren erantzunkizunari, ahalmen hori ere duten beste sail batzuren esku utziz. Esaten dugun hau udaletan gertatzen da sarritan, baina ez haietan bakarrik; hori bai, haien ahalmenen-esparruan antzematen edo salatzen da inon baino lehenago jardueraren irregulartasuna edo haren era-gin kutsagarria.

Beste alde batetik, Administrazioak bere esku dituen araugintzarako tresnak, era hauetako arazoetan esku hartzeko modua ematen diotenak, ez dira egokiak ez eta nahikoak, eta zaharkituta daude. Dagoen arautegi tekniko ia bakarra Eusko Jaurlaritzaren dekretu bat da, eta hartan ez daude araupetuta guztiz funtsezkoak diren hainbat alderdi; esate baterako, zer nolako prozedura jarraitu behar den zaratak neurtzeko, zer nolako prestakuntza teknikoa izan behar duten neurketa horiek egin behar dituzten funtzionarioek, edota zernolako ezaugarriak eduki behar dituzten horretarako tresnek. Halaber, baimenak emateko prozedurari buruzko arautegia mantsoa eta burokratikoa izaten da, eta, gainera, ez dio behar adinako babesik ematen zigortzeko prozedurei erabat funtsezkoak diren zenbait puntutan: hots, frogetan, bada-ezpadako neurrietan edo zigorretan. Horregatik, etengabe jo behar izaten da jurisprudentzia interpretatzera.

7.6.3. Erregimen juridikoa

Ostalaritza eta denborapasarako jardueretan zarata erregulatzeko erabil daitekeen arautegia zerrendatu eta aipatu baino lehen, hainbat oharpen egin behar da horren erregimen juridikora hurbilduaz joateko.

Ingurugiroaren kontserbazio eta hobekuntzak, horren erabilerak, baliabide naturalen eskuratze eta babesak eta horiek ingurunean eta bizitza kalitatean izan ditzaketen eraginak, harreman konplexuak sortzen dituzte elkarren artean eta modu desberdinez baloratzen dira, dinamika sozial aldakorren arabera. Honek zailtasun berezia sortarazten du arazoa testu juridikoa jasotzerakoan eta, azken batean, printzipio zuzentzaileen zerrendaketa huts, kontrol eta gestiorako erakunde publikoen sorketa, eta kontrolerako prozedura eta tekniken definizioaz haruntzago joango diren erizpide arautzaileak ezartzerakoan.

Hiriko zaratak ezaugarri horiexek ditu, baina, horretaz gain, neurtu egin daiteke intentsitate eta maiztasunaren bitartez eta, beraz, osasunerako eta ingurunerako kaltegarritasunaren muga diren parametro finkoak ezar daitezke.

Denborapasa eta ostalaritza alorreko jarduerak sortzen duten zarata, jarduera gogaikarrien barruan sartzen da eta jarduera horien arauketak ezaugarri hauek ditu: batetik enbor nagusia, hau da, kontrolerako aurrikuspen sistemak, ondorengo egiaztatze-ikuskaritzak hala nola zigortze bideak

arautzen dituen prozedurari buruzko arautegia. Arautegi orokor edo horizontal honek kasu bakoitza erregelamenduen bitartez arautzen duten arau teknikoetara, bertikalak eta askotan ugari eta konplexuak diren etara, igortzen gaitu berriro. Era berean hirigintz-arautegiarekin eta planeamendu lokal osoarekin dago loturik.

Alor honetako erregimen juridikoaren beste berezitasun bat da administrazio askok dutela honetan eskumena, batzuk arautzekoa eta beste batzuk betertzekoak. Beraz, kasu bakoitzean aplikatu beharreko erregimen juridikoa zein den jakiteko garrantzitsua da administrazio publiko desberdinen arteko eskumenen banaketa definitzea: EEE, Estatuak, elkarte autonomoak, lurralde historikoak eta udal erakundeak.

Konstituzioaren 149-1-23. artikulua ezartzen du Estatuak bakarrik duela eskumena "ingurugiroaren babesari buruzko oinarrizko legegintzaren alorrean, Autonomi Komunitateek babeserako arau osagarriak ezartzeko duten ahalmenaren kaltetan gabe". Egun Estatuak ez du oinarrizko eskumen hori gauzatu eta, beraz, ez dago ingurugiroa oro har eta zarata bereziki erregulatzen duen araurik. Hala ere, aurrerago ikusiko dugunez, hainbat elkarte autonomok gauzatu egin dituzte ingurugiro eta jarduera sailkatuen alorrean dituzten garapenerako arautze eskumena.

Euskal Herriko Autonomi Komunitateari, Autonomi Estatutuaren 11-1-a) artikulua babesean, onartu egiten zaio ingurugiro eta ekologiaran alorrean Estatuaren oinarrizko legeria bere lurraldearen barruan legez garatu eta aplikatzeko eskumena, eta horren barruan sartzen dira bai jarduera sailkatuak bai zaratak.

Foru Administrazioaren eskumena betertzekoak baino ez da, ez legegintzakoak, eta azaroaren 25eko Autonomi Komunitateko Institutio Amankomunen eta Lurralde Historikoetako Foru Organoen arteko Harremanetarako 27/1985 Legeko 7-c) 6 artikuluan biltzen da. Horrela bada, lurralde historikoei dagokie beren lurraldeetan, instituzio amankomunen legeria betertzeko egoitzetarako hirilurrean ezar litezkeen jardura gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arrikutsuen sailkapen, neurri zuzentzaileen ezarpen, ikuskaritza eta zigortze esparruan, beti ere lurralde historiko edo elkarteaz gaineko udal erakunde bat baino gehiagori ez badagokio eta Legeak udal erakundeei ematen dizkien eskumenen kalterik gabe.

Azkenik, udalek badute alor honetan jardun eta arauak emateko eskumena 1985eko Erregimen Lokalaren Legeko 25-2-f artikulua, 1986ko Osasunaren Lege Nagusiko 42-3-a) eta b) artikulua, eta, alor hau arautuko duten ordenantzak emateko ahalmena onartzen dien 1961eko JGAren 6. artikulua arabera, nahiz eta Osasunaren Lege Nagusiko artikulua izan ezik, zarataren aipamen berezirik agertu ez agindu hauetan.

7.6.3.1. *Prozedurari buruzko arautegia eta arautegi berezia*

A) *EEEko Arautegia*

Erromako 1957ko Itunean ez zen ingurugiroaren babesaren inolako aipamen zehatzik egin. Hutsune hori gainditu egin zen 1986an Europako

Akta Bateratua onartzean, bertan alor honi buruzko idazpuru zehatza sartu bait zen (VII. Idazpuru "Ingurugiroa", 130-R, 130-S eta 130-T artikulua).

Nolanahi ere, eta honekin loturik baina Erromako Itunean babesturik zeuden bestelako eskubideen defentsaren interesetan, Europako Kontseiluak ingurugiroari buruzko bigarren ekintza programa onartu zuen 1977an eta, 1972ko aurrekoak ez bezala, honek zarataren kontrolari buruzko kapi-tulu zehatz eta berria zuen.

Ezin dugu ahaztu elkarteko arauak, Estatuko egunkari ofizialean edo Komunitateen Aldizkari Ofizialean (kasuen arabera) argitaratu ondoren aplikatzen dituztela elkarteko kide diren herrialde guztiek Estatuko arautegiaren gaineko lehentasunez eta, beraz, azken hau bazterturik eta subsidia-riotasun izakeraz gelditzen da. Horrela bada, etorkizunean EEEk establezi-mendu publikoetako zarata arautzeko ebazpenik emango balu, berehala aplikatzekoa litzateke eta zuzenbide estatal, autonomiko edo lokalaren gai-netik legoke. Nahiz eta Konstituzioak ez duen aurreikuspen hau espreski jasotzen, hori atera daiteke 95. eta 96. artikulua elkarri lotuta interpreta-tzen badira.

Orain arte onartu den eta jarraian azalduko den EEEko arautegiaren xedea hainbat fabrikazio prozesutan sorturiko zarata maila jeistea da. Honek produkzio zentruetan neurri zuzentzaileak ezarri beharra dakar eta, az-ken batean, enpresek beren gain hartu beharko kostu handiagoa; nahiz eta herrialde guztietan aplikatu beharrekoa denez eraginik ez izan Europako merkatu bakarraren barruko konkurrentzian edo merkaturatzeko azken pre-zioetan. Orain arte, hala ere, ez dago EEEan zaraten eragin kaltegarriak agertu eta horiek ezabatzeko neurriak proposatzen duen politika orokorrik.

Zarataren kontrolerako arauak

Nekazaritza edo basozaintzarako traktoreak	EEE 77/311 DIR
Eraikintzan erabilitako makineria	EEE 79/113 DIR
	EEE 81/1051 DIR
	EEE 84/532 DIR
	EEE 85/405 DIR
Motokonpresoreak	EEE 84/533 DIR
Garabi-dorreak	EEE 84/534 DIR
Ekipo elektrogenoak	EEE 84/535 DIR
Hormigoi birringailuak	EEE 84/537 DIR
	EEE 84/409 DIR
Pala hidraulikoak, kablezkoak eta kargadorak	EEE 86/662 DIR
Motordun ibilgailuetako eskapea	EEE 84/372 DIR
	EEE 84/424 DIR
	EEE 89/491 DIR
Motozikletetako eskapea	EEE 87/56 DIR
	EEE 89/235 DIR
Hegazkin subsonikoak	EEE 80/51 DIR
	EEE 83/206 DIR
	EEE 89/629 DIR

B) *Estatuko arautegia*

Hiritarren osasunaren babes eta ingurugiro egokiaren kontserbazioa, Konstituzioak 43 eta 45. artikuluetan baieztaturiko eskubideak dira.

Artikulu bi horiek Konstituzioaren I. Idazpuruaren hirugarren kapituluan daude bilduta, "Gizarte politika eta politika ekonomikoaren printzipio zuzentzaileak". Hori dela eta, 53-3 artikulua ezartzen duen gisara, printzipio hauen onespenuak, begiruneak eta babesak legegintza positiboa, praktika judiziala eta botere publikoen jarduera eragiten dute. Eta printzipio horiek garatzen dituzten legeek ezarritakoaren arabera bakarrik alega daitezke jurisdikzioaren aurrean.

Horrek esan nahi du ingurugiroaren kutsaduraren eragin nahastaileek hiritarren osasunean kalteak sortzen dituztenean edo ingurune egokiaz gozatzeko eskubidea eragozten dietenean, edo botere publikoek ingurugiroaren defentsa eta berregokitzea bazter batean uzten dutenean, hiritarrek ezin izango dutela ohizko epaitegietara jo Funtsezko Eskubideen Babes Jurisdikzionalerako 62/78 Legearen bitartez, eta ezin izango dutela Auzitegi Konstituzionalaren aurreko babes errekurtsorik jarri. Horren ordez, eskubide horiek garatu eta zehaztuko duen legea egon arte itxaron beharko dute justizia epaitegietan beren kexak aurkeztu ahal izateko.

Maiz, establezimendu publikoek sortutako zaraten eragin kaltegarriak murrizteko Administrazioak bada-epadako edo zigortze neurriak hartzen dituenen, establezimenduetako jabeek Konstituzioaren 38. artikulua aipatzen dute, zeinak merkataritza ekonomia mailan enpresa askatasunerako eskubidea onartzen bait du eta herri agintariak jarduera hori babestu eta aldezteko duten obligazioa ezartzen bait du.

Azkenik, intimitatea eta etxebizitzaren bortxaezintasuna bermatzen dituen Konstituzioaren 18. artikulua aipatu behar da. Doktrina eta jurisprudentziako joera berri baten arabera, kutsadura akustikoa hiritarren intimitate eskubidearen kontrako eraso da, eta gainera haren etxebizitza pribatuaren esparruan gertatzen da. Interpretazio honek aurrera egiten badu, ondorio garrantzitsuak ekarriko ditu, aukera emango bait die hiritarrei Epaitegi Konstituzionalera jotzeko babes eske.

Osasunari buruzko legeriak ere kontutan hartu ditu ingurugiroaren kutsadurak osasunean sor ditzakeen kalteak. Eta horren islada apirilaren 25eko 14/1986 Osunaren Lege Nagusiak (apirilaren 29ko 102. BOE) hainbat agindu ditu ingurugiro-osasunaz (19, 25, 42,... kapituluak), eta osasunarekin lotura duten ingurugiroko alorrak zaintzeko zereginetan administrazio publiko desberdinek izan behar duten erantzunkizuna ezartzen du.

Modu puntualean izan bada ere, kontsumitzaileei buruzko legeriak ere kontutan hartu ditu establezimendu publikoek hiritarren osasun, higiene edo segurtasunari sor diezaizkiekeen kalteak. Honela bada, ekainaren 19ko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsarako 26/1984 Lege Nagusiaren 37. artikulua (ekainaren 24ko 176. BOE) beharrezko osasun baimenik ez duten establezimendu eta instalazioak ixteko edo funtzionamendua eteteko baimena ematen du.

Aplika daitekeen estatuko araurik nagusia, oraindik ere, Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuen Arautegia (JGA) onar-

tzen duen azaroaren 30eko 2.414/1961 Dekretua da (abenduarien 7ko 292. BOE), eta arautegi horren instrukzio osagarria onartzen duen 1963ko martxoaren 15eko Agindua (apirilaren 2ko 79. BOE).

Arautegi hau berehala aplikatzekoa da arautegi propiorik onartu ez duten elkarte autonomoetan, eta horixe da EHEAren kasua.

Eranskin gisa Arautegiak barne hartzen dituen jardueren izendegia agertzen da, mugarik ezarri gabe, eta horrek esan nahi du Arautegiaren menpe daudela, halaber, duten eragin edo kaltegarritasun mailagatik, eta eragin gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri edo arriskutsuak sortzen dituztelako Arautegiak sailkatutako mailetara bil daitezkeen gainerako jarduera guztiak.

JGAren abiapuntua da jarduera eta establezimendu publikoek perturbazio autonomoak sortzen dituztela eta, jardueraren lizentzia lortzeko prozedura osoaren barruan jarduera sailkatzeko tramitean ezartzen diren neurri zuzentzaileen bitartez, zuzendu egin daitezkeela.

Araua orokorra da eta arautegi berezia osotzen duten ingurugiroko elementu guztiak hartzen ditu bere menpe eta, sistematikarako, kaltetu edo mehatxatzen den ingurugiroko ondasunaren arabera sailkatzen ditu jarduera guztiak. Horrela bada, establezimendu publikoak gogaikarri gisa sailkatzen dira lasaitasunaren edo erosotasunaren balio soziala eragozten dutelako; eta osasungaitz gisa sailkatzen dira gizakien osasunean gaitz patologiko arin edo larriak sor ditzaketelako.

JGAren 3. artikulua ondorengo ezartzen du: "sortzen dituzten zarata edo bibrazioengatik ezerosotasuna eragiten duten jarduerak gogaikarri gisa sailkatuko dira".

Askoz ere luzeago mintza gintezke arautegi garantzitsu, funtsezko eta zahar honetaz, baina, zalantzarik gabe, ikerketa honen helburuak gaindituko lituzke horrek. Nolanahi ere, ezin aipatu gabe utzi zaharkitua dagoela, eta arautegi hori sakonki berriztu eta eguneratu behar dela, bai estatuak edo elkarte autonomoek eraginik.

JGArekin batera Ikuskizun Publiko eta Denborapasako Jardueretako Poliziaren Arautegi Nagusia onartzen duen abuztuaren 27ko 2.816/82 E.D. aipatu behar da (azaroaren 6ko 267. BOE). Arautegi hau ostalaritza establezimenduetan aplikatzeak, establezimendu publikoak bait ziren araudia-
ren arabera, interpretazio arazo ugari sortu zituen eta zirkular bat argitaratu zen Arautegiaren aplikazio uniforme eta egokiagorako interpretazio erizpideak ezarri.

Aipatu 1982ko Araudia ostalaritzako establezimendu publiko guztietarako aplikagarria da, argiteria, aireztatze, berokuntza eta suteen kontrako aurrikuspen zerbitzuen ezarketari dagozkion alor tekniko guztietan, lehen idazpuruko lehen kapituluko bigarren eta hirugarren sekzioetan ezarritakoaren arabera. Hainbat artikulua zehatz ere aplikagarri gertatzen dira, bestek beste, 70. artikulua, denborapasako jardueretarako ordutegi orokorraren arauketa beste agindu batetara igorri eta horretarako kontutan hartu beharreko gorabeherak zehazten dituelarik.

Duela gutxi Hiritarren Segurtasunaren Babesari buruzko otsailaren 21eko 1/1992 Lege Organikoa onartu da (otsailaren 22ko 46. BOE), eta bertan neurri garrantzitsuak ezartzen dira "ikuskizun publiko eta denborapasarako jardueren alorrean, esparru honetan elkarte autonomoek beren

estatutuen arabera onaturik dituzten eskumenak errespetatuz”, motibuen agerpenean azaltzen denez.

Aipatu legeak, esan bezala, establezimendu publikoen zabaltze eta funtzionamenduari lotuta dauden gai garrantzitsuak hartzen ditu, ulertuz, babestu beharreko interes juridikoak seguritate publikoan eta elkarbizitza paketsuan zehazten direla. Horrexegatik ikutzen ditu batez ere polizia eta zigortze mailako aspektuak.

Arau honek berrikuntzak ekarri dituenez eta berriki argitaratua izan denez, lege berriaren terminologian “denborapasako jardueren” alorra lan-tzen duten artikulua aipatuko dira jarraian:

– 2-2. artikulua: Agintari lokalek ikuskizun publiko eta denborapasara-ko jardueren, hala nola jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arris-kutsuen alorrean orain arte zituzten eskumenak berronesten ditu.

– 8-1. artikulua: Ikuskizun eta denborapasarako jarduera guztiak ad-ministratio-poliziaren menpe jartzen ditu, burutu beharreko ikuskizun edo jarduerak elkarbizitza baketsua oztopa dezakeenean.

– 15. artikulua: Justifikatu egiten du, ezohizko neurri gisa, taberna edo establezimenduak itxi edo hустaraztea, hiritarren segurtasuna iraunarazi edo berrezartzeko.

– 23. artikulua: Zigortzeko erregimena arautu eta hurrengo hauek sail-katzen ditu arauhauste larri gisa:

d) Establezimenduak zabaldu eta ikuskizun publiko nahiz denborapa-sako jarduerak burutu, horretarako baimenik gabe edo baimenaren mugak gaindituz.

e) Lokal edo establezimenduetan, edukieraren arabera dagozkien ikusle edo erabiltzaileak baino gehiago onartu.

f) Agintari eskudunek agindutako debeku edo etena hautsiz ikuskizun publiko nahiz denborapasako jarduerak burutu.

n) Establezimendua zabaldu, jardueri hasiera eman nahiz funtziona-tzen segitu baimenik gabe, edo derrigorrezko segurtasun neurriak osotara edo partzialki bete gabe; bai eta neurri horiek funtzionatu ez, edo modu desegokian funtzionatzen dutenean, edo agintari eskudunak horiekiko ados-tasuna adierazi baino lehen.

– 26. artikulua: Ondorengo hauek sailkatzen ditu arauhauste arintzat:

d) Adin gutxikoak establezimendu publiko edo lokal eta ikuskizune-tan onartu, hori debekatua delarik eta horietxei alkohol-dun edariak saldu edo zerbitzatu.

e) Establezimenduak ireki eta ikuskizun publiko nahiz denborapasa-rako jarduerak burutzeko ezarritako ordutegiak gainditu.

– 28-1 artikulua: zigor taula ezartzen du eta, besteak beste, hauek azal-tzen dira:

d) Lizentzia edo baimenen denboraldi batetarako etena, sei hilabete eta egun batetik bi urtera bitartean arauhauste oso larrietarako, eta sei hilabeterarte arauhauste larrietarako.

e) Lantegi, lokal nahiz establezimenduak ixtea, sei hilabete eta egun batetik bi urtera bitartean arauhauste oso larrietarako, eta sei hilabeterarte arauhauste larrietarako.

– 29-2. artikulua: Organu desberdinek, horien artean alkateek, baimenak eteteko zigorrak ezartzeko dituzten eskumenak biltzen ditu, eta isunen gehienezko zenbatekoak ezartzen ditu biztanle kopuruaren arabera.

– 31. artikulua: zigorrak ezartzeko prozedurari dagokionez Administrazio Prozeduraren Legera jotzen du, eta agintari guztiek, alkateak barne, zigor espedientei hasiera emateko agindua luzatzeko eskubidea dutela ezartzen du.

– 32. artikulua: zigor espedientean bada-ezpadako neurriak ezartzeko aukera jasotzen du modu inplizitoan.

– 36. artikulua: bada-ezpadako neurriak jaso eta ondorengo hauek izan daitezkeela ezartzen du:

c) Prebentziozko etenak edo itxierak.

d) Bereziki kaltegarriak diren eta derrigorrezko segurtasun neurriak martxan ez dituzten establezimenduetako jarduerak guztiz edo partzialki etetea.

e) Prebentzio gisa baimenak, lizentziak eta bestelako administrazio agiriak kentzea.

Azkenik, behin behineko bada-ezpadako neurrien iraupena, Legean zigorretarako aurrikusitako epearen erdia baino luzeagoa ezin daitekeela izan zehazten du.

– 37. artikulua: Kontrako frogarik ezean, gertaerak ikusi dituzten agintaritzako agenteek emandako argibideak, egiaztatu ondoren, zigor ebazpena hartzeko oinarri nahikoa direla ezartzen du.

– Xedapen Gehigarri Bakarra: segurtasun alorrean eskumenak dituzten elkarte autonomoei onartu egiten die, beren organoek agintaritza kontsiderazioa dutela Lege honen eraginetarako.

– Azkeneko Bigarren Xedapena: argitu egiten du ikuskizun publiko eta denborapasarako jardueri buruzko xedapenak, subsidiarioki aplikatuko direla, esparru horretan eskumena duten elkarte autonomoek ematen dituzten arauen ezean.

Prozedurari buruzko estatuko arautegi horizontal honekin batera badago beste *arautegi berezia* edo bertikala, aurrekoaren osagarria. Honen xedea batetik, motore eta makineriak sortutako zarata maila mugatzeko sistemak ezartzea da eta, beste alde batetik, lantegietan hedatzen diren bibrazio eta zarata kaltegarrien aurrean langileak babestea.

Arautegi berezia

Langileen babesa zarataren kontra	1.316/89 E.D.	89/11/02 BOE
Berronespena Ginebrako Ituna 1977ko ekainak 1		81/12/30 BOE
Obretako materiale eta makineria	245/89 E.D.	89/03/11 BOE
	89/11/17ko Agindua	89/12/01 BOE
	1.439/72 D.	72/06/09 BOE
Ibilgailu automobil, atoi eta sasi atoi-en homologazioa	28/86 E.D.	86/10/01 BOE
	89/11/24ko Agindua	89/12/16 BOE
	91/07/16ko Agindua	91/07/27 BOE
Hegazkin subsonikoak	873/87 E.D.	87/07/02 BOE
	1.256/90 E.D.	90/10/18 BOE

C) *Autonomi komunitateetako arautegia*

Beste elkarte autonomoak

Zenbait elkarte autonomok, ingurugiroa defendatu eta hiritarren osasuna babesteko sentikortasuna eta kezka agertarazi dute eta, bai jarduera gogaikarriak bai ikuskizun publiko eta denborapasarako jarduerak, edo zaratak eta bibrazioak erregulatzen dituzten arau autonomikoak onartu dituzte.

Jarraian zerrendatzen dira orain arte onartu diren arau autonomikoak, baina argitu behar da turismo alorreko xedapen sektorialak ez direla sartzen, guri interesatzen zaizkigun puntuetan eraginik ez dutelako; kanpoan gelditzen dira, halaber, administrazioen arteko edo eskumen organikoko harremanak baino arautzen ez dituztenak:

— Valencia: Maiatzaren 2ko Jarduera Sailkatuen 3/89 Legea (maiatzaren 4ko 1057. DOGV)

— Nafarroa: Ingurunearen Babeserako Jarduera Sailkatuen Kontrolerako abenduaren 5eko 16/89 Foru Legea (abenduaren 15eko 154. NAO).

Otsailaren 15eko 32/90 Foru Dekretua, 16/89 Foru Legearen garapenerako Arautegia (martxoaren 2ko 27. NAO).

— Katalunia: Ikuskizun, Denborapasako Jarduera eta Establezimendu Publikoetarako poliziararen funtzioari buruzko ekainaren 15eko 10/90 Legea (ekainaren 22ko 1308. DOGC).

— Extremadura: Zarata eta Bibrazioei buruzko urtarrilaren 8ko 2/91 Dekretua (urtarrilaren 15eko 4. DOE).

— Madril: Ingurunearen Babeserako apirilaren 4ko 10/91 Legea (apirilaren 18ko 91. BOCM).

Aipatu egin behar da, halaber, Kataluniako Generalitateko Departament de Medi Ambientek zarataren kontrako babeserako ("Proteccio contra el soroll") arautegi proiektua prestatu duela, eta oso agiri interesgarria dela.

Zerrendatutako xedapenen artean, hurrengo hauek azpimarkatuko gemituzke: Nafarroako Legea eta Dekretua, sistematika egokia dutelako eta gaiari oso modu egokian heldu diotelako; Valenciako legea ere, testu arin eta sinplea izanik, oso interesgarria gertatzen da; Extremadurako araudia praktikoa eta osoa da, eta elkarte autonomo horretako udaletarako oso erabilgarria izango dela uste dugu; Kataluniako legea zehatzagoa da eta zigor eta diziplina alorrak sakonki aztertzen ditu; azkenik, Madriliko legeak udalen eskumenak murrizten ditu eta hizkuntza berria sortzen du, jardueren sailkapena aipatzerakoan "ingurugiroko sailkapena" hitzak erabiltzen bait ditu.

Xedapen autonomiko hauek denak arautegi-hutsune handia betetzen dute, argitu egiten dute aplikagarria den lege ingurunea eta ondoren aipatuko diren funtsezko alor hauek erregulatzen dituzte: jarduera lizentzien erregimena, ikuskaritza eta funtzionamendua, arauhauste eta zigorrak, funtzionamendutik eratorritako erantzunkizuna, eta administrazioen arteko harremanak.

Euskal Herriko Autonomi Komunitatea

Autonomi Estatutuko 11-1-a) artikulua araberako EHEAk sailkaturiko jardueren alorrean betetzeko eskumena du, bai eta garapen arauak emanez legeak egiteko eskumena, eta ahalmen horretaz baliatu da ondoren aipatzen diren kasuetan:

– Lurralde Politika eta Garraio Saileko maiatzaren 12ko 14/1983 Agindua, JGA-ren aplikaziorako arau tekniko osagarriak ematen duena. (Uztailaren 27ko 111. EHAA) (Akats zuzenketa, abuztuaren 30eko 128. EHAA).

– Ekainaren 11ko 171/1985 Dekretua, etxebizitzetarako hiri lurretan jartzekoak diren jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuekin erabili beharreko teknikazko arauak ontzat ematen duena. (ekainaren 29ko 134. EHAA).

– Urtarrilaren 26ko 8/1988 Dekretua, jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuen espedienteetako osasun txostenak tramitatzeko prozedura partzialki aldatzen duena. (otsailaren 2ko 21. EHAA).

Aipatutako arautegia osatzen duten xedapenek alor puntualak eta gehienetan teknikoak arautzen dituzte eta, beraz, oraingoz ez dago ikuspegi orokorrean eta xede globalizatzailez ingurugiroaren arazoak, sailkaturiko jarduerak edo zaratak sorturiko perturbazioak aztertzen dituen araurik.

Aparteko aipamena merezi du etxebizitzetarako hiri lurretan jartzekoak diren jardueren teknika alorrak erregulatzen dituen 171/85 Dekretuak. Hauek dira jar daitezkeen jarduerak:

- Ostalaritza, aise eta atsedeen-alditakoak.
- Ibilgailu-alorreko jarduerak.
- Irakaskuntza jarduerak.
- Dendak eta biltegiak.
- Eraldaketa alorreko industriak.
- Erradiazio ionizatzaileen sorburu diren jarduerak.
- Biztanleak dauden eraikuntzetako instalazioak.

Era beran 171/1985 Dekretuak bi kapitulutan zatitzen du ostalaritza, aise eta atsedeen-alditako jarduerari dagokien saila:

1. Tabernak eta jatetxeak.
2. Diskoteka, jai eta ikuskizun aretoak, zine aretoak eta bingoak.

Kapitulu bietan, beste neurri batzuren artean, gehieneko zarata-maila hauek exijitzen dira:

“Nolanahi ere, eta berarizko udal-araupidetzaeren kaltetan gabe, etzanguetan, sukaldeetan eta egonguetan ez dira gaueko 10ak arte 40dB(A) eta goizeko zortziak arte 30 dB(A) gaindituko, hots-maila bereango minutu osoan Lek. baliokidetan neurketa, ez eta gehieneko unetan, hurrenez-hurren, goizeko 8etatik eta gaueko 10etatik hasita, 45 eta 55 dB(A) ere.”

Arautegi tekniko honetaz aparte, Eusko Jaurlaritzak ez du inolako xedapen orokorrik onartu eta, beraz, jarduera gogaikarrietako espedienteen prozedura eta tramitazioaren alor guztietan, aplikagarria da oraindik ere 1961eko Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuen Araudia, hala nola estatuko gainerako arautegiak.

D) Foru Arautegia

Lehenago aipatu dugun bezala, Elkarteko Institutuzio Amankomunen eta Lurralde Historikoetako foru organuen arteko Harremanetako azaroaren 25eko 27/1983 Legearen arabera, foru administrazioak ez du legegintza eskumenik, baina bai beteratzekoa, egoitzetarako hirilurrean ezar litezkeen jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuen sailkapen, neurri zuzentzaileen ezarpen, ikuskaritza eta zigortze esparruan, beti ere lurralde historiko edo elkarteaz gaineko udal erakunde bat baino gehiagori ez badagokio eta Legeak udal erakundeei ematen dizkien eskumenen kalterik gabe.

Foru aldundi bakar batek ere ez du neurri zuzentzaileen ezarketa edo jardueren sailkapenari buruzko interpretazio-zirkular edo argibiderik zabaldu. Bizkaiko Foru Aldundiaren zirkular bat bakarrik aipa daiteke, bere lurralde historikoko udal guztietara igorria, eta bertan azaltzen zen zeintzuk diren kaltegabekotzat jo behar diren jarduerak, eta beraz sailkapen tramitazioetik salbuetsita geldituko direnak.

Beste alde batetik foru aldundiak saiatu egin dira beren lurralde historikoetako udalek, delegazioz, etxebizitzetarako hiri lurrean ezartzeko diren jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuak sailkatzeko es-

kumena eskura dezaten. Horretarako erabili duten tresna juridikoa foru dekretuena izan da. Horrela bada:

— Araba: urtarrilaren 26ko 128/88 Foru Dekretua (otsailaren 1eko 12. ALHAO).

— Bizkaia: ekainaren 8ko 74/88 Foru Dekretua (ekainaren 21eko 142. BAO).

— Gipuzkoa: maiatzaren 9ko 29/89 Foru Dekretua (maiatzaren 26ko 99. GAO).

Foru dekretu guzti hauetan, delegazioaren bidea aukeratzén duten udalei exijitu egiten zaie ordenamedurako plan eguneratuak edukitzea non jarduetarako kokagune egokiak ezarriko diren, egiaztatze tresnak izatea eta, izaeraren arabera jarduera desberdinen gaineko txostenak egiteko gaitasun teknikoa duen pertsonala izatea.

Hurrengo hauek dira orain arte, etxebizitzetarako hiri-lurrean ezar litezkeen jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuak sailkatu eta horiei neurri zuzentzaileak ezartzeko eskumena ordezkartzaren bidetik eskuratu duten udalak:

— Araba: Laudio eta Gasteiz.

— Bizkaia: Bilbo.

— Gipuzkoa: Donostia, Eibar, Ordizia, Errenteria eta Zarautz.

E) *Udal erakundeen arautegia*

Udal erakundeek alor honetan duten eskumena argitzeko bi arrazoi daude, batetik establezimendu publikoen funtzionamenduak sortutako zaratek zuzenean eta berehala eragiten diete auzokideen interesei; eta, bestetik, kontrolerako jarduera publikoaren ezaugarri propioak, administrazioaren gestioan ahalik eta hurbiltasun handiena eskatzen du.

Gainera, indarrean dagoen arautegiak berak Udalek establezimendu publikoetako zaratak kontrolatzeko duten eskumena espreski agertzen du hainbat xedapenetan. Horien artean aipa daitezke: Erregimen Lokalaren Legea (25-2-f) artikulua), Osasunaren Lege Nagusia (42-3-a) eta b) artikulua), JGA (6. artikulua eta beste batzuk), Ikuskizun Publiko eta Denborapasarako Jardueretako Poliziaren Araudi Nagusia (40. artikulua eta beste batzuk), etab.

Zarata alorreko legegintza eskumena betetzeko bi bitarteko erabiltzen dituzte gehienetan udalak: hiri ordenamendurako planak eta ingurugiroaren babeserako ordenantzak.

Hiri ordenamendurako planek, hiriaren lurratal bakoitzean zein erabilerara, zein intentsitatekin eta zein bateragarritasun mailarekin onartzen diren zehazten dute. Horretarako erabilerak sailkatu egiten dituzte, kategoriatan banatu eta ondoren kategoria edo sail horiek definitu egiten dituzte maila edo muga jakin batzuk gainditzen ez dutenaren arabera, eta muga horien artean barne edo/eta kanpoko soinu-igorketa mailak daude.

Ingurugunearen babeserako ordenantzak bi motatakoak izan daitezke: orokorrak, eta horietan ingurugiroaren kutsadurak alor desberdinetan sortzen dituen arazo guztiak aztertzen dira; edo bereziak, kutsatzaile jakin bat erregulatzeke xedez eginak.

Ingurugiroaren babeserako ordenantzek zarata nahiz bibrazioak eta horien mugak arautzeko atal bereziak izan ohi dituzte. Horrela gertatzen da, adibidez, Ingurugiroaren Babeserako Bilboko Ordenantzan (1990eko otsailaren 2ko 27. BAO). Ordenantza horretako IV. kapitulua (135. artikulatik 177.era) industria eta etxebizitzetako zarata eta bibrazioei buruzkoa da, V. kapitulua motordun ibilgailuek sortutako zaratei buruzkoa (178. artikulatik 189.era) eta, azkenik, soinu mailen baloraketari eta motordun ibilgailuek sortutako zaraten neurketari eskeintzen dizkie IV eta V artikulak. Guri orain dagokigunez, esan dezakegu, 158., 159. eta 160. artikulak direla ostalaritzako establezimendu publikoei buruzkoak, bai eta IV eranskinaren ere, soinu neurketak egiteko hainbat arau biltzen bait ditu.

Arazoari buruzko sentiberatasun handiagoa duten beste Udal batzuek zarata eta bibrazioetarako ordenantza arautzaile berezia onartu dute. Gasteizko Udalaren kasua da hori, onartua bait du zarata eta bibrazioen igortze eta hartzeak arautzeko Udal Ordenantza (1990eko martxoaren 7ko 28. ALHAO, gehigarria). Berrogeitamazazpi artikulutan arautu egiten ditu trafikoak, bide publikoetako jarduerak, obrak barne, eta etxeko jarduerak sortutako zarata-maila, eraikintzei eskatu beharreko baldintzak, bai eta establezimendu publikoek sortutako zaratak; eta beste neurri batzuren artean, establezimendu publikoen erabilerarako jarduera ugari dauden hiriaren zonaldeetan soinu-iturria mugatzeko aukera aipatzen du.

Azkenik, zortzi atal dituen Gasteizko ordenantzaren eranskinak, neurketa akustiko desberdinak egiteko erabili behar diren metodoak deskribatzen ditu, soinua barrutik ala kanpotik igortzen den, barruan hartzen denaren jatorria kanpoko ala barrukoa den, kanpoan hartzen den maila, beste zarata batzuek eragiten duten, tonu entzungarriak eta zarata portzentaia kontutan harturik.

Neurketetako prozedura eta ondorioak objetibizatu nahi dituzten ordenantza hauek oso interesgarriak gertatzen dira, ez estatu ez elkarte autonomo mailan arautegirik ez bait dago, eta alor honek garrantzi handia du zarata bidezko ingurugiroaren kutsadura mailak detektatu eta zuzentzeko.

Logikoaenez, ingurugiroa zarata eta bibrazioen kontra babesteko ordenantza bereziak egin eta aplikatzea, bakarrik udal handien esku dago eta horregatik, udal txiki eta ertainek, herrigunetako gehieneko zarata mailak baino ez dituzte arautzen, hirigintz planeamenduaren bitartez. Horrelaxe ulertzen zuen JGA aplikatzeko 1963ko Instrukzioak eta probintzia hiriburuetan, 50.000 biztanletik gorako udalerrietan eta zentso industrialak nagusia den udaletan ordenantza bereziak izatearen beharra ezartzen zuen 2. artikuluan, eta horrez gain ordenantza horretako gutxieneko edukina zehazten zuen.

Udalek betetzeko eskumen osoa dute establezimendu publikoei dagokienean lizentziak beraiek tramitatzen bait dituzte, Alkateak ematen ditu, eta ikuskaritza eta zigortze ahalmena ere beraiei dagokie. Halaber, Foru Aldundien ordezkartzaren bitartez eta biztanle kopuruaren araberrako mugarik gabe, udal erakundeek establezimendu publikoak sailkatu eta horiei neu-

ri zuzentzaileak jarri ahal dizkiete, beti ere hurrengo baldintza hauek betetzen badira: egiaztapenerako tresna zehatzak eta jardueraz informatzeko pertsonal tekniko egokia izatea.

Eskumenei buruzko taula

Instituzioa	Eskumena	Izaera
EEE	Legegintzakoa (Elkarteko araudia eta direktibak).	Lehentasunekoa.
ESTATUA	Oinarrizko arautegia.	EEEko arautegiaren menpekoa.
EEA	Garapenerako arautegia eta betetzatzea hirilurrean izan ezik.	EEEko arautegiaren eta Estatuko oinarrizko legeriaren menpe.
LURRALDE HISTORIKOAK	Legegintzekoa ez. Beteraztekoa hirilurrean	
UDAL ERAKUNDEAK	Legegintzekoa (udal ordenantzak) eta beteraztekoa.	Gainerako administrazio Publikoen arautegiaren menpe.

7.6.3.2. Erizpide jurisprudenzialak

Egungo errealitatearen eta 1961. urtekoa den JGA arautegi zaharkituak azaldutako kasuen artean desfase nabarmena dago, eta, beraz, Auzitegi Goreneko jurisprudenziara jo beharra dago, jarduera sailkatuen arautegi erregulatzaileak dituen lege hutsuneak bete ahal izateko.

Jarraian azalduko ditugun epaien zerrendan biltzen diren interpretazioak ezezagunak dira udaletan, kasurik gehienetan, baina gure ustez, baliabide ugari eskeintzen dizkiete udalei, batez ere, zigortzeko ahalmenak betetzatzea.

Horrez gainera, botere publikoen aldetiko sentikortasun handiagoa agertzen dute epai horiek kutsaduraren arazoan. Hauetako zenbait epaitan oso gogoeta interesgarriak jasotzen dira, kutsadura akustikoa, zaratarena, ingurugiroaren, osasunaren, intimitate eskubidearen, etabarren kontrako erasotzat hartzen bait da.

A) *Establezimendu publikoak klandestinoki zabaldu, edo jardueran beharrezko lizentziarik gabe aritzea, eta horietatik erakarrizko kutsadura akustikoa.*

Kasu hauetan Epaitegi Gorenak duen erizpidea da udal agintaritzak, berehala eta indar osoz, establezimendua ixteko edo jarduera gerarazteko bada-ezpadako neurria hartu behar duela. Horrela, adibide gisa, 1988ko ekainaren 10ean Auzitegi Gorenak emandako epaia aipa dezakegu (Ar. 4.195):

“... Industria nahiz merkatal establezimenduak klandestinoki zabaltzeak edo 1961eko azaroaren 30eko Araudiaren menpeko jardueratan beharrezko lizentziarik gabe aritzeak, lanak gerarazteko, establezimendua ixteko edo jarduera gerarazteko bada-ezpadako neurria hartarazten du, berehala eta indar osoz, gizarte elkarbizitzaren beharrak ezarritako mugen balizko gainditzea denbora luzeagoz gerta ez dadin, arauhausterik ez dagoela bermatzen duen lizentzia egokia eskuratu arte edo beharrezko neurri zuzentzaileak hartu arte...”

Erizpide berbera jasotzen da Auzitegi Gorenaren ondorengo epaietan: 1988ko otsailak 1 (Ar. 669); 1987ko apirilak 24 (Ar. 3.158 ; 1984ko azaroak 19 (Ar. 6.222); 1985eko urriak 15 (Ar. 5.312); 1990eko azaroak 27 (Ar. 9.355)...

Auzitegi Gorenako jurisprudentziak bereizi egiten du establezimendua ixteko aginduaren zentzua, jarduerak lizentzia baduen ala ez duen kontutan harturik. Adibide gisa, oso argigarria gertatzen bait da, Auzitegi Gorenaren 1986ko urriaren 4ko epaia agertuko dugu (Ar. 7.402):

“... Lizentziarik gabe burutzen diren jarduerak ixteko erabakia hartzerakoan bete behar den prozedura zehaztean, azpimarkatu egin beharko da ixte horrek zentzu desberdina duela jarduera lizentziarekin ala gabe burutzen denean. *Lehen kasuan, lizentzia dagoenez, hau da, Administrazioaren alde aurreko kontrola, egokia izango da 1961eko azaroaren 30eko Araudiaren 36. eta ondorengo artikuluen tramitazioak burutzea. Bigarren kasuan –lizentziarik ez dagoenean– Administrazioaren alde aurreko kontrolik ez dagoenez, nahikoa izango da lizentziarik ez dagoela frogatzea ixtea erabaki ahal izateko, APLko 91. artikuluan eta Konstituzioaren 105 c) artikuluan aurrirakusten den interesatuaren alde aurreko audientzia beterik.*”

Erizpide berbera jasotzen da, halaber, Auzitegi Gorenaren 1990ko otsailaren 21eko (Ar. 1.507) eta 1988ko otsailaren 1eko (Ar. 669) epaietan.

Atal honekin bukatzeko, Auzitegi Gorenaren 1991eko apirilaren 25eko epaia (Ar. 3.083) aipatuko dugu. Bertan, gau orduetan zaratak sortutako nekeengatik establezimendu publiko baten ixtea jasotzen da, Polizia, Ikuskizun Publiko eta Denborapasarako Jardueren Araudi Nagusiaren babesean.

“... Ikuskizun Publikoetako Arautegiak, 40.1 artikuluan, udal egokian eskatu eta eskuratu behar den zabaltze eta funtzionamendurako udal lizentzia eskatzen du alde aurreko eta nahitaezko baldintza gisa, arautegiaren aplikazio eremuaren menpeko (1-1 art.) lokalak, horien artean orain dagokiguna, zabaldu ahal izateko. Lizentzia hori eskuratu ezean ezin da lokalean jarduera horretan aritu eta horrelaxe adierazten du aipatutako 40. artikuluko 2. ataleko azken lerroaldiak zera agintzen duenean: «Ezin izango zaie aipatu jarduerari hasiera eman lizentzia eskuratu gabe». *Aldez aurreko eta*

nahitaezko udal lizentzia hori ez edukitzeak ahalmena ematen die horretan eskumena duten Agintaritzei «Arautegi honetan edo jarduera edo establezimendu horietako Araudi berezietan xedatutakoaren arabera, izaera orokor nahiz bereziko polizia neurriak hartzeko, denborapasarako jarduera eta establezimendu publikoei dagokienean», aztertzen ari garen Araudiaren 74.2 artikulua «a» atalean, goian transkribatua, adierazten duenez. Har daitezkeen neurri berezi horien artean, zalantzarik gabe, «lizentziarik edo baimenik ez duten lokalen ixtea» dago, logikoa delako eta Araudiko 82.1 artikulua espreski xedatzen duelako. Eta neurri hau ezarri zuten Administrazio gubernatiboak hemen epaitzen diren erabakietan...»

Epai berean zalantzatan jartzen da ea Gobernuko ordezkariak eskumena zuen neurri hori dekretatzeko edo udal agintaritzaren eskumenekoa ote zen. Horrela bada:

“... Aztertu egin behar da, bukatzeko, ea Gobernuko Ordezkariek neurri hori hartzeko eskumena zuen ala udal agintariek erabaki behar ote zuten. Araudiko 74.2 artikulua, bai eta 82.4 artikulua, bidea ematen dute ulertzeko agintaritzea biak direla era honetako erabakia hartzeko eskudun, eta beraz ezin daitezke esku-mengabekotzat jo buruturiko ekintza administratiboak...”

B) *Establezimenduak alde aurreko ikuskaritzarik gabe zabaltzea eta alde aurreko ikuskaritzea tramitean neurri zuzentzaileak betetzen ote diren ziurtatzea.*

JGAko 34. artikulua ezartzen du ezin izango dela jardueran hasi alde aurretik funtzionari tekniko egokiak beharrezko ikuskaritzea burutu aurretik, ez bakarrik den jarduera delako, baizik eta sor lezakeen kaltearen izaeragatik ere.

Jarduera beharrezko ikuskaritzea tekniko burutu gabe funtzionatzen hasten denean eta bere funtzionamenduak eragozpenak sortzen dituen edo, ikuskaritzea egiterakoan jarduera lizentzian ezarritako neurri zuzentzaileak betetzen ez direla egiaztatzen denean, Auzitegi Gorenak ezartzen duen erizpidea da, zabaltze lizentzia ematea ezbidetkotzat jo behar dela, ahalik eta zarata-eragozpenak desagertarazi eta neurri zuzentzaileak burutu arte.

Auzitegi Gorenaren 1991eko martxoaren 12ko (Ar. 2.179) eta ekainaren 6ko (Ar. 5.108) epaietan, besteak beste, azaldutako erizpidea erabiltzen da.

Ildo beretik, 1989ko urtarrilaren 27ko epaiak (Ar. 499) legekotzat jotzen du Murtziako Udalak hartutako neurria, kafetegi jarduera batetako soinu aparatua zigilatu zuenean. Horrela dio:

“... Ezarritako neurria zuhurra da (arrazoizkoa eta neurrikoa) lokalaren jarduera musikarekin, beharrezko egiaztaketa bisita tekniko (1961eko azaroaren 30eko Araudiaren 34. art. eta Instrukzioaren 10. artikulua) egin dela ziurtatu gabe hasi bait zen, eta be-

raz «erabilera edo jarduera» hori izatez legez kontrakoa zen. Horregatik udal erabakia bidezkoa da eta nahikoa arrazoitan oinarritua, eta egokiak zaizkio halaber 1961eko uztailaren 31ko Ingarunearen Babeserako Udal Ordenantzan bildutako aginduak, ezin bait zitzaion jarduerari legezko hasiera eman, besteak beste 1985eko urriaren 15eko epaiak (Ar. 5.312) ezarritako neurri zuzentzaileen eraginkortasuna teknikoki egiaztatu arte, etab.”

C) *Lizentzia behin behingoz kentzea eta JGAko 40. artikulua, alde aurretik hiru isun jarraian jartzeko ezartzen duen baldintza.*

Auzitegi Gorenaren doktrinak ezartzen du ez dela beharrezkoa egingdako akatsak errepikatzeagatik, hiru isun jarraian ezartzea lizentzia behin behingoz kentzea erabaki denean eta, horrela, bereiztu egiten ditu behin behineko kentzea eta behin betirako kentzea, nahiz bereizketa hori JGAko 40. artikuluan hitzez-hitz azaldu ez. Are gehiago, jurisprudentziak ezarri du Alkatearen nahitaezko betebeharra izan daitekeela lizentzia kentzea, zigor bat ala bestea ezartzea bere aukeran egon gabe.

Adibide gisa Epaitegi Gorenaren 1990eko urriaren 9ko epaia (Ar. 7.896) aipatuko dugu:

“... Eta ezin daiteke apelaturiko epaiaren eta Udal Korporazioaren doktrina baieztatu, zeinaren arabera lizentzia behin betirako kentzeko alde aurretik 3 isun ezarri behar bait dira jarraian JGAko 40. artikulua arabera, zeren 1988ko urriaren 11ko gure epaiak dioenez (Ar. 7.475), JGAko 40.2 artikulua ezartzen duen erregimena ez bait da aplikagarria lizentzia behin behingoz kentzea erabakitzen denean, eta horrela egin zen bete ez den Alkatearen 1985eko uztailaren hamaikako Dekretuan; eta ezin daiteke alkatearen borondatearen esku gelditu isunak jartzea ala ez jartzea, eta borondate horren arabera lizentzia behin betirako kentzea oztopatu, arauhaustek eta sortutako nekeak nahitaezko egiten dutelarik, oraingo kasu honetan gertatzen denez, aipatu eta egiaztatu diren ekintzek frogatzen duten modura...”

D) *Jardueraren lizentzian ezarritako neurri zuzentzaileak ez betetzea.*

Auzokideei kalteak sortzen zaizkien une beretik, JGAko 36 artikulua arabera, alkateak establezimenduko titularrari eskatu beharko dio epe jakin batetan, sei hilabete baino luzeagoa eta hilabete baino laburragoa izango ez dena salbuespenak salbu, somatutako akatsak konpon ditzan.

Auzitegi Epaitegi Gorenaren doktrinaren arabera ezin daiteke establezimendu bat itxi, alde aurretik titularrari epea eman ez bazaio akatsak konpontzeko. Ildo honetakoak dira hurrengo epaiak: 1991eko otsailaren 25ekoa (Ar. 1.538), 1991eko maiatzaren 23koa (Ar. 4.371), etab. Azken epai honetan ez da nahikotzat jotzen, galdetutako neurriak hartzeko, udalak establezimenduko titularrari ezarritako berrogeitazortzi ordutako epea. Horrela dio aipatu epaiak:

“... Aipatu Araudiko 36. artikulua esaten duen kasu konkretuan Administrazioak, bereak dituen ahalmenak erabiliz, errekerimendua jasi duenak —demandanteak— bere establezimenduan somatutako akatsak konpontzeko epea ezar dezake. Arauak zehaztu egiten du epea, salbuespenak salbu, ezin duela sei hilabete baino luzeagoa ez eta hilabete baino laburragoa izan. Epaiak aipatzen dituen neurri zuzentzaileen kasuan, hala ere, Administrazioak ez zuen modu egokian erabili aukerazko ahalmena zeren, ezarritako berrogeitazortzi ordutako epea laburra eta gutxiegiakoa baita...”

E) *Bada-ezpadako neurriak eta ekintzen betetzea etetea.*

Establezimendu publikoetako titularrek, maiz, beren kontrakoak diren udal ekintzen betetzea eten dadila eskatzen dute epaitegien aurrean.

Jarraian, gai hau jorratzen duten Epaitegi Gorenaren bi auto aipatuko ditugu. Interesgarriak dira, besteak beste, zaraten arazoekiko jurisprudentziaren konpromezu handiagoa agertzen dutelako.

— 1989ko maiatzaren 11ko Autoa (Ar. 3.867): Auziaren gaia Betanzoseko Udalak diskoteka bat zabaltzeko eman zuen lizentzia zen. Partikular batek lizentzia hori errekurritu eta inpugnaturiko ekintza etetea eskatzen du. Auzitegi Gorenak etena iraunaraztea erabakitzen du eta zenbait gogoeta egiten ditu kutsadura akustiko eta ingurunearen gainean. Interesgarriak dirrelakotan jarraian azalduko ditugu:

“...Ingurugiroaren sistema juridikoa hainbat azpisistemez osaturik dago, horien artean era guztietako kutsaduraren —akustikoa barne— kontrako borroka. Sala honek, aplikatuko diren garaietako giza errealitatearen arabera interpretatu behar ditu arauak, eta ezin du ahaztu ingurugiroari buruzkoak hirigintzari buruzkoaren gainean duen lehentasuna. Eta lehentasun hori ez da lege horretan sortzen, Legeak onartu egiten du, gauzen berezko izaerari baita dago. *Epaitegi hau botere publikoa denez, ingurugiroa babestera eta beraz, osasuna ere babestera behartzen du Konstituzioak (Konstituzioaren 43. artikulua), zeren kutsadura akustikoak, hurbileko etxebizitzetan bizi direnen atsedena galeratzeaz gain, dezibelio gehiegi jasan behar duten guztien osasunaren kontrakoa baita da...*”

— 1991eko ekainaren 4ko Autoa (Ar. 4.608): Kasu honetan Auzitegi Gorenak erabakitzen du ez dela bidezkoa ekintza etetea, hau da, diskoteka bat ixteko bada-ezpadako neurria.

F) *Zaratak sortutako ezerosotasunak eta intimitaterako eskubidea.*

Badago jurisprudentzian guztiz berria eta finkatu gabea den joera bat eta, honen arabera, kutsadura akustikoa ingurugiro eta osasunaren kontrako eraso izateaz gain, hiritarrek beren etxebizitzaren barruan duten intimitaterako eskubidearen kontrako erasotzat jo daiteke.

Doktrinaren sektore batek bultzatzen duen jurisprudenziaren bide hau aurrera egin eta finkatzen bada, hiritarrek Epaitegi Konstituzionalaren babesa izango dute, babes-errekurtsoaren bitartez.

Epaitegi Konstituzionalak onartu egiten du argumentabide hau, otsailaren 17ko 22/1984 epaiko bostgarren oinarri juridikoan:

“... Beraz, eskubide honen bitartez (etxebizitzaren bortxaezintasunerako Eskubidea, EKko 18 art.), ez da bakarrik espazio fisikoa bere horretan harturik babesaren objetua, baizik bertan dagoen pertsonaren jarioa eta horren esfera dena ere. Modu honetara interpretaturik, *etxebizitzaren bortxaezintasunaren arauak oso edukin zabala du eta berme eta ahalmen sorta ugari ezartzen du, besteak beste, inbasio mota guztiak galeraztea, zuzenean sartu gabe aparailu mekaniko, elektronikoko edo antzerakoen bidez egin daitezkeenak barne...*”

Tesi berbera agertzen du Kataluniako Justizia Epaitegi Gorenak, 1991eko apirilaren 9ko bigarren oinarri juridikoan:

“... *eta kutsadura akustiko hori hiritarren intimitate eskubidearen kontrako eraso ezlegezkoa da, eta era guztietako inbasioak, bai eta zuzenean sartu gabe, tresna mekaniko, elektronikoko nahiz antzerakoez egin daitezkeenak ere, debekatzen dituen Konstituzioaren 18. artikulua bermatzen duen etxebizitzaren esparru pribatiboan gertatzen da, (Epaitegi Konstituzionalaren otsailaren 17ko 22/1984 Epaia); nahiz horrek gure ordenamendu juridikoan babes penalik ez izan, Italiako Kode Penaleko 659. artikuluan gertatzen den bezala non «Disturbo delle occupazioni o del riposo delle persona» izenburuaren azpian, lasaitasuna, baretasun publiko eta pribatua etab. babesten diren...*”

7.6.4. Ondorioak

7.6.4.1. Ondorio orokorrak

Kutsadura akustikoaren arazoa eta horren soluziobideak planteatzera-koan onartu behar da, lehendabizi, hiritarra konzientziatu egin behar dela eta ingurugiroko heziketa eskeini behar zaiola, eskolen bidez, komunikabi-deetako zabaltze kanpainen bitartez, etab.

Hiritarrak kontutan hartu beharko luke berak ere baduela erantzunkizuna bere ingurunean kutsadura akustikorik gabeko espazioa egon dadin, eta horretarako zaratarik eza balore positibotzat jo behar du, bultzatu eta era guztietako erasoetatik babesteko nahitaezkoa den guztiaren elkartasuna aipatzen du, ingurugiroaren zaintza eta defentsa guztiona dela ulertzen delako, eta beraz, eritzi publikoak horren garrantziaren konzientzia hartu behar du.

Beti ere Administrazioak jarrera errepresibo eta zigortzekoak har ditza-ke zaraten bitarteko kutsaduraren kontra burrukatzeko. Baina alferrekoa litzateke burruka hori oinarrian onarpen kulturalik eta ingurunean eragin kaltegarririk ez duen soinu ingurugiroa lortzeko borondate sozialik ez ba-lego.

Aldi berean, komunitateak zarata, isolamendu, soinu transmisio, eta beste alorretan duen ezagutza zientifiko eta teknologikoa zabaldu behar da, babes ekintza eraginkorragoa eta soinu ingurugiroaren hobekuntza lortzeko.

Administrazioaren ikuspegitik asko dira oraindik eman beharreko urratsak eta, lehendabizikoa erakunde publikoek arazo hori onartzea litzateke, soinu ingurua kutsatzen duten elementuei aurreharzea eta haien aurka aha-legintzea lehentasun eta premiazko helburutzat hartzea bigarrena, hiritarren eguneroko bizitzan eragin handia duen alor honetan jardun beharrari buruzko eztabaida instituzional zabalago sortuz eta bultzatuz.

Xede hori lortzeko jarduera eremua zein den argitu behar da lehenengo eta behin, hala nola soinu kutsaduraren kontrako burrukan sarturik dauden administrazioen eskumenak noraino heltzen diren. Eskumena banatuegirik eta zatituegirik daude administrazio publikoen artean eta horren eraginez inhibizio eta erantzunkizun onartze-eza ugari gertatzen dira kutsadura akustikoaren kontrako burrukan dagokien erakundeen aldetik.

Instituzio honen gomendioa da administrazio jarduerak kutsadura akustikoaren izaerari berari hoberen dagokion ekintza-maila instituzionalak burutu behar duela eta, fenomeno gehienbat hirian gertatzen denez, uste dugu udalek hartu beharko luketela eskumen eta beraz erantzunkizun handiagoa. Horren ondoren, udal elkarteek pertsonal kualifikatuaz hornitu edo bertako pertsonala kualifikatu beharko dute, zaraten ikuskaritza eta kontrola egin dezaten eta horretarako behar diren baliabide materialak dedikatu, eta guzti horrek, gure aburuz, ez luke kostu handiegirik izan beharko.

Begi bistakoa da arauetatik ekin behar zaiola zarategatik kutsadura-ri, establezimendu publikoek sortua izan ala ez. Eguneratu egin behar da 1961eko Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuen Arautegiak ezartzen duen prozedurari buruzko arutegia. Aplikatu daitezkeen arautegi teknikoak, ostera, bereziki Eusko Jaurlaritzaren 171/85 Dekretua, guztiz behin-behinekoa eta murrizta da eta legeria zabalago, teknikoago eta zehatzago batez bidez gainditu beharko litzateke.

Harrigarria da egiaztatzea EHEAk ez duela ia bete alor honetako arautegi eskumena, hainbat arazo tekniko eta prozedurazko erabakitze dagoelarik. Une hauetan guztiz presazko eta lehentasunezkoa da arautegia egitea, aplikagarria den erregimen juridikoa argitu dadin eta horrela jurisprudentziaren interpretazioetara etengabe jo beharrik egon ez dadin, guzti horrek ez bait du inolaz ere Administrazioaren lana errazten, eta zenbaitean, Administrazioaren beraren jardura-gaitasuna mugatzen duen elementu disuasorea izaten bait da.

7.6.4.2. *Proposamenak*

Instituzio publikoek imajinazioz, baina ez horregatik zentzurik gabe, egin behar diote aurre gure hirietako kutsadura akustikoaren arazoari. Administrazioak, bereziki udal administrazioak, jarrera gogorra hartu behar du berehala, eta etengabeko saioa egin, zaratek hiritarrei sortzen dizkieten kalteak gutxitzeko.

Uste dugu ingurugirorako kontzientziazioa eta heziketa programa egoiki batekin Administrazioak zarataren arazoari aurre egin diezaiokeela eta egin behar diola, bere esku dituen baliabide guztiak erabiliz eta, bereziki, bi alorretan zentratuz: hirigintza eta jarduera gogaikarrietan.

A) *Hirigintz-proposamenak*

Hirigintz-planak egiterakoan udalek hiriaren puntu desberdinetan eta une desberdinetan gertatzen den kutsadura akustikoaren mailari buruzko informazioa bildu beharko lukete. Gomendagarria litzateke horrez gain udal handiek, planak egin aurreko informazio fasean, hiriaren zarata-mapak egi-tea, eta horietan hiriaren zonalde bakoitzak jasaten duen soinu-eraginaren maila desberdinak bildu.

Hiri ordenamenduko planek, hiriaren kutsadura akustikoa gutxitzea onartu beharko lukete erizpide eta xede gisa eta, horren ildoan proposamenak egin beharko lituzkete, gure ustez hiru esparrutan:

— Egiturakoak. Hiri ordenamenduaren diseinua hiriaren soinu kutsadura gutxitzeko xedez egin behar da, eta ez du eragin biderkatzaile edo gehigarririk sortu behar, berez aseturik dauden zonaldeetan. Honen harian hurrengo arazoei erantzun beharko lieke diseinuak: hiri bideen ordenamendu egokia; astirako zonalde alternatiboak sortu beharra establezimendu publikoetarako, zaratagatiko ia eragin negatiborik ez dagoen tokian; erabilera sail desberdinak behar bezala kokatu bateraezintasun arazorik sortu ez dadin, etab.

— Ekintza puntualak. Batzutan nahikoa izaten da lehentasuneko bideak berrantolatzea lortu nahi den xedea lortzeko, edo soinu pantailak jartzea posiblea den hiriaren zonaldeetan, etab.

— Ordenantzakoak. Hirigintz-ordenantzek argi eta garbi ezarri behar dute zeintzuk diren erabilera maila desberdinak, bai eta horietako bakoitzean onargarriak diren gehienezko maila akustikoak. Gainera ez dute neutralak izan behar eta erabilerak sakabanatzen saiatu behar dira establezimendu publikoen alorrean, beharrezkoa balitz jarduera berriak zabaltzeko distantziak ezarri.

B) *Jarduerei buruzko proposamenak*

Zarataren arazoari jarduera gogaikarrien esparru materialetik ere ekin dakioke. Gure ustez Autonomi Komunitateko instituzioek —Eusko Jaurlaritzaren eta Legebiltzarra, arauak emateko eskumenaren titularrak direlako—, establezimendu publikoak eta kutsadura akustikoak arautzeari ekin beharko liokete.

Egun dagoen arautegi tekniko urria zabaldu eta eguneratu beharko liokete, eta planteamentu zabalez jokatu jarduera eta establezimendu publikoen zabaltze eta funtzionamenduari dagozkion alor tekniko desberdinak arautzeko, esaterako:

- Soinua neurtzeko prozedurak.
- Egiaztatzeko tresnen homogenizazioa.
- Teknikari gaituak prestatu neurketak egiteko.
- Soinua eta bibrazioen kontzeptuak eta neurketa unitateak definitu.
- Insonorizazio akustikorako proiektuen edukina.
- Eraikintzako makineria eta elementuetan isolatzeko eta bibrazioen kontrako tresnak jarri.
- (...)

Era berean uste dugu eguneratu egin beharko litzatekeela prozedurari buruzko arautegia. Izan ere, Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuen Arautegia atzeraturik dago eta, beraz, modu desberdinez egin behar da arauak. Sistematika aldetik Jarduera gogaikarrien legea izan beharko litzateke oinarria eta osagarri gisa araudia, zarata eta establezimendu publikoen gaia modu zabalez hartuko lukeena.

Arazo hauei lege mailako arau batez ekiteko beharra justifikatzen da, batetik Konstituzio Epaitegiaren doktrinak ezartzen duenaren arabera, Konstituzioko 25. artikuluko legezkotasun printzipioaren errespetoa eskatzen du zigor alorrari dagokionez, eta horren ondorioz arautegi zigortzaile orok, kasu honetan jarduera gogaikarriei dagokienez, lege maila izan behar du. Beste alde batetik, arautzen den alorrak duen garrantziagatik justifikatzen da, batez ere, abstraktoan definitu behar direlako hiritarren betebeharrak eta erantzunkizunak perspektiba orokor eta garrantzidun batetik.

Araudia tresna juridiko osagarri bezala hartuta ezinbestekoa da zenbait arazok tratamendu zehatza eta zuhurra behar bait dute une jakinean, eta oportunitate erizpidetara loturik bait daude. Nafarroako Foru Elkarteak onarturiko arauak izan litezke eredu honetako paradigma, Jarduera Gogaikarrien Legea eta Arautegia, nahiz eta gure ustez zarataren arazoa modu zehatzagoz aztertuko beharko litzatekeen.

Jarraian, prozedurari buruzko arautegi horrek gure ustez bildu beharko litzuzkeen edukinak azalduko ditugu, batez ere egungo arautegiarekin parekatuz berritzaile gertatzen direnak. Sistematika hobetoaren mesedetan hiru fasetan banatu dugu prozeduraren arazoa:

1. Jardueraren lizentziaren tramitazioa eta eskuratzea.
2. Funtzionamenduaren ikuskaritza.
3. Zigor-erregimena.

1. Jardueraren lizentziaren tramitazioa eta eskuratzea:

— Oso lagungarria litzateke jarduera kaltegabeen zerrenda, arautegia-
ren aplikazio eremua zein den jakiteko.

— Establezimendu publiko desberdinak definitzen dituzten ezaugarriak
zeintzuk diren zehaztu behar da, hau da, establezimendu publiko bat noiz
den taberna, noiz kafetegia, pub edo disko-taberna. Kontzeptu hauek eragin
handia dute alor fiskalean, zabaldu eta ixteko ordutegietan, baimendutako
erabileretan, ordena publikoan, jardueraren sailkapenean, etab.

— Zaratagatik gogaikarriak diren eta gauez funtzionatzen duten jardue-
retan, jardueraren lizentzia-eskariarekin batera insonorizazio akustikorako
proiektua aurkeztea eskatu beharko litzateke.

— Zaratagatik gogaikarriak diren establezimendu publikoen kasuan,
neurri zuzentzaile gisa bolumen-mugatzailer automatikoa ezartzeko aukera
jaso beharko litzateke.

— Jardueraren lizentzia tramitatu eta emateko prozedurari dagokionez,
uste dugu beste tramitazio-bide alternatiboa ezar daitekeela, beti ere auzo-
kideen partaidetzarako bermeak eskeini eta jarduera ingurugiroari egokitze-
ko arazoak konpontzen baditu.

Prozedurarako egungo eredia mantenduko balitz, hobetu eta tramita-
zio epeak laburtu beharko lirateke, hurrengo erizpideei jarraiki:

a) Udal korporazioaren nahitaezko txostena ez da beharrezkotzat jo-
tzen zeren prozedurak udal teknikariaren txostena eskatzen bait du eta, az-
ken finean, alkatea da lizentzia ematen duena.

b) Jardueraren sailkapena jendaurreko azalpen epea bukatu arte itxa-
ron gabe egin daiteke eta horrek, aurreko kasuan bezala, tramitazio epeak
laburtzen lagunduko luke.

c) Osasun txostena udal teknikari batek egiteko aukera aurrakusi be-
harko litzateke, Udalak horretarako pertsonal gaitua izanez gero, eta horren
ezean bakarrik egingo luke Eusko Jaurlaritzak, Osakidetzak, txostena.

— Neurri zuzentzaileak jartzeko eskumenaren betearaztea udaletan or-
dezkatzeko aukera jaso beharko litzateke. Aukera hori badago hiru lurral-
de historikoetan, baina etxebizitzetarako hiri lurreko jardueretarako baka-
rrik, eta ez sailkapen eta kalifikazio desberdina duen lurrian kokatuko diren
erabiletarako.

— Aldatu egin beharko litzateke isiltasun positiboaren erregimena eta,
benetan kaltegarriak edo bereziki kutsatzaileak diren jardueren kasuan izan
ezik, epe nahikoa eta labur bat pasaturik, bi edo hiru hilabetekoa, lizentzia
emantzat jo beharko litzateke, atzerapena salatu beharrik gabe.

— Establezimendu publiko gogaikarriak zabaldu baino lehen derrigo-
rrezkoa izan beharko litzateke zaraten egiaztaketa eta neurketa egitea.

— Establezimenduak jardueraren beharrezko lizentzia izan arte konpai-
nia hornitzaileekin (ura, gasa, elektrizitatea, etab.) kontratatzeko debekua
jaso beharko litzateke. Lizentziarik gabeko jarduera klandestinoak edo jar-
dueraren beharrezko lizentzia lortu gabe jarduerari ekiten dioten establezi-

menuiak ixteko agindua ematera espreski behartatua egon beharko lirateke alkateak, hutsegite oso larritzat joaz.

